

Lezoko euskararen historia soziala Imanol Esnaola

# Lezoko euskararen historia soziala

*Ikerketa lana*



Lezoko Unibertsitateko Udala



Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala

Imanol Esnaola

**Izenburua:**

“Lezoko euskararen historia soziala”

**Egileak:**

IMANOL ESNAOLA

**Argitaratzea:**

Lezoko Unibertsitateko Udala

**Lege gordailua:**

SS - 390/99

**Azala, Diseinu eta maketazioa:**

IZU diseinu grafikoa

**Inprimaketa:**

ANTZA S.A.L. • Lasarte-Oria

# LEZOKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA

IKERKETA LANA

**1998ko uda**  
**Imanol Esnaola**



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

IZAN ALA EZ IZAN,  
HORRA HOR GURE HERRIAREN HISTORIA  
EZAUGARRITZEN DUTEN  
SOKATIRAREN BI MUTURRAK.  
LAN HAU HERRI IZATEAREN ALDEKO  
ATZO, GAUR ETA BIHARKO TIRATZAILE LEZOARREI  
ESKAINIA DA

IMANOL ESNAOLA  
99.KO NEGUA

# ESKERRIK BEROENAK

Lan hau egitea erronka handia izan da guretzat. Poliki-poliki egindako lan egitasmoa jarraituz Lezoko historiaren zoko-mikoetan sartu dugu hatza, jakinminez dagoen umeak bezala. Eta baita gustora amaitu ere. Lan hau burutzen aritu garen bitartean une atsegin asko bizi izan dugu. Herritarrekin izandako elkarriketa luze eta zintzoak, berreskuraturiko datuak, batek eta besteak esandakoarekin osatutakoak...

Lasai esan dezakegu ez dela bera gure herriaz orain dugun ikuspegia eta ikerketa egiten hasi aurretik genuena. Gauza asko ikasi dugu, eta hori ezinezkoa zatekeen hamaika herritar, eta herritarrak ez diren zenbaiten laguntza izan ez bagenu.

Horregatik bereziki eskertu nahi ditugu:

Miren Gezala, Joxe Migel Treku, Inaxio Artesoro “Zikirua”, Inaxio Artola, Pilar Lekuona, Pillare Mitxelena, Enkarnaxion Zapirain, Agustina Pontesta, Pello Garbizu, Inazio Esnal, Patxi Intxaurrendieta, Boñi Urkizu, Melintton Garmendia, Begoña Esnaola, Joseba Aurkenerena, Joxeba Urkizu, Karlos Etxezurieta, Lander Zurutuza, Mertxe Larrea, Mikel Salaberria, Joxe Manuel Odriozola, Juan Luis Olaizola, Patri Urkizu, Patxi Larrea, Iñaki Zipitria, Gotzon Urretabizkaia, Markos Eizagirre, Arantxa Larrea...

Asko izan dira, ordea, zuzenean edo zeharka lagundu digutenak, eta denak, den-denak beharrezkoak izan dira lan hau burutzeko.



# AINTZISOLASA

Liburu honi buruz ezer esateko funtsezko bi galdera dira erantzun beharrekoak:

## **1.- Nori ez dago zuzendua?**

Liburu hau ez da historia eta soziolinguistika gaietan jantzita daudenentzat sortua. Izan ere, jakitunaren begietara akatsez eta hutsunez betea izango da.

## **2.- Nola ez da irakurri behar?**

Ikerketa lan neketsuaren ondorio da lan hau, ez da, ordea, doktorego tesi bat. Bertan irizpide metodologiko zorrotzak bigarren mailan gelditu dira eta ikuspegi orokorra osatzeari zehaztasunari baino garrantzia handiagoa eman diogu.

Beraz, liburu hau herritarrek bere herriaren historiaz zerbait ikasi eta ikuspegi orokor bat emateko sortu da. Dibulgazio lan izateko asmoz egin dugu eta horri besterik ez dio erantzuten.





## LIBURUA NOLA IRAKURRI BEHAR DEN

Irakurleak aurkibidera joz gero, historia lau arotan banatu dugula ikusiko du. Aro historiko bakoitza, berriz, lau ataletan emana dator:

- \* Euskal herriaren historia
- \* Euskararen historia soziala Euskal Herri mailan
- \* Lezoko historia
- \* Lezoko euskararen historia soziala

Beraz, irakurleak bere interesaren arabera hauta dezake nahi duena, dena irakurri beharrik izan gabe. Alegia, liburu hau irakurtzeko era asko daude eta irakurleak erabakitzen du zein bide egin nahi duen.

Lezoko informazioa besterik ezagutu nahi ez duenak aski du garai bakoitzeko laugarren atalak irakurtzea.

Euskararen historia soziala Lezoko bilakaera historikoarekin batera irakurri nahi duenak, berriz, irakur bitza hirugarren eta laugarren atalak.

Gure ustez, ordea, Lezon euskararen historia sozialak egin duen bidea behar bezala ulertzeko historiaren oinarritzko zertzeladak ezagutzea komenigarria da, eta horretarako gogoia duenak hortxe ditu eskura lehen eta bigarren atala.

Zu zeu izan zaitez, irakurle, bidea hautatzen duzuna.

### **Liburuaren egituraketaz bi hitz**

Historia atalaren banaketaz gain, ikerketaren hasieran balorazio soziolinguistikoak egiteko zenbait aipamen teoriko bildu dugu. Aipamen hauek, ordea, ez dira guretzat irakurlearentzat baizik. Izan

ere, hizkuntza baten historia sozialean adierazgarriak diren gertaerak identifikatu eta baloratzeko tresna bat beharrezkoa da, eta horixe eskaini nahi izan dugu. Tresna horrek, hain zuzen, ikerlariaren eskuetan egoteaz gain irakurlearenetan ere egon behar du eta horregatik hautatu dugu gaia menderatzen ez duen irakurlearentzat ahalik eta argiena zen azalpena.

Sarritan teoria soziolinguistikoak irakurle arruntarentzat korapilotsuegiak gertatzen direnez, era erraz eta eskuragarrian ematen ahalegindu gara. Ez da erraza izaten askotan gertaera baten garrantziaz ados jartzea. Teoria honekin balorazioak egiterakoan erabili dugun neurria zein izan den agertu nahi dugu, ados egon ala ez, gure ondorioak nondik norakoak diren jakin dezazuen. Beraz, sarreratxo hori irakurtzea oso lagungarri gertatuko zaio ikerketaren zoko-mikoetan murgildu nahi duenari.

Horren ondoren liburuan erabili dugun metodologiaz zenbait azalpen ere bada. Teoria bezain garrantzitsua da datuak biltzeko modua: datuak nola eskuratu diren eta nola interpreta daitezkeen, zein arrisku duten...

Aro historikoak azterturik datu nagusien bilduma eta ondorioak biltzen dituen atala jarri dugu. Horren ondoren, gure elkarrizketetan zenbait protagonistarekin izandako elkarrizketen transkripzioa dator.

Azken bi ataletan bibliografia eta aurrerantzean, ikerketa honen bidetik jorratu beharreko gai interesgarri batzuk aipatzen ditugu.

SARRERA

Lezoar bati Lezoko historiaz zer dakien galdetuz gero, gehienek oinarrizko bi-hiru datu emango dizkigute. Lezoko lehen jauna nor izan zen edo Gurutze Santuaren jatorriari buruzko azalpen bitxiren bat, seguruaski. Gauza berdintsua gertatuko zaigu Euskal Herriaren historiaz galdetzen baldin badugu. Izan ere, herri txiki edo herri menperatuei ukatzen zaien lehen gauza memoria historikoa egin, gorde eta zabaltzeko eskubidea da. Eta horixe da Lezoren eta Euskal Herriaren kasua.

Historia irabazleek idazten omen dute. Hau da, historia borrokan irabazle gertatu denak idazten du bere garaipena arrazoitu eta menperatuaren zoritxarra justifikatzeko. Horixe da Euskal Herriari gertatu izan zaiona bere historian zehar, gure historia menperatzaileek idatzi dutela, menperatzailearen ikuspegiz, alegia.

Poliki bada ere, ordea, historiaren bertsio horren ondoan kateaz lotu gabeko historia egiten hasi gara; Euskal Herritik eta euskal herri-tarrantzat idatzitako historia; menpekotasuna bizkar gainetik astinduz geure buruaren berri ematen diguna, gazia eta gozoa.

Horixe da, irakurle, lan honetan topatuko duzuna, lezoar batek lezoarrentzat idatzitako historia. Argiak eta itzalak kontuan hartuz izan garenaren eta egin dugunaren irakurketa kritikoa, eta aldi berean, miresmen eta errespetu osoz josia.

Aspaldiko ametsa genuen honelako lan bat egin ahal izatea. Izan ere, aspaldi ohartuak ginen gure historia ezagutzea behar beharrezkoa zela aurrera jo ahal izateko. Aurrekoen huts eta "axertuak" gogotan harturik askoz errazagoa gertatzen da geroko bidea ikustea. Nahiz eta honelako lanak beti garrantzitsu gertatzen diren, are gehiago izaten dira gurea bezalako herri txikietan historia jorratu eta ezagutze-ko aukerak sarritan murriztegiak izaten baitira.

Aitor dezagun lana egiten hasi aurretik Lezori buruz genuen irudia erabat aldatu dela amaitu dugunerako. Izan ere, historiaren hosto artean arakatuz ezkutuko loreak eta ustegabeko fruituak topatu ditugu, eta ez gutxi, gainera! Beraz, lana amaitu dugunerako hasieran egindako aurrekontua baino uzta askoz ere hobea bildu dugu eta horrek biziki pozten gaitu.

Orain sentitzen dugun pozak, ordea, ezer gutxi balio izango du lanaren mamia lezoarren eskuetara iristen ez bada. Lehen esan dugun bezala, historiak bidea argitzeko lagungarri izaten da eta Lezo nahiz Euskal Herriaren bidea argitasun premia larrian dago. Lan honek lezoarrek euren burua jazteko tresna izan behar du eta hori horrela gerta dadin ahalegindu behar dugu. Horregatik, hain xuxen, lan hau ez da hemen amaitzen, bidearen erdia egin dugu eta beste erdia egiteko dago; herriratzea, alegia.

Ahalegin horretan, zalantzarik gabe, bitarteko desberdinak eta eus-kaltzaleon bultzada behar beharrezkoa izango dira. Hemen ikasi eta ikusitakoak ahoz nahiz idatziz eztabaidatu eta ezagutzera eman behar ditugu, gure seme-alaba, senide nahiz adiskideen artean ezagun bihurtzeko. Lezoarrak bere historiak jabe daitezten, azken batean.

Lan honek ez ditu galdera guziak erantzuten, ezta gehienak ere. Gure helburua galdera nagusiak erantzutea izan da, historiaren irudi oso bat eskaintzea. Izan ere, ikerketa egiten hasi aurretik bi aukera genituen begien bistan, historiaren garai eta gertaera jakin batzuetan sakontzea ala, ñabardura bila ibili gabe, gertaera nagusien haria jarraituz irudi bat osatzea. Guk bigarrenaren alde egin genuen. Horren ondorioz zenbait unetan zehaztasun falta somatuko du irakurleak, edo bertan azaltzen ez den daturen bat ezagutuko du.

Hemen biltzen dena, bada, urte beteko lana da, dedikazio mugatuz egina eta beraz, oraindik gehiago sakontzeko aukera ugari duena. Hori, ordea, etorkizunean egin beharreko lana izango da.

Beraz, atariko kontuetan gehiegi luza ez gaitzen, honetan utziko dugu aitzinsolasa eta bidenabar lanaren muineraino iristera gonbidatzen zaitugu, irakurle.



# 1. ARGIBIDE TEORIKOAK

Euskarak Lezon izan duen historia soziala azaldu, ulertu eta baloratzea, historia kontatzea baino harago doan zerbait da. Datu historikoak bildu eta bata bestearekin josten lagunduko digun argibidea behar dugu. Eguzkia eta euria batera direla ortzadarra sortzea efektu optiko bat dela diogun bezala, hemen ere gertaera historikoek era bateko edo besteko ondorioak dituztela ulertzera iritsi behar dugu. Edo, bestela esanda, euskara eta euskararen herriak gaur egun bizi duen egoera oso gertaera historiko desberdinen kateaketaren ondorio dela ulertzera.

Beraz, behar beharrezkoa dugu gertaera horiek bilatzen, aztertzen eta josten lagunduko digun tresna teoriko bat izatea esku artean. Hemen ez dugu harri bitxien bilduma egin nahi, ez eta euskara-euskaldunok bizi izandako zoritxarren zerrenda ere. Amaieran bilakaera historikoaren argazkia egitera heldu behar dugu, egoera honetara ekarri gaituzten gertaerak eta bilakaerak ulertzera. Funtsean, ikerketa honek etorkizuneko bidea egiten lagunduko digun tresna izan behar du.

Ezertan hasi aurretik esan dezagun hizkuntza, edozein hizkuntza, sortu den inguruari loturik dagoela. Beraz, inguru horretan gertatzen diren aldaketek hizkuntzan ere eragiten dute, maila linguistiko nahiz soziolinguistikoan. Bestela esanda, aldaketa ekonomiko, geografiko, sozial edo kulturelek hizkuntzaren egituraren eta erabilpenean eragiten dute.

Aldaketa butzatzen duten eragileek, noski, herri bat eta bere kulturaren iraupena ziurtatu ala galaraz dezakete. Izan ere, aldaketaren norabidea bikoitza izan daiteke.

Mugimendu hori askotan herrien arteko ukipenak eragiten du, kulturen arteko ukipenak alegia. Ukipen horren joera aldean arteko indar erlazioak erabakiko du: garapena ala heriotza.

W.F. Mackeyk<sup>1</sup> hizkuntzen arteko ukipena aztertzerakoan funtsezkotzat jotzen du ukipen harreman horretan hizkuntza bakoitzak duen estatusa. Alegia, harreman horretan zein indar duen bakoitzak, bietan

---

<sup>1</sup> W.F. Mackeyk (1976) *Bilinguisme et contact des langues*. Klincksiek.199-220 or.



indartsuenak lortuko duelako ahulenaren lekua betetzea.

Egile honek ukipen egoera batean hizkuntza baten estatusa erabakitzen duten faktoreak bi multzo nagusitan biltzen ditu: **Bultza-indarra eta erakar-indarra**. Alegia, zer nolako indarra duen hizkuntza bakoitzak bestearen lekua hartzeko eta hiztunak berera erakartzeko.

Bultza-indarren artean honako eragile hauek biltzen ditu: herri bakoitzaren indar demografikoa, populazioaren sakabanaketa, populazioaren mugikortasuna, indar ekonomikoa, ideologikoa eta kulturala.

Erakar-indarren artean, berriz: ukipenean dauden herrien bultza-indarren arteko diferentzia, bi herrien arteko distantzia geografikoa eta bi hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa.

Hauek, noski, ez dira eragile bakarrak, Mackeyk berak, ehundik gorako zerrenda egin daitekeela dio, eta guk geuk beste bi gehituko dizkiogu: 1) herri bakoitzaren presio politiko eta militarra; 2) kultura bakoitzaren indar sinbolikoa.

Irakurleak, ordea, argi eta garbi ulertu behar du edozein hizkuntzaren historia soziala egitean, eta batez ere, gurea bezalako hizkuntza gutxiagotuen kasuan, faktore andana luzeak hartzen duela parte. Eta Lezon euskarak egin duen historia soziala, gaur egun bizi dugun egoera eta etorkizunean egingo duen bidea eragile hauen arteko loturari zor zaiola.

Ikus ditzagun xeheago Mackeyren bultza-eta erakar-indarreen parte hartzen duten eragileak. Bultza-indar demografikoan hizkuntza bakoitzak duen hiztun kopurua hartzen da kontuan. Hiztun gehiago izateak, ordea, ez du esan nahi ezinbestean indar gehiago duenik, gainerako faktoreekin batera azertu behar da. Izan ere, hiztun asko izan arren ekonomikoki ahula den hizkuntza batek nekez lortuko du hiztunez urriago baina diruz aberatsagoa den herri bati nagusitzea.

Populazioaren sakabanaketa ere oso kontuan izatekoa da, ez dute indar bera geografikoki sakabanaturik dagoen eta elkarren arteko harreman urria duen populazio batek eta harreman estuan bizi den beste batek.

Populazioaren mugikortasuna ez dugu sakabanaketarekin nahasi behar. Populazio mugikorrek esan nahi du hiztun horiek oporretarako,

negoziotarako, ikasketak burutzeko... beste herrietara doazela eta, beraz, beren kultura esportatzen dutela.

Zalantzarik gabe eragile ekonomikoa da gaur egungo gizartean indartsuenetako bat. Herri baten produkzio industrialak eta kulturalak mundu mailako ekonomian duen lekuaren arabera da herri honen eragin-indarra. Noski, indar ekonomikoari loturik joaten da gehiengotan bere hizkuntzaren bultzatze-indarra.

Dena den, indar ekonomikoa ez da beti nagusi. Indar ideologikoak (politikoak, erlijiosoak, kulturalak) ekonomikoari aurre har diezaioke, edo honi lotu eta beraz, herri baten bultzatze-indarra handitu edo ahuldu egiten da ondokoaren bultzatze-indar ideologikoaren arabera.

Ekonomikoa ez den beste bultzatze-indarra kulturala da. Hots, herri batek duen kultur ekoizpena, honen maila eta honek auzoengan duen eragina. Zenbat eta ekoizpen indartsuagoa (zabalpen handiagoa) eta anitzagoa (kulturaren alor desberdinetan) orduan eta bultzatze-indar handiagoa izango du kultura horrek.

Bultzatze-indarrarekin batera Mackeyk erakar-indarrak aipatzen ditu. Ez da aski ikustea zenbatekoa den bultzatze-indarra, hiztunak edo herri bat erakartzeko aukerak zenbatekoak diren ere jakin beharra dago.

Bultzatze-indararen erakar-indarra oso aintzat hartzekoa da. Hau da, erakarmena ez dago hizkuntza bakoitzaren indararen baitan soilik, bien arteko bultzatze-indararen arteko diferentzia ere badago. Frantsesa eta ingelesa hizkuntza indartsuak izan arren, bien artean dagoen diferentziak ere eragiten du hiztunek bat eta bestearen artean aukeratu behar dutenean.

Bultzatze-indararen erakarmena gertutasun geografikoarekin handitzen da, urruntasunak, berriz, ahuldu egiten du. Alegia, zenbat eta gertuago egon, orduan eta eragin handiagoa du hizkuntza-kultura batek. Gaur egun, komunikazioaren gizartean hizkuntzarik indartsuenek (ingelesak batez ere) mundu osora hedatzearekin erakar-indarra handitu dute. Gauza bera gertatu izan da historian prozesu kolonizatzaile guzietan.

Distantzia geografikoarekin bezala, bi hizkuntzen artean zenbat eta distantzia linguistikoa handiagoa izan, alegia, hiztunentzat zenbat

eta arrotzagoa izan hizkuntza hori, orduan eta erakar-indar ttikiagoa; bere bultza-indarraren erakargarritasuna ttikiagoa izango da.

Beraz, esandakoarekin Mackeyk hizkuntzen arteko ukipen egoerak eta egoera hauen bilakaera aztertzeko eredu nahikoa argia ematen digu. Ez genuke aiantzi behar, ordea, eragile hauen ondoan indar politiko-militarraren eragina. Izan ere, bi herrien arteko harreman politikoen arabera, hizkuntza-kultura batek bestearekiko duen ukipen-egoeran gora-behera handiak gerta daitezke eta bultza- eta erakar-indarren balantza alde batera edo bestera egitea lor daiteke. Esaterako, estatuak hizkuntza bat “ofizial” izendatzearekin hizkuntza horrek botere ekonomiko, politiko eta militarraren babesak jasotzen du. Hizkuntza horretan hitz egin behar da administrazioaren aurrean, hizkuntza horretan mintzo dira komunikabideak, hezkuntza, ekonomia... eta beraz, gainerako guztiak eremu horietatik baztertuak dira (maila handiago edo ttikiagoan).

Botere politikoaren bitartez migrazioa ere eragin daiteke, populazio talde handiak eskualde batetik bestera mugitzea, eta horrek ere, eragin linguistiko eta kultural sakonak izaten ditu, beti ere hizkuntzarik ahulenaren kalterako. Bi adibide hauek bezala gehiago ere aipa genitzake; honetan utziko dugu, ordea, esan nahi genuena ulertu delakoan.

Gaur egungo gizartean, ordea, harreman politikoarekin batera Bourdieuk aipatzen duen kultura bakoitzaren *kapital kulturalak* zentzuerainoko eragina duen ulertu behar dugu. Hizkuntza-kultura baten indar sinbolikoa handia bada, eskura kulturak irenstera hel daitezke, hori gertatzeko ez da menpekotasun politiko zuzenik behar. Mugen desagerketa eta mundu mailako harreman sareaz hitz egiten den garai honetan inoiz baino nabariagoa da esandakoa. Mendebalde garatuko herriak dira gaur egun komunikazioa eta kulturaren esparru berri horiek sortu eta antolatzen dituztenak. Hortik sortzen diren harremanak nabarmen dira kultura honen indargarri eta gainerakoen ahulgarri.

Beraz, ukipen egoeran nork bere burua antolatzeko duen ahalmenak erabakitzen du kanpoko eraginen aurrean zein joera izango

duen: indartsuenaren mendean erori ala bere burua indartu gainera-koengandik ikasiz. Azken batean gaur egungo gizartean ezinbestekoa da estatu izatea bizitzen jarraitzeko. Bere ekonomia, kultura eta harremanak arautzen dituen egitura politikorik gabe hizkuntza eta herri horren desagerpena eragiteko biderik zuzenena hartzen da.

Kulturaren garrantziaz jabetzeko aski dugu Joxe Manuel Odriozolak<sup>2</sup> dioena gogoratzea:

*“Harako “herria da gorputza, hizkuntza bihotza” hari, nik neure aldetik kultura-arteriaren osagaia erantsiko nioke hizkuntza komunitatearen egitura taxutzeko. Gisa horretara, ikuspegi teoriko honek hiru zutabe izango lituzke euskaldungoaren zimentarritzat: a) gorputza-herria; b) bihotza-hizkuntza; eta c) arteria-kultura.*

*Tesi honen arabera, hortaz, hiru oinarri ditu hizkuntza-komunitateak edo hizkuntz nazioak, eta oinarri horiek bereiztezinak dira euren artean. Alabaina, euren arteko egitura pitzatzen hasten bada, gorago genioen bezala, euskal izatearen sarea desintegratzen hasiko da eta herri-nortasunaren ehuna birrindu egingo da halabearrez”*

Maila eta ezaugarri oso desberdinetako ukipen egoerak topa badaitezke ere, guri gutxiagotze egoerak interesatzen zaizkigu. Alegia, bi hizkuntza ukipenean egonik, bietako bat bestearen eraginez ahultzen ari denekoak. Gutxiagotze egoerak zeren ondorio diren eta zein ondorio dituzten jakin behar dugu, bada.

Beraz, herrien arteko ukipena, eta batez ere hizkuntz ukipena gertaera konplexu eta sakona da. Maila orotan agertzen dira haren ondorioak. Guri dagokigunez, bi mailatako ondorioak aipatuko ditugu: linguistikoak (hizkuntz ordezkapena) eta kulturalak (akulturazioa).

Ukipenaren ondorio linguistiko eta kulturaleri loturik bi kontzeptu izan behar ditugu kontuan: elebitasuna eta diglosia.

Elebitasuna oso termino konplexua da eta ikuspegi desberdinetatik

---

<sup>2</sup> J.M. Odriozola (1998) *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbao. Euskaltzaindia-BBK Fundazioa 9. or.

begiratzuz (linguistikoa, psikologikoa, juridikoa...) azalpen desberdinak dituenak, nahiz eta denak osagarriak izan. Gureari dagokionez, elebitasuna gizarte batean bi hizkuntza indarrean dauden egoera dela esango dugu. Hau da, giza-talde batean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen direnean. Noski, bi hizkuntza erabili beharrak ez du esan nahi hitzun guziek biak menderatzen dituztenik, ez eta biak maila berean menderatzen dituztenik ere, eta gutxiago biak edozein egoeratan erabiltzen direnik. Beraz, elebitasunarekin batera elebitasun egoerak eta elebidun motak ere bereizi behar dira. Alegia, hiztunek, bat-banaka, hizkuntza horren zer nolako ezagutza duten. Eta baita hizkuntza bakoitza non erabiltzen den ere, alegia, zein funtzio betetzen duen elebitasun egoera horretan.

Diglosiaren kontzeptua da, zalantzarik gabe, elebitasun edo ukipen egoeretan maizenik erabiltzen den kontzeptua. Hau da, J. Fishmanek<sup>3</sup> emandako adierari jarraituz, eta sakontasun teorikoetan edo diglosia mota desberdinak bereiztera sartu gabe, diglosia gizarte batean hizkuntza bakoitzak funtzio desberdinak betetzea dela esango dugu. Alegia, gaiaren arabera edo solaskideen arabera hizkuntza bat edo beste erabiltzea. Erabilpen hori, noski, gizarteak arautzen du eta ez betetzea gaizki ikusita dago (eta arazoak eragin ditzake).

Txepetxek<sup>4</sup> hizkuntza batek izan ditzakeen balizko funtzioen artean honako hauek bereizten ditu: identitatearena (idiolektoa), familiakoa (kolokiala), lanekoa (jergak, argotak), tokian-tokikoa (dialektoa), hizkuntza nazionala (estandar nazionala), zibilizazio hizkuntza (estandar kulturala), nazioarteko hizkuntza (nazioarteko hizkuntza behikularra). Planteamendu teorikoa bada ere, argi eta garbi erakusten digu zein diren hizkuntza batek bete ditzakeen funtzioak.

Diglosian gutxitutako egoeran dagoen hizkuntzak funtzio hauetako zenbait baino ez ditu betetzen (erabiltzen denean). Alegia, euskara historikoki administratibotik eta hizkuntza-funtzio jasoetatik bazterturik egon izan dela diogunean ez dugu esan nahi gainerako funtzio

<sup>3</sup> J. Fishman (1971), *Sociolinguistics: A brief introduction*: Rowley: Newbury House, 75. or.

<sup>4</sup> J. M. Sanchez Carrión (1991), *Un futuro para nuestro pasado*, 93. or.

horietan euskara bakarrik erabiltzen zenik, batzuetan bai, bestetan ez (merkatal harreman nagusietan, adibidez); esan nahi duguna da euskararen garapena funtzio jakin batzuetara mugaturik egon izan dela.

Txepetxen ereduari hizkuntza normalduko bada, funtzio horiek guztiak bereganatzea ezinbestekotzat jotzen da. Hizkuntza bakar baten inguruan behar dira funtzio horiek eta hortik gorpuztuko da komunitatea. Fishmanek<sup>5</sup>, ordea, beste ikuspegi batetik, hizkuntzaren biziraupenari begira, hizkuntzaren funtzio jasoak baino hizkuntzaren funtzio intimoak gorde beharra azpimarratzen du: hiztunaren eta kulturaren egunerokotasunarekiko lotura ziurtatzea (familia, lagun-arteak edo erlijioaren bidezkoa). Hona zer dioten euskaldunei buruz:

*“galzori-arriskuko hizkuntzen aldeko leialek “boterearen eta modernitatearen alorra” bereganatzeko (...) planak egiten dituzte sarri baino sarriago. Euskarari dagokionez, horrela, goimailako hezkuntzarako natur zientzietako terminologiak lantzen saiatzen dira langintza horrek Auñamendietako bi aldeetan Euskal Herri euskaldun elebakarra berriz sortuko den eguna aurreratuko egingo delako ustean.”. Eta aurrerago: “Dena den, larrialdietako lehen laguntza guztietan bezala arteri zain nagusien odoljarrio edo odol galtzea gerarazi behar da horrelakoetan lehenik, arreta nagusia olerki-aldizkarietan, astrofisikan eta nazioarteko botere-politikaren munduan nahiz erdi mailako teknologian ipini orde. Ama hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren barruti-eremu garrantzitsuenak ez dira, guztiarekin ere, estuegi definitzekoak: aitzitik, sukalde-eskaratzaz eta etxeaz gainera auzoa, oinarrizko eskola, lan-arloa eta, sarri askotan, erlijo-eremuak ere barruti honen barnean sartu behar dira.”*

Funtzio batzuen edo besteen lehentasunaz eztabaidatzea ez da gure oraingo lana, aski zaigu biak garrantzitsuak direla jakitearekin.

---

<sup>5</sup> J. Fishman: (1998) “Language Spread and Language Policy for Endangered Languages” in Howenberg, Peter H. (ed.) (1988): *Language Spread and Language Policy*. Georgetown University Press. Washinton D.C. edo JAKIN 48: “Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika” (10-11. eta 14. or.)

Beraz, utz dezagun eztabaida hori alde batera.

Azken batean era batera edo bestera esaten ari garena da hizkuntza bere inguruaren menpeko dela. Alegia, sortu den inguruari loturik dagoela eta hor gertatzen den aldaketa orok eragiten diola. Hizkuntza bat sortu deneko egoera aldatzen denean hizkuntza ere norabide horretan aldatzen hasten da. Aldaketa hori kanpoko eragileen indarrez bat batekoa edo oso azkarra denean, hiztun taldeak menderatu ezin duenean, alegia, inguruko faktoreak, ekosistema, asko aldatzen denean, hizkuntza horrentzat bizirautea gero eta zailagoa gertatzen da eta egoera berriari egokitzeko aldaketak egiten hasten da. Alegia, aldaketa ekonomiko, geografiko, demografiko, komunikatibo, sozial... handiak gertatzean giza-taldeak aldaketa eta erabaki handiak hartu behar ditu eta horrek hizkuntzan ere eragiten du.

Beraz, Lezon euskarak izan duen historia soziala egiten dugunean kontuan izan beharko ditugu eragile horiek guztiak. Une historiko bakoitzean egoera politiko, ekonomiko eta kulturala nolakoa izan den lezoarrentzat, horrek zein ondorio izan dituen herriko gizarte bizitzan... hortik, ondoren, zein aldaketa etorri den... Urtez urte, belaunaldiz belaunaldi egoera batetik nola etorri den bestea, horretan zein eragile berri plazaratu den... Lezoko euskararen historia soziala egitea, azken batean, Lezoko herriaren historia egitea da.





## 2. ARGIBIDE METODOLOGIKOAK

Lan hau egiteko izena eman genuenetik jabetu ginen ez zela ikerketa lan erraza izango. Alde batetik, antzinako dokumentazio gutxi dugulako, eta euskarari buruzko argibideak emateko gutxiago. Eta bestetik, hein handi batean ahozko iturrietatik hornitu beharko genuelako. Izan ere, euskarari buruzko kezka ia-ia mende honetakoa dugu, eta mende honetan euskarak bizi izandako jazarpenak dokumentazio gutxi sortzera behartzen zuen, badaezpada ere.

Beraz, bistan zegoen, euskarak Lezon izandako historia soziala ikertu behar baldin bagenuen, idatzitako dokumentazioa urri izango genuela eta ahozko iturrietara jo beharrean izango ginela. Egoera honek, noski, bi ondorio izan zitzakeen lanean: Lezoko edo hizkuntzari buruzko datuez soilik baliatuz zenbait gai edo une historiko aski ilun gelditzea eta bestetik, ahozko iturrietara joz gai beraren inguruko azalpen desberdinak, zenbaitetan kontrajarriak, jasotzea. Izan ere, lekukoaren esperientzia eta ikusmoldeak, memoriak... eragin izugarria izaten dute honelakoetan.

Bestalde, Lezo isolatuta bizi ez denez, funtsezkotzat jo genuen Lezoko gertaera historikoak Euskal Herriko gertaerekin batera aztertuz eta balioestea. Zenbaitetan, gainera, Lezo zuzenean aipatzen ez zuten informazioak ere Lezorako hartu ahal izan ditugu. Pasaiaiko badiari buruzko zenbait gertaera, esaterako.

Ahozko iturrietan, zalantzarik gabe, frankismoak egindako sarraskiak ondorio latzak izan ditu. Lezok kultur eta gizarte bizitza aberatsa izan arren ezer gutxi gorde da idatzita, zer gerta ere. Lezoarren memoria izan da historiaren parte handi baten gordailu. Denborak aurrera egin ahala, ordea, memoriak ere informazio asko bidean ahaztu ditu.

Ahalik eta kontu handienaz jokatu dugu ahozko informazio honekin. Sarritan, ordea, ez da erraza izan, ez baikenuen esku artean kontrastea egiteko biderik, edo informazioak nahikoa kontrajarriak zirelako. Honelakoetan, hipotesi batean oinarrituriko ondorio zehatza ematea baino nahiago izan dugu aipamen soila egitea edo bi ikuspegiak azaltzea.

Muga horiek, bada, kontuan hartzekoak dira. Izan ere, historiari buruzko edozein lan egitean hor baldin badaude ere, Lezo bezain

ttikia den herri batean eta euskararena bezain baztertua izan den gai batekin, areagotu egiten dira.

Beraz, hemen duzuna ez da Lezoko euskararen historia sozial osoa eta zehatza. Idatzizko eta ahozko dokumentazioaren argitan bildu ditugun zertzeladekin osaturiko irudia baizik. Gure asmoa zertzelada horiek irudi koherente bat osatzeko moduan antolatzea izan da.

Ziur gara lan honen inguruan hutsune ugari izango dela. Zuk zerorrek, beharbada, bat baino gehiago topatuko duzu. Ez zen gure asmoa, bestalde, gaia erabat itxita uztea, besteak beste, denbora eta dedikazioa muga estuegia zirelako. Beraz, eskertuko genuke gai honekin zaletuta gaudenok hemen falta dena herritarren ekarpenaz osatuko balitz. Zurea, bestena eta gurearekin ziur gaude historia honetan urrunago joan gaitzkeela.



### 3. Azterketa historikoa

### 3.1.- LEHEN BERRIAK - 1876

*“¿Pero realmente estoy en España aquí? San Sebastián, está unida a España como España está unida a Europa, por una legua de tierra. Es una península en península, y en ésto todavía, como en un montón de otras cosas, el aspecto físico es el símbolo del estado moral. Apenas se es español en San Sebastián: se es vasco.*

*Esto es Guipúzcoa, es el antiguo país de los fueros, son las viejas provincias libres Vascongadas. Realmente se habla poco castellano, pero sobre todo vascuence.*

*(...)Agrego que aquí hay un vínculo secreto y profundo, y que nada ha podido romper, une incluso a pesar de los tratados, esas fronteras diplomáticas, incluso a pesar de los Pirineos, esas fronteras naturales, a todos los miembros de la misteriosa familia vasca. La antigua palabra NAVARRA no es una palabra. Se nace vasco, se habla vasco, se vive vasco y se muere vasco.*

*La lengua vasca es una patria, he dicho casi una religión. Decir una palabra vasca a un montañés en la montaña, antes de esa palabra apenas eres un hombre para él, ahora sois su hermano. La lengua española es aquí una extranjera como la lengua francesa.”*

Victor Hugo (1843), Los Pirineos.

#### 3.1.1.- EUSKAL HERRIAREN HISTORIA 1876 BITARTEAN

Ez da erraza bi mila urteko historia behar bezala eta labor ematea. Dena den, eta gure helburua kontuan izanik, epe honetan Euskal Herriak bizi izandako gora-behera nagusiak ematen ahaleginduko gara.

Barka beza irakurleak, labor beharrez xehetasun eta datu ugari uzten baldin badugu bazterrean. Gure asmoa Lezoko euskararen historia sozialean eragile izan diren joera nagusiak identifikatu eta

azpimarratzea izango da, eta beraz, honakoak irakurlea zertzelada nagusiez jabetzeko hurbilpena baino ez du izan nahi.

Lau aro nagusi egingo ditugu:

- a.- Historiaurrea
- b.- Erromatar, bisigotu eta arabiarren egonaldia
- c.- Erdi aroa
- d.- Aro modernoa

Has gaitezen, bada, aroz aro historian murgiltzen.

## **Historiaurrea**

Historiaurreaz ezer gutxi baldin badakigu ere azken hamarkadetan burututako arkeologi lanek eta bertan ibilitako idazle erromatarrek utzitako lekukotzak zalantza izpirik gabe adierazten digute gaur egun Euskal Herria den honetan bazela bertan sortu eta eraikitako kultura bat. Kultura honek, edozein kulturak bezala, bazituen bere lurralde eremua, kultura eta hizkuntza.

Ezaugarri hauen artean hizkuntzarena da, oraindik orain, Euskal Herriaren antzinatasuna adierazten duen elementu nagusia. Euskararen jatorria denboraren harian galtzen da eta ezezagunak zaizkigu sorrera eta jatorria. Munduan ahaide jakinik gabeko hizkuntza dugu, eta beraz, bertan sortua dela pentsatu beharrean gara.

Honek ez du esan nahi euskal lurraldean beste kulturatako talderik bizi ez zenik, ez eta euskaldunak isolaturik bizi zirenik ere. Pentsatzekoa da, eta aurkikuntza arkeologikoek bide horretan argi egiten dute, euskal leinuek ingurukoekin bazutela harremanik, eta beraz, leinu horien hizkuntzak ere ezagutuko zituztela. Beste herrie-kin ukipenean bizi ziren euskaldunak elebidunak izan zirela ere pentsa dezakegu. Alegia, euskaraz bizi arren auzoekin komunikatzeko haien hizkuntza ere ezagutuko zutela.

Aro honen zertzeladak ematen amaitu aurretik, euskararen lurralde eremua gaur egun ezagutzen duguna baino askoz ere zabalagoa zela esan beharrean gara. Aztarna linguistiko eta arkeologikoek guztiz

babesten dute teoria hori. Menéndez Pidal, Joan Coromines edo Antonio Tovar hizkuntzalari ospetsuek Lleidaraino eraman dute garai bateko euskararen muga. Gaur egun oraindik bizirik dauden toponimoek horren berri ematen digute.

### **Erromatar, bisigotu eta arabiarrek**

Erromatarrek izan ziren euskaldunak historian sartu zituztenak. Kristo aurreko 179. urtean etorri ziren Euskal Herrira eta Kristo ondorengo V. mendean galdu zen haien Inperioa, ez ordea, haien eragina. Erromatarren ondoren bisigotuak eta geroago arabiarrek etorri ziren (714. urtea). Hiru herri hauek iraupen eta eragin desberdineko egonaldiak egin bazituzten ere, denak batera hartuta Euskal Herriaren historiaren zati handi bateko protagonista izan ditugu. Erromatar eta arabiarrek bertako populazioarekin harreman estuak izan zituzten, nafarrekin batez ere, eta euren egitura politiko, militar eta kulturean txertatu zituzten. Harreman horrek ondorio sakonak izan zituen euskal kulturaren alor guzietan.

### **Erdi Aroa**

Erdi Aroa Erromatar Inperioaren galerarekin hasi zen gorpuzten. Egitura feudala, jauntxoek eskutan zegoen boterea. Ezer gutxi dakigu orduko euskaldunen bizimoduaz. Dagoenarekin ordea, zertzelada aski argiak marraz ditzakegu. Historikoki Euskal Herrian mendialdea eta lautada bereizi izan dira. Mendialdea agorra eta txiroa eta lautada, berriz, emankorra eta aberatsa. Diferentzia honen gainean prozesu historikoak funtsezko ñabardurak hartu zituen. Izan ere, lautada, aberatsa izaki, herri ugarentzat erakargarri gertatu zen eta aberastasun horrek merkataritza eta herrien arteko harremana errazten zituen. Nafarroako hegoaldeko mugan, beraz, lehenago esan bezala, giza taldeen arteko hartuemana ohikoa zen eta ondorioz baita hizkuntzen artekoa ere. Hori horrela izan arren, Erdi Aroan euskararen mugak ez zuen atzera egin, aitzitik, lehenago euskaldunak izandako eremuetara zabaldu zen atzera.

Beraz, giza taldeen arteko harremana gero eta handiagoa izan arren, Euskal Herriak euskaldun izaten jarraitu zuen. Datu hau azpimarratzekoa da, izan ere, Erromatar inperioaren menpean egondako



herrietan erromantzeak sortzen hasiak ziren arren, ez baitzen hori gertatu Euskal Herrian. Erromantzeak Euskal Herria muga inguruetan sortu ziren eta funtzio administratiboak betetzeko erabili zen Nafarroan; horixe zen “*Idiomae Navarrae Terrae*” deitu zutenaren kasua. Ikus zer dioen honi buruz Jimeno Juriok<sup>6</sup>.

Erdi Aroan hasi zen hiribilduen sorrera prozesuak sekulako garrantzia izan zuen Europa osoan eta baita Euskal Herrian ere. Sorrera beranta izan arren, X-XI. mendeetan hiri-bilduak sortzen hasi ziren. Erregearen babesean eraikitako herri hauek tokian tokiko jauntxoaren boterea ahultzen zuten eta ordura arte nagusiki nekazaritzara bideratutako ekonomia merkataritzan ere sartzen hasi zen. Hiribilduek merkataritza eta ekoizpen berriak bultzatu zituzten, burdinolak batez ere, eta honekin ekonomiaren eta ondasunen mugimendua hasi zen. Oso garrantzitsua honako hau da ulertzea bi arazoirengatik: a) Hiribilduen sorrerak botere zentralaren eragina handitzea zuen helburu (Gaztelako edo Nafarroako erregerena), eta beraz, herritarrak botere horren menpe jarri zituen, bertako jauntxoena ahulduz. b) Merkataritza indartzeak jendearen joan etorria eta beste herrialdeekiko harremana sustatzea zekarren. Beraz, euskaldunak beste herrien hizkuntzak ezagutu beharrean izan ziren.

Erdi Aroaren garairik ilunenetan hasitako bide hau mendeek aurrera egin ahala indartu egin zen. Merkataritza geroz eta garrantzitsuagoa gertatu zitzaion Europan sortzen ari zen gizarte berriari, baita burdingintza ere, eta euskaldunak biak eskaintzeko moduan zeuden. Itsas merkataritzarekin Gaztela eta Europako itsas portuen arteko bitartekari lanetan ibili ziren buru-belarri eta burdinolak, berriz, mendialdean han eta hemen hasi ziren sortzen.

Ezin aro honen azterketa amaitu jauntxokeriaren eragina aipatu gabe. Botere antolaketak tokian-tokiko jauntxoaren esku uzten zuen bere menpeko luraren kudeaketa eta ohikoak izan ziren gehiegikeriak. Euskal Herria ez da Europako gainerako herriengandik bereizten honetan. Bandoen arteko gudak, beraz, boterea antolatzen ikuspegi

---

<sup>6</sup> Jimeno Juri (1997), *Navarra, historia del euskara*. Tafalla. Txalaparta arg. 55. or.

desberdinen arteko borrokak izango dira. XIV eta XV. mendeak sakonki astindu zituen gatazka honek eta horrek areagotu egin zuen hiribilduetako biztanle eta botere zentralaren arteko lotura. Halaber, ugari izan zen gehiegikeria hauen aurkako herritarren matxinadak.

Botere zentrala diogunean monarkiaz ari gara. Kasu batzuetan Nafarroako erregea izango da, bestetan Gaztelakoa. Dena den, ez genuke ahantzi behar garai honetan hasi zela Euskal Herria politikoki egituratzen. Behe Erdi Aroan (V-XI. mendeetan) hasi ziren euskal herrialdeak izaera juridikoa hartzen formulazio eta menpekotasun desberdinekin bazen ere (Iruñeko erreinua, Akitaniako dukerria, geroago herrialde izango zirenen lehen egituraketak...). Goi Erdi Aroan herrialde bakoitzaren izaera juridikoa eta lurraldezkoa finkatu zen (XII-XV. mendeetan). Antolaketa honen gainean Euskal lurraldeek Nafarroa edo Gaztelako monarkiarekin zituzten harremanak Foruen bitartez arautu zituzten. Foruek euskal lurraldeei legedia emateaz gain izaera berezia onartzen zieten, batez ere Gaztelako erreinuaren aurrean.

Eskumen politiko eta administratiboak, ordea, ez ziren euskararen estatusa hobetzeko erabili. Bertako jauntxoek, nahiago izan zuten latinaren eskolari loturik jarraitu administrazioa eta gainerako eginkizun “jasoetarako”. Honek ez du esan nahi jauntxo haiek latinez edo erromantzez mintzo zirenik. Honela dio Jimeno Juriok<sup>7</sup>:

*“La visión e interpretación de la realidad lingüística vasca medieval suele a menudo quedar deformada por no considerar que la documentación oficial, escrita en latín o romances, exclusiva de minorías letradas, oculta el habla de todo un pueblo que, desde el Pirineo a la Herri-berri, -incluída la ciudad episcopal, dicha Iruñea, escrita Pamplona-, se expresaba en navarro, su lengua nacional, ágrafa pero propia y común de los diocesanos y del Reino de Pamplona.”*

---

<sup>7</sup> Jimeno Jurió (1997), *Navarra, historia del euskara*. Tafalla. Txalaparta arg. 55-56. or.

## Aro Modernoa

Garai modernoan, monarkiaren indar eta eraginak handitzen jarraitu zuen tokian tokiko jauntxoaren kaltetan. Euskal lurraldeek Foruei eutsi bazieten ere Gaztelak Nafarroa inbaditu zuen (1514) eta botere zentralarekiko menpekotasuna geroz eta handiagoa zen. Merkataritzaren hedapena, hiribilduen sorrera, ekonomi ihardueretarako errege baimenak... horiek guztiak lortzeak euskaldunak erregearen ingurura biltzera behartu zituen. Ugari izan ziren, bada, gortean bizi ziren euskaldunak, bai eta Euskal Herriak Gaztelara joan-etorrian ibili zirenak ere. Euskal Herriko noblezia eta burgesia gorteari, Gaztelari, begira jarri zen.

Merkataritza izan zen garai honetako izarra. Ameriketa, Afrika edo Asiaren kolonizazio prozesuak izugarri indartu zuen ekonomi iharduera hau eta euskaldunak atzera eta aurrera ibili ziren ondasunen garraioan eta oso herri desberdinekin harremanetan. Beraz, merkataritzan edo politikan ari ziren euskaldunak erdara ikasi beharrean izan ziren ezinbestean.

Merkataritzaren ondoan burdingintzak indar berria hartu zuen. Ekonomi iharduera hauek, ordea, agerian uzten dute mendialdeko Euskal Herriaren gabezia nagusia, elikagaien eskasia eta ondorioz jakiak kanpotik ekarri beharra. Hobekuntza ekonomikoak demografi hazkundera ekarri zuen eta horrek era berean, hobekuntza ekonomikoa. Garai haietan, ordea, gora-behera handiak izan ziren eta garai oparotik gosete eta izurriterako bidea erraz egiten zen.

Menderik oparoenak XVI eta XVIII. mendeak izan ziren. Bietan koloniek egindako merkataritza izan zen eragile eta euskaldunak mundu osoan barrena barreiatu zituen.

Itsas merkataritza bideak finkatu ziren bezalaxe, XVIII. mendean lur azaleko komunikabideak ere asko hobetu ziren eta arras erraztu zuten beste herriekiko harremana.

XIX. mendeak, ordea, lehentxeago aipatu dugun botere zentrala eta bertakoaren arteko tentsioa lehertzea ekarri zuen. XIX. mendea antzinakoa eta modernoaren arteko lehiaren mendea izan zen. Ilustrazioak ereindako haziarekin eta Frantziako Iraultzak eragindako

zurrunbiloarekin Euskal Herriaren eskumen politikoak indarrrik gabe uzteko saioak hasi ziren. Europa osoan lehertu zen tentsio horretan gizartearen antolaketa zaharra eta modernoaren arteko tenka zegoen eta Foruak indarrrik gabe uzteko prozesu osoa horren erakusle argia da. Frantziako Iraultzak forurik gabe utzi zuen Ipar Euskal Herria eta geroago Hegoaldearen txanda iritsi zen. Foruak indarrrik gabe utzi eta aduanak kostara eramateak (1841), besteak beste, ongi adierazten du zein zen orduko agintarien ikuspegia.

Garai honetan Euskal Herriak gora-behera militar ugari bizi izan zuen. Frantsesak, ingelesak, San Luisen 100.000 semeak, Espainiako armada... guziek pasa behar izan zuten Euskal Herritik. Mende gatazkatsua izan genuen Euskal Herrian eta atzerriko indar militarrek batera eta bestera ibili ziren. Gora-behera hauek guziek atzerritar ugari ekarri zuten gure Herrira eta hor ere izan zen ukipenik eta kanpoko hizkuntzak ezagutzeko aukera.

Ezin dugu amaitu garai honen aipamena Industria Iraultzaren lehen aldia kokatu gabe. Aspaldiko tradizioa zuten burdinolak zaharkiturik, XIX. mendean Bizkaiko burdin meategien ondoan industria indartsua sortu zen, Bilbo merkatal gune zuela. Prozesu honen itzalean Euskal Herriko historian hiru elementu berri sartu ziren: klase borroka (burgesia eta langileriaren sorrerarekin), etorkin oldeak, eta hiri modernoa (Bilbo).

Urrats honek Euskal Herria gizarte industrializatuen bidean jarri zuen eta horrek ondorio soziolinguistiko nabarmenak izan zituen.

Beraz, amaitzeko esan dezagun historiaren aro luze honetan, bertan sortutako hizkuntza eta kulturak erronka ugari izan zuela aurrean eta bere atzerakada, eremu euskaldunaren murriztea, botere politikoaren ahaleginari loturik egon zela (bertako zein atzerriko).

Zentralismoaren iharduna, eragina, bereziki indartu zen Borboiak agintean jarri zirenetik. Borboiekin batera etorritako estatuaren kontzeptio modernoak, estatuaren funtzionamendu zentralizatu eta homogeenak, euskaldunon bizimoduaren gaineko eragina areagotu zuen: merkataritzarako baimenak, antolaketa administratiboa, hezkuntza, ilustrazioa, armada, hedabideak... Izan ere, ilustrazioaren

helburu nagusietako bat estatuaren menpeko populazio guzia homogeneizatzea zen eta horretarako herri hizkuntza guziak desagertarazi behar ziren. Hizkuntza horien ordez estatuaren hizkuntza ofizialak (frantsesa eta espainola) jarri nahi zituzten. Honela zioen Iraultzaren ondoren sorturiko Salbazio Publikorako Batzordeak “rapport Barére” delakoan (1794):

*“Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton; l’émigration et la haine de la République parlent allemand; la contrerévolution parle l’italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d’erreur.”*<sup>8</sup>

### 3.1.2.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA 1876 BITARTEAN

#### **Euskara antzinatean**

Orain 3.000 urte euskarak hizkuntza ez indoeuroparrak zituen batipat bere inguruan. Euskararen lurraldea, ordea, ez zen gaur egun duena, askoz zabalagoa baizik eta euskara zen jatorrizko hizkuntza gaur egungo Euskal Herrian eta baita Akitanian, Pirinioetan Lleidaraino, Errioxan eta Burgosen ere.

Eki-Europatik etorritako herrien migrazioekin euskararen auzo hizkuntzetan indoeuroparrak nagusitu ziren. Bilakaera historikoak hizkuntza hauek eta euskararen arteko harremana estuagoa egin zuen eta euskara garai bateko indarra eta hedapena galtzen hasi zen. Dena den, oraindik bizirik daude garai haien aztarnak, batez ere leku-izenetan.

Euskararen jatorria historiaren zoko-mikoetan barna galtzen da, ez zaio ahaide ezagunik topatu munduan ezagutzen ditugun hizkuntzetan. Eta, beraz, pentsatzekoa da bertan sortua dela.

<sup>8</sup> Torrealldai (1998), *El libro negro del euskera*. Donostia, Txarttalo. 20. or.

## Erromatarren garaia

Erromatarrek iritsi zirenean Pirinioen bi aldeetan euskaraz bizi zen herri bat topatu zuten. Erromatarrek ez ziren euskaldunek eza-gutu zuten lehen herria, bai, ordea, indartsuena. Lehenago hemen ibiliak ziren, besteak beste, zeltak eta iberoak. Erromatarren eragina beste herriena baino sakonagoa izan zen, ordea. Erromatarrek egonaldi luzea egin zuten eta sakona izan zen garai hartan Europako kulturarik indartsuena zenaren eragina: hizkuntza, nekazaritza, administrazioa, ekonomia... Erromatarren ekarpenaren zordun da gaur egungo mendebaldeko kultura eta baita euskal kultura bera ere.

Erromatar kulturaren oinarria zen latina inperioarekin batera zabaldu zen. Zabalpen horretan parean jarritako hizkuntzen desagertzea ekarri zuen eta Europa osoan latinaren gainean eraikitako hizkuntza eta kulturak sortzen hasi ziren. Euskara izan da gaur egun arte latina eta erromantzeen indar berdintzaileari ihes egitea lortu duen hizkuntza bakarra. Bide horretan, ordea, euskarak lurraldeak eta ahaideak galdu ditu. Gaur egun badakigu Akitanian hitz egiten zen hizkuntza euskararen ahaidea zela. Hura desagertu egin zen eta gaskoinera sortu haren lekuan.

Sarreran azaldu dugun eskemari jarraituz, latinak euskararen aldean bultzatzen eta erakarritzen handiagoak zituen; izan ere, Erromak bazekien bere esku zeuden tresnak nola erabili arrotzak (euskaldunak, esaterako) erromatartzeko. Joseba Intxaustik<sup>9</sup> dioenez:

*“armada, galtzada-bideak, egokitzapen eta harreman ekonomikoak, bizilagunen hiri-erromatartzea eta hizkuntz eta kultur aldakuntzak izaten ziren bertakotarren nortasun etnikoa itxuraldatu biztanleria erromatartzen zuten faktore nagusiak.”*

Honen arabera hiritar-zuzenbidea eta hizkuntza ziren asimilaziorako eragilerik handienak eta orduan egon zen euskara desagertzeko arriskurik handienean, erromatartzeak latina ikastea baitzekarren eta

<sup>9</sup> Joseba Intxausti (1990), *Euskara Euskaldunon Hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza. 48. or.

elebitasunak hizkuntz ordezkapena. Orduko euskaldunak Erromatarren armadan, ikastetxeetan eta administrazio kargutan ibili ziren eta buruzagi euskaldunen artean euskarazko izena latinera itzultzeko joerak ere indarra hartu zuen.

Erromatar Inperioa prozesu hau Euskal Herrian erabat burutu aurretik galdu zen eta, beraz, ez zuen beste lekuetan adina eragin. Eragina, bestalde, ez zen homogenea izan, mendialdean lautadan baino harreman gutxiago izan zuten erromatarrekin eta ondorioz erromatartzea ahulagoa izan zen.

Erromari buruzkoak utzi aurretik kultura honek, eta batez ere honen sinbolo nagusi ziren hirien sorrerak, euskararentzat ekarri zuena aipatu behar da. Hirietan bildu zen erromatar zibilizazioa eta hizkuntza. Latina izanik Inperioaren kultur tresna laster gelditu zen agerian hizkuntza bakoitzaren funtzioak zein ziren. Une honetan jarri behar dugu euskararen diglosia historikoaren lehen urratsa. Kale-mendi, Latina-euskara dikotomia aurrerantzean azalduko ditugun une historiko guzietan agertuko da. Honekin, ordea, ez dugu esan nahi hirietan euskaraz hitz egiten ez zenik, latina erabiltzeko guneak sortu zirela baizik.

## **Erdi Aroa**

Erromaren desagertzeak bost mendez nagusi izandako estatuaren galera ekarri zuen. Botere eta egitura hutsune horrek, ordea, ez zuen luzaroan iraun. Feudalismoan oinarriturik, tokian tokiko jauntxoek esku geratu zen ordurarte Erromaren esanetara egondako Euskal Herria eta beraz, aukera aparta izan zen euskarari bere herrian zegokion lekua emateko. V-VII. mendeetan Erromaren indarra ahultzearekin batera euskararen indartzea etorri zen, euskaldungoa handitu eta hedatu egin zen, latinak bereganaturiko lurretaraino iritsiz, beraz, euskarak kuantitatiboki eta kualitatiboki maila igo zuen<sup>10</sup>.

Indartze honek, berriz, ez zuen boterearen aldeko jarrerarik izan eta beraz, ezin izan zitzaion joera horri eutsi. Orduan hasi ziren sortzen

---

<sup>10</sup> Joseba Intxausti (1990), *Euskara Euskaldunon Hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza. 57. or.

Iruñeko Erreinua eta Baskoniako Dukerria. Aginte berriak, ordea, nahia-go izan zuen latinaren bidea jarraitu eta geroago erromantzeena; bertako agintariek euskara baztertu zuten administrazio lan nagusiak egiteko.

Latinak utzitako lekua latinetik sortutako hizkuntzek bete zuten eta euskarak bere burua erromantzez inguraturik ikusi zuen (Gaskoiera, Nafar-Aragoiera, Gaztelera). Erromantze hauek izan ziren latinak utzitako hutsunea bete zutenak administrazio mailan eta beraz, euskara bazterrean gelditu zen berriro ere. Honek, ordea, ez du esan nahi erromantzea zenik bertako hizkuntza. Euskal Herria garai hartan osoki euskalduna zela adierazten digun hamaika datu bada. Horren adibide ditugu Nafarroako Antso Jakitunak euskara “lingua navarrorum” izendatzea eta berau nafar herri gehienaren hizkuntza dela aitortzea (1167) edo Gaztelako Fernando III-ak, auzitegietan euskara erabiltzeko emandako baimena Errioxako euskaldunentzat (1239). Gaur egun ez dago inolako zalantzarik garai hartan Errioxa Garaia euskalduna zela esateko.

Errealitate euskaldun hori kristautzeari buruz ditugun datu apurrekin indartzen da. Erromatarren garaian hasitako kristautzea Inperioa galdu ondoko mendeetan sakonduz joan zen. Latina zen eliza erromatarraren hizkuntza eta hor zuen predikatzeko hizkuntza bakarra. Elizaren elebakartasuna Europa mailan tokian tokiko hizkuntzak desagertu eta latina nagusitzeko tresna oso eraginkorra izan zen. Euskal Herrian, aldiz, badirudi nahikoa lan izan zutela latin hutsean predikatzeko eta euskaraz egin behar zutela orduko eliz-gizonek baldin eta euskaldunengana iritsi nahi bazuten. Joseba Intxaustik<sup>11</sup> ematen digu horren berri Eutropioren idatziak aipatuz.

Honek ez du esan nahi euskara zenik garai hartan Euskal Herrian hitz egiten zen hizkuntza bakarra. Hiribilduen sorrera eta hiribilduak elkarrekin lotzen zituzten merkataritza bideek nahiz Santiagoko erromes bideak Euskal Herrira Europa osotik etorritako artisau, merkatarri eta erromesak bildu zituen. Besteak beste, hiribilduen sorreran

---

<sup>11</sup> Joseba Intxausti (1990), *Euskara Euskaldunon Hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza. 57. or.



inguruko herrietatik etorritako artisauek hartu zuten parte, batez ere gaskoin eta juduek. Donostiaren sorreran, esaterako, gaskoin artisauek protagonista izan ziren.

Erdi Aroko garairik ilunenean latina eta erromantzeak hizkuntz funtzio jasoetarako nagusitu baldin baziren ere, denek, jauntxoek nahiz herri xeheak, euskara zuten eguneroko komunikazio hizkuntza: Honela diosku Jimeno Juriok.<sup>12</sup>

*“es innegable que el vascuence fue lengua de comunicación oral normal y habitual entre los naturales de gran parte del Reino durante toda la Edad Media y aún después. Fue única entre los habitantes de la Montaña. Pero su conocimiento y uso en modo alguno quedó restringido a este ámbito geográfico y social. La lingua navarrorum se habló en ciudades y villas importantes (...). Fue hablada también por personalidades navarras pertenecientes a estamentos sociales privilegiados.”*

Erdi Aroaren bigarren aldian (XII-XV. mendeetan) lurralde historikoak eta hauen egitura juridiko-administratiboak eratu ziren. Oraingoan ere, euskarak ez zuen lekurik izan. Beraz, Erdi Aroan Euskal Herria euskalduna izan arren latinak eta erromantzeek dute estatus indartsuena administrazioan eta hizkuntz funtzio jasoetan.

## Aro Modernoa

Aro modernoan Europa osoa astindu zuten ekonomia, politika, erlijio eta filosofia mailako aldaketa handiak gertatu ziren. Aldaketa horiek zuzenean eragin zuten orduan European hitz egiten ziren hizkuntzen etorkizunean, eta, noski, euskararenean ere bai. Estatu berrien sorrerak eta erlijio borrokek protagonismo berezia izan zuten bilakaera politiko eta linguistiko horretan.

Erreformazaleak lehenik eta Kontraerreforma geroago, tokian tokiko

---

<sup>12</sup> Jimeno Jurio (1997), *Navarra, historia del euskara*. Tafalla. Txalaparta. 64. or.

hizkuntzan predikatu beharraz ohartu ziren. Honela, bada, erlijioaren beharrek eraginda euskaraz idatzitako lehen liburuak argitaratzen hasi ziren (Etxepare (1545), Leizarraga (1571), bide batez euskaraz idatzitako literaturari ateak zabalduz. Lehen idazlanak elizgizonek egin baldin bazituzten ere berehala etorri ziren idazle laikoak (Sarako Joannes Etxeberri, Oihenart...).

Euskarazko literaturan Ipar Euskal Herria XVI eta XVII. mendeetan aitzindari izan zen, Hego Euskal Herria, berriz, XVIII-XIX.etan. Batzuek euskaraz idatziz, besteek euskararen alde idatziz nahiz euskara bultzatuz, ordura arte ezagutu gabeko mugimendua sortu zen Euskal Herrian. Mugimendu horren protagonista izan genituen aipatutako egileez gain, Sara-Donibaneko eskola, Etxeberri Ziburukoa buru zutela; Garibay, Mina eta Larramendi apologistak, Oihenart legegizona, Joana Albret erregina, Kardaberaz, eta beste hamaika pertsonaia garrantzitsu.

Horrek, ordea, ez du esan nahi aldaketa kualitatiborik gertatu zenik euskararen egoeran. Izan ere, euskarak funtzio jasoetatik kanpo jarraitzen zuen ordura arte bezala. Aipatu beharrekoak dira Espainia zein Frantzia gaztelera eta frantsesaren alde nahiz gainerako guziak baztertzeko egindako ahaleginak. Nebrija gramatikagileak Espainian Errege-erregina Katolikoei Ameriketako lurretan elebarkatasuna bultzatzeko eskaera egin zien eta euskararen kontra gogor saiatu zen. Frantzia, berriz, Frantzisko I-ak Villers-Cotterêteko ordenantzak jarri zituen indarrean (1539). Ordenantza hauen hasierako asmoa administrazioa eta bere menpekoen arteko harremana, latina baztertuz, tokian-tokiko hizkuntzan burutzea zen; egitez, ordea, erregearen hizkuntzaren onerako eta gainerako guzien kalterako erabili zen.

Dena den, tokian-tokiko hizkuntzen aldeko joeraren nahiz erlijioaren babesean, ordura arte itxita zegoen bidea zabaldu zitzaion euskarazko literaturari. Urrats honen emaitzek berehalako aldaketarik ekarri ez bazuten ere, epe luzera eragin garrantzitsua izan zuten. Izan ere, garai honetan eman zitzaion hasiera euskaltzaletasun idatziari. Hasiera apalak urrats sendoagoi bide egin zien.

Ez dezagun pentsa, ordea, administrazioan euskarak bizi zuen bazterketak ezinbestean handikien artean euskara baztertzea zekarrenik. Erdi Aroan nahiz garai honetan euskara zen herri xeheak zein handikiek eguneroko bizitzan zerabilten hizkuntza eta erdara, berriz, idatzizko betebeharretan nahiz botere zentralarekin harremanetan erabiltzeko zen. Aro honetan gortearekin euskaldunek harreman ugari izan zuten eta ohikoa zen euskaldunak topatzea administrazioan zein armadan.

### **Aro garaikidea**

Europa osoa astindu zuen Frantziako Iraultzak, baita Euskal Herria ere. Aldaketa eta gatazka aroa izan zen. Euskal Herriari dagokionez, aurreko aroan hasitako joerei eutsi zitzaien, batetik euskal literatura-ko ekoizpena ugaritu egin zen, bai eta euskararen aldeko lanak ere. Eta bestetik, botereak euskara baztertzen jarraitu zuen, geroz eta sendago.

Beraz, euskararen aldeko indarrak handitu baziren ere, euskararen bazterketa eta gutxiagotzea indartzeko balio izan zuten elementu berri eta oso indartsuak sortu ziren. Izan ere, ilustrazioaren ideiek, eta batez ere Frantziako Iraultzaren ondoren egiten hasitako politikak, “berdintasuna” eta zentralismoa hartu zituzten funtsezko sinbolotzat. Berdintasunaren izenean poliki-poliki geroz eta indar handiago hartuko du homogeneousazioaren ideiak. Alegia, ilustrazioak botere bakarra eta hizkuntza bakarraren aldeko apostua argi eta garbia egin zuen.

Horretarako bi tresna izan zituen esku artean: a) “Hizkuntza ofiziala”. Alegia, legez hizkuntza bat izendatzea estatuaren hizkuntzarako eta b) herritar guztiak hori ezagutzera behartuko zituen tresna: Hezkuntza. Hiritar guzietan ilustrazioaren berri eman eta gizarte berriak eskatzen zuen moduko gizakia eraikitzeko bitartekoa. Beraz, ilustrazioaren itzalean sortutako botereak euskara desagertarazteko inoiz ezagutu gabeko tresnak jarri zituen indarrean, eta herri xehearengan eragiteko inoiz baino gaitasun handiagoa izan zuen.

Karlismoa egoera honetaz baliatu zen, euskararen gaia bere

programa politikoan sartuz, liberalismoaren aurkako tresna moduan erabiltzeko. Hor hasi zen euskara dimentsio politikoa hartzen, eta karlistekin ezer askorik lortu ez bazen ere, geroago sortuko zen mugimendu nazionalistaren oinarrietako bat jartzeko balio izan zuen.

Araban euskararen atzerakada XVIII. mendean gertatu baldin bazen, XIX.ean Nafarroari egokitu zitzaion txanda. Mendialdeak, berriz, euskalduna izaten jarraitzen zuen, batez ere herri ttikietan. Horren lekuko ditugu N. Velascok (1879)<sup>13</sup> 1866-68an egindako euskal hiztunen estatistika. Orduko estatistika fidagarrienetako bat dugu eta Euskal Herri osoa biltzen du. Datuek diotenez euskaldun gehienak Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan zeuden (biztanleriaren % 82,73a, Nafarroan % 19,98 eta Araban % 9,59). Gipuzkoari buruz ari dela, argi eta garbi dio denek ezagutzen dutela euskara eta gehienek erabiltzen dutela eguneroko bizitzan. Honela dio:

*“La lengua del pueblo vasco es el vascuence, y aun las clases altas del país que viven en las capitales y pueblos más importantes, lo hablan también siquiera no lo usen siempre en su habitual comercio. De las 176.297 almas que poblaban Guipúzcoa al realizar este acensamiento, creo bastante exacto calcular, por los datos adquiridos, que las 170.000 hablaban el vascuence y entre ellas las 140.000 hacían uso casi exclusivo de esta lengua en sus diarias relaciones”*

---

<sup>13</sup> Velasco, N. (1879), *Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Barcelona. 479-490. or.

### 3.1.3.- LEZOREN HISTORIA 1876 BITARTEAN

#### **Aurre historia**

Lezoren sorrera aurrean lur eremu honetan zer zegoen edo nor bizi zen jakitea ez da erraza, ez baitago inolako dokumenturik. Badiak eskaintzen duen babesa eta Jaizkibel mendiaren larreak ikusita pentsatzekoa da garai batean hemen bizi ziren euskaldunak artzainak izango zirela. Horixe da, behintzat, Euskal Herriaz ditugun datuek adierazten digutena eta horixe da Lander Zurutuza Lezoko liburuzain eta historiagile saiatuak uste duena.

Lezon aurrehistoriaz dugun aztarna bakarra orain 4.000 urteko aizkora labandua da, 1964an Orbegozo egiteko lanetan topatu zutena. Horrezaz gain Jaizkibel mendian bada zenbait aztarna arkeologiko, guziak ere artzain kulturakoak.

Erromatarrak dira inguru honen berri ematen diguten lehenak. Hortik dakigunez Lezo Vasconiaren lurralde eremuan zegoen, nahiz eta muga argirik ez egon.

Badirudi Bidasoa-behera dela Gipuzkoan Erromatarrak gehien ibilitako ingurua, batez ere, Arditurriko meategien inguruan. Hau dela eta, hipotesien artean dago Erromatarrek Lezon bertan portua izatearena, gaur egun San Joan Bataiatzailearen parroki eliza dagoen muino horretan, esaterako. Zoritxarrez eliza barnean zein kanpoan egindako txikizioek hipotesi hau bertan frogatzea eragotzi dute betirako.

#### **Lezoren sorrera**

Lezo Alfonso VIII. aren garaian sortua da, 1203. urtean, Hondarribiaren agindupean jarri zituenean Irun, Pasai Donibane eta Lezoko lurak. Guillermo Lazon gaskoina izan zen Lezoko lurren ardura hartu zuena, nahiz eta honen gaineko aginte nagusia Hondarribiaren eskuetan egon. Sorrera garaian Lezok eta Pasai Donibanek oso harreman estua izan zuten, ez soilik administrazio kontuetan, baita izpiritualetan ere, Lezoko parroki elizaren ardura-pean baitzeuden bi herriak. Batasun horretatik liskar ugari etorri zen eta 1557an Lezo eta Donibane bereizi ziren.

**Bilbao. — Procesión. — Zumalacárregui***Bilbao, 25 de septiembre de 1840.*

Al día siguiente de mi llegada a Azpeitia me sorprendió ver la muchedumbre de los campesinos, que, pífanos y tamboriles a la cabeza, abandonaban el pueblo. Habiendo preguntado al posadero dónde iban aquellos alegres emigrantes, supe de su boca que iban a Lezo, pueblecillo situado a una legua de San Sebastián, para celebrar la fiesta de la exaltación de la Cruz. Me refirió de qué manera se conservaba en la iglesia del lugar un milagroso Crucifijo, muy venerado por todos los marinos vascos, y acabó por decirme que lo mejor que podía hacer es ir también a Lezo, porque la fiesta en cuestión no había podido celebrarse durante la guerra civil; no podía menos de resultar esta vez muy animada y brillante. Dejéme convencer también; me paseaba con Agustín por las callejuelas de Lezo en medio de una innumerable multitud de campesinos que habían acudido de todos los puntos de la costa. La iglesia era la décima parte de lo que se necesitaba para aquella afluencia de devotos; los inmensos candelabros colocados en el estrado de los altares no tenían bocas bastantes para contener los cirios votivos que se llevaban. Una legión de monaguillos se afanaban rascando con las uñas los chorretones de cera que corrían por todas partes. De lo alto de la bóveda colgaban innumerables hilos, a la punta de los que las almas piadosas habían suspendido barquitos empavesados de mil colores, ya para cumplir algún voto hecho en el mar, ya para implorar la vuelta de un ausente. Por la tarde, el milagroso Crucifijo fué llevado en procesión todo alrededor de Lezo, y contrastaba singularmente con el fervor de la muchedumbre la bulliciosa alegría de un grupo de mocetones que llevaban en la mano vejigas hinchadas y se divertían en

Autonomia maila handia izan arren, Hondarribiaren menpeko izateak ez zituen asebetetzen lezoarrak eta 1818an Lezok udalerrri izatea lortu zuen. Garai hartan Lezok nekazaritzan edo portugintzan aritzen ziren 120 sendi zituen.

Lazondarrak, ordea, ez ziren bakarrik etorri. Inguru honetan, IX. mendetik hasita, gudari frantses eta kortsariak (Ipar Euskal Herritik etorritakoak ote?) maiz erasotu zuten Bidasoa-Pasaia inguruko kostak. Arazo hau konpondu eta erasotzaileei aurre egiteko Alfonso I. Katolikoak Fortunato de Villaviciosa Armada Kapitainaren semeak bertan bizitzera bidali zituen. Villaviciosatarrak laster herritartu ziren. Arizabalo eta Peltain sendietako alabekin ezkondu, ondorengo luzea eta garrantzitsua utzi zuten Lezon. Datu hau ez da azalekoa, aurrerago ikusiko dugun moduan, herriaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat izango baita atzerritarrak bertakotzea.

Pentsatzekoa da, dena den, orduan ohitura zen bezala, Lazon gaskoina ez zela bakarrik etorriko, harekin gaskoin artesau eta langileak ere etorriko zirela. Beste hainbat hirien sorreran gertatu bezala, Donostiaren kasuan esaterako, gaskoin hauek izango ziren hasiera batean herrian bizi zirenak. Hau, ordea, hipotesia baino ez da.

Lezon ez ziren Gaztelako Erregeak bidalitako jauntxoak soilik bizi izan. Pedro de Vizcaya Iruñeko Antxo Gartzes II.a Abarkaren kapitain gisara egin zuen borroka Amet Mulei mairuaren kontra. Gudari honek bere deitura daraman Bizkaia auzoan jarri zuen bizilekua, Erregek emaniko agindua jarraituz.

Lezoren sorreran erregeen eraginaz gain, oso kontuan izan behar dugu Lezo Baionako apezpikuaren eliz barrutian sartuta zegoela. Seguruaski erromatarren garaitik zetorren banaketa horren ondorioz, etorri ziren gaskoinak, eta seguruenik Lapurdiko apaizak izango ziren bertan kristautze lana egin zutenak.

Merkataritzak ekarri zuen mugimenduaz aurrerago hitz egingo badugu ere, kristautasunaz ari garelarik aipagarria da Santiago-bidean zihoazen erromesen artean Lezok zuen erakarmena. Erromesaldia indarrean zen bitartean ugari izan ziren Lezora etorritakoak; beraz, lezoarrek ohiko harremana zuten beste herrietako erromesekin.

Erromesok, Lezo utzi eta txalupan joaten ziren Herreraraino handik Donostiara bidea oinez jarraitzeko.

Lezoren ibilbide labur honetan bada aipatu beharreko kontu garrantzitsu bat, gure gaiarekin zuzenean loturik dagoena. 1805 eta 1814 bitartean Espainiaren aginduz Lezo, Irun, Hondarribia eta Pasai Donibane Nafarroaren menpe jarri zituzten Nafarroak itsas-portu bat izan zezan. Nafarroaren menpeko lurraldea izanik, inguru honetan erdara nagusi zela argudiatuz, apaizak izendatzerakoan erdaldunak izan zitezten eskatu zuten Nafarroan. Izan ere, garai hartan administrazio gaietan arretaz zaintzen ziren, erdararen alde zirenean, halako kontuak. Gai hau, dena den, sakonago ikertuko dugu aurrerago.

### **Lezoko pertsonaia ospetsuak**

Lezok pertsonaia ospetsu ugari izan du bere historian zehar. Herria sortzeko ardua izan zutenetik hasita, XIX. menderate asko izan ziren Gaztelako gortearen administrazioan eta egitura militarretan ibilitakoak. Kolonialismoaren eta itsas-merkataritzaren ahultzeak, berriz, estatu zentralarekiko lotura hau ahuldu egin zuen, eta bestelakoak izan ziren Lezoko herriak eman dituen gizon eta emakumeak.

Guillermo Lazon ez zen bakarrik etorri. Harekin batera Miguel eta Juan Alcayaga etorri ziren, Espainiako erregearen alde Navas de Tolosan borrokatuak. Datu honek hasieratik lotzen ditu herriko jauntxoak eta Gaztelako koroa. Izan ere, sorreratik bertatik lotura hori oso estua izan zen eta indarrean iraun zuen mende luzez. Gehiegitxo litzateke izen guzien berri ematea eta gutxi batzuk hartuko ditugu esandakoaren adibide.

Villaviciosotarrak, esaterako, gerrate eta armada kontuetan sonatuak izan ziren belaunaldiz belaunaldi. Ez sendi hau soilik, ordea, hauekin batera baita Lazondarrak ere, edo Borda eta Darieta base-rietako seme zenbait...

Militarrez gain kulturarekin loturikoak ere ugari izan ditugu, batez ere Isastitarrak, Koroarekin lotura estua zutenak, hauen artean batez ere Onofre Isasti Carlos V.aren laguntzaile edo Lope Martinez



Isasti idazlea (XVI-XVII. mendeetan bizitua), Francisco Gainza, XVII. mendean Irungo erretore eta idazlea, Eugenio Ochoa idazle, historiagile eta politikaria...

Lezon jauntxo ugari bizi izan zen eta leinu hauen artean euskal deiturak nagusi ziren: Alcayaga, Arpide, Avendaño, Apaiciarza edo Yarza, Bizcaiarena, Borda, Darieta, Gaviria, Isue, Mancia de Rementari, Martindegui, Michelcorena, Murudiareta, Nafarche, Oyanilleta, Sarasti... Denak edo ia denak gaur egun baserrien izenak dira.

Horiez gain gogoan izan behar ditugu Miguel de Iturain pilotoa, Jaimes de Zamora tratadista, Juan Nuñez de Yerobi merkataria, German de Ugarte inkisidorea, Domingo de Lezo kanonigoa...

Itsas iharduerak oparoak izan ziren garaian eman zituen Lezok herritik kanpora ere ezagun bihurtutako herritar gehienak.

### **Lezo eta itsasoa. Ekonomiaren motore**

Lezoren historian itsasoa benetako eragilea izan da. Itsasoari eta itsas iharduerari loturik egon zen Lezoko herriaren bizitzaren zati handi bat, garai guziak berdinak izan ez badira ere. Hiri bilduen sorrerarekin, Penintsula eta Europa iparraldeko portuen arteko merkataritza hasi zenean, XI-XII. mendeetan, kostan zeuden herriek aukera aparta zuten merkataritza horretan parte hartzeko. Lezo bera, kokapen ezin hobean zegoen eta horren alde gogor saiatu zen, batez ere erregeen merkataritza baimenak eskuratzeko. Gai honi buruz, honela dio Lander Zurutuzak<sup>14</sup>:

*“Hain zuzen ere XVI. eta XVII. mendeetan lezoarrek aurrerapen handia ezagutu zuten, besteak beste Espainiako erregeengandik erdietsitako itsas-eskubideei esker. Herriaren garapena Pasaiaiko portuarenarekin bat zetorren. (...) harreman estuak eduki zituzten Andalusiako (Cadiz, Sevilla) eta Ameriketako portuekin (Habana, Veracruz, Puerto Cabello, Buenos Aires...)”*

<sup>14</sup> Agirretxe, Esnaola (1994), *Euskara Lezon*. Lezoko Udala, 8. or. Lander Zurutuzaren sarrera.

Ikusi berri dugunez, lezoarrek harreman estua izan zuten gortearekin, eta besteak beste, merkataritza interesak eta baimenak eskuratu beharrak eraman zituen haraino. Beraz, lezoarrak arrantzale eta merkatarari izan ziren. Dena den, ziurrenik merkataritzarekin lotuago arrantzarekin baino. 1525ean Pasaia eta Lezok itsas merkataritzarako baimena eskuratu zuten. 1597. urtean Lezon errege-untziolak eraikitzen hasi ziren Espainiako erregearen aginduz Urquiola eta Idiakez zirelarik lanaren arduradun. Beraz, XVI eta XVII. mendeak paroak izan ziren Lezoko ekonomiarentzat.

XVIII. mendeko krisialdiaren ondoren, berriz, itsas iharduerak baino garrantzitsuagoa izan zen nekazaritza lezoarrentzat. Honen aurretik, ordea, Lezok historia joria bizi izan zuen Itsasoarekin duen harremanean. 1641 eta 1750. urteen artean hildako lezoarren % 18 baino gehiago itsasoan edo Euskal Herritik kanpo hil ziren. Lehenik Flandrian eta Ingalaterran, ondoren Asian eta Ameriketean, lezoarrak nonnahi ibili ziren mende haietan. Horren adibide dugu, esaterako, San Joan Bataiatzailearen eliza barruko hilerriko hondarren artean topaturiko tabakoa erretzeko pipa mordoa (Ameriketean ikasitako ohitura), ikerketa honen egilea horren lekuko.

Esandakoarekin ideia bakar bat baino ez dugu adierazi nahi. Lezoarrek munduan barna egindako ibileretan beste herrietako ohitura eta eraginak jaso zituztela.

1728an Real Compañía de Caracas sortu zen. Honek ere itsas merkataritzaren indartzea ekarri zuen, ez dirudi, ordea, iraupen luzea izan zuenik, ez behintzat aurreko bi mendeetakoak adinako eraginik. Beraz, ahalegin honen ondoren, apurka-apurka, Lezoko kaia itsas merkataritzan indarra galtzen hasi zen eta herriko ekonomia nekazaritzari gero eta gehiago lotu zitzaion.

Merkataritza aipatu dugu; ez dugu ahantzi behar, ordea, arrantza, balearen arrantza batez ere. Iharduera honek eragin handia izan zuen Euskal kostaldearen ekonomian eta kulturaren. XII. mendean hasi zen indarrez iharduera hau eta indartzen joan ahala iparraldeko kostaldeetara eraman zituen euskal arrantzaleak, lezoarrak, besteak beste. Horren berri zehatzak ere baditugu; esaterako, 1570. urtean

Ternuan lezoar eta pasaitarrez osaturiko untzia hondoratu zen.

Balearen haragia “Frantzian” saltzen zela diote liburuek, horrela esanda ezin jakin non zehazki; pentsatzekoa da, ordea, kostaldeko euskal herrien arteko harremana estua izango zela eta salmenta tratuak Lapurdiko porturen batean egingo zituztela; Baionan, esaterako. (1059. urtean Baionan jada balea haragia saltzen zen).

Bestalde, XVI. mendean Pasaiakoa omen zen balearen arrantzan ari ziren untxiak prestatzeko kairik onena. Beraz, argi dago itsas ihardueren indarra eta eragina zenbatekoak izan zirela.

Honek, ordea, ez du esan nahi Lezoren ekonomia itsasoari soilik egon denik loturik. Izan ere, itsas merkataritza ahuldu eta nekazaritza nagusitu ondoren, XIX. mendearen bigarren erdian hasita, industrializazioa gehitu zitzaion. Altxatekogañan jarritako Las Merceditas telagintza mekanikoa eta Arizbakarrako sutauts fabrika izan ziren industrializazioaren lehen urratsak Lezon.

### **Lezo eta boterea**

Lezoren sorrera, ekonomia eta herriko hainbat jauntxoren bizi-tza, Espainiako boterearekin loturik egon izan da. Lehenago esan dugun bezala, interes handiak zituen Lezok eta horien bila, besteak beste, ugari izan ziren gorteko edo armadako bidea hartutakoak. Egindako lanaren ondorio izan zen Carlos I-ak Lezoko kaia merkataritzan erabiltzeko baimendu izana. Ordura bitartean Donostiak zuen monopolioa. 1597an, berriz, errege untxiolak egiteko baimena jaso zuen.

Ekonomiaren gainbeherarekin, batez ere itsas merkataritzarenarekin, Lezorentzat gortekak zuen interesa ahuldu egin zen; eta aldaketa zenbatekoa zen jakiteko aski dugu 1819an gertatutakoa aintzat hartzea. Urte hartan, eta Espainiako botereak foruak indarririk gabe uzteko zuen asmoa ezaguna zelarik, Espainiako gobernuak Lezori Armadako Flotan lezoarrak ere sartzeko agindua eman zion. Lezok, aitzakia ugari jarritz, ez zuen herriko semerik bidali nahi izan.

Dena den, Lezok Gaztela edo Espainiako boterearekin izandako harremanaren adibideak ez dira horiek bakarrik. Hona ekarri nahi dugu Carlos V.aren izandako harremana, interesgarria izango baitzaigu,

hizkuntzaz hitz egitean, orduko giroa ezagutzeko. Antza denez, 1540an Espainiako Carlos V.a itsasoz Flandriarako bidean zela bere laguntzaile eta lagun min izandako Onofre Isasti agurtzera etorri zen Lezora untzia kaian utzita. Carlos V. honek euskaldun ugari zuen bere laguntzaileen artean eta badirudi euskaraz ere ikasi zuela. Horren adibide dugu bere bidaietako batean Nafarroatik zetorren mandazai batekin euskaraz izandako elkarrizketa. Non gertatu zen ez badakigu ere, Lope Martinez Isastik dioenaren arabera Lezon gertatua zela pentsa daiteke. Utz dezagun horretan oraingoz.

Aski dugu ulertzea bi adibide hauekin Lezok gortearekin izan zituen harremanetan gora-behera handiak gertatu zirela. Ez zen morrontza harremana izan, harreman interesatua baizik.

### **Lezo eta gudak**

Itsas herria izanik eta Europako estatu modernoek sorrerarekin muga ondoan egonik, ugari izan ziren Lezok jasan behar izandako gora-behera militarrik. Borroka hauen ondorioz Lezon izan ziren Gaztela edo Espainiako armadak, Frantziakoak, Ingalaterrakoak, kortsariak... Eta horietako batzuek herrian bertan aldi luze edo laburrean zainketarako indarrak eta gotorlekuak jarri zituzten.

Gaztela eta Frantziaren arteko muga borroken ondorioz, esaterako, Lezo erabat suntsitu zuten 1476an, beste hainbeste 1638an. Horrezaz gain, XVIII. mendean zehar ere Frantzia, Espainia eta Ingalaterrako armadek Lezo behin baino gehiagotan hartu zuten eta iraupen desberdineko egonaldiak egin zituzten. 1521 eta 1525 artean Lezon egon zen Hondarribiako udal agintaritzaren eta lezoarrek parte hartu zuten 1522an San Martzial mendian izandako anaia arteko borrokan. Euskaldunok gogoratu beharko genuke, irabazleen historiak Frantses eta Espainiaren arteko borroka izan zela badio ere, atzeritarren interesak babesteko mugaz bi aldeetako euskaldunen arteko borroka zirela haiek.

1808an, Napoleonen tropak Euskal Herrian sartu ziren; Lezoko gazteek, berriz, mendira ihes egin zuten eta frantsesak agintean izan ziren bitartean Lezo miseri gorrian bizi izan zen. 1815. urtean guda

amaitzean, espainiar konpainia batzuk bertan egon ziren akantonaturik urte betez. Egonaldi hau eta gainerakoak laburrak izan zirenez, zer pentsatu behar dugu? Zein eragin izan zuten Lezoko herritarrengan, hauen kulturaren edo hizkuntzan?

Lezoarrak Espainiak munduan barna egindako konkista eta borroketan ibili baziren ere, ez dirudi bandoen arteko gudan aritu zirenik; ez dugu horren berririk.

Europako estatu modernoaren sorreran gertatutako gudateak amaitu ostean, Espainiaren zentralismoa euskal foruak indarrrik gabe uzten ahalegindu zen. Horren ondorio izan ziren karlistaldiak, baita guda horiek sortu aurreko liskar guziak ere. Lezori dagokionez, ez dirudi herritar guziak oso konstituziozaleak zirenik. Adibide jakingarri bat ematearren 1822an Lezon zegoen Konstituzioaren oroitarria bigarrenez agertu zen lohiturik, eta garaiko agiriek gertaera larritzat jotzen dute. Geroago etorri ziren karlistaldietan, Lezoko seme ugari izan zen atxilotua. Beraz, bistan da Lezo karlista zela oso, edo bestela esanda, ez zela batere “konstituziozalea”.

Bigarren Karlistadan ere parte hartu zuten lezoarrek, eta berriro ere herria gazterik gabe gelditu zen. Guda amaitzean, berriz, hainbat lezoarri indulto eman zitzaion.

## Demografia

Ez da erraza jakiten zein izan den Lezoko populazioaren bilakera garai honetan. Zenbait datu bada, azken mendeotako Lezoren neurria zenbatekoa zen ezagutzeko aski lagungarri gertatzen dena. 1818. urtean Lezok 120 su omen zituen, alegia 120 familia. Geroago hasi ziren datuak sistematikoki jasotzen. 1846an 700 biztanle omen zituen eta 1877an, berriz, 1059. Hauetatik Gipuzkoan jaioak %88,1 ziren, Gipuzkoatik at jaioak, berriz, % 11,9, batez ere kaiak eragindako joan-etorriagatik<sup>15</sup>. Datu apur hauekin herriaren neurria eta ezaugarriak aski argi ikus ditzakegu: herri ttikia eta nagusiki bertako populazioz osatua.

---

<sup>15</sup> Ikus Lezo 3n Antxon Agirre Sorondoren lana.

### 3.1.4.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA LEZON 1876 BITARTEAN

Gaur egun euskara zenbatek ezagutzen duten, zenbatek erabiltzen duten, non, noiz, norekin... ezagutzeko hamaika bide badugu ere, zer dakigu grabagailurik, bideo aparailurik edo bizirik dagoen inork ezagutu ez zuen garaiaz?

Euskaldunon hizkuntza oso gutxitan izan da historian kezka iturri, inor gutxi saiatu da gaur egun adina euskararen egoera ezagutzen eta gerokoei horren berri uzten, eta gutxiago Lezo bezalako herri txiki batean. Honela bada, historiaren pasarte solteak jaso behar ditugu, han eta hemen sakabanaturik dauden paperetan egile batak edo besteak jaso dituenak.

Gabezia horrekin jabetu arren, sakabanaketaren erdian bildutako zatitxoekin, garai horren argazki osoa ez bada ere, nahikoa osatua egitera iritsiko garelakoan gaude.

Lezoren historia ezagututa, gaur egun dakigunarekin, argi eta garbi esan behar dugu euskara zela lezoarrek eguneroko bizitzan erabili zuten hizkuntza. Honela dio Lander Zurutuzak<sup>16</sup>:

*“Itxura batean, lezoarren ahozko hizkuntza nagusia betidanik euskara izan da (...) bertako jende eskolatuak (apez, ikasle, legegizon...) erdaraz jakin arren euskara zen eguneroko hizkuntza.”*

Erromatarren berriemaileei esker, badakigu Lezo baskoien lurraldean kokaturik zegoela, alegia, geroago Nafarroa izango zenaren lurraldea populatzen zuen leinuko kideak zirela hemen bizi zirenak. Ikuspegi dialektologikotik begiratuz Bonapartek Lezo Goi-Nafarreran sartu zuen. Honek ez du, ordea, ezer askorik frogatzen, eta beraz hobe dugu zenbait gertaera jakingarriren berri ematea.

### Populazioa

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, eta 1877ko erroldaren

<sup>16</sup> Agirretxe, Esnaola (1994), *Euskara Lezon*. Lezoko Udala, 8. or. Lander Zurutuzaren sarrera

datuetan oinarrirituz, Lezok 1059 biztanle zituen. Hauetatik Gipuzkoan jaiok %88,1 ziren, Gipuzkoatik at jaiok, berriz, % 11,9. Beraz, bertakoa zen populazioaren gehiengoa. Dena den, aipagarria da % 11,9 hori. Antxon Agirre Sorondok *Lezoren* 3. alean kaia-aren inguruko mugimenduari zor zaiola dio, ez dakigu aurreko mendeetan, portuaren iharduera garairik jorienean zegoenean, zenbatekoa izango zen Gipuzkoatik kanpo jaiotakoen kopurua; pentsatzekoa da, ordea, hauen artean ere izango zirela inguruko herrialde euskaldunetatik etorritakoak. Victor Hugok (1843)<sup>17</sup>, esaterako, Baionatik etorritako eskulangileak ikusi zituela dio. Euskara Baionan aspaldi desagertu zen eta gaskoinera izan da azken mendeotan bertakoen hizkuntza nagusia. Bonaparteren sailkapenean eta mapan Baiona ez da herri/hiri euskaldunen artean ageri. Hipotesi mailan bada ere, mende honen erdialdetik aurrerako herriko erroldetan ageri diren iparraldeko biztanleak nondik etorriak ziren ikusirik, pentsa daiteke Victor Hugok baiones deitzen duena Baiona inguruko herrietako euskal hiztunak izatea. Hori dena den, ezin ziurtatu eta hipotesi mailan utziko dugu. N. Velascoren inkestak Lezo espreski aipatzen ez badu ere, aski argi uzten du zein zen orduko egoera Gipuzkoan, eta beraz, Lezon.

## Gaskoinak

Lezoko biztanleez ari garelarik, ez dugu ahanzi behar Lezoren sorrera gaskoinekin loturik dagoela. Alegia, Guillermo Lazon eta honekin etorritako gaskoinak izan zirela herri sortu berriko lehen biztanleak. Gaskoinek Donostiaren sorreran, eta Pasaiaiko badian izandako ardura ezaguna da eta eragin nabarmena izan zuten artisautzak, ekonomia eta administrazioan. Joseba Presentación Barandiaranek *Lezoren* 6. alean dioenez, Lezon gaskoinek ez zuten Pasaian adinako indarririk izan. Kontu hauek guziak, oraindik ere, nahikoa ilun eta ikertu gabe daudenez, ezin jakin zenbatekoa izan zen gaskoinen eragina. Pentsatzekoa da, ordea, gaskoinek euskara egoera

---

<sup>17</sup> Victor Hugo. *Los Pirineos*. 1843. (Ikus *Victor Hugoren Jaizkibel* (1997). Pasaia. Pasaia-Lezo Lizeoa)

diglosikoan mantentzen lagunduko zutela. Izan ere, gaskoinek indarra izan zuten garaian hainbat agiri ofizial hizkuntza horretan idatzi ziren.

Gaskoien eragina orohar handia izan baldin bazen ere, gaskoien garrantzia azpimarratzen duten datuetatik ez da ondorio okerrik atera behar. Alegia, gaskoien indartsu izateak ez du esan nahi gaskoien horiek euskararik ez zekitenik, ez eta orduko euskaldunak ohiko harremanetan gaskoinez aritzen zirenik ere. Ez dirudi, halaber, gaskoien eraginak euskara behin betiko alboratzea lortu duenik, izan ere, gaskoia desagertuta ere euskarak bizirik jarraitu baitu Lezon, Pasaian nahiz Donostian. Dena den, gaskoieraren presentziak luza-roan iraun du. 1918-19an hil ziren Trezet anai-arrebak, gaskoieraz mintzatu ziren azken sanjuandarrak.

Ez guke gaskoien aipamena amaitu behar bertako toponimia eta onomastikan izan zuten eragina aipatu gabe. Gure artean bizi-bizirik ditugun Karrera, Karrere, Trezet eta Jamot abizenak edo Agramontene, Jamotenea, Peliart edo Altamira toponimoak gaskoien utziak dira eta, beraz, eragin horrek euskara alboratzea lortu ez bazuen ere, bere presentzia herri honen kultur ondarea aberastera etorri zen.

### **Lezo Nafarroan. 1805-1814**

Demografiaren harian tiraka jarraituz, Lezoko hizkuntz errealitatea azaltzeko balio izan zuen 1805ean Irun, Hondarribia eta Lezo Nafarroan sartzeko Espainiak hartu zuen erabakiak. Helburua Nafarroari itsas-portu bat ematea zen. Nafarroaren menpe egonik, Iruñeako gotzaintegiaren esku zegoen bertako eliz-barrutien kudeaketa. Garai hartan Nafarroan oso indarrean zeuden apaiz euskaldun eta erromantzedunen arteko liskarrak, eliz-barruti bakoitzari zegokion apaizaren hizkuntz ezaugarriak zirela eta. Euskaldunek herri euskaldunetan euskaldunak nahi zituzten eta erromantzedunek, berriz, erdaldunak. Jimeno Juriok<sup>18</sup> nahikoa era zehatzean jasotzen du gertaera hau.

---

<sup>18</sup> Jimeno Jurio (1997) *Navarra, historia del euskera*. Tafalla, Txalaparta 181-3. or.



Iruñeko gotzaintegiaren menpeko eremu osoan eliz ardurak banatzeko orduan ez zen aintzat hartzen elizgizonek euskararik bazekiten ala ez; izan ere, bazen 1765eko ediktu bat, Miranda eta Argaizena, horretarako bide ematen zuena. Gipuzkoako Diputazioak eta elizgizonek eurek hamaika aldiz ediktu hau bazterrera uzteko eskatu arren, bere horretan eusten zion Iruñeko gotzaintegiak eta horretan babestuz, elizaren ordezkari erdal elebakarrek ahaleginak egiten zituzten ediktua bete zedin. Honela bada, ordezkari horiek beroriek Gipuzkoan aritzeko eskubidea aldarrikatu zuten irundar, hondarribiar eta lezoarrak erdaraz bizi zirela argudiatuz.

Egoera honen aurrean, Real Corte delakoak, Irun, Hondarribia eta Lezoko udaletako idazkariei, bertakoek zerabilten hizkuntza zein zen adieraziz txostena igortzeko eskatu zien. Honela erantzun zuen Domingo Maria Errazu Lezo eta Irungo udaletako idazkariak:

*“Idioma que común y ordinariamente se usa en ambos pueblos es el natibo y bulgar bascongado, que todo originario de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa y Montañas de este Reino lo hereda y adquiere de sus padres, por ser la primera y unica lengua que generalmente se usa y aprende desde la infancia, y aunque por lo ordinario el trato de Padres y hijos, y aun la informacion en las escuelas publicas de los primeros rudimentos suelen ser en lengua natiba, y no la castellana, hai muchos padres de familias que a sus hijos los instruien y imponen en ambos hidiomas, pero no debe servir esto de regla porque el número de gentes de esta clase es mui corto respecto al cúmulo de las demás de todo el Pais bascongado, y aunque hai muchos que poseen también el romance sin haber precedido esta cualidad y circunstacia, sino que por propia afición, necesidad o continuo trato de gentes que no saben bascuence, han adquirido la facilidad de entenderse son los menos, y es la gente de la primera distinción que por sus principios, proporciones y educacion*

*que han tenido han logrado el grado mas o menos de perfección, y se puede calcular prudentemente que para una docena de personas de uno y otro sexo que en cualquiera de estos dos Pueblos se encuentre que posea el romance, se hallarán doscientas que absolutamente no lo entienden, particularmente en los caseríos, cuyo número de habitantes excede con mucho a los del cuerpo de ambas Poblaciones”*  
(Jimeno Jurio 1997)

Mamitsua benetan txosten honetan ageri zaiguna, berak bakarrik argi uzten baitu zein zen Lezoko egoera XVIII. mendearen hasieran. Gertaera honetatik hainbat ondorio atera dezakegu:

- 1.- Euskara dela bertakoen jatorrizko hizkuntza.
- 2.- Familia bidez transmititzen dela eta haurrek jasotzen duten hizkuntza bakarra dela.
- 3.- Oinarrizko heziketa familian zein eskolan euskaraz egiten dela, batzuek erdara ere irakasten ahalegindu arren.
- 4.- Oso gutxi direla heziketa bi hizkuntzetan jasotakoak.
- 5.- Oso gutxi direla elebidunak, eta hauek borondatez edo lanbidegatik ikasiak direla.
- 6.- Erdaraz zekitenak nagusiki herriko jauntxoak zirela, eta orotara berrehun herritarretatik dozena bat baino ez.

Beraz, Lezoko populazioan euskaldunak izan dira nagusi mendetan zehar. Iritzi hau babesten duten zeharkako datu ugari bada. Besteak beste, Leandro Silvanek<sup>19</sup> Lezoren sorreraz ari delarik, Guillermo Lazon aipatzearekin batera, ospetsuak izan ziren Lezoko sendi gehiago ere aipatzen ditu, eta gehienak deitura euskaldunetakoak dira, tartean gaskoinak ere badirelarik, “Peliart” esaterako: “Alcayaga, Arpide, Avendaño, Apaiciarza edo Yarza, Bizcaiarena, Borda, Darieta, Gaviria, Isue, Mancia de Rementari, Martindegui, Michelcorena, Murudiareta,

<sup>19</sup> Leandro Silvan (1970) Lezo. Donostia. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipala.

Nafarche, Oyanilleta, Pelear, Sarasti, eta Tizunenea.” Ondorio bera atera dezakegu herrian egindako errolda desberdinetatik, esaterako itsasoan galdutako herritarren zerrendak, edo Konstituzioaren kontra zein karlistaldietan borrokan aritu eta indultatuen zerrendetatik.

## Hezkuntza

Domingo Maria Errazu Lezoko idazkariak utzitako lekukotasun horretan aipamen demografikoaz gain hezkuntzari dagokionak arreta berezia merezi du. Idazkariaren hitzetan oinarritzko heziketa, dela familian, dela eskolan, euskaraz egiten zen. Datu hau berresten duten gehiago ere badira. Lope Martinez Isastikoak haur euskaldunek dotrina euskaraz ikas zezaten euskarazko kateximak argitaratzen zirela dio eta 1814an Gurutze Santuaren basilikaren ondoan “Escolazarra” izeneko etxe bat bazen, haurren eskola izan zena. Isasti bera Lezoko Juan Bataiatzailearen elizako benefiziatu eta euskararen apologista izanik, ez da harritzekoa herrian halakoak bultzatzea edo ezagutzea.

Horrezaz gain, Lezoko udal agiritegian bada XVIII. mendean Bautista de Ibarbia irakasle eta zirujau izandakoaren aipamena<sup>20</sup>. Beraz, heziketa publikoa, era batekoa edo bestekoa, okerragoa edo hobea, gutxienez XVIII. mendetik dago Lezon.

Leandro Silvanek<sup>21</sup> Madozen hitzak aipatuz 1840an Lezon eskola bakarra zegoela dio, 38 ikasle biltzen zituena (Biztanleen % 3,5a). Aro honetako Lezoko hezkuntzari buruzko aipamen apurrak Isastiren aipamen hori eta udal agiriak dira. Ezer gutxi dakigu agiri horietatik erabiltzen zen hizkuntzaz. Dena den, azpimarratu beharrekoa da XIX. mendean Lezoko eskolan irakasle izan zirenak deitura euskaldunekoak zirela, beraz, euskaldunak zirela pentsa dezakegu. Izan ere, garai hartan udalek eta Foru Aldundiak zuten herrietako irakasleen banaketa egiteko ardurak, eta herriaren hizkuntz ezaugarrien arabera izendatzen ziren irakasleak. Politika hori ez zen Madrilen

<sup>20</sup> (1699-1773 urteen arteko kontu liburuan (C-2-I-2) 266. folioa).

<sup>21</sup> Leandro Silvan (1970) Lezo. Donostia. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipala.

gustokoa eta eskumen hori bere eginez herri euskaldunetara irakasle erdaldunak bidaltzen hasi zen. Erabaki honi aurre egiten saiatu ziren udalak eta foru aldundiak.

Lezon 1876. urtera arte irakasle euskaldunak izan ziren, eta herriko seme-alabak hauetako asko: Ramon Aranburu, Antonio Berasategi, Micaela Alzúa, Rafaela Arpide, Martin Jose Aranburu, Juan Antonio Loidi... Ikastaldeak, berriz, beti bi: neskena eta mutilena.

### **Liberalismoa**

Lezoko hezkuntza publikoari buruzko aipamenak XIX. mendearen hasierakoak ditugu, agirietan ikusten denez 1826 aurretik bazen herriaren diruaz lagundutako eskola Lezon; datuak, ordea, oso urriak dira eta ez diote argi handirik egiten gure gaiari. Ez dugu ahanzi behar 1820-1823 izan zela “hirurteko konstituzionala” eta epe horretan boterean zegoen liberalismoak ahalegin berezia egin zuela hezkuntza bultzatzeko.

Liberalismoarentzat hezkuntza ez zen gizakia hezitzeko, buruan zuten gizarte liberala osatuko zuten gizon-emakumeak formatzeko baizik. Proiektu horretan elebakartasuna lortu beharreko helburuen artean zegoen; alegia, estatuaren menpeko populazio osoa hizkuntza bakar baten hiztun bihurtu nahi zuten, eta horretarako gainerako guztiak desagertarazi behar zituzten.

Ez dakigu politika honek zenbateko eragina izan zuen Lezoko hezkuntza publikoan, beraz, zeharka bada ere lagungarri gertatuko zaigun zenbait argibide emango dugu.

Lezoko liberalek hizkuntzaren gaian zein jarrera zuten ezagutzetik ez badugu ere, ez guke ahanzi behar Eugenio Ochoa herriko semea. Idazle, historialari eta intelektual hau Lezon jaio eta Madrilen hil zen. Bere bizitza eta lana liberalismoaren alde eman zituen eta lotura oso estua zuen zentralismoarekin. Eta gure kezkei erantzuteko informaziorik ez baldin badugu ere, gizon honek herrian izan zuen eraginaz galdetu behar diogu geure buruari.

Oiartzunen, bestalde, baziren liberalak, Lezon bezalaxe. Hauetako asko errentatzaile izanik, udal iharduera zuzen zuzenean

jarraitzen zuten eta udal zereginak betetzerakoan gaztelania jakitea ere hobetsia gerta zedin saiatu ziren<sup>22</sup>. Ez dakigu Lezon horren pareko ahaleginik izan zen; ez litzateke, ordea, harritzekoa, hemen ere bai baitziren liberalak.

### Lezoko jauntxoak

Jauntxoen gora-beherak jarraituz ere argi izpiren bat egin dezakegu. Lander Zurutuzak *Lezo* aldizkariaren 18. alean kaleratu duen lanean Lezoandiako jaunaren hilketa eta ondorengo gertaeren berri ematen digu<sup>23</sup>. Gaiaren mamira joz, badirudi Lezoandiako jauna zen Guillermo Muru ezpataz hil zuela Esteban Villaviciosakoak (biak herriko semeak). Ondoren egindako epaiketean lekuko izan zen Lamberto Villet flandriarrak honela esan zuen:

*“... no oyo ni reparo que los dichos don Guillermo y Villaviciosa ubiessen tenido razones ningunas de enojo ni alboroto alguno mas de que les vio jugar a los quatro y que ablavan en su lengua bazcongada que no la entiende el declarante.”*

Gertaera honetatik ere ondorio mamitsuak atera daitezke. Batetik, nabarmen ageri da jauntxoak euskaraz mintzatzen zirela haien artean, nahiz eta beste hizkuntzak ere ezagutu, Lamberto Villet flandriarrarekin harremana zutenez gero. Eta bestetik, Miguel de Villaviciosa Almirante Generalaren semeak eta hauen sendiak, Alfonso I. Katolikoaren aginduz Pasaitik Lezora etorritakoak, sortzez kanpotarra izan arren euskaraz mintzo zirela gainerako herritarrekin, Esteban Villaviciosaren ekintzez Lamberto Villetek esandakoan oinarrituz.

Alta, eta deklarazioak erdara hutsez idatziak daudela ikusita, orduko agintariek zein hizkuntz eredu erabiltzen zuten galdetu behar

<sup>22</sup> Gabarain Aranguren, M. Teresa (1994), *Lehen liberalismoa Oiartzun haranean*. Oiartzungo Udala, 46. or.

<sup>23</sup> Zurutuza L. “Lezoandiko Jaunaren Hilketa”. *Lezo* aldizkaria, 18. alea. 13-17. or

diogu geure buruari. Jakin badakigu erdaraz idazten zela, hala adierazten digute gorde diren agiriek. Euskaraz ez ote zen idazten, ordea? Egun ezagutzen dugunarekin ezin baietz esan, harritzekoa ere bada, ordea, populazio ia osoa, jauntxoak barne, euskaraz bizi zirela jakinda. Hipotesietan urrutiegi joateko asmorik gabe, pentsa dezakegu herriko agintarien artean euskaraz mintzatuko zirela administrazio gaietan ere, nahiz eta beti erdaraz idatzi.

### **Euskara administrazioan**

Dena den, administrazioan idatzitakoa erdara hutsean egon arren, agiri horiek idazten zituztenen hizkuntz gaitasunaz eta jatorrizko hizkuntzaz bada zenbait aztarna. Izan ere, agiri horietan behin baino gehiagotan agertzen dira euskararen interferentziak. Lander Zurutuzak<sup>24</sup> honela dio:

*“Bestalde, euskal deiturez eta toponimoez josirik dauden erdarazko eskuizkribuetan noiz behinka euskarazko hitzak tartekatzen dira, esate baterako: “hijito” (arraza), “chiqui” (neurria), “auzalan”, “orga” eta “chicorta”. Beste zenbaite-tan euskara osasuntsu baten adierazle diren esaldiak aurki ditzakegu: “entierros, dias inmediatos á ellos (que son conocidos con el nombre Ylviamuna)”.*

Beraz, idazkariak euskaldunak ziren, euskara ezagutu beharra zuten euren lana egin ahal izateko, eta apika euskarara jo behar izaten zuten erdaran zituzten hutsuneak betetzeko.

### **Herriari euskaraz**

Idazteko zerabilten hizkuntza gora-behera, orduko agintariak ezagutzen zuten herritarrek ez zekitela erdara askorik eta, beraz, erabakien berri “en la lengua vulgar bascongada” eman beharra zegoela. Honen inguruko aipamen ugari eta aspaldikoak bildu ditu Jimeno

---

<sup>24</sup> Agirretxe, Esnaola (1994), *Euskara Lezon*. Lezoko Udala, 8. or. Lander Zurutuzaren sarrera

Juriok Nafarroan, eta gurean ere badira. Gotzainnaren ikuskatzaileak parrokia guzietara bidaltzen zituen aginduak biltzen zituen “Libro de mandatos” delakoan, XVIII. mendean, Lezoko parrokiari “en la lengua vulgar” edo “en la lengua bascongada” aritzeko agintzen zaio.

Egoera honek XIX. mendean berdin-berdin jarraitu zuela adierazten digu Añibarrok, fedearen predikazioari begira, euskaldun hutsak diren herrien zerrendan sartzen baitu Lezo<sup>25</sup>.

Elizaren 1778ko agindu batean, Pasaiaiko herritarrei zuzendua bera, antzeko aipamenak ageri dira. Zehazki esaterik ez badago ere, Pasaia esatean badia esan nahi delakoan gaude eta bertako herri guziak biltzen dituela Lezo barne. Blas de Alza y Uscarres gotzainnak Pasaiaiko erretoreari, Caracasa edo atzerriko ezein herritara elizaren baimenik gabe joandakoen ezkontzetan laguntzea debekatzen zion. Aginduak “en la lengua vulgar vascongada”n zabaltzea eskatzen zuen herritarrek uler zezaten<sup>26</sup>. Argi dago, beraz.

Bada aipamen berezi bat, herritarrek zuten erdararen ezagutza zenbatekoa zen adierazten ez badigu ere, orduko hizkuntz ohituren berri ematen duena. 1817an Simon de Yriarte Irungo posta zuzendaria Gaintxurizketan zela, aurpegia estalirik eta armaturik zegoen gizon batek lapurtzerakoan diru eskaera “en mal castellano” egin omen zion<sup>27</sup>. Honekin bakarrik ezin jakin lapurra lezoarra zen, ez orduko bide lapurketak erdaraz ala euskaraz egiten ziren... “En mal castellano” hori, ordea, adierazgarria da.

Botereak euskara idatzizko mundutik baztertu arren, euskal kulturari jarraipen zorrotza egiten zion, eta zentsuratu ere zentsuratu izan zen herriak euskaraz sortutako tradizioa. Hau ere Pasaiaiko adibidea den arren, aurrekoan esandakoari atxikiz, Lezori ere badagokiola uste dugu. 1753an, Pasaiaiko Bikarioak, Juan Antonio Arizabalok (Arizabalo sendia Lezoko lehenetakoa dugu) besteak beste, “sones y

<sup>25</sup> Añibarro. *Catálogo de los pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra*.

<sup>26</sup> Reizabal, González-Amezúa, González (1987), *Pasajes, un Puerto una Historia*. Junta del Puerto de Pasajes. MOPU.

<sup>27</sup> Lander Zurutzaren, *Lezo 6*

saynetes” lizun eta isekariak debekatu zituen<sup>28</sup>. “Sones y saynetes” dire-lakoak herriak sorturiko bertso eta koplak izango ziren, noski. Beraz, herria euskaraz bizi zen, euskaraz eraikitzen zuen bere kultura eta kultura hori aintzat hartua zen .

Euskararen ezagutza, bada, gizarte talde eta maila guztietara hel-tzen zen, baita militarrengana ere. Lehenago esan dugu Lezoko seme-ak Gaztelako armadan ibili zirela, beraz, ez da harritzekoa hemen ibili ohi ziren militarrek ere bertakoak izatea. Horren itxura guzia du 1811.ean briganteekin gertatuak<sup>29</sup>: Espainiar infanteria eta zalditeria-ren brigante batzuk herrian sartu ziren, jan edanak eskatu eta alkate-aren ezetza jaso zuten, hau hartu eta tabernan sartu ziren zegoen guztia bereganatuz. Herriko bi arrantzale brigante hauekin aritu omen ziren jan-edanean eta kantuan. Gertaera honen harian pentsa dezakegu brigante hauek euskaldunak zirela, bestela nekez uler dai-teke gertaera. Dena den, hipotesi mailan utz dezagun, xehetasunik ez baitakigu.

## Osasun zerbitzua

Aipamen zehatzik ez baldin badugu ere, kontuan izan behar da garai hartan ere bazirela sendagile eta albaitariak. Orain arte ikusita-ko datuek adierazten digute hauek ere euskaldunak zirela. Udal agi-ritegian gai honi buruz ditugun datu apurretan ikusten denez, XIX. mendearen lehen erdian Lezon sendagile eta albaitari lanak pertsona berak egiten zituen. 1817ko bi aipamenetan Lezoko zirujau titularra aipatzen zaigu Joaquin Guruceta, eta baita Errenteriakoa<sup>30</sup> ere, Pedro Joseph de Mendia izenekoa. Biek sendagile eta albaitari lanak egin zituzten Lezon eta deituren arabera euskaldunak zirela pentsatzea ez da burugabekeria.

<sup>28</sup> Reizabal, González-Amezúa, González (1987), *Pasajes, un Puerto una Historia*. Junta del Puerto de Pasajes. MOPU.

<sup>29</sup> Lander Zurutuza. *Aske 1 eta Lezo 7*.

<sup>30</sup> Errenteria izena erabiliko dugu Euskaltzaindiaren erabakiari betetz. Ikerketa hau burutu due-nak, ordea, Orereta izena erabiltzen du eguneroko bizitzan horixe baita belaunaldi gazteenen artean indarrak handiena duen joera.



## Isastiren lekukotasuna

Lope Fernandez Isastikoaren lanetan Lezoko hizkuntz egoera eta beste zenbait hizkuntz gora-beherez argibide jakingarriak topatuko ditugu. Ongi jantzitako gizona zen Isasti eta euskaraz nahiz euskarari buruz argitaraturiko lanak zorrotz jarraitzen zituen. Isasti euskararen apologista genuen garaiko beste hainbat egile bezala; besteak beste, Poza, Garibay eta Zalbidiairen ideiak aipatzen ditu bere lanean. Bera ere ibili zen euskararen jatorri iberiarra frogatzeko ahaleginetan, orduko apologistek zabaldutako bidea jarraituz. Euskararen antzinatasuna eta jatorri babeliarra frogatzeko hainbat adibide ematen du bere lanik ezagunenean<sup>31</sup>. Zazpigarren adibidean honela dio:

*“Es facil de aprender continuándolo, como la experiencia ha mostrado con los castellanos, que se han avecindado en aquella costa de Guipuzcoa, que hablan bascuence razonablemente”.*

Lezo ote da aipatzen duen Gipuzkoako kosta hori? Ez litzateke harrizkoa, izan ere, lehentxeago aipatu dugu Villaviciosatarrak kanpotik etorriak izan arren bertakotu egin zirela eta euskara zutela harreman hizkuntza. Aipagarria da, bestalde, bi mende beranduago, gaur egun bizirik ditugun herriko zaharrenek, Isastik dioen gauza bera diotela, alegia, atzerritarrek euskara bertan bizituz ikasten zutela eta inolako arazorik gabe txertatzen zirela Lezoko herri bizitza euskaldunean Gerra Zibilaren ondoren ere.

Isastiren idatzi berean bada aipamen gehiago Lezoren inguruan, besteak beste, Ternuan zebiltzan arrantzaleez ari dena. Isastik dioenez euskara ez zen soilik “Aquella costa de Guipuzcoa”n hitz egiten, Ternuan ere erabiltzen zuten bertakoek, euskaldunengandik ikasita. Isastik ematen digun adibidea klasikoa da. Hainbat lekutan argitaratu izan da Ternuan euskaldunek eta bertakoek zerabilten pidginaren

---

<sup>31</sup> Lope Martinez de Isasti (1625), *Compendio Historial de la Provincia de Guipuzcoa*, in *Cosas Memorables de Guipúzcoa*. *Gran Enciclopedia Vasca*. 164. or.

adibideak. Isastik honako hau aipatzen digu: Bertako biztanleei “nola zaude?” galde eginez “apaizak hobeto” erantzuten omen zuten<sup>32</sup>. Isastik dioena gehitxo esatea bada ere, alegia, Ternuan “bertakoek ere hitz egiten zutela”, pasarte apologista baten txantxa barregarria baino datu historiko adierazgarria da guretzat.

Pentsatzekoa da, Isastik ondo baino hobeto ezagutzen zituela Ternuako euskaldunen gora-beherak bertan zebiltzan lezoarren bidez. Eta halaber, pentsatu beharko dugu, lezoarrek, nahiz gainerako euskaldunek euskara zutela ohiko komunikazio hizkuntza etxean zein etxetik kanpo.

Ez nuke amaitu nahi Ternua eta balearen arrantzari buruzko aipamen hau, garai hartan euskarak izan zuen garrantziaz beste adibide pare bat eman gabe. 1637an Dicolas Gerardus Hondricus Deen-ek Amsterdamen argitaratu zituen latinezko bi glosarioen barruan “Euskara-islandera” hiztegiñoa ageri da. Datu honek, beste hainbatekin, euskal arrantzaleek iparraldeko herrieekin izan zuten harreman estua frogatzen du<sup>33</sup> eta, besteak beste, argi eta garbi adierazten du euskara lan hizkuntza zela marinel hauentzat. Horrezaz gain, Ternuako toponimian ageri diren euskal toki-izenak ugari direla ere aipatu behar dugu: Bale-Badia, Anton-Portu, Portutxo, Baia-Aundia...

Dena den, ez dira horiek Isastikoaren lanetan ageri diren euskari buruzko aipamen bakarrak. Bertako haurrei dotrina euskaraz irakasteko euskarazko katiximak argitaratu zirela ere badio. Hortik ezin esan Lezoko dotrinan euskarazko kateximak erabiltzen ziren ala ez; Isastikoa bera Juan Bataiatzailearen elizako benefiziodun zela jakinik, ordea, ez litzateke harritzekoa horrela izatea.

Carlos V.a Espainiako erregeak mandazainarekin izan zuen elkarrizketa ere ezaguna dugu. Espainiako errege izan zenak euskaldun ugari izan zuen bere laguntzaile eta badirudi hauen laguntzaz eta berezko zaletasunez euskaraz hitz egiten edo zerbait esaten ikasi zuela. Bidean

---

<sup>32</sup> Lope Martínez de Isasti (1625), *Compendio Historial de la Provincia de Guipuzcoa*, in *Cosas Memorables de Guipúzcoa. Gran Enciclopedia Vasca*. 164. or.

<sup>33</sup> Ikus Joseba Aurkenerena, *Lezo* 13

mandazain batekin topo eginik honela galdetu omen zion: “Mandazaia, nondik zatoz?” eta honek erantzun “Nafarroatik”. Erregeak honela galdetu zion nafarrari: “Nafarroan gari asko?” eta besteak erantzun: “bai jauna, gari asko”. Berriketaldia honela amaitu omen zuen Carlos V.ak: “Nafarroan gari asko, batere ez neretako”. Gertaera hau non jazo zen ez da agertzen Isastikoaren testuan, ez eta Jimeno Juriorenean ere. Karlos Etxezurietak<sup>34</sup>, berriz, Lezon gertatu zela diosku. Honela izan zen ala ez ezin jakin. Dakigun gauza bakarra da 1540an Carlos V.a Lezon izan zela bisitari, eta Onofre Isastikoa, Lope Isastikoaren osaba, lagun mina zuela.

Beraz, garai honetan frogatzen ez badugu ere, ditugun Lezoko hizkuntza zein zen argi eta garbi adierazten digute. Lezoarrak euskaldunak ziren, euskaraz bizi ziren, eta euskara zen belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen hizkuntza.

### **Aroaren balantze soziolinguistikoa**

Eskura ditugun datu guzietan oinarrituriko bi ideia azpimarratzen dituzte: 1) Lezo herri euskalduna zela oso-osorik, 2) Euskarak ez zuela lekurik dokumentazio idatzian.

Hortik abiatuz, esandakoa berresten duten datu ugari eman dugu. Informazio hori aintzat hartuz aro honetan bultzatutako erakar-indarrak eta erakar-indarrak euskararen aldekoak izan zirela ikusten da. Demografikoki ez zuen migrazio fenomenoaren eragin bortitzik bizi izan, ekonomikoki bere buruaren jabe zen bai merkataritzan ari zenean, bai nekazaritzan ekin zionean. Kulturalki ekoizpen propioa zuen eta hizkuntz ideologiaz gauza askorik ez badakigu ere, Lope Isastikoa apologista izatea aski adierazgarria da.

Erakar-indarrak ere bere alde zituen, edo bestela esanda, erdararen erakar indarrak populazioaren multzo ttiki batean eragiten zuen behar administratiboak edo negozioak zirela eta. Lezoko gizartearen gainerako multzoak ez zuen horren beharrik. Bestalde, distantzia linguistikoa eta geografikoa ez zuten erdara batere erakargarri egiten lezoarren eguneroko bizitzan.

<sup>34</sup> Etxezurietak, Karlos. *Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa*. Argitaragabea.

Azpimarratu beharrekoa da, ordea, erdarak historian zehar erakarindar desberdina izango zuela lezoarren. Izan ere, itsas merkataritza eta Espainiar espansionismoa munduan barna bete-betean zebiltzanean gehiago izango ziren erdara zekiten lezoarrak, ekonomi krisiak jota itsas merkataritza desagertu ondorengo garaian baino. Horixe da Lander Zurutzaren hipotesia eta guk ere bat egiten dugu horrekin. Euskararen antzinako historiak Erromatar Inperioaren galearekin antzeko zerbait gertatu zela erakusten digu.

Labur esanda hauxe zen egoera:

- \* Egoera diglosikoan bizi zen eta idatzizko mundua erdararena zen, mintzatua, berriz, euskararena.
- \* Herritar guziak euskaraz mintzo ziren, gizarte maila gorabehera.
- \* Kanpotik etorritakoak gutxiengoa ziren. Euskara herritarren artean eta era naturalean ikasten zuten.
- \* Gutxi ziren euskara ez zen beste hizkuntzarik zekitenak.
- \* Iharduera ekonomiko eta profesionalak euskaraz egiten ziren.
- \* Kanpoko herriekin harremana ohikoa zen. Batzuetan etorkinen bitartez, bestetan atzerrian ibiliaz, beste batzuetan, berriz, inbasioen eraginez.
- \* Harreman horrek, ordea, ez zituen lezoarren barne loturak eta kolektibotasuna apurtzen. Besteak beste, ekonomia lurrari oso loturik egon izan zelako eta bertan behar zen gehiena bertan produzitzen zelako, olioia, irina edo ardoa izan ezik.
- \* Bestela esanda, lezoarrak herriari eta herriaren aukerei loturik bizi ziren eta horrek hizkuntz eta kultur batasuna ematen zien.

Beraz, euskarak aro honetan oraindik bere alde du bultza-indarra, bai eta erakar-indarra ere.

## 3.2.- 1877-1936

*“Siendo la lengua castellana el idioma oficial de la nación y el usual en todas las regiones españolas, y además el único y necesario en el comercio, en el Ejército y en los establecimientos de enseñanza donde por necesidad han de desenvolverse los hijos de este pueblo, rogamos á usted que, á imitación de sus antecesores, prescinda por completo del vascuence, que usted parece permitir, no consintiendo que los alumnos, ni usted en sus explicaciones, usen en la escuela otro idioma que el castellano, que usted muy bien posee, y que es el único que nos conviene y está mandado por las leyes vigentes.”<sup>35</sup>”*

Iturengo udalak (Nafarroa) Martinez irakasleari bidalitako jakinarazpena  
1900eko martxoaren 20an.

*Para el reforzamiento de los lazos entre el País Vasco y España, el euskara debe obligatoriamente desaparecer; para los socialistas españoles la lengua vasca no tiene lugar en la sociedad moderna; además, no se pierde ella?*

*El argumento mayor de los nacionalistas vascos es la lengua, enteramente diferente de la española, con la cual no tiene ningún punto de contacto. Pero la lengua vasca desaparece rápidamente, sin que nadie pueda evitarlo. Casi en la mitad de las provincias vascas, ya no se habla casi, es diferente en Vizcaya y Guipúzcoa, hasta el punto de que los habitantes de estas provincias a menudo no se comprenden: lo escrito casi nadie lo comprende; el pueblo es absolutamente incapaz de escribirlo.”<sup>36</sup>*

Lucha de clases aldizkari sozialistan, Bilbo 1911.

<sup>35</sup> Ikus Torrealdai, J.M. (1998), *El libro negro del euskera*. Donostia, Tarttalo. 50-53. or.

<sup>36</sup> Ikus Torrealdai, J.M. (1998), *El libro negro del euskera*. Donostia, Tarttalo. 50-53. or.

### 3.2.1.- EUSKAL HERRIAREN HISTORIA. 1877-1936

#### **Estatu liberalaren sorrera eta foruen galera**

Frantziako Iraultzaren ondoren hasi zen garaiak aldaketa handien zurrumbiloan murgildu zuen Europa, eta Euskal Herriak zuzen-zuzenean bizi izan zituen. Hiruzpalau gerra, industri iraultza, eskolatzeko orokorra, marko politikoaren aldaketa... izan ziren XIX. mendeko euskaldunen bizitzan protagonista.

Foruen galerak euskaldunak garaiturik utzi zituen eta identitate zeinu berriak bilatzeari ekin zioten. Hizkuntza eta kultura izan ziren garai honetako euskaldunen identitate zeinu sentituenak eta horien inguruan kultur eta politika mugimendu berria egituratu zen. Kultura mailan "pizkundea" hasi zen eta politikan "nazionalismoa". Batak zein besteak bat egin zuten Europa osoa zeharkatzen zuen mugimendu politiko erromantikoarekin. Hizkuntz eta kultur batasunaren izenean European herrien burujabetza indarrean jartzen ari ziren, aldarrikapen nazionalistak nonnahi zeuden, herri kulturak gorde eta babesteko hamaika ahalegin han eta hemen (Italia, Alemania, Irlanda)...

Prozesu honek estatu liberalaren sorrerarekin bat egin zuen. Frantziako Iraultzaren printzipioetan oinarriturik, boterea errege absolutisten eskuetan egotetik bozketaz hautaturiko alderdien eskutan egotera pasa zen poliki-poliki. Gauditurik zegoen antzinako erregimena eta botere antolaketa berriaren arteko borroka. Oraingoan liberalismoa bere gizarte eredu egiten hasteko eskura zituen tresna guztiak erabiltzen hasi zen eta, honela, estatuak gizabanako eta giza taldeetan eragiteko inoiz izan gabeko gaitasuna bereganatu zuen.

Euskal Herrian Foruen indargabetzea izan zen emandako urratsetako bat, ondoren hezkuntzaren hedatzea eta honen bitartez gaztelearen irakaskuntza, euskararen kontrako jazarpena, industriaren bul-tzada eta nekazal munduaren bazterketa, derrigorrezko soldaduzka... Espainiako edo Frantziako boterearen menpeko gizaki guztiak kultura bakar batera bildu nahi zituzten, diferentziak desagertarazi estatuaren eragina homogeneoa eta homogeneizatzailea izan zedin.

Unibertsaltasunaren izenean euskara eta gainerako hizkuntza gutxia-gotuak ezabatzeko prozesua izugarri azkartu zen.

Gizaki eta gizarte berria eraiki nahi zituen ideologia honek bera bezalakoa ez zen guzia berdindu nahi zuen, diferentzia guziak desagertarazi. Printzipio ideologiko humanista eta unibertsaletan oinarrituriko asmo hauek, ordea, estatuaren boterea sendotzea zuten helburu. Diferentziak ezabatuz bereizketa nahiak desagertzen ziren, ezaugarri amankomunen gaineko batasuna egin zitekeen; homogeneizaziorik gabe, aldiz, ez. Horrela ulertu behar ditugu foruen indargabetzea edo euskara eta euskal kulturaren kontra egindako ahalegin guziak.

Hirugarren milurtekoaren atarian oraindik indarrean dauden printzipio horiek sekulako eragina izan zuten aztertzeraz goazen garai honetan. Are gehiago, Hego Euskal Herrian, euskaldunoi dagokigunez, Karlismoa amaitu eta guda zibila bitarteko aroa ez da Frankismoaren prestakuntza baino. Horren aurretik, berriz, izan ziren hamaika eraso, zein baino zein bortitzagoak. Espainiak xenofobiarik gordinena erein zuen euskaldun, katalan, galiziar zein beste edozein herriren kontra.

Euskal Herriaren herri izaera ezabatzeko ahaleginak etengabeak izan ziren; euskara eta euskal kulturaren kontrakoak izan ziren gogorrenak (euskararen atalean ikusiko ditugu). Horien pare jarri behar ditugu, aldiz, 1841ean aduanak kostaldera eramateko harturiko erabakia, soldaduzka derrigorrez egin behar izatearena, jazarpen politikoa... eta beste hamaika gertaera historiko

### **Espainia krisialdian**

Aro honetan Espainia krisialdi politiko eta sozialean murgildurik zegoen. Amaitu zitzaizkion garai bateko handitasunak eta kolonietako urreak, garai berriek eskatzen dutenari egokitzeko, berriz, aldaketa sakonak egin beharrean zen. 98ko belaunaldikoek hainbeste sentituriko espainiartasunaren gainbeheraren garaia da. Aro honetan Espainiak gora-behera handiak bizi izan zituen: Errestaurazioa izeneko prozesu politikoa (1874-1931), tartean Primo de Riveraren diktadura, II Errepublika.... Guri dagokigunez, Espainiako agintaritzaz

Euskal Herria eta euskal identitatearen aldeko ahalegin oro eragozten saiatu zen. Primo de Riveraren diktadura izan zen horretan gogorre-na, nahiz eta kasu guzietan abertzaletasunaren adierazpen politiko oro gaizki ikusia eta zapaldua izan.

### **Abertzaletasuna gorpuztu**

Identitate propioaren bila, galduriko herri izaera berreskuratu nahian Euskal Herriak bat egin zuen Europa zeharkatzen zuen erromantizismo nazionalistarekin. Sabino Arana Goiriaren gidaritzapean EAJ/PNV (1893) alderdia sortu zen, geroago SOV/ELA (1911), EAB (1928), ANV (1930)... Gertaera honek, ordea, alderdi baten sorrera baino haragoko eragina izan zuen. Foruen indargabetzeak eta Espainiaren xenofobiak ezinegonean utzitakoak bildu eta ikuspegi bateratua eskaini zien, Euskal Herriaren eta bere kulturaren aldeko borrokari norabide jakina eman zion, mugimendu oso bat jarri zuen abian. Mugimendu honekin ez zuen bat egin orduko bizkaitar oligarkia industrialak, bai, ordea, Gipuzkoako burgesia ttikiak.

Nazionalismoaren lehen urratsek boterearen jazarpena biziko dute, Euskal Herriaren aldeko aldarrikapen politikoa zigor gogorrez ordainduko da. II Errepublikari iritsi arte nazionalismoak ez zuen bere ideiak publikoki agertu eta defendatzeko askatasunik izan.

Euskara eta euskal kulturaren aldeko defentsa, Lizarrako estatu-tuaren inguruko negoziaketak, Autonomia... abertzaletasuna izan zen garai hartan Hego Euskal Herriko mugimendurik dinamikoena. Jazarpenak mugimendu abertzalea gogortu egin zuen eta kultur ekimenen babes bilatu zuen lan politikoa egiteko, beste biderik ez baitzegoen. Honela sortu ziren batzokiak eta hauen inguruko gizarte eta kultur dinamika osoa.

Mugimendu nazionalistaren baitako diferentziak gora-behera, sentimendu abertzalea Euskal Herri osora hedatu eta dinamika kultural eta politiko bizia izan zuen. Horren adierazpen argia da Lizarrako Estatutua. Eusko Ikaskuntzak prestatuturiko Estatutu hark Hego Euskal Herri osoa biltzen zuen eta euskara zuen hizkuntza nazionalizat. Lizarran egindako bozketan 548 alkatetatik 427ren aldeko botua jaso zuen.



Estatutu hori ez zen indarrean jarri, eta bere ordean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia soilik biltzen zituen egitura administratiboa sortu zen guda-  
ren erdian. Ordura arte indar espainolistek eta Madrilgo kongresuak  
Jaurlaritzaren sorrera oztopatu baitzuten. Edozein modutan dela ere,  
estatutuaren inguruan egindako lanak, Euskal Herriaren identitatea eta  
subiranotasunaren inguruko kontzientzia piztuz, geroago etorriko ziren  
mugimendu eta belaunaldien berrien akuilu izatea lortu zuen.

### **Langile mugimendua eta ezkerreko joera politikoak**

Nazionalismoa ez zen orduko mugimendu politiko bakarra. Geroz eta indartsuagoa zen industriarekin batera, langileria eta lan-  
gile kontzientzia sortzen ari ziren. Egitura industrialak ez zuen bat  
egiten nazionalismoak aldarrikatzen zuen Euskal Herriaren ereduare-  
kin, ez zuen zer ikusirik ordura arte euskaldunek ezagututako gizar-  
tearekin. Halaber, industriarako nahikoa langile ez hemen, eta  
Estatuko lurralde txiroenetatik etorkin oldeak Euskal Herrirako bide-  
an jarri ziren. Industriak, bada, Bizkaia eta Gipuzkoako paisaia natu-  
ral, sozial, linguistiko eta kulturala irauli zuen. Beraz, langile mugi-  
menduaren sorrera nazionalismoa eta ezkerren arteko dibortzioan  
gertatuko da, eta ondorioz elkarren kontrakoak izango dira bakoitzak  
eraikiko dituen proiektu sozialak.

Nazionalismoa kultur, hizkuntz eta gizarte tradizioaren defenda-  
tzaile zen, orduko ezkerre, aldiz, “internazionalista” (alegia espai-  
niartasuna = unibertsaltasuna), eta ondorioz euskal nazionalismoak  
defendatzen zuenaren kontrako. Honela bada, lehen langile mugi-  
mendua Euskal Herriaren eta euskal kulturaren mezprezuan jaio zen.  
Honen arrazoiak, ordea, ideologikoan baino langile mugimenduaren  
oinarri sozialean bilatu behar ditugu. Izan ere, ezkerreko militante  
gehienak kanpotik etorriak izanik, ez zuten inolako atxikimendurik  
sentitzen bertako ezaugarriekiko; eta ezkerrek berea duen interna-  
zionalismoaren irakurketa inperialista eginez (berdintasuna = gaine-  
rakoak gu bezalakoak izatea), euskaltasun kutsua zuen oro bazter-  
tzen zuten.

PSOE eta UGT hasieran, geroago CNT, PCE... ugari izan ziren ezkerreko erakundeak. Hasiera batean Bizkaiko meatzaldean eta geroago industria jarritako edozein lekutan, nazionalismoarekin batera berau izan zen garaiko mugimendu politiko-sozialik dinamikoenetakoa Euskal Herrian eta mundu osoan.

### **Migrazioak**

Esan berri dugu industriak eskulanaren beharra zuela, eta horrek Espainiako gunerik behartsuenetatik Euskal Herrira ekarri zuela hamaika langile eta nekazari. Hasieran ordain kaskarren truke eta bizi-baldintza txarrenetan bertan finkatu ziren.

Etorri zirenekin batera, beste batzuek kanpoko bidea hartu zuten. Garai hartan ekonomi krisiak baserria eta burdinolak astindu zituen, foruen galerak, berriz, oinarrizko jakien prezioak neurrigabe igo. Asko izan ziren krisi ekonomikoari aurre egin ezinik baserria utzi eta Ameriketako bidea hartu zutenak bizimodu hobearen bila. Baserriaren jabegoa arautzen zuen maiorazgoak seme-alaba nagusia babesten zuen, gainerakoak, berriz, kale gorrian utziz. Hauek izan ziren Ameriketako bidea hartu zutenak, gehienak abeltzaintzan ari-zeko asmoz joanak.

### **Demografia**

Industrializazioak eragin sakona izan zuen, besteak beste demografia mailako iraultza ekarri zuen Bizkaia eta Gipuzkoara, hemen kokatu baitzen industria. Araba eta Nafarroak, berriz, nekazaritzari loturiko ekonomia izaten jarraitu zuten, eta ez zen halako aldaketarik bizi izan. Gipuzkoan, esaterako, 1859 eta 1900. urteen artean populazioa %25 hazi zen.

### **Ekonomia**

XIX. mendea hazkunde mendea dugu. Industria indartzen eta hedatzen ari da Bizkaia eta Gipuzkoan. Bizkaiko garapen industrialia Bilboko portuaren inguruan eta Meatzaldea-Ibarrekerra eremuan kokatu zen batez ere, Gipuzkoakoa, berriz, ez zen inguru batean

bildu eta entpresak ere ez ziren hain handiak, banaketa nahikoa erregularrean entpresa tiki eta ertaina herrialdeko bailara guzietan kokatu zen.

XX. mendearen hasierak industrializazioaren indartzea eta sendotzea ekarri zituen; besteak beste, Bizkaiko Labe Garaiak, “Altos Hornos de Vizcaya”, sortu zen. Itsas merkataritza ere izugarri hazi zen eta honen ondoan untzigintza, meagintza, elektrizitatearen ingurukoa...

Euskal Herrian garapen honek garairik oparoenetako bat 1920-30 urteen artean izan zuen, mundu mailan bezalaxe, eta horrekin batera etorri zitzaion gainbehera. 1931. urtean euskal industria bereziki astindu zuen krisia hasi zen. 1935. urtea bitarte krisi garaia izan zen, ez zen inbertsiorik izan, ezta proiektu berririk ere.

Industrializazioak, halaber, egitura ekonomikoan aldaketa bortitza ekarri zuen. Euskal ekonomia nekazaritzari estu-estu lotu zen ordura arte; industrializazioak, berriz, hiritartzea eragin zuen. Hein berean baserriaren garrantzia ekonomikoa gutxitu egin zen eta honekin bere erreferentzialtasun soziala. Menditik kalerako exodoa hasia zen, baserriak hustutzen eta hiriak betetzen, euskaldun askok eta euskal kulturak bizitzeko espazio berria ezagutu zuten.

## **Eliza**

Elizak une oro bat egin zuen boterearekin. Dotrina irakasteko tokian tokiko errealitateari egokitu nahian euskararen aldeko zenbait pauso eman bazituen ere, latinez eta espainolez bizi zen erakundea izaten jarraitu zuen.

Elizak erakunde mailan euskararen alde ezer askorik egin ez bazuen ere, Gasteizko seminarioa gerraurrean euskaltzaleen gune bihurtu zen; bertan bildu ziren garai hartako euskal kulturaren inguruko pertsonaiarik dinamikoenak eta euskal Pizkundearen bultzatzaile garrantzitsu izandako asko, besteak beste Aitzol eta Manuel Lekuona.

### 3.2.2.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA. 1877-1936

Sarrera historikoan ikusi bezala aro hau aldaketa handien garaia dugu. Maila eta eremu orotan aldaketak gertatu ziren. Ekonomian, politikan, gizartean. Euskal Herria aldaketen zurrunbiloan sarturik zegoen eta, beraz, baita euskara ere. Krisialdi latzean murgildurik, euskarak ordura arte inoiz ezagutu gabeko egoerak bizi izan zituen, kontrakoak zein aldekoak. Euskal Herria, berriz, baliabide politikorik gabe gelditu zen, bere baitan sortzen ziren premia eta aldarrikapenak, euskararen aldekoa besteak beste, bideratzeko. Euskara eta Euskal Herria muinean hartu zituen mugimendu honetan, euskaltzaletasunak eta euskalaritzak pauso finkoak eman zituzten eta aurreko mendeetan jarritako oinarriak itxura zehatza hartzen hasi ziren, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren sorrera edo euskarazko irakaskuntzaren aldeko mugimenduarekin, esaterako.

Kontuan izan behar dugu garai honetan estatu Espainol eta Frantsesak euskara desagertarazteko aspaldi hartutako erabakiari utsi ziotela tinko eta gogor. Helburu hori lortzera bideratu ziren eskura zituzten baliabide asko eta asko. Izan ere, estatu liberalak herritarren bizitzan eragiteko inoiz baino tresna gehiago zuen eskura. Hizkuntza bakarra (gaztelera edo frantsesa) inposatuz eta gaine-rakoak baztertuz, hizkuntza gutxiagotuen atzerakadari bultzada handia eman zitzaion.

Dotrinaren edo ikastetxeetan euskara erabiltzeko debekuaren bitartez (1902 hegoaldean, 1906 iparraldean), herritarrak derrigorrezko soldadutzara bidaliaz, edo administrazioaren ordezkari elebarkar erdaldunak izendatuz, euskararen erabilpen eremua murriztu eta erdararena indartzea lortu zen. Honela zioen 1902ko aginduak, besteak beste:

*“Art. 2º. Los Maestros y maestras de instrucción primaria que enseñasen á sus discípulos la doctrina cristiana ú otra cualquiera materia en un idioma ó dialecto que no sea la lengua castellana, serán castigados por primera vez con*

*amonestación por parte del Inspector provincial de primera enseñanza, quien dará cuenta del hecho al Ministerio del ramo; y si reincidiesen, después de haber sufrido una amonestación serán separados del Magisterio Oficial, perdiendo cuantos derechos les reconoce la Ley”<sup>37</sup>.*

1902ko azaroaren 21ean Alfonso XIII eta Romanones konteak sinaturiko errege dekretua.

Ordura arte euskara idatzizko mundutik kanpo egon baldin bazen, ordutik aurrera ahozkotik kanpo gelditzen hasi zen; euskara ezin izango zen, jada, ahoz ere erabili hainbat lekutan.

Euskara eta euskal kulturaren aurkako eraso, ordea, Euskal Herriaren aurka egindako eraso orokorraren barruan ulertu behar da. 1876an euskal foruen azken aztarnak galdu ziren eta horiekin batera euskal identitate bereziaren oinarri juridikoak. Euskal Herriaren ezaugarri berezi izandakoen galerak, Euskal Herriaren identitateari



## Nekazaritza eta ganaduen billaldiya

— IRUN-EN —

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO OHIT GOITIAK BERE KONTURA EGINAK

1903

Foru Aldundiaren deialdia

<sup>37</sup> Ikus Torrealdai, J.M. (1998), *El libro negro del euskera*. Donostia, Txarttalo. 50-53. or.

eutsi eta indarrak berreskuratzeko, ikur eta bide berriak behar zituen. Ordurako foruzaleen bitartez abertzaletasuna eta euskaltzaletasunaren ernamuina ereinda zegoen eta jasanezina zen Euskal Herria desagertzera zihoala ikustea.

Egoera honi erantzun nahian sortu zen “Eusko Pizkundea” izeneko mugimendu sozio-kulturala. Nafarroan hasi zen lehen urratsak ematen, izan ere, hangoa baitzen galera egoerarik larriena une hartan. Arturo Kanpion aintzindari zela, geroago *Asociación Euskararen* bitartez, euskararen aldeko ekimen ugari burutu zuten, besteak beste, *Revista Euskara* (1877-1883) izeneko aldizkariaren bitartez. Nafarroan sortutako joera Euskal Herri osora hedatu zen eta euskaltzale taldeak nahiz aldizkariak plazaratu ziren euskal hiriburuetan (Gasteizen *Revista de las Provincias Eúskaras* (1879), Donostian *Euskal-Erria* (1880-1918), Bilbon *Revista de Vizcaya* (1885-1889), Ipar Euskal Herrian *Eskualduna* (1887).

Aldizkari eta euskaltzaleen bultzadaz, Lore Jokoak eta euskararen aldeko jaialdiak Ipar Euskal Herrietik hegoaldera hedatu ziren, Abadiaren ekimenari jarraipen oparoa emanaz (Elizondo 1879, Durango 1886, Errenteria 1931...).

Eusko Pizkundearen lehen urrats horietatik sortuko ziren geroago definizio politikoak (1894, EAJ/PNV), eta euskara Euskal Herriaren ezaugarri nazional izatera pasa zen. Hizkuntza eta politika loturik ageri ziren orduko euskaltzaleen artean. Beraz, euskalduntasunaren aldarrikapen eta “salbazio” mugimendu honek kultura mailako susperraldi garrantzitsua ekarri zuen. Uhin horren bihotzean mugimendu politikoaz gain euskalgintzak eta euskalaritzak indar berezia hartu zuten, bai eta literatura edo Euskal Herriari buruzko ikerketek ere.

Eusko Ikaskuntza (1918) eta Euskaltzaindia (1919) izan ziren kultura eta hizkuntzaren aldeko mugimendua gorpuztu zuten erakundeak eta hauen inguruan ibili zen Espainiako gerra zibila bitarteko euskara eta euskal kulturaren aldeko lanik gehiena. Politika mailan, berriz, EAJ/PNV izan zen erreferentzia nagusia.

Euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna Hego Euskal Herrian bat egirik ibili ziren. Euskara eta euskal kultura bultzatzea izan zen sarritan

abertzaleek euren egitasmoa aurrera eramateko izan zuten bide bakarra. Horregatik nonahi hedatu ziren euskal festa eta bilerak, euskarazko irakaskuntzaren aldeko aldarrikapenak... Arestian aipatu dugunez, mugimendu honek garai zailetan lan egin behar izan zuen, edo, bestela esanda, horregatik sortu zen. Aldarrikapen mailan egindakoak ez zuen erabilera mailan parekorik izan eta erdarak nagusi izaten jarraitu zuen, baita alderdi abertzaleetan ere.

Estatuak euskararen kontra hartutako ekinbideez gain, edo ekinbideen artean, inondik inora, migrazioarena izan zen gogorrenetako bat. Bilbo eta Ibarrekerra zein Meatzaldean iharduera ekonomiko-industrialak geroz eta handiagoa izaki, Espainiako eskualderik behartsuenetatik etorkin ugariak jo zuen hona lan bila. Industriak etorkinak erakarri zituen eta baserritarrak kalera bultzatu; euskal ekonomiaren oinarria izan zen nekazaritzak ez zuen jada nagusi izaten jarraitzerik, eta bere seme-alabak kalera edo Ameriketara zihoazen. Beraz, paisaia kultural eta linguistikoa ere oso bizkor ari zen aldatzen, Hego Euskal Herri osoan.

Dena den, N. Velascok 1866-68 urteen artean egindako inkestaren datuekin garai honen hasieran Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hizkuntz egoera zer-nolako zen badakigu. (Ikus aurreko aroan esandakoa).

Errealitate horrek ordea, ez dirudi instituzioen aldetik arreta handirik jaso zuenik. Madril eta Parisko agintariak euskara desagertaraztea helburu zuten gero, euskarari ez zioten lekuri egin bere menpeko erakundeetan. Bertako erakundeen artean, berriz, gazi eta gozoak topatuko ditugu. Abertzaleak Udala eta Foru Aldundietan parte hartzen hasi zirenetik nabaritu zen aldaketarik handiena: Euskaltzandia eta Eusko Ikaskuntzaren sorrera bultzatu, zenbait lanpostutarako euskara jakin beharra ezinbesteko baldintza jarri... euskararen kezka iritsi zen zenbait instituzioetara eta horrek istilu handiak sortu zituen Madrilekin. Lizarrako estatutuaren inguruko eztabaida eta gerraurreko urteak izan ziren maila horretan emankorrenak. Dena den, orohar utzikeria handia izan zen erakunde horietan ere.

Orduko errealitate soziolinguistikoa kontuan izanik, euskararen

alde eman beharreko urratsak eman gabe gelditu zirela esan behar dugu, euskararen egoera diglosikoa gainditzeko urratsik ez baitzen eman eta larriagoa dena, ez baitzen egin beharrekoaz ikuspegi argi eta finkorik agintarien artean.

Hezkuntzarena izan zen, besteak beste, gatazka iturri nagusietako bat. Bai Espainiak, bai Frantziak, aspaldi jarri zituzten indarrean hezkuntza elebakarraren aldeko legeak (Moyano 1857, Ferry 1879), espainola eta frantsesa ez beste hizkuntza guziak erabat debekatzen zituzten legeak. Euskal Herrian ez ziren batere gustoko lege horiek. Foruak galdu bitartean Diputazioen esku egon zen herri bakoitzeko irakasleak izendatzeko ardura. Izendapena egiteko orduan, noski, oso aintzat hartzen zen herriaren egoera soziolinguistikoa eta irakasle-gaiaren hizkuntz gaitasuna. Aspaldiko ardura hori apaizen izendapenarekin hasi zen. Jimeno Juriok argibide ugari ematen digu gai honi buruz Nafarroako euskararen historiari buruzko bere lanean.

Botere zentralaren nahia eskumen hori bereganatzea zen, herri euskaldunetarako irakasle erdaldun eta erdalduntzaileak izendatu ahal izateko. Bertako Udal eta Aldundiek ez zuten halakorik onartzen eta aurre egin zioten asmo horri. Aro honetan Foru Aldundiek ahalegin handia egin zuten irakaskuntza ahalik eta euskararen aldekoena izan zedin. Esan bezala, borrokarik gogorrena irakaslegoaren izendapenaren inguruan izan zen. Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek asmo horretan bat egin bazuten ere, Nafarroakoa izan zen eskumen hori lortu zuen bakarra (1914).

Honela zioen garai hartako Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aldizkari ofizialean:

*“Tiempo hace que la Diputación de Guipúzcoa tomó el patriótico acuerdo de gestionar el que se obligara a los maestros de primera enseñanza de las escuelas de Euskalerría el que se poseyera el idioma vascongado. Como era natural, para dar a este acuerdo mayor solemnidad y prestigio, solicitó de las demás Diputaciones hermanas lo*



*hicieran suyo, y todas juntas emprendieran los trabajos conducentes a la realización de sus deseos.*<sup>38</sup> ”

Beste aukerarik ezean Foru Aldundiek estatuaren hezkuntz proiektuak zituen hutsuneak betetzeari ekin zioten. Alegia, bere gain hartu zuten falta ziren irakasleen kontratazioa, honela, euskarazko irakaslegoa ahalik eta gehien hedatuz. Garai hartan hezkuntzan emandako pausoen artean Bizkaiko Auzo-Eskola (1920-30. urteen artean 125 auzo eskola eraiki ziren Bizkaian) eta ikastolen sorrera daude (Donostia (1914) eta Iruñean (1933).

Ez dezagun ahantzi, ordea, bigarren karlistaldiak iraun zuen bitartean karlisten menpe zegoen lurraldean euskarazko hezkuntz proiektua bultzatzeko ahalegin handia egin zuela. Beldur gara, ordea, garai horietan euskarazko irakaskuntza bultzatzeko borondatearen atzean ez ote dagoen J.M. Eguren hezkuntz ikuskatzaileak esandakoa:

*“Cuando empiezan a asistir a la escuela no entienden bien el castellano, y como en este idioma aprenden a leer, escribir y todos los demás ramos de la enseñanza, excepto la doctrina cristiana, no comprenden lo que leen y estudian* ”<sup>39</sup>

Beraz, helburua erdara euskararen bidez irakastea zen, erdara ikastea azken batean.

Pizkundean protagonismo berezia izan zuten hainbat apaizek. Gasteizko seminarioaren inguruan bildu ziren garai hartan euskara eta euskal kulturaren inguruan kezkatutako hainbat apaiz eta apaizgai. J.M. Barandiaran eta M. Lekuona bertan irakasle zirela, bigarren hamarkadan, euskal kulturaren bilgune bihurtu zen. Gasteizko seminarioaz gain

<sup>38</sup> *Sirimiri*, 1996-10-11. Iturria: Rodríguez, F. (1996) *Ikastolak eta euskal eskolak*. Hernani, Egin biblioteka 28. or.

<sup>39</sup> J.M. Eguren (1867), *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Iturria: Rodríguez, F. (1996) *Ikastolak eta euskal eskolak*. Hernani, Egin biblioteka 26. or.

ugari izan ziren apaiz eta fraileek bultzaturiko euskarazko argitalpenak, 1919an sorturiko *Zeruko Argia*, besteak beste.

Dena den, Hego Euskal Herriko elizaren hierarkiak ez zuen bat egiten Pizkundearekin. Elizaren barne funtzionamenduan latina eta erromantzeak ziren hizkuntza nagusiak eta ez euskara. Horrezaz gain, elizako agintariak oztopo ugari jarri zioten elizan Pizkundearekin zerikusirik zuen orori, Gasteizko gotzain izan zen Jose Cadena y Eletak (1905-1913), esaterako, euskarazko bataio eta izenak onartzeko arazo handiak izan zituen. Estatuak berak ere eskua sartu nahi izan zuen. Erlijioak herritarren bizitzan zuen eragina ikusita, erlijioa nahiz beste edozein gai irakasterakoan hurrekin euskara erabiltzeko debekua agindu zuten Espainian 1902an. Frantzian, berriz, 1906an apaizen igandetako sermoietan frantsesa ez beste hizkuntza guziak debekatu zituzten.

Pizkundera egoera sozio-politikoaren ondorioz sortu baldin bazen ere, kontuan izan behar dugu ez zela ondorio bakarra izan. Industrializazioak eta etorkinak bertan lanean jartzeak, gizartearen kaletartzea eta proletarizazioa eragin zituzten. Klase borrokaren garai berria hasi zen; langileen artean, etorkinen artean batez ere ezkerreko ideologia zen nagusi. Hasiera-hasieratik eskuineko alderdien aurrean egon ziren, eta bereziki EAJ-PNVren aurrean. Alderdi hau eskuinekotzat zuten, ez ezkerrekoa ez zelako, abertzalea zelako baizik. Abertzaletasuna burgesiaren joera zelakoan, munduko langileen elkartasunaren izenean euskararen defentsa egitea atzerakoitzat jotzen zuten.

Beraz, euskararen kontrako jarrera, jada, ez zen boterearena bakarrik izango. Euskara eta euskaldunek bizi zuten arbuioa jauregietatik kalera jaitsi zen. Honela zioen *La Lucha de clases* Bilboko aldizkari sozialistak 1899an:

*“Nosotros lo decimos como lo sentimos, dadas las circunstancias actuales, quisiéramos un Gobierno que prohibiese los Juegos Florales, donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos*

*y todas las lenguas diferentes de la nacional, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos<sup>40</sup>”.*

### 3.2.3.- LEZOREN HISTORIA. 1877-1936

#### **Karlismotik gizarte industrialera**

Karlistaldiaren ondoren topatzen dugun Lezo garai historikoaren joera nagusietan bete-betean dago. Ekonomia, demografia edo politikan orduko euskal kostaldearen ezaugarriei eutsi zien.

Lezo karlistaldietan herri beroa izan zen; maiz gertatu ziren liskarrak eta ugari karlisten alde, armak eskuan, ibilitako gazteak. Gerra galdu izanak Lezon zein ondorio izan zuen ez baldin badakigu ere, indultoa jasotako herriko semeen berri badugu; ez dago zalantzarik, beraz, Lezo herri karlista izan zela nagusiki. Oiartzun bera ere hala izan zen. Kokapena, ordea, ez zen batere eroso, garai hartan Donostia eta Irun gune liberalak baitziren. Beraz, Lezo periferiako herria zen eta bere identitatea hiriarenaren aldean oso zen desberdina.

Kontuan izan behar dugun beste datuetako bat Errenteriaren izaera da. Lezorekin batera, Lezo baino indartsuago, ordea, industrializatzeko hasitako herria zen, etorkinak hasiera-hasieratik hartu zituen eta II Errepublika garaiko hauteskundeetan ezkerreko joera nabarmena agertu zuena. Ez litzateke okerra esatea Lezo gotorlekua izan zela, inguratzen zuten liberalismoa eta ezkerreko joera ideologikoen aurrean izpirituzko eta politika gotorlekua. Horrela ikusteak Lezoren ondorengo historian gauza asko ulertzeko bidea erraztuko digu.

Gotorleku izpirituala zela esan dugu, ez ordea fisikoa, ez horixe. Herrialde osoan bezala Lezon XIX. mende bukaeran hasi zen kokatzen industria. Ordurako itsas merkataritzan, arrantzan eta untzigintzan indar gutxi zuen Lezok, bere kaia ez baitzen egokia garai

<sup>40</sup> Ikus Torrealdai, 1998, *El libro negro del euskera*. Donostia, Txartalo. 63. or.

berrietako untzientzat, eta nekazaritza zen ekonomi iharduera indartsuena. Besteak beste, La Merceditas izeneko teilagintza mekanikoa Alzatekogañan eta sutauts fabrika Aritzbakarran izan ziren aro garai-kideko lehen industriak<sup>41</sup>. Lezokoekin batera, Erreterian eta Pasaian industria eta portuko lanak indartzen ari ziren eta asko izan ziren hor lanean hasitako herritarrak. Gizon zein emakume, baserriko lanarekin batera industrian aritu ziren. Bikoiztasun horrek Lezoren historia markatu izan du epe luzez, ia-ia gaurdaino.

Industriak Erreteriarara etorkin ugari erakarri baldin bazuen ere (1910ean % 47,6a baino ez zen bertan sortua) gehienak euskal herritarrak ziren (1910ean biztanleen % 87,9 Euskal Herrian bertan jaioa zen<sup>42</sup>).

## Populazioa

Lezon, populazioaren hazkundean inmigrazioaren eragina are tikiagoa izan zen (1860an 1.100 biztanle zuen Lezok, 1900. urtean 1.198 eta 1930ean, berriz, 2.062). Alegia, industrializazioaren lehen aroan apenas nabaritzen da Lezon aldaketarik, aldiz, XX. mendearen lehen erdian igoera ia %100ekoa da. Hau da, industrializazioaren arorik indartsuenak populazio igoera handia eragin zuen Lezon, ez ordea, Erreterian bezain goiz. Gerraurreko hamarkadetan Lezok bizi izandako hazkundean gutxi dira Euskal Herritik kanpo sorturikoak (1920an Lezoko biztanleen artean %3,9a baino ez zen Euskal Herritik kanpo sortua<sup>43</sup>). Etorkin gehienak inguruko herrietakoak edo Nafarroa zein Gipuzkoakoak dira.

Soziologikoki Lezok populazio euskaldunari eutsi zion, eta hori nabaria da hauteskundeetako emaitzak ikusiz. Bozketa guzietan lezoarrek hautagai karlista edo integristen alde egiten dute; errepublikazaleak eta sozialistak, berriz, gutxiengoa dira. Lezoarren joerak benetako aldaketa biziko du hautagai abertzaleak daudenetik.

<sup>41</sup> Agirretxe, Esnaola (1994), *Euskara Lezon*. Lezoko Udala, 8. or. Lander Zurutuzaren sarrera.

<sup>42</sup> Iturria: Jimenez de Aberasturi (1996) Historia de Renteria. Erreteria. Erreteriarako udala 229.0r.

<sup>43</sup> Iturria: Lezoko Udal Agiritegiko urte horretako errolda.

Abertzaleen aldeko joera nagusi izango da, horretarako ikusi besterik ez dago Lizarrako estatutua bozkatzeko orduan lezoarren joera: Estatutuaren aldeko bozkek: hautesleria: 1.050, aldekoak 791 (% 75,33), kontrakoak 1 (% 0,09). Beraz, Lezon joera politiko guzietako herritarrak baldin baziren ere (liberalak, kontserbadoreak, integristak, abertzaleak, sozialistak...) gehiengoak Euskal Herriarekiko atxikimendu berezia sentitzen zuen, nolabait esatearren.



Batzokiko dantzari taldea Lezoko plazan egunpasa abiatu aurretik. Eskumako arkupean, ezkerretik hasita lehena Miren Gezala

### Joera politikoak

Joera politiko desberdinek, ordea, bazuten beren ordezkaritza herriko bizitza sozialean, eta baita lokal soziala ere. Besteak beste, Donibane kalean “Centro Republicano”a zegoen eta geroago, berriz, Batzokia zabaldu zen (1931-07-31). Karlistek, berriz, ez zuten halako gunerik Lezon eta Errenteriako “Circulo”an biltzen ziren. Hauen kultur dinamika ia hutsa zen, noizean behineko agerraldietara mugatzen zena.

Abertzale euskaldun eta abertzale espainolen artean ere izan ziren hamaika hika-mika. Aurreko garaian Lezon konstituzioaren omenez jarritako oroitarriari egindako erasoak aipatu ditugu. Aro honetan euskal abertzaletasuna gorpuztearekin batera espainiazale eta abertzale euskaldunen arteko liskarrak ugaritu egin ziren. Horren adibide dira San Juan gauerako herriko gazteek jarritako lizarraren inguruan gertatutakoak. Herriko gazte “Mendigoizaleek” tradizioa jarraituz lizarra paratu ohi zuten plazan goiko muturrean ikurrina zuela. Errepublikazaleek, berriz, hau Espainia zela argudiatuz, euskal ikurrinaren gainean Espainiakoa

jarri zuten; ondoren, atzera, abertzale euskaldunek espainiakoa kenduz euskalduna jarri. Gertaera honek herritarren gogoan bizirik jarraitzen du eta horrelaxe kontatu digute Melintton Garmendia eta Joxe Migel Trekuk.

San Juan gauekoaz gain abertzaleek euskal festak antolatzen zituzten (Lezo 18ko azalean dagoen argazkia orduko euskal-jai batena da), Gaintzurizketako Arizti-Berri baserrian jaialdiak eta bilerak, batzokiaren inguruan antzerkia eta euskal dantzak... Abertzaletasunaren sorrera Lezon, Gipuzkoa osoan bezala, benetako mugimendu dinamiko eta eragilea izan zen. Lezo herriari ordura arte inoiz izan gabeko bizkortasuna eman ziona.

### **Abertzaletasuna**

Lezon abertzaleek indar handia izan zuten eta horren lekuko dira herrian zituzten egiturak eta horien inguruan biltzen zen jendea. Florentzio eta Xexilio Gezala (Miren Gezalaren aita eta osaba) eta Elias Salaberria margolaria izan ziren Errenteriako batzokian lehen afiliatuak eta geroago Lezoko batzokia zabaldu eta mugimendu abertzalea herrira ekarri zutenak (1931-07-31). EAJ-batzokiaren inguruan jende ugari bildu zen, kultur ekitaldietarako edo hautagaitza abertzaleak aurrera ateratzeko.

EAE-ANV alderdia ere bazen garai hartan, Lezon, ordea, ez zuen indar handirik izan. Hauteskundearen emaitzetan ikusten da, 1933ko azaroko orokorretan, esaterako, ez zuten boto bakar bat ere lortu Lezon, EAJ-k, berriz, 614 (% 69,53)<sup>44</sup>. Miren Gezala, herriko lehen ikastolaren sortzaile izan zenaren hitzetan, EAE-ANV ezkerrekoa zen eta Lezoko jendea, berriz, eskubitarra eta elizkoia.

SOV-ELAK ere indar handia izan zuen, bertan arduraren lanetan ibili ziren, besteak beste, Patrizio Urkizu eta Luis Gezala, Miren Gezalaren anaia. Inaxio Artolak ongi gogoratzen ditu garai haiek. Bera SOV-ELAKo delegatu izan zen eta Lezoko industrian eragin handiko

---

<sup>44</sup> Iturria: Jose Antonio Rodriguez (1991) *Guipuzkoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoako Kutxa.

sindikatuia izan zela dio. Sindikatuaren finantziazioa, laguntza-kutxak..., berriz, herritarren diru laguntzez egiten ziren. Horrek guziak argi adierazten digu zer nolako eragina izan zuen sindikatu honen sorrerak (1920an Erreterian) ordurako oso industrializaturik zegoen eskualde honetan.

EAJ-PNV eta SOV-ELA-k Lezon eragin handia izan baldin bazuten ere, mugimendu abertzalearen historian aipamen berezia merezi duen mugimendua Emakume Abertzale Batza dugu (EAB). Lezon emakume abertzaleak bildu nahi zituen mugimendu honen sorrera 1932ko irailaren 11n egin zen ospakizun bereziekin. El País Vasco, orduko egunkari abertzaleak honela iragartzen du:

*“Con motivo de la inauguración de Emakume Abertzale Batza, bendición de las banderas de mendigoizales y ume-txus de la localidad (...) se celebrarán diversos actos nacionalistas. (...) Los orados <sic> son los siguientes: señor Hernandorena, señor Leunda, la señorita Urcelay, la señorita Trabudua y el joven diputado a Cortes señor Leizaola. (...) existe en este pueblo un deseo indescriptible para escuchar las palabras de ambos batalladores patriótas (...) ¡Emakumes! ¡Mendigoizales! ¡Patriotas vascos! En Lezo os esperan ese día con los brazos abiertos. Contribuid para el completo éxito de nuestras fiestas.”*<sup>45</sup>

Argi dago, beraz, zein zen EABren joera. Herriko emakume ugari bildu zuen, eta bertan egiten zuten lana bereziki deigarria ez baldin bazen ere (esku-lanak, otorduak prestatu, baserriz baserri kanpaina egin...) sekulako garrantzia izan zuen ondorengo belaunaldietan. Formazio abertzaleko emakume hauek izan ziren, frankismoaren urterik ilunenetan, sukalde txokoan, gero herrian mugimendu abertzalea osatuko zutenen hezitzaile.

Emakume hauek ondorengo belaunaldiei abertzaletasuna eta herri

<sup>45</sup> Iturria: *El País Vasco*: 32-9-1.

maitasuna irakatsi zieten. Honela esanda erromantiko kutsua baldin badu ere, ez da azalkeria esaten ari garena. Lan hau prestatzeko egindako elkarrizketa gehienetan atera den gaia izan da. Lezoko ikastolaren sorrerako batzordean (1968), adibide bat ematearren, EABko bi militante ditugu, hauekin batera ari diren gazteen artean ere bada ama EABkoa zuen bat baino gehiago; gauza bera gertatzen da Allerruren sortzaileekin edo orduko ETako kideekin. Ezer ez da hutsetik sortua. Inaxio Artolak, esaterako, onartzen du, besteak beste, bere arrebaren militantziak abertzaletu zuela. Gauza bera dio Joxe Migel Trekuk, amarengandik jaso zuela aberriarenganako maitasuna eta kezka. Bi emakumeok EABko kide ziren.

Mugimendu abertzaleak herriaren aurrean agertzeko moduetako bat kulturala izan zen. Gerraurreko urte haietan batzokiaren inguruan antzerkia, euskal kantagintza eta dantzak ikasi eta eskaintzen ziren. Jende ugari biltzen zuten ekitaldi hauek eta besteak beste Miren Gezala ibili zen bertako arduradun lanetan. Lezon egindako lana, ordea, ez zen isolatua; herrialde mailan, Pizkundearekin sorturiko kultur sarearekin loturik zegoen. Mirenek berak kontatu digu nola joaten zen Errenteriarra edo Donostiara euskal kantak eta dantzak ikastera edo euskarazko antzerki lanak eskuratzen. Antzerkiak biltzen zuen jende gehien.

Dena den, batzoki barruko ekitaldiez gain, kalera begira ere antolatzen ziren euskal jaiak (gogora *Lezo* aldizkariaren 18. alearen azalean dagoen argazkia). Hauen artean Arizti-Berrin lezoarrek eta Jaizkibelen sanjuandarrek antolatzen zituztenak aipatu behar ditugu. Jaialdi hauek, Inaxio Artolak dioenez, baserriko jendea elkartzeko antolatzen zituen batzokiak. Bera sanjuandarren jaira joaten zen, beste batzuk, berriz, Arizti-Berrikora. Jaialdi hauen izaera funtsean kulturala zen, eta kirol zein kultur ekitaldiak izaten ziren bertan, hitzaldi bat edo besterekin batera.

Aberri eguna ere parada egokia izaten zen honelakoak antolatzeko. Etxeetako balkoitetan hiru koloretako zapiak jartzen ziren, hitzaldiak antolatu... Miren Gezalak ederki asko gogoratzen du hori guziaz.

Soziologikoki, ordea, Lezoko gizarte bizitza ezin dugu mugimendu



politikora mugatu. Garai hartan herrian elizak ere eragin handia zuen; batez ere, urte askotan bikario izan zen Eusebio Garmendiak. Dena den, euskararen atalean aztertuko dugu eliza, udala eta gaine-rako gizarte sektoreen eragina.

## Jazarpena

1923an Primo de Riverak estatu kolpea jo eta boterea bereganatu zuenean abertzaleentzako estuasunak etorri ziren. Kolpe hark bazter-rak ederki nahasi zituen eta abertzaleek klandestinitatera pasa behar izan zuten. Joxe Migel Trekuk Patxi Arriaga Lezoko militante aber-tzalearen bitartez jakin zuen garai hartako bilerak heian, ikuiluan, egiten hasi zirela, horman ikurrina jarrita. Inaxio Artolak ere gogoan ditu haurtzaroko urte haiek, eta nola Lezon, zenbait familiak, bere-ak, besteak beste, uko egin zion ospakizun egunetan sinbologia espainola etxeko balkoian jartzeari.

Dena den, herriko militante abertzaleak nabarmen agertzen ziren herrian, nahiz eta beldurra ere handia izan; Martin Bidegain gazte abertzaleak, esaterako bere kontrako atentatua izan zuen, Miren Gezalak kontatu digunez. Gauzak ez zeuden txantxetarako, bada. Francoren etorrerarekin, herriko abertzale hauetako zenbaitek espe-txearekin ordaindu zuten euren militantzia.

Abertzaleak indartsu izan arren, herriko alkatetza ez zen beti aber-tzaleen esku egon. Joxe Migel Trekuren arabera, jarreraz Lopetegi aber-tzalea izan zen, ez ordea Regino Gezala (liberala) eta Asasa. Izan ere, garai hartan alkatea eta Madrilgo gobernua bidaltzen zuen idazkaria izaten ziren agintzen zutenak, batez ere idazkaria, honi baitzegokion Madrilan aginduak betearaztea.

Alkatetzarekin gertatutakoaren antzekoa izan zen Elizarekin ger-tatutakoa. Euskarari buruz hitz egitean sakonago aztertuko badugu ere, reketek Lezon sartu behar zuten egunean argi gelditu zen zein zen elizaren joera ofiziala. Melintton Garmendiak honela kontatu digu:

**Galdera:** Zu joan al zinen reketeei ongi etorria ematera?

**Erantzuna:** *“eaman intziguten, bai, mutikoskorrak giñan gu ta seitako mesara joangiñan, gu, seitako mesea joangiñan eta esantziguten aldaretikanen: “Bueno, oan denak emendik ateratzian joanberdegu Gantxusketa bidera eta ongietorriya emanbersayote reketiai”. Ta au ta ura ta abar aittusien isketan. Ala, artusiguten denai, eta emantziguten Gantxusketako birea, bai, emengo apeisa Don Luis Garmendia senak, eta Inaxio Pikabeak (...). Ala ba joangiñan Gantxusketa biriora eta Txatxamendiko gañeaño joangiñan inor ikusi gabe eta ara asaldu giñanian ejuka asisian andik. Apeisak eta emengo beste Lesoko gison batzuek asisien ejuka “viva Navarra” eta “viva los requetes” y “viva los valientes requetes de Navarra”.*

### 3.2.4.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA LEZON. 1877-1936

#### Hezkuntza

Lezoko eskolak 6 eta 13 urte bitarteko haurrak biltzen zituen bi multzotan bereizirik, neskak batetik eta mutilak bestetik. Ikasgelak, berriz, udaletxean zeuden eta 1926tik aurrera Lezo-Handiako Pildain eskoletan.

Ez dirudi Lezoko gazteek karlistaldiaren ondorengo urte haietan oso formazio trinkoa zutenik. Iraupen laburra izateaz gain, asko ziren 10 urterekin eskola uzten zutenak han edo hemen lanean has-teko, eta beste asko, berriz, etxean egin beharreko lanak egin ondo-ren eskolara joaten zirenak. Maria Zapirain irakasleak honela dio 1912ko ikasturte amaierako txostenean:

*“en mi humilde opinión, creo que es imposible enseñar tales asignaturas en un pueblo en que la mayoría de las niñas abandonan la escuela a los diez años”.*

Simeón Antunez mutilen irakasleak, berriz, 1912ko txosten batean haurren asistentzia txarra azpimarratzen du, esanez baserriko lanak

edo lantokikoak eragozten dutela haurren asistentzia erregularra. Papeleran ari direnen adibidea aipatzen du, laneko txandaren arabeko asistentzia dutela esanez. Irakasleen txostenak baino adierazgarriagoak dira asistentzia orriak. 1883ko batean, esaterako, ohikoa da astean lau falta egitea, horixe egin zuten 18 ikasletatik 11k azaroan. Bada urte bereko bi hilabetetan, azaroa-abendua, 25 falta egindako

Fiestas escolares de Leza.

Año de 1909.

Programa.

- 1ª Himno musical por la banda de la localidad.
- 2ª Lectura del Real decreto sobre Fiestas escolares.
- 3ª Himno a la bandera cantado por los niños.
- 4ª Discurso del Sr. Profesor.
- 5ª Marcha de San Ignacio cantada por los niños con acompañamiento de la música.
- 6ª Recitación dialogada por las niñas.
- 7ª Discurso del Sr. Cura Rector.
- 8ª Himno al Arcobispado de Guetxica cantado por los niños con acompañamiento de la música.
- 9ª Himno musical.

Eskolako festa egitaraua

<sup>46</sup> Lezoko Udala Agiritegia: Sec b, neg 5, serie III, libr. 1, exp 2).

mordo bat ere<sup>46</sup>.

Egoera berdintsua da mende hasieran. 1912ko asistentziaren aipamenetan Antúnezzen 99 ikasle matrikulatuetatik bataz beste “hubo como término medio de asistencia diaria de 22 a 26”. Datu hau garrantzitsua da ulertzeko zenbateko seriotasuna eta garrantzia zuen eskolak lezoar heldu eta gazteen artean. Izan ere, eskola zen espainoltzeko estatuak zuen tresna eraginkorrenetako bat eta datu hauek ikusita ez dirudi oso erraza izango zenik ezer lortzea asteen lau egunez piper egiten zuten ikasleekin.

Joera honek geroz eta indar gutxiago izan bazuen ere, gerraurrean oraindik oso bizirik zegoen. Melintton Garmendiak berak aipatzen digu zenbatetan egiten zuten piper marearen arabera karramarroak harrapatzera joateko. Eta hauek bezala beste askok, jolaserako edo lanerako.

Haur guziak ez ziren eskola “Nacionaletara” joaten; gutxi batzuk herrian zenbait urte egin ondoren oinarritzko heziketa jasotzera Errenteriako Sagrado Corazón ikastetxera joaten ziren. Hauen artean Luis eta Nikomedes Pikabea, euren ikasle garaian zortziren bat omen ziren Lezo osoan ikastetxe pribatu horretara joaten zirenak eta hor, noski, ikasketak erdaraz (espainolez eta frantsesez) egiten zituzten. Ikastetxe pribatueta joateko ohiturak indarrean jarraitu zuen ondorengo hamarkadetan.

### Hizkuntza

Aurreko aroan bi aipamen jaso ditugu hezkuntzaz; batetik, Lope Isastirena, kristau ikasbidea euskaraz egiten zela adierazten zuena, eta bestetik Lezo eta Irungo udal idazkariarena, 1807an honela zioen:

*“la primera y única lengua que generalmente se usa y aprende desde la infancia (...) en las escuelas públicas de los primeros rudimentos suele ser en lengua nativa”.*

Beraz, garai honen aurrekoa dugu euskaraz irakasteko tradizioa.

Ezin jakin, ordea, zehazki zer gertatzen zen, batez ere kontuan izanik Madrilek hezkuntzaren bitartez herritar guziak erdalduntzea lortu nahi zuela, eta horretarako eman beharreko aginduak eman zituela. Pentsatzekoa da, irakasleak hasierako urteetan euskaldunak zirenez gero euskara erabiliko zela, gutxienez oinarrizko komunikazioan. Hori, ordea, hipotesia da. Gaur egun bizirik ditugun zaharrenek euren gurasoek erdara hutseko hezkuntza jaso zutela diote. Hau urte eta irakasle guzietara orokortzerik ez badago ere, datu zehatzik ez dugulako batez ere, pentsatzekoa da hori izango zela egoera kasu guzietan.

Esku artean ditugun datuen artean 1910eko ikasturte amaierako Maria Zapirainen txostenak honela dio:

*“Obstáculos que han dificultado las tareas escolares: Aparte la diferencia del lenguaje que en este país dificulta mucho a las niñas para que comprendan las explicaciones que se les hacen, son otros varios los obstáculos con que en los anteriores ha tropezado la enseñanza en este pueblo agrícola en su mayor parte.”*

Ikasgaiak, berriz, honakoak ziren:

*“lectura, escritura, aritmética, higiene y sobre todo los de labores y doctrina cristiana”.*

Beraz, badirudi irakasleak euskaldunak izan arren erdaraz aritzen zirela.

Egoera berri horretan ere ez dirudi lezoarren jarrera gehiegi aldatu zenik; Joxe Migel Trekuk eta Inaxio Artolak diotenez irakaslea erdaraz ariko zen, eurak, berriz, euskaraz, erdararik ez baitzekiten. Trekuk dioenez irakasleek atentzia ematen zuen euskaraz aritzeagatik, besterik ez, ordea. Gazteak, beraz, euskaraz aritzen ziren eskolan eta eskolatik kanpo.

Inaxio Artolak zorrotz dio irakasle arrotz hauen helburua euskal-

dunak espainoltzea zela. Simeón Antúnez irakasleak, Inaxio Artolaren irakasle izanak, idatzita utzitako 1911-12 ikasturteko txostenetan argi agertzen digu zein den bere ikuspegia. Asistentziaren irregulartasunaz ari delarik honela dio:

*“es la asistencia muy irregular por parte de algunos en atención a ser obreros de la Papelera española los cuales no pueden venir la semana que les corresponde realizar sus trabajos durante la noche; otros a causa de ensayar el baile titulado maquildanza prefirieron éste a la escuela y no pocos sienten poco amor a la cultura”.*

Aurrerago ikasturtean egindako ekintzen artean, bere eskariz Eusebio Garmendia bikarioak eskolan emandako hitzaldia aipatzen du. Hitzaldi horretan erlijioa, morala,

*“así como **más de una vez** les habló el Sr. Vicario de la necesidad de que acudieran a clases a fin de aprender el idioma castellano tan necesario a los vascos para los usos comunes de la vida si salen fuera de su país natal”.*

Aipamen hau bere laburrean ere mamitsua gertatzen zaigu. Horko datuen arabera pentsatzekoa da bikarioak euskaraz eman zuela hitzaldia, dotrinan egiten zuen bezala, eta bestalde, zeharka bada ere, Simeón Antúnezek onartzen du euskara dela “su país natal”en jakin beharreko hizkuntza, erdara, berriz, hortik kanpo erabiltzekoa. Eta hori ez zen gutxi garai hartan Espainiatik etorritako irakasle elebakar baten kasuan.

Orain arte eskola publikoaz aritu gara. Horrez gain, ordea, bazen eskaintza gehiago. Herritik kanpo egon zitezkeen eskola pribatuez gain herrian bertan mende hasiera eta gerra bitartean bi esperientzia interesgarri izan ziren. Lehena Agustina Lizarazurena dugu.

Maria Zapirainen txostenetan Agustina Lizarazu ikasle bizkorra dela agertzen da. Ikasle honek, bada, ikasketak amaitzean Maisu

Kristobalenean, izen adierazgarria etxearena, (Kale Nagusiko 10ean) zabaldu zuen eskolaurreko ikasgu bat. Bi urtetik gorako haurrak hartzen zituen. Ezagutu zuen jendeak dioenez hartzaindegiaren modukoa zen eta gurasoak lanean ziren bitartean Agustina Lizarazuk haurrak zaindu eta kristau ikasbidean hezitzen zituen. Horrezaz gain, alfabetoa eta euskal kantak ere ikasten zituzten. Oso oinarrizkoa zen, ez zegoen aparteko proiektu pedagogikorik. Lizarazuren ikasleen artean baziren euskaraz ez zekiten haurrak, orduko Lezoko etorkin erdaldunen seme-alabak. Trekuren arabera, haur hauek azkenean gainerako guzietan bezala ikasi eta hitz egiten zuten euskaraz.

Agustina Lizarazurena proiektu oinarrizko eta murrizta izan arren, berebiziko garrantzia du euskarazko hezkuntzan, guk dakigularik garai hartan Lezon eman zen lehen urratsa izan baitzen. Horren aurreko azken berriak Lope Isastikoa (1625) edo Domingo Maria

*Obstáculos que ha dificultado las tareas escolares. Todos ellos son conocidos á V. G., con la agravante de que ni está en manos de N. S. ni en las mías el poner remedio á la mayor parte de los mismos. El modo de ver el principal consiste en que la mayoría de los padres retiran de la escuela á sus hijas á los diez años y que, aun durante los cuatro años que están matriculadas, no acuden la mitad de los días.*

Errazuren bidez jasotakoak (1807) dira.

Agustina Lizarazuk hasitako bidea jarraitu zuen Miren Gezalak. 18 urterekin bazuen ikasketa tituloa. Irakasle izateko bide bakarra, ordea, estatuaren ikastetxeetan aritzea zenez eta bera oposizioetara aurkezteko oraindik gazteegia izaki, garai hori iritsi bitartean bere eskola propioa sortzea erabaki zuen. Osabak utzita Gurutze Santuaren plazako 5ean jarri zuen eskola.

Errepublikara garai zen eta heziketa laikoak dotrina eta gurutzeak ikastetxe publikoetatik kanpo utzi zituen. Miren Gezalaren ustez gurutzeagatik bakarrik ere jende ugari hurbildu zitzaion eta umeak barra-barra zituen. Eskolak euskaraz ziren, goizez haurrak eta gauez alfabetatu gabeko helduak. Euskaraz aritzeko metodori ez zegoenez erdarazkoetan oinarrituz eta euskarara egokituz ematen zituen eskolak. Ikasleen artean ere bazuen hasieran euskaraz ez zekien haurrik. Hauek ere, ordea, Agustinarekin eskolan bezalaxe, inguruak erabat euskaldundu zituen. Frankismoaren etorrerarekin amaitu zen eskola honen bizitza.

Garai hartan gutxi ziren euskaraz irakasten aritzen zirenak; Donostian, esaterako, 1914an sortu zen lehen ikastola. Miren Gezalak, ordea, bere gisara eta Lezoko euskaraz ematen zituen eskolak. Bazuen harremanik, ordea, Elbira Zipitriarekin, berau baitzen euskaraz irakatsi behar zuten maisu-maistren trebatzailea garai hartan. Zenbait hilabetezko ikastaroa egin zuen Zipitriarekin Donostian, Lezon euskal irakasle lanetan aritzeko. Agustina Lizarazuren ahalegina garrantzitsua izan zen, Mirenena are gehiago.

Miren Gezalarena dugu Lezoko historian lehen euskal eskola eta historikoki Donostia eta Iruñeko lehen ikastolen sorrerarekin bat egiten du. 1930ean hasi eta gerra bitartean jarraitu zuen.

### Irakasleria

Irakasleen hizkuntz gaitasunaz ezer gutxi baldin badakigu ere udal agiritegian agertzen diren datuen bitartez soma daiteke nor zen euskalduna eta nor ez. XIX. mendean Lezoko herri eskolako irakasleak euskaldunak zirela esan dezakegu; asko, gainera, herriko seme-alabak. XX. mendearekin batera, berriz, kanpotik etorritako irakasleak



geroz eta gehiago izan ziren.

Mutil eta neskak bi ikasgela desberdinetan bereizturik zeuden; beraz, esperientzia desberdinak izan zituzten egokitutako irakasleen arabera.

Nesken irakasle zenbait: Maria Rafaela Arpide (1880 bitarte, lezoarra), Maria Zapiain (1880-1917, Astigarragakoa), Maria Eustaquia Beain (1917), Visitación Martínez, Casimira Echarri (1917), Filomena Pamiés (1918-1922, Zaragozakoa) Dolores Lopez Oliver (1922).

Mutilen irakasle zenbait: Jose Gezala (1874 bitarte), Antonio Berasategi (1891 bitarte), Francisco Lizarazu (1894, lezoarra), Simeón Antúnez (1910, Palenciakoa), Felix Vallejo (1913 Valladolidekoa).

Udal Agiritegian ageri diren irakasle izenez gain udal zentsuan badira “maestro” eta “maestra” lanbidea duten gehiago, ez dakigu Lezon ziren irakasle ala beste nonbait, ez eta lanean aritzen ote ziren ere. Hauek dira: Jesusa Lofo Chicote 1933an. Fidel Otegui herriko semea (izen bereko Udal idazkariaren semea, antza denez) eta Victoriana Igarzabal, 27 urtekoa eta Lezon bizi zena 1935az geroztik.

Irakasleen kontuarekin badaude bi gertaera bitxi, Jose Gezalak kargua uztearena (1874) eta Antonio Berasategi kargugabetzearena (1891). Datu argirik ez baldin badago ere, Jose Gezalak bere osasunaren mesedetan irakaskuntza utzi eta Antonio Berasategik hartu zuen honen lekua. Zenbait urtez Lezoko irakasle izan ondoren Berasategi Palenciaira joan zen. Berasategiren eskola urteak Lezon oso gogorrak izan ziren, besteak beste bere etxea tirokatu zuten behin baino gehiagotan, utzikeria leporatu zitzaoin eta hezkuntz agintaritzak bere lana ikertu zuen, soldaten ordainketa behin eta berriro atzeratu zioten... Berasategik Lezon egin zuen egonaldiak zer nolako gora-beherak izan zituen ikusita pentsa daiteke liberala zela (Lezo utzi eta Palenciaira joan zen eskolak ematera, Ayamonte herrira, hain zuzen) eta Lezo bezalako herri karlista batean bere jarrera ez zela oso gogoko. Jose Guezala, berriz, Miren Gezalak emandako zeharkako datuetan oinarrituz karlista zen. Jose Gezala bera, kargua utzi eta hogeitabederatzi urte geroago herritarrez osaturiko ikasleen azterketa epai-mahaiko par-

taide izan zen, “Junta Local de Instrucción Pública” delakoan. Beste daturik ezean hipotesi mailan utzi behar dugu esandakoa. Gai hau ikertzea interesgarria litzateke, ordea.

Ez ziren irakasleak bakarrik heziketaren jarraipena egiten zutenak. Ikasturte amaieran azterketak tribunal baten aurrean ahoz egin behar ziren, Junta de Instrucción Pública delakoaren aurrean. 1907an, Regino Gezala alkate zen garaian, esaterako, honako hauek osatu zuten tribuna: Eusebio Garmendia bikarioak, Pedro Barrios sendagileak, eta Jose Gezala irakasle ohiak. Tribunal honetan Pedro Barrios sendagile erdalduna egoteak azterketak erdaraz izango zirela pentsatzera behartzen gaitu.

Ikasle kopuruari dagokionez, badakigu 1880-6-12an 51 haur zeudela matrikulaturik mutilen eskolan, eta Antúnezek, berriz, 1910ean 99 ikasle zituela matrikulaturik. Nesken eskolan, aldiz, 1912an 62 ikasle ziren izena emanak.

#### Boterea eta hezkuntza

Botereak hezkuntzari aitortzen zion garrantzia estrategikoa behin eta berriro ari gara aipatzen. Aro honetan, Primo de Riveraren garaian batipat, bada interes horren berri zehatza ematen digun hainbat dokumentu udal agiritegian. Lezoko eskolari gobernuaren Donostiako egoitzatik honelako agindu eta aholkuak bidali zitzaizkion:

1924-4-14: “(...) *disponiendo que por los maestros se trate con frecuencia del amor a la Patria y al ejército, haciendo resaltar las ventajas que la vigente ley de reclutamiento concede a los reclutas que tengan determinadas condiciones de cultura*”. El Delegado Gubernativo

1924-6-17: “*Por comunicación recibida de esa Alcaldía me entero de su rasgo generoso y altruista encargándose de la instrucción de los analfabetos que han de incorporarse a filas del actual reemplazo, apresurándome a testimoniarle*

(...)” El Delegado Gubernativo.

1925-11-5: “*Mi distinguido amigo: le ruego que siguiendo las normas del año pasado, vea la manera de establecer en ésa, la escuela nocturna de adultos, en forma que puedan concurrir a ella todos los analfabetos especialmente los reclutas del reemplazo próximo pues (...)*”. El delegado gubernativo.

1926-1-18: “*También le ruego disponga que en las Escuelas ondee, según lo que está mandado reiteradamente, el pabellón Nacional, durante las horas de clase, con el escudo de España y el retrato de nuestro monarca en el interior de las clases en sitio preferente. Por último si lo estima pertinente, creo que el próximo día 23, Festividad que se celebra el Santo de Nuestro Augusto Monarca pudiera organizarse en esa, algún acto escolar o de cultura y cualquiera manifestación que Vd. crea oportuna, para solemnizar dicho día*”. El Delegado Gubernativo.

Eskolako agirietan ez dago agindu eta aholku hauei emandako erantzunen berririk, dena den, bertatik ondorio mamitsurik atera daiteke. Hor agertzen denaren arabera herriko gazteak ez ziren oso iaioak erdara eta erdal kulturatan. Agindu hauek Lezori espreski zuzenduak izan beharrean, seguruenik orokorrak ziren. Dena den, “Delegado Gubernativo” delakoak Lezoko udala zoriondu zuen gobernuaren eskaerari emandako erantzunagatik, beraz, argi dago Lezon arazo hori bazela, edo bestela esanda, herritarren artean hedaturik zegoela.

Hezkuntzaren gaian, euskarari zuzenean loturiko aipamenez gain zeharka aski adierazgarri gertatzen denik ere bada. 1909ko eskolaren jaian, esaterako, prestatu zuten egitarauan musika emankizunak dira nagusi eta, besteak beste, Loiolako Inazioren ereserkia eta Iparragirrenen Gernikako Arbola (foruzaletasunaren gogoko kantua) abestea iragarri zuten. Egitarauan biok aipamen berezia dute. Beraz,

herrian erdaraz irakatsi arren, argi dago zein zen haurrei irakatsi nahi zitzaien kultur eredua. Hau indartzera dator “Actas de la junta local de instrucción pública”ren txostenen (1871-1926) bitartez jakin duguna. Alegia, bere gogoan Euskal Herriarekin loturiko kultur erreferentziak zituztela: Elias Salaberria herriko margolariarentzat diru laguntza eskatzea erabaki zen; Antonio Pildain zoriontzea; Elkano itsasgizona eta Isasti historiagile eta euskararen apologista gogoratzea eta baita Okendo, Urdaneta eta Euskal Herriko pertsonaia historiko gehiago ere. Ez dago Espainiako kultur erreferentziez aipamen bakar bat ere.

Hezkuntza ez-formalari dagokionez, elizan Luis Garmendia apaizak herriko zenbait gazteri solfeoa irakasten zien. Nikomedes eta Luis Pikabea, Kabite baserriko semeak, izan ziren ikasleetako bi. Hauen araber, solfeo eskola horiek euskaraz izaten ziren. Dotrina ere euskaraz izaten zen, hau; ordea, elizaren atalean jorratuko dugu.

## Eliza

Garai honetan eliza katolikoak izan zuen jarreraz hitz egin dugunean barne funtzionamendua eta herriari begirakoa bereizi behar direla esan dugu. Lezoko kasua aztertzean ere horixe bera izan behar dugu kontuan.

### Arduradunak

Don Eusebio Garmendia, “Bikario Zaharra” ezizenez oraindik eza-guna, izan zen Lezon urte luzez arduradun. 26 urte zituela etorri zen eta bizitza osoa Lezon eman zuen. Sortzez ordiziarra baldin bazen ere, familia osoa harturik Lezora etorri zen bizitzera eta, besteak beste, bere anaia Luis izan zuen laguntzaile. Bi hauez gain, apaiz gehiago ere bazen herrian. Guri, ordea, oraingoz bi hauek interesatzen zaizkigu. Ezagutu zuten lekuko guziek bat egiten dute bi anaiak integrista amorratuak zirela esaterakoan, eta baita Don Eusebio euskaltzalea ez zela esaterakoan ere.

Miren Gezalak “bikario zaharraren” jarrera argitzen duen datu jakingarria eman zigun. Antza denez, herrira lehen irakasle erdaldu-nak etortzen hasi zirenean honela esan zuen “ya era hora de que lle-

garan a venir maestros castellanos”. Lehenago ere ikusi dugu Antúnez irakaslearen eskolan ikasleei espainolaren beharraz hitz egiten aritu zela eta datu honek aurrekoa indartzen du.

Tomas Garbizu berak ere adibide interesgarri bat ematen digu. Aske aldizkariaren 4. alean dioenez berak ez zekien erdara askorik eta “Lezoko bikarioak behin proba bat jarri zidan: “*Jauna, eskaintzen dizut (sic) egun honetako lan eta neke guziak*” erderaz jarri behar nuen. Eta nik: “*Te ofrezco Señor lo trabajos y los cansa todos de este día*” (jarri nuen).

Lekuko guzien arabera, bikarioa herritarrekin euskaraz aritzen bal-

Las uso comunes de la vida  
si solo fuera de su país  
nata? -  
Nosotros entonces habríamos dado  
un empuje reconvirtiendo  
entonces en un momento por  
la conveniencia y quiere.  
Dios que en años sucesivos  
por parte de algunas  
nos movió el amor al  
saber en esta Universi-  
dad de Lezo.

din bazen ere, gainerako apaizekin erdara baino ez zuen erabiltzen. Joxe Migel Trekuren arabera orduko sakristaua, Atanasio Broste Berrondo (Zeruko Argia aldizkariaren Lezoko ordezkaria), gerraurrekoa, abertzalea zen eta honekin euskaraz egin behar izaten zuen, gainerakoekin erdaraz. Miren Gezalak, esaterako, gogoan du Don Luis, honen anaia, haserretzen zenean erdaraz aritzen zela. Honek, bada sarreran elizaren jokabide bikoitzaz esan duguna indartzen du.

Garmendia anaiak, Francoren altxamendua etorri zenean, hauen aldeko sutsu agertu ziren, besteak beste Florentzio Gezala abertzalea, Miren Gezalaren aita, salatuz agintari berrien aurrean. Dena den, honekin ez dugu uste izan behar Eusebio Garmendiaren jarrekarak euskara elizkizunetatik kentzera eraman zuenik, inola ere ez.

Hauekin batera gerraurrean baziren apaiz gehiago herrian, Oyarbide y Berastegui deituradun zegamarra, esaterako. Honi buruz besterik ez dakigu, ordea.

#### Elizkizunak eta kristau ikasbidea

Esan berri dugun bezala, ez dugu pentsatu behar Eusebio Garmendia bikarioa erdalzalea izateak euskara elizkizun eta kristau ikasbidetik baztertzea bultzatu zuenik. Inaxio Artolak horren inguruko gertaera aski argigarria eman digu. Gerraurreko urte haietan, ikusi dugun bezala, herrian baziren irakasle erdaldunak. Antza denez, nesken irakasle batek bikarioari elizako hitzaldian erdaraz egin beharra aipatu zion. Garai hartan hiru-lau lagun ziren elizara joaten ziren erdaldunak. Bikarioak pulpitotik eman zuen eskaera honen berri eta honela erantzun omen zion emakume horri: “*zuek erdaldunak elizara erakartzen ahalegintzen zareten neurrian ahaleginduko naiz ni elizkizunak erdaraz egiten*”. Egoeraren berri aski zehatza ematen duen erantzuna. Inaxio Artolaren hitzak berriro aipatuz, honela dio: “*bikario zaharra ez zen euskaltzalea baina bazituen bere arrazoi filosofikoak euskaraz aritzeko*”.

Kontuan izan behar dugu, garai hartan elizkizunak latinez izaten zirela eta hitzaldia zela latinez egiten ez zen gauza bakarra. Gerraurrean, Lezon euskara hutsean izaten ziren hitzaldiok, geroa-

go etorri zen euskarazko eta erdarazko mezak ematen hastearena. Patri Urkizuk honela dio:

*“Elizan Gerrikoren euskal liburu batzuk ikusi ditut, XIX. mendeko liburuak direnez, garaiko apaizak sermoiak botatzeko erabiliko zituen eta herriak hori guztia euskaraz entzungo zuen elizan: kantak..., latinez ere zertxobait egiten zen baina ez dut dudarik gehiena euskaraz egiten zela”.*

Aipatu beharrekoa da Eusebio Garmendia berak, Lezoko Gurutze Santuarentzat himno baten bila, lehiaketa antolatu zuela eta Nikolas Ormaetxea Orixek idatziak irabazi zuela (1919): “Lezoko Gurutze Doitsuari Euskal-Ereserkia”. Askoren artian saririk onena irabazita, auke-ratua. Ormaetxea tar Nikolas, J.L. aitaren izkia, Otaño tar Nemesio, J.L. aitaren eresia. Lezoko Elizak argitaratua. 1919.

Patxi Intxaurrendietaren arabera bikarioak himno ona nahi zuela-ko antolatu zuen lehiaketa. Adierazgarria da, euskarazko himnoa

*3º Obstáculos que han dificultado las ta-  
reas escolares. Aparte la diferencia del lengua-  
je que en este país dificulta mucho a las niñas  
para que comprendan las explicaciones que  
se les hacen, son otros varios los obstáculos  
con que en el curso actual, lo mismo que en  
los anteriores, ha tropiezaado la enseñanza  
en este pueblo agrícola en su mayor par-  
te: el clima húmedo en el invierno que  
retrae de la asistencia a la escuela a varias  
niñas de los caseríos algo distantes de ella,  
la afición de muchos padres a ocupar a sus  
hijas en ~~alguna~~ las faenas del campo, ó de la*

izatea; izan ere, Eusebio Garmendiak badu bere biografian funtzio jasoetarako erdara erabiltzen eta erabilarazten zuela dioen hamaika datu. Hona hemen bikarioaren bikoiztasuna berriro agerian.

Kristau ikasbidea edo dotrina euskaraz izaten zen eta buruz ikasi behar izaten ziren “dotrina ttikia eta dotrina handia”. Alegia, dotri-  
nak bi neurri desberdineko hizkiz idatziriko testuak zituen eta adina-  
ren arabera bat ala beste ikasi behar izaten zen. Miren Gezalak gogo-  
an du bere jaunartzeko urtean nola atera zuten dotrina hori euskaraz  
jarria, letra ttiki eta handiz. Lehen jaunartzea egiteko letra handia  
ikasi behar izaten zen.

Aro honetako elizako kantuei buruzko aipamen zehatzik ez dugu  
jaso; dena den, Mariaren Kongregazioko kide izan zen Enkarnaxion  
Zapirainek dioenez “erdaraz franko kantatzen” zuten eta gutxiago  
euskaraz edo latinez.

Beraz, garai honetako kristau bizitzak Lezon elementu kontra-  
jariak ditu; dinamika, ordea, argi dago euskarazkoa zela.

#### Kultur iharduerak

Esandako guziaz gain elizak bazuen berezko kultur dinamika.  
Antzerkigintza zen, besteak beste, iharduerarik gogokoenetako bat,  
eta gerraurrean behintzat euskarazko antzerki lanak prestatzen zituz-  
ten elizaren inguruan biltzen ziren gazteek.

Elizaren inguruko antzerkigintzak garai honetan hiru ezaugarri  
izan zituen: a) Erljio gaiei buruzko lanak antzezten ziren, b) Neska  
eta mutilek ez zuten inoiz elkarrekin parte hartzen antzezlan berean,  
c) Antzezlan gehienak erdaraz izaten ziren eta bakarren bat euska-  
raz. Honetaz, ordea, antzerkiaren atalean hitz egingo dugu.

#### Boterea

Hezkuntzaz hitz egitean boterearen zenbait ekimen ikusi ahal  
izan ditugu; ez dira, ordea, hor amaitzen Madrildik euskara eta eus-  
kaldunen kontra Lezon egindakoak.

Zalantzarik gabe soldaduzkarena izan da euskaldun askorentzat  
inposaketarik larriena, baita Lezon ere. Elias Salaberria margolariaren



aita, esaterako, soldaduzkara joan behar izan zuen lehen belaunaldikoa izan zen. Eginbehar gaitza da hori euskaldunontzat eta are gaitzagoa garai haietan. Euskal Herritik kanpo sarritan, euskara aipatze hutsa zigortzen zuen armada batean erdararik jakin gabe egon beharrak arazo ugari eragiten zizkien gazteei. Asko izan ziren garai hartan ihesi joandakoak, batez ere lehen belaunaldietan. Horri aurre egiteko hasi ziren, hain zuzen, erdara irakasten Lezon soldaduzkara joan behar eta erdararik ez zekiten gazteei.

Hezkuntzaren gaian ikusi dugun bezala, erdara herrian bertan irakatsiz konpontzen ahalegindu ziren agintariak. Inaxio Artolak dioenez, soldadu joaten ziren gazteak nola edo hala moldatzen ziren, gehienetan euskaldun gehiagoren inguruan bilduz. Joxe Migel Trekuk, berriz, dio gerra garaian euskaldunei “ingleses” deitzen zietela euskaraz aritzen zirelako. Honetatik atera beharreko ondorioen artean garrantzitsuena, orduko euskaldunek, eta lezoarrek batez ere, euskaldunen taldetasunean bat egitea da. Alegia, euskara zen herri-  
tik kanpo identifikaziorako elementu nagusia.

Legeak euskararen kontrakoak izan baldin badira, ekintzak epaitzeko arduraren duen justiziak euskararen kontrako lege horien arabera egingo du. Alegia, epaileak ere euskararen kontrako tresna aktiboak izan dira. Miren Gezalak ongi gogoratzen du, esaterako, euskarazko izenak jartzeko zer nolako arazoak izan zituzten. Familia abertzalea izaki, euskarazko izenak nahi zituzten gurasoek euren seme-alabentzat.

Egoera zer nolakoa zen ezagutzeko aski dugu esatea, Mirenen ahizpa Luke jaio zenean euren gurasoak zain egon zirela alaba bataiatu gabe epaitegietan euskarazko izenak jartzeko baimena laster helduko zelakoan. Luke Estepane Gezala izan zen Lezon euskarazko izenez erregistraturiko lehena, gero Miren Zaintzane Josebe, Elixabete Inese, Sorkunde Garbiñe Koldobike, Polentzi eta Sabin Iñaki etorri ziren. Gerra ondorenean izen hauek guziak desagertu egin ziren erregistro liburutik. Gutxi ziren, dena den, honelako izenak zituzten lezoarrak garai hartan eta, noski, Lezoko mugimendu abertzalearen sorrerarekin loturik daude.

Aipagarria da, ikertzen ari garen garai honetan Lezora Espainiatik etorritako etorkinen artean, gehienak estatuaren erakunde eta entrepresetan lan egitera bidaliak izatea. Alegia, estatuak bidali zituenak eta beraiekin etorritako senideak izan ziren Lezon lehen gune erdal-dun elebakarra osatu zutenak. Hauen artean aipagarrienak trenbideko langileak eta guardia zibil, militar eta karabinero eta kidekoak dira. J. Altadillen *Geografía del País Vasco-Navarron* agertzen denez Lezok 16 karabineroz osatutako taldea zuen eta zentsuaren arabera ia denak Euskal Herritik kanpo sortuak ziren (bada tartean Baraibarko seme bat). Dena den, honela etorritakoek egonaldi laburra egin zuten Lezon. Orduko erroldak aztertuz laster ikusiko dugu inor gutxik egin zuela hamar urte baino gehiago herrian.

Debekuak ez ziren euskarazko hezkuntza mugatzera bideratuak soilik izan. 1926an, Primo de Riveraren gobernuak idi-demak debekatu zituen apostuekin izandako arazoak argudiatuz. Lezon, nekazal giroko herri guzietan bezala, idi-demak indar handia zuen eta hone-lako erabaki bat konponbide bat baino herritarrak ernegatzeko urratsa besterik ez zen.

### **Familiak eta pertsonaia ospetsuak**

Lezo herri ttikia izan arren baziren maila sozialak, bakoitzak zuen aberastasunaren arabera markatzen ziren diferentziak. Ez dirudi, ordea, hizkuntza diferentzia horiek handitzeko aitzakiatzat hartu zirenik. Familia aberatsak zein pobreak euskaraz bizi ziren, salbuespenak salbu. Lope Isastik (1625) eta Lezoko idazkariaren txostenak (1807) horixe azpimarratzen dute eta guk galdekatutako lekuko guziek esandakoarekin bat egiten dute. Beraz, garai honetako Lezon herritarrak euskaraz mintzo ziren batik-bat. Honek ez du esan nahi familia hauetan beste hizkuntzarik ezagutzen ez zenik. Bat baino gehiago ezagututa ere herritarrekin hizkuntza bakarra erabiltzen zutela baizik. Hizkuntza bakoitzak zuen balore soziala oso argi zehazturik zegoen eta Lezon erdarak ez zion itzalik egiten euskarari eguneroko bizitzan.

Gauza bera ikusten dugu garai horretako herritar sonatuen ihar-

duera behatzen badugu. Pildain gotzaina, Madrilen diputatu izana II Errepublikara garaietan, edo Elias Salaberria margolaria euskaraz mintzo ziren herrian, kultura handikoak eta hizkuntza bat baino gehiago mintzatzeko gai izanik ere.

Pildainez ari zelarik honela adierazi zuen Manuel Lekuonak:

*“Garai hartan, nere lagunaren artean -D. Jose Maria Barandiaran eta D. Antonio Pildain (Canariasko Gotzain ilberria) bait ziran batez ere- euskal literatura-gaiak askotan ukitzen genituan; eta bein Pildain adiskideak, gauza bat esan zigun: euskal-olerkietan “rima-rik” ez litzatekeela erabili bear; rima gauza merkeegia zala, izkuntza atzizkidunean edozeñek egin zezakean gauza, beste metrika bat sortu bear litzakeala...”<sup>47</sup>.*

Adierazgarria, ezta?

Elias Salaberria margolaria abertzalea izan zen eta Florentzio eta Zezilio Gezalaren ondoren Errenteriako batzokiko (“Euzkadi” izeneko, 1904an sortua) lehen bazkideetakoak izan zen Miren Gezalaren arabera. Salaberria margolariaren iharduerak argi adierazten du euskaraz zuela berezko hizkuntza eta euskarazkoak zirela herrian zituen hartu-emanak eta horrelaxe gogoratzen du 1999ko urtarrilaren 4an 100 urte egingo dituen Akilina Isasa bere laguntzaile izan eta koinatua. Bere lanei, bestalde, euskarazko izenak jarri izan zizkien, bere identitatearen adierazgarri: “Gu”, “Atta” (ikus *Lezo* 6ren azala), “Chistulari”, “Aizkolari”, “Lo-lo”, “Anai Zenon” eta beste hainbat.

Antonio Pildain Canariar irletako gotzain izana, berriz, Maria Zapirain herriko nesken irakasle zenaren semea eta Madrilgo legebiltzarrean diputatu izan zen. Honen herri elizkoian, bada, pentsatzekoa da itzal eta eragin handiko gizona izango zela Pildain. Gasteizko seminarioan irakasle izana, Lekuona eta Barandiaran eza-

<sup>47</sup> *Zeruko Argia*. 600. alean egindako elkarrizketan.

gutu eta hauekin ibili zen, beraz, euskaltzaletasuna ez zitzaion arrotz; are gehiago, harek esana da: “*Yo soy vasco y cristiano por los cuatro costados -de lo que me siento muy orgulloso-, porque en Lezo nací y fui bautizado*”.<sup>48</sup>

Herritarrek gogoan duten Pildain euskaltzalea da. Pildainen kasua ikusita, batez ere bere euskaltzaletasuna, etxetik, beharbada amarengandik, zetorkiokeela pentsatu beharko dugu (aita portuko praktikoa zuen). Alegia, horrenbeste urtez iraskasle izandako emakume hari euskaltzaletasuna ez zitzaiola arrotza gertatzen eta, beraz, bere ikasleekin zituen hartu-emanetan euskaraz egingo zuela, informalenetan behintzat. Bestela, nola ulertu Pildainen euskaltzaletasuna?

Pildain eta Salaberria aipatu baldin baditugu lehen lehenik herritik kanpoko itzala zutelako izan da. Horiekin batera, ordea, Lezon bazen itzal handiko jendea. Salaberria albataria, Lezon ez ezik herrialde osoan ezaguna, Garbizu anaiak idazle eta musikariak (Iruzubi, Zubigar eta Tege), Anastasio Zapirain *Argiako* berriematea, Florentzio Gezala, herriko musika bandako zuzendaria eta EAJ/ PNVren sorreran aitzindari, herriko alkate izana... Garai horretako herritarrik ospetsuenak euskaldunak izan ziren eta euskarazko harremana zuten herritarrekin. Beraz, ez dirudi herrian bertan bazenik lezoarrak euskara baztertzer behartuko zituen eragilerik. Francoren etorrerak erabat okertu zuen euskararen patua eta herritar ospetsu hauek zigortu egin zituen.

## **Herria - Gizartea**

Familia eta pertsonaia ospetsuak bezalaxe, Lezo osoa euskaraz bizi zen, euskara zuten ohiko hizkuntza, honetan ez dago inolako zalantzarik. Dokumentazio historikoak eta lekukoek gauza bera baieztatzen dute. Herrian, ordea, baziren Euskal Herrira kanpotik etorritakoak. Migrazioaz geroago hitz egingo badugu ere, esan dezagun oraingoz, kanpotik etorri berriak ziren familiak gutxi zirela, eta euskararik ez jakin arren euskaldundu egin zirela guraso zein seme-

<sup>48</sup> Ikus *Lezo 3*, Agustín Chil Estevez.

alabak Lezoko bizitza guziz euskalduna baitzen. Aro honetan, 1625ean Lope Isastikoak esandako gauza bera esan eta azpimarratu beharrean gara.

Dena den, badirudi herritarrentzat Kale Nagusia Donibane kalea baino euskaldunagoa zela. Datu hau frankismo garaian bereziki azpimarratzen bada ere, garai honetan lehen aztarnak ageri dira. Enkarnaxion Zapirainek, Anastasio Zapirain Argiako kazetariaren

*Es la asistencia muy irregular por parte de algunos en asistencia a sus labores, e la "Papelera española" les cuales no pueden venir la semana que les corresponde realizar sus trabajos durante la noche; epiás a causa de ensayar el buido titulado maquilabanza profiri iron. iste a la escuela y no pocas sienten poco amor a la cultura. El resultado hasta hoy ha sido. Durante los tres*

arrebak, gogoratzen du Pedro Barrios medikuak Kale Nagusiari “Calle Sabiniano” deitzen ziola, eta hainbat lekukok aipatzen dute Kale Nagusian Donibane kalean baino “euskara gehiago entzuten” zela.

Beraz, garai honetan Lezok ez zuen inmigrazio handirik bizi izan, hori geroago gertatu zen. 1887ko udal eroldaren arabera Lezok 1109 biztanle zituen eta hauen artean % 2,8a Euskal Herritik kanpo sortua zen, 1900.ean, berriz, % 3,9a, 1920an % 4,7a eta 1940an %4a. Bistan da Lezok ez zuela emigrazioaren astindua bizi izan garai honetan.

Aipagarria da bestalde, etorkin multzoak herrian denbora gutxi bizi izan zirela; 1900a. Lezon bizi ziren etorkinek batzaz beste 4,5 urte zeramatzen, 1920koek 3,5 urte eta 1940koek 10 urte. Gerra aurreko hamarkadetan, bada, etorkinak gutxi ziren eta denbora laburreko egonaldiak egiten zituzten Lezon. Etorkin hauen artean estatuak bidalitakoak daude, batez ere trenbideari loturiko langileak, militarrek, karabineroak, irakasleak... Ugari dira, aldiz, Euskal Herriko beste herrialdeetatik etorritakoak, gehienetan Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritakoak. Ipar Euskal Herritik etorritakoak ere badira nahiz eta eroldan hauek “Frances” jatorriko bezala agertu. Erroldan ageri diren “frantsekak” Miarritze, Baigorri, Sara, Hendaia eta Kanbotik etorritako lapurtarrak dira.

Garai hura zuzenean edo zeharka ezagutu zuten guziek bat egingen dute esatean orduko Lezoko giroak ez zuela euskararen aldeko ekimen berezirik behar, joera politikoak edo maila sozialak gora-behera herria euskaraz bizi zela, eta kitto.

### Herriko elkarteak

Herri ttikia izan arren herri elkarteak ere izan zituen aroaren azken urteetan. Euskal Herrian indar hartzen ari zen joerari eutsiz 1924an Lezon “Anaitasuna” eta “Gure Borda” elkarteak sortu ziren. Bi elkarte izateak ez zion irizpide politikoei erantzuten, herritarren joerari baino. Inaxio Artolak dioenez, honelako herrietan gertatzen dena gertatu zen kasu honetan ere, lagunarte bat sagardotegi batera edo halako biltokira joaten zen eta bestea bestera eta horren ondorioz bi

elkarte. Bion arteko lehia kirolaren bitartez kaleratzen zuten, batez ere badian egindako batel estropadetan. Gerraurrean, berriz, denetarikojendea biltzen zuen “Bixi-bixi” taldea edo “piña” sortu zen.

Aisialdi elkarteez gain bestelakoak ere izan ziren: “Denantzako” (1917an sortua) nekazal kooperatiba edo “Lagun onak” (1903an sortua) laguntza elkarteak. Elkartek hauen bizimoduaz ezer gutxi baldin badakigu ere, pentsatzekoa da ahozko harremanetan euskaraz funtzionatuko zutela eta idatzizkoetan, aldiz, erdaraz. Hori, ordea, ezin frogatu. Adierazgarria da, dena den, guziek izen euskaldunak izatea, funtzio “formaletarako” erdara nagusi zen garaian.

#### Auzoarekin hartuemanak

Lehentxeago aipatu dugu Lezo bi gune liberalen erdian zegoela eta hortik datorkiola izaera foruzalea eta elizkoia. Aipatu ez duguna, ordea, auzoko herrien egoera da. Oiartzun, gutxi gora-behera Lezo bezalakoxea zen; Erreneria, berriz, eskualdeko herririk indartsuena eta industrializatuena, eskualde burua. Lezorengandik gertuen dagoen herria izanik, Lezoko izaera eta Erreneriakoaren artean zeuden diferentziak hizkuntza mailan ere nabarmenak ziren, eta lezoar zein erreneriarrek horretaz jabeturik zeuden.

Lezo nekazal giroko herri ttikia izanik euskalduna zen; Erreneria, aldiz, industria girokoa eta handia, eta hemen, berriz, erdara nagusi, XX. mendean batez ere. Badirudi etorkinek eragin zutela aldaketa (1910ean % 12 Euskal Herrira kanpotik etorria zen. Ikus demografiaren esandakoa) besteak beste. Joxe Migel Trekuak dioskunez diferentzia handia zegoen bi herrien artean, Erreneria Lezorekin alderatuta erdal herri moduan ikusten zuten eta erreneriarrek barre egiten zieten “caseros” eta antzekoak deituz. Beraz, garai honetan badago jada gizartean bertan euskara zokoratzeko bide bat zabaldua. Ez dugu ahanzi behar Erreneriaren langile izaeragatik ezkerreko mugimendu politikoak indar handia zuela bertan eta horrek erabateko kontrastea egiten zuen Lezo abertzale eta elizkoiarekin. Erreneriaren antzekoa zen Pasai Antxo, sortu berria izan arren (1891). Pasai Donibane,

berriz, aipatu ez badugu ere, Lezoren moduko egoeran bizi zen.

Euskalkiei dagokienez, ez dirudi aparteko arazorik zegoenik elkar ulertzeko, gutxiago gaur egun zenbaiten aldetik hainbeste indartu nahi den herrialdekeriarik. Horrelaxe diote Joxe Migel Treku eta Inaxio Artolak.

### Komertzioa

Garai honetan Lezoko komertzioa, bertakoa nahiz erromeria eta festetara etortzen zena, guztiz euskalduna zen.

### Osasun Zerbitzua

Lezon aro honen hasieran bi sendagileren berri dugu Udal agirietan. 1878an Jose Antonio Madariaga zen Lezoko mediku titularra, 1880an, berriz, Arrizubieta deituraduna. Biek deitura euskaldunak izanik pentsatzekoa da euskaldunak izango zirela, ezin jakin ordea.

Ondoren etorritakoez datu zehatzagoak ditugu. Biren berri jaso dugu. Bata Pedro Barrios, 1908an hasi eta gutxienez 1950 arte aritua. Ez zekien euskararik, beraz, erdaraz egiten zuen bere lana. Tomas Garbizuk (ikus Aske 4) adibide polita kontatzen digu:

*“Gogoan dut Don Pedro Barrios orduko medikua. Ez zen euskalduna, Zaragozako. Denak sendatzen zituen euskaraz zekizkien bi hitz bakarrekin :”Zalda berua”. Besterik ez zekien”.*

Ezagutu zutenek mediku saiatua zela diote eta ez zuela euskarren kontrako jarrerarik. Bestea, berriz, Fernando Carril y Letamendia izan zen, Madrilen jaioa. 1887an Lezora etorri zen Goizuetatik 25 urte zituela bere amarekin batera. Ama Tolosakoa zuen arren, bera ez zen euskalduna Tomas Garbizuren arabera (ikus Aske 4) .

Sendagileen jarrera gora-behera, herritarrek erdaraz jakin behar sendagilearekin aritzeko. Joxe Migel Trekuk dioskunez, erdararik ez zekitenek nahiago zuten mediku erdaldunarengana ez joan barregarri gelditu baino. Horren adibidetarako, bere aitaren kasua jartzen



digu, ez baitzen inoiz medikuarengana joan, erdaraz etzekielako.

Dena den, Pedro Barrios ez zen herritarrek eskura zuten sendagile bakarra. Garai hartan lantegi handietan baziren sendagile gehiago eta bertako langileek haiengana eramaten zituzten euren senideak. Esaterako, Papeleran Albisu Errenteriako sendagile ezaguna zegoen, euskalduna.

Aurreko garaian sendagile euskaldunak zituen Lezok, honetan, aldiz, erdaldunak. Azpimarratu beharreko aldaketa da horixe. Lezoarrek eguneroko bizitzan sendagilea zuten administrazioaren zerbitzurik beharrezkoena eta hor, erdaraz jakin beharra zegoen.

### **Albaitaritza Zerbitzua**

Animalien osasunak garrantzia handia du nekazal herrietan, eta Lezo nekazal herria zen. Aurreko garaian sendagileak albaitari lanetan ibiltzen zirela esan dugu. Sendagile haiek euskaldunak ziren. Aro honetan, aldiz, jada ez dira medikuak albaitari profesionalak baizik. Udal agiritegian albaitari hauen berri bada eta deituren arabera euskaldunak zirela ondoriozta dezakegu: 1882tik 1918 bitartean Jose Ignacio Olaizola izan zen Lezoko albaitari; 1918an, berriz, Antonio Azcue Icuza Errenteriako albaitaria Lezon aritu zen abereen higiene eta osasun ikuskaritza lanetan; 1920an Venancio Recalde lan hori bera egiten ageri da. 1920koa dugu, berriz, Miguel Salaberria herriko semeak albaitari lanetan sinaturiko lehen agiri ofiziala. Beraz, aro honetan, aurrekoan bezala, Lezoko albaitaritza zerbitzua euskaldunen esku egon zen.

### **Udala**

Udala administrazio nagusiaren parte denez, honen funtzionamenduari loturik dago eta, beraz, erdarari. Euskararentzat ez dago lekurik administrazioan, historian zehar harturiko erabakiek horixe lortu nahi izan dute. Udalaren kasua, berriz, oso bestelakoa da. Herritarrez osaturiko udal batzan Lezon baziren erdararik ez zekitenak eta, beraz, hauekin euskaraz ihardun behar. Inaxio Artolak dioskunez gerraurreko udal batzarretan euskaraz egin beharra zegoen, herriko zinegotzi

askok ez baitzekiten erdararik; idazkaria bera ere euskalduna zen. Gerraurreko alkateak ere euskaldunak izan ziren. Gerra ondoren egoera erabat aldatu zen, besteak beste euskaraz mintzatzea zigortu egiten zelako eta idazkaria Madrilen izendatzen zutelako.

Gerraurrean, hogeitamahiru urtez (1889-1922) Regino Gezala izan zen Lezoko alkate. Ideologiaz liberala zen. Badirudi Lezo, herri karlista izan arren tradizioz, Regino Gezala ospe handiko gizona zela eta, bere alde egiten zutela herritarrek joera politikoa gora-behera. Regino Gezala Florentzio Gezala abertzalearen aita eta Miren Gezalaren aitona izan zen. Euskalduna.

Joxe Migel Trekuk gogoratzen du, esaterako, gerraurreko urte haietan soldaduzkara joateko udalera joan zirenean idazkariarekin euskaraz mintzatu zirela. Miren Gezalak, berriz, gerraurreko bandokak (kalez kale irakurtzen zirenak), II Errepublika garaikoak, elebitan izaten zirela dio. Gerra bitartean Lezok izandako idazkariak euskaldunak izan ziren, bata alkizarra (1885az geroztik), eta bestea lezoarra (Fidel Otegui). Beraz, udalaren idatzizko funtzionamendua erdarazkoa izan arren ahozkoa euskaraz egiten zen. Honek, noski, euskararen egoera diglosikoa indartzen zuen, ez zion; ordea, euskararen ahozko erabilerari oztopo nabarmenagirik jartzen.

Gainerako udal zerbitzuetan euskaldunak ziren nagusi; udaltzaingoan, ordea, gora-beherak izan ziren, Emilio Larral “aguazil ttikiya” (Nafarroako Morentingoa sortzez), gerraurrean eta gerra ondoko lehen urteetan udaltzain izana, ez zen euskalduna. Honen aurrekoak euskaldunak izan ziren. Garai hartan udaltzain bat eta sereno bat zituen Lezok. Serenoak, lehenik Sebastian Sein eta ondoren Felix Izeta, euskaldunak ziren.

Udalaren hizkuntz politika dela eta, bada adibide polit bat kale izendegiarekin gertatua. Foru Aldundiak 1896ko abenduaren 24an kale izendegia elebitan jartzeko agindua eman zuen, ordura arte erdara hutsez jartzen baitziren herrialde osoan. Lezoko udalera bidalitako aginduan bost plaza-kale edo bideren itzulpena ageri da (hori xe baitzen orduko Lezo):

Plaza Nagusia: Plaza de la Constitución  
Goiko Plaza: Plaza de Arriba  
Kale Nagusia: Calle Mayor  
San Juan Kalea: Calle de San Juan  
Gaintxurizketara bidea: Camino de Gainchurizqueta.

Foru Aldundiak bidalitako itzulpenak badu zer azpimarratu. Itzulpen hori, herritik bidalitakoa zuzentzera dator, grafiaz zein jator-tasunez. Izan ere Lezotik bidalitako itzulpenen testua ortografia espai-nolean dago idatzia eta “Plaza de la Constitución” delakoa (Gaur egun Gurutze Santuaren plaza dena) “Constitucioco plaza” itzuli zuten. Foru Aldundiaren zuzenketak “Plaza de la Constitucion” itzul-zeko “Constitucioco plaza” beharrean “Plaza Nagusia” jarri zuen. Adierazgarria oso.

Izendegi horretan “GaintxurizketaRA bidea” agertzen da ohikoa-go den “GaintxurizketaKO”ren orde. Ezin jakin zein aukera gai-lendu zen azkenean.

Festa eta ospakizunen idatzizko egitarauak, berriz, badirudi erdara hutsean idazten zirela, guk behintzat ez dugu topatu euskarazkorik Lezoko udal agirietan. Esaterako, Primo de Riveraren garaikoa den asto lasterketa baten iragarpena, Regino Gezala alkate zela, erdara hutsean dago. Eta baita “Anaitasuna” eta “Gure Borda” elkartearen eguneko ospakizunen egitaraua ere.

Herrikoaz gain, ez dugu ahortzi behar, garai honetan Foru Aldundiak euskara eta euskal kulturaren alde ari zirenez, euskarari ordura arte izan gabeko aukerak emateko bideak urratzen hasi zirela eta, besteak beste, herri xehearentzat euskaraz idatzitako mezuak kale-ratu zituztela (gogora 1930ean hegoaldean analfabetismoa % 11n zego-ela, beraz, gehiengoarengana heltzen ziren idatzitako mezu hauek). Lezoko udal agiritegian, besteak beste 1903an Irunen egindako “Nekazaritza eta ganaduen billalদিya, Gipuzkoako Diputazio chit goi-tuak bere kontura egiñak” izan zuen arau bilduma, Fraisoro “nekazari lanak erakusteko Diputazioa k Villabonan duen (...) ikastechean” matri-kulatzeko deia (1918, 1919), udalek antolatzen dituzten “abere-batzal-

dietarako” diru laguntzen jakinarazpena (1918)... daude gorderik.

### **Prentsa**

Euskara historikoki idatzizko kulturatik kanpo egon izan dela esanez ari gara behin eta berriro. Pizkunde garaian, ordea, euskarazko eta euskararen aldeko argitalpenak ugaritzen hasi ziren. Batzuk eskolatutako gutxiengo bati zuzenduak, besteak, berriz, herri xeheari. Ordurako eskolatzeak indar handia zuen; Hego Euskal Herrian, esaterako, 1900. urtean analfabetismoa %29koa zen, 1930ean, berriz, %11koa<sup>49</sup>.

Beraz, hemen gehiengoak bazekien irakurtzen eta idazten, bakoitzaren iaioitasuna gora-behera. Argitalpen hauen artean elizarenak ziren arrakastatsuenak, batez ere *Argia* astekaria. Aldizkari honek bazuen herrian bere berriemailea, Anastasio Zapirain. Honekin batera Garbizu anaiak (Zubigar, Iruzubi edo Tege), Patrizio Urkizu edo “Eliz-Gayak” izeneko atalean idazten zuen “Lezoko Jose” Kaputxinoa.

*Argian* maiz agertzen ziren Lezoko gizarte kontuak, gaur ezkontza eta bihar bataioa edo jaiak eta horrek jakimina pizten zuen lezoarren artean. Askok ziren erosleak eta gehiago irakurleak, noski. *Argiaren* aleak Anastasio Zapirainen etxera bidaltzen zituzten eta, ondoren Zapirainek Inaxio Artesoro “Zikirua”ri ematen zizkion sal zitzaizkien. “Argia, periodiku saltzaile berria!” oihukatuz ibiltzen zen Artesoro. Lan honetan lau bat urtez aritu zen eta hark dioenez hogeitik gora saltzen zituen ale bakoitzetik astero Lezon, bai kalean eta bai base-rrietan. Ez da kopuru makala nekazal giroko herri ttiki batentzat. Aldizkariaren hedadurari buruz, berriz, pentsatzekoa da hogeitaz gora saldu arren, askoz gehiago izango zirela jarraitzen zutenak, bai eskuz esku pasatuz edo etxeko suaren bueltan taldean, ahots goraz irakurritakoa entzunaz.

Inaxio Artola eta Joxe Migel Treku bat datoz esatean jendeak gogoz jarraitzen zituela *Argian* Lezori buruz esandakoak. Pilar Lekuona, Anastasio Zapirain *Argiako* berriemalaren emaztea eta *Argiako* Oiartzungo berriemalaren izanak azpimarratzen duenez, jen-

<sup>49</sup> Joseba Intxausti (1990), *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritza. 138. or.

deak irakurritakoaz iritzia eman edo albisteren bat argitaratzeko eskatzen zien; beraz, ez zen nolanhikoa aldizkariaren garrantzia eta hedapena.

Pentsatzekoa da, alta, gerraurreko urte haietan euskarazko prentsak, bere laburrean bada ere, sekulako garrantzia izan zuela Lezon. Kalez kale saltzeak berak garrantzia horren berri ematen digu zeharka bada ere. Lehen aldiz ziurrenik, idatzizko informazioa euskaldunen etxeetan sartu zen eta hori aurrerapausu garrantzitsua zen. Ez zen *Argia* bakarrik irakurtzen zena, noski. *Arantzazuko egutegia*, *Zeruko Argia...* ere irakurtzen ziren. Azalekoa dela dirudien arren Arantzazuko egutegiak garrantzia handia izan zuen aro honetan, bera zen etxe askotan euskaraz idatzita sartzen zen gauza bakarra eta orduko bizimoduan jakingarriak ziren gauza ugari zekartzan.

Garaiko aldizkarietan ere bazen Lezoko berrientzako txoko bat, *La Constancia* egunkari karlistan edo *El Pueblo Vasco* abertzalean esaterako; hemengo berriak, ordea, erdaraz zeuden. *El Día* egunkari abertzaleak, berriz, ostiraletan bazuen euskarazko orria eta hor ere agertzen ziren Lezori buruzko kontuak euskaraz.

Garbizu anaiek argitalpen ugarian hartu zuten parte. Horien artean Zubigar izan zen joriena: *Zeruko Argia*, *Gure Herria* (Baionan argitaratua), *Euskal Esnalea*, *Euzkadi* eta beste zenbait aldizkaritan argitaratzen zituen bere poematxoak<sup>50</sup>.

Gerrak *Argiaren* argitaratzea galerazi zuen eta Anastasio ZapiRAIN bera, *Argiako* kazetari, euskal idazle izateagatik, susmagarria zen eta espetxean eduki zuten hamabost egunez.

Lezori buruz prentsan euskaraz argitaratzen zenaren bizitasuna ulertzeko aski dugu Kale Nagusiko 29. etxearen izenaren inguruan izandako eztabaida. Gezalatarrek Alai-Etxe izenez bataiatu zuten eta, *El Día* egunkariaren ostiraletako euskarazko orriaren bidez, lezoarren artean Alai-Etxe ala Etxe-Alai behar zuen eztabaidan aritu ziren.

Dena den, erdaraz idazten zutenak ere baziren herrian. Anastasio

<sup>50</sup> Ikus Urkizu P. eta Intxaurrendieta P. (1991), *Garbizu Anaiak*, Lezoko Udala.

Zapirain berak *La Constancia* egunkari karlistan idatzi izan zuen; hemen, ordea, Eusebio eta Luis Garmendia anaiek idatzi izan zuten batez ere. Camilo Mecolalde, berriz, *El País Vascon* idatzi zuen.

Aro honetan azpimarratzekoa da Anastasio Zapirainen lana. *Argian* lan handia egin zuen eta aldizkaria herritarrentzat erreferentzia bihurtzea lortu zuen. Pilar Lekuona eta honen alaba Pillareren arabera, ez zuen irakaslerik izan, bere kabuz ikasi zuen berriak euskaraz idazten. Badakigu, ordea, Garbizu anaiekin harreman estua zuela eta baita irakurtzeko zaletasun handia ere. Beraz, pentsatzekoa da bi iturri horietatik edan zuela bere kazetari prosak.

Euskal prentsaren lehen urte haiek, dena den, emankorrek izan ziren maila guzietan. *Argiako* kazetariak harreman estua zuten haien artean eta mugimendu abertzale eta euskaltzalearekin zuzenean loturik zeuden. Anastasio Zapirain EAJ-PNVko kide ezaguna zen herrian eta Pilar Lekuona honen emaztea eta Oiartzungo berriemala izana, berriz, Manuel eta Martin Lekuonaren arreba. Osaba Manuelekin ikasi zuen euskaraz idazten Pilarrek, luxuzko irakaslea, beraz. Horrezaz gain Anastasio nahiz Pilarrek ezagutzen zituzten inguruko herrietako berriemaldek, eta horien artean, Elbira Zipitria, lehen ikastolaren sortzailea ere bai. Mundu ttikia zen hura.

## Kultura

Kultura terminoak giza bizitzaren alderdi ugari biltzen badu ere, oraingoan, gainerako guziak gutietsi gabe, gureari dagokionez zenbait gai bereziki aipatuko dugu.

### Antzerkia

Antzerkiak gerraurrean garrantzi eta indar handia izan zuen Lezon. Ahozko kulturaren oinarrituriko herri guzietan aspaldikoa da ohitura hau eta Lezon oso berandu arte indarrean iraun zuen<sup>51</sup>.

Gerra aurreko urte haietan Lezon antzerkia elizan eta Batzokian egiten zen. Elizakoa, eguberri eta ihauterietan egiten zen eta erlijio

<sup>51</sup> Ikus Patri Urkizu (1975) *Euskal teatroaren historia*. 1975eko Ágora saria.

gaiei lotua zen batez ere. Dotrinan zebiltzan gazteak ziren bertan parte hartzen zutenak eta erdarazko lanak antzeztu ohi zituzten; euskaraz egin zuten bakarretakoa *Lore bat Loitan* izenekoa izan zen. Horrezaz gain, eta erdaraz, Santa Teresaren poesiak, santuen bizitzak, *Los diez mandamientos* delakoa...

Txikikeria bada ere aipagarria da antzezlan hauetan ez zirela neskek eta mutilak elkarrekin aritzen, antzezlan batzuetan neskek hartzen zuten parte eta beste batzuetan mutilek, nahasi gabe, ordea. Enkarnaxion Zapirainek gogoratzen duenez Mariaren Kongregazioko kide zen neskaren batek mutilekin nahasian antzezlanen batean parte hartzen bazuen (Batzokian) kongregaziotik botatzen zuten. Elizak antzerkiaren ohiturari gerra ondoan ere eutsi zion, gerra aurrean, ordea, antzezlan guztiak euskaraz ziren eta gerra ondoan batzuk euskaraz eta beste batzuk espainolez.

Batzokiko giroa oso bestelakoa zen. Bertan antzezlan ugari eskaintzen zen, eta ez ziren, inola ere, erlijio lanak, edo euskaraz sortuak bakarrik eskaintzen. Denetarik antzeztzen zen eta besteak beste, Julio Vernerren *Miguel Strogoff* ere antzeztu zuten. Lezoko antzezlanak Donibane kaleko 6.ean, batzokia dagoen etxeko sotoan, egiten ziren. Jende ugari biltzen zuten, herriak oso gustokoak zituen bertan eskaintzen zirenak.

Garai hartan herrietako antzerki taldeek indar handia izan zuten eta herriz herri ibiltzen ziren antzezlanak eskainiz, beste herrietakoa, berriz, ordainetan Lezora etortzen ziren euren lanak eskaintzera; oiartzuarrak, esaterako Martin eta Manuel Lekuonaren *Eun dukat* lanarekin. Horrek adierazten digu zer nolakoa zen garai hartan euskarazko antzerkiaren garrantzia eta indarra. Herritik kanpora antzezteko Lezoko Euzko Batzokia izena erabiltzen zuten eta besteak beste, 1935ean Donostian Villarren *Alma Vasca* obraren itzulpena zen *Euzko gogo*a antzeztu zuten.

Antzerki taldeak herriko jende xeheak osatzen zituen eta Lezon behintzat, gerra ondoren antzerki taldea berriro osatu zenean, haue-tariko zenbaitek gazteagoekin batera parte hartu zuten. Ez da txantxe-takoa, bada, antzerkiaren eragina Lezoko kultur bizitzan. Honek,

bestalde, Lezo garaiko joerekin bat eginda zebilela adierazten digu. Izan ere, 1931n Erreterian Euskal jaia antolatu zen eta hortik hasi zen antzerkiaren mugimendua gure eskualdean. Datak argi jakiterik ez baldin badugu ere, Miren Gezalak dioskunez, bere aurretik Anastasio Zapirain eta beste zenbait ere ibili ziren antzerkia egiten.

### Dantza

Batzokian, ordea, antzerkiaz gain “eskudantza” edo “ezpatadantza” eta euskal dantza gehiago ere ikasten ziren. Miren Gezala dantza eta antzerkian aritu zen, bai parte hartzen bai irakasten, eta Donostiara joan ohi zen euskal dantzak ikastera gero Lezon irakasteko. Dantzaren tradizioa aspaldikoa zen; gogora, bestela, zer dioen Simeón Antúnez irakasleak bere ikasleen asistentziaz 1911-12 ikasurtearen amaierako txostenean.

Garai honetan, ordea, mugimendu abertzalearekin loturiko kantuek indar handia hartu zuten. Joxe Migel Trekuk gogoratzen du haur zelarik nola ibiltzen ziren kalean, lagun artean, “Laster ikusiko degu Euskadi askatua” eta antzekoak abestuz. Trekuren arabera ez zuten irakaslerik; kantu horiek herrian ikasten ziren eta horretan laguntzen zuten liburuxka eta orriak ere baziren. Kantutegi abertzalearen sinbolismoak berebiziko garrantzia izan zuen garai honetan eta baita ondorengo hamarkada ilunetan ere. Kantua zen ahozko tradizioari loturiko herriari mintzatzeko tresnarik eraginkorrena, beraz, kontzientzia euskaltzale eta abertzalea pizteko tresnarik zuzenena.

Dena den, kantutegi abertzaleaz gain, tradizionala eta erlijiosoa ere jorratzen ziren. Agustina Lizarazuren eskolan, esaterako, garrantzia berezia zuen kantuak.

Ahozko tradizioak (ipuin, kantu, bertso eta koplak, besteak beste) Lezon izan duen eragina oraindik gutxi ezagututako gaia dugu. Aztertzen ari garen garai honetan lezoarrak, euskaldunen joera historikoari jarraituz, ahozkotasanaren zaleak ziren, eta besteak beste bertsozale. Inaxio Artolak bertsolaritzaren garrantziaz ohartzeko zenbait kontu jakingarri eman dizkigu aditzera. Bere hitzetan Lezo bertsozalea



zen, bai bapateko saioena, bai bertso-paperena.

Saioak bi modutara egiten omen ziren. Batzuetan udaletxearen aurrean, mutur banatan bi ardo barrika handiren gainean bertsolari bana jarrita; bestetan, berriz, bata udaletxeko balkoian edo Paskualeneakoan (Gurutze Santuaren plaza, 4. sotoa) eta bestea Gure Bordakoan jarrita. Elkarren lehian aritzen ziren bi bertsolariok. Horrezaz gain bertso paperak saltzen ibiltzen zenik ere bazen Lezon. Bertso paperak kalez kale kantatuz saltzen zituen elbarri batek. Aro honetan ezaguna izan zen Juan Joxe Sarasola “Lexo” bertsolaria. Honez gain, ordea, baziren herrian, mahaiaren bueltan bertsoak jartzten aritzen zirenak, Lezon hain ugari ziren sagardotegien giroan ziurrenik. Fernando Legorburu Iriartenekoak gogoratzen ditu hainbat eta hainbat bertso. Juan Joxe Zabaletak dioskunez, berriz, bera eta bere belaunaldiko baserritarrak bertsozale amorratuak ziren eta ahal zuten saio gehienetara joaten ziren. Ondare hori, zorritzarrez, galtzen ari da eta beraiekin batera Lezon ahozko kulturak izan duen garrantziaren memoria bera ere bai.

### Liburutegia

Ahazkotik idatzizkora jauzi egingo dugu. Oso lagungarria litzai-guke ezagutzea Lezoko Udal liburutegia zein liburuk osatzen zuten. Lezoko Udal Liburutegian bada datarik gabeko katalogo bat eta bertan agertzen diren liburu guzi-guziak gerraurrean argitaratu ziren. Datarik ez dugunez ezin jakin hori zen Lezoko udal liburutegiaren fondoa gerraurrean; halakorik pentsa daiteke, ordea. Fondoan zein liburu zeuden ikusita bi gauzarekin berehala ohartuko gara: bata, fikzio eta poesiari leku gutxi eman zitzaiola, gutxi baitira genero haue-tako lanak eta denak espainolezkoak. Bestea, lan zientifiko eta tek-nikoak direla nagusi eta horien artean Euskal Herriari buruzkoak batez ere. Beraz, eta eskutan datarik gabeko katalogo hori besterik ez dugula, esan daiteke Lezoko udalak euskarazko lan gutxi erosi zuela. Azpimarratzekoa da, dena den, erosketak egiterakoan Euskal Herriari buruzkoen alde egin zuela.

Euskal kulturaren agerraldi hauen ondoan erdal kulturarenak ere

jarri behar ditugu. Denen berri zehatza jasotzerik izan ez badugu ere bada Primo de Riveraren diktadura garaiko “Bendición de la nueva Bandera Nacional”alaren inguruan egindako ospakizunen berri. Egitarauetan euskarazko eta erdarazko ekitaldiak ageri dira. Erdarazkoetan poesia emanaldi, hitzaldi eta ekitaldi solemneak daude eta ageri diren protagonista guzietan deitura erdaldunak dituzte. Beraz, herriaren kultur joerak eta boterearenak aski desberdinak eta desberdinak ziren.

### Jaiak eta Ospakizunak

Aipatu besterik egingo ez baditugu ere, Lezoko jai eta ospakizunak orduko euskal kulturaren ildoan zeuden bete-betean. Bertsolariak, estropadak, idi-probak, erronomia... Inguruko herrietako jende ugari biltzen zen eta Lezoko Gurutze Santuaren erronomia sonatua zen garai hartan Gipuzkoa eta Nafarroan.

Horrez gain, herriko festetan zinema emanaldiak egiten hasi ziren. Teknologia aurrerapenen lilurak jota bizi zen gizarte hartan, handia zen zinemaren erakargarritasuna; baita Lezon ere. Filmak, noski, erdarazkoak ziren (mutuak izan arren) eta aldeaz aurretik zentsura pasa behar zuten.

Zinemarena azpimarratu beharreko gertaera da, hasiera apala izan baldin bazuen ere, herri xeheari eskainia zelako eta honek arreta handiz jarraitzen zuelako. Horren erreferentziala zen kultur eskaintza erdaraz izateak, berriro ere, euskararen egoera diglosikoa indartuko du; euskara idatzizko mundutik at gelditu zen bezala, teknologia aurrerapenetatik at gelditzera zihoan.

### Trasmisioa

Abertzaletasunak lezoarren hizkuntz kontzientzia pizten lagundu zuela esan dugu. Horrekin batera, ordea, oso garrantzitsua izan zen familiaren lana. Alegia, familiaren bitartez jaso zuten orduko lezoarrek euskararekiko ardura eta kontzientzia. Datu hau etengabe agertzen zaigu galdekatu ditugun belaunaldi guzietan. Aro honen azken urteak ezagutu zituzten Miren Gezala, Joxe Migel Treku eta Inaxio

Artolak bat egiten dute esatean familiaren bitartez hartu zutela kontzientzia hori. Beraz, familiaren garrantzia euskararen biziraupenean hizkuntza transmititzea baino haruntzago doan gertaera da. Ez dakigu dinamika hau aurreko belaunaldietan izango zen; badakigu, ordea, gure lekukoen gurasoen belaunaldian bazela.

Ez da harritzekoa, bestalde, belaunaldi honen jarrera, foruen galera eta Espainiaren eraso zentralista bete-betean bizi izan baitzuten; eta karlismoak euskararen aldeko mezua zabaldu zuen XIX. mendearen bigarren erdian. Joxe Migel Trekuk eta Miren Gezalak, esaterako, datu guztiz adierazgarria ematen digute. Biek diote amak eman zielela horren berri. Trekuk, esaterako, amarengandik jaso zuen euskaltzaletasuna eta hark kontatzen zion nola zigortzen zituzten euskaldunak eskoletan euskaraz aritzeagatik. Eratzunaren teknika erabiliz, euskaldunak elkarren salatari bihurtzen ziren eta zigor fisikoak jasotzen zituen astearen amaieran eratzuna eskutan zuenak. Badakigu teknika hori aspaldikoa dela, eta zenbait herri euskaldunetako irakasleen lan kontratuetakoa betebeharren artean zigorbide hori erabiltzea ezarrita zegoela (Beasain 1730, Elgoibar 1787... (Ikus: J.M. Torrealdei 1998)

Ezin dugu dokumentu bidez frogatu Lezon erabili zen ala ez. Miren Gezala eta Joxe Migel Trekuren amak, ordea, bata Kale Nagusikoa eta bestea Eguzkitza baserriko alaba ziren, herritik kanpo ezer gutxi ibiliak eta horrek asko indartzen du hipotesi hori. Guk gure aldetik ahaleginak egin ditugu garai horretako irakasleen kontratazio hitzarmenak aurkitzen Udal Agiritegian; ez dugu ezer topatu, ordea. Dakigun gauza bakarra da Lezon mende hasiera bitartean irakasle guziak jatorriz euskaldunak zirela, nahiz eta horrek ez duen ezer esan nahi. Lezon eratzunaren zigorra erabili nahiz ez, argi dago zigor horren berri bazutela lezoarrek eta ondorio historikoak izan zituela Lezon bertan.

### **Beraz, ondorio soziolinguistikoak:**

Aurreko garaian Lezo herri euskaldun peto-petoa zela genion eta euskarak bere alde zituela bultzatzen eta erakar-indarrak.

Aro honetan Lezok herri euskalduna izaten jarraitu zuen; aldaketa adierazgarriak gertatu ziren, ordea. Foruen galerak elkarren kontrako bi indar askatu zituen eta Lezok bien arteko lehia ezagutu zuen beste hainbat herrik bezalaxe.

Aro honetan aurrera egin ahala, estatuak bidalitako ordezkari erdaldunak geroz eta gehiago izan ziren (sendagile, irakasle, guardia zibil...), eta erdarak herriko bizitzan zuen garrantzia geroz eta handiagoa bihurtzen hasia zegoen: irakaskuntza, sendagileak, bika-riorearen jarrera... Erdarak, ordurarte ez bezala, geroz eta erakar-indar handiagoa zuen herriko bizitzan bertan. Bestalde, herrian euskaraz mintzo ez zen komunitatea trinkotzen hasia zegoen, aro honetan oraindik oso ahula bazen ere.

Foruen galerarekin pizturiko sentimenduak, bestalde, babes handia izan zuen herrian. Tradizioz karlista izaki, "Eusko Pizkundearen" uhinarekin bat egin zuen politika nahiz kultura mailan. Beraz, herri-tarren artean euskalduntasunaren sentimendua geroz eta osagai ideologiko indartsuagoz jazten ari zen. Politika eta kultura mailako ekimen abertzale eta euskaltzalea izan zen garai honetan Lezoko bizitzan dinamiko eta aberatsena. Urrats hau aro honetan oso garrantzitsua izan zen; garrantzitsuagoa izango zen, ordea, hurrengoan.

Ez dezagun, ordea, gure burua engaina. Abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren lehen urratsak Lezon, garrantzitsuak izan arren, azalekoak izan ziren. Ez zuten balio izan euskarak bizi zuen egoera diglosikoa gainditzeko; eraginik garrantzitsuena ideologia mailakoa izan zen. Miren Gezalaren eskola eta *Argia* aldizkaria alde batera utzita, Lezoko herrian euskara egoera berri batera eramateko ez zen urrats zehatzik eman. Hutsune hau, ordea, orduko mugimendu nazionalista osoak izan zuen, ez Lezokoak bakarrik.

Beraz, garaia-aren amaierarako bi indar hauek elkarren kontra ari ziren lehian eta zurrunbilo horren erdian bizi behar zuten lezoarrek. Poliki-poliki egoera aldatzen ari zen, ordea, eta erdara bultza-indarra eta erakar-indarra irabazten ari zen. Jada, ekonomia ez zegoen nekazaritzari soilik lotua; herrian baziren euskaraz mintzo ez ziren giza-taldeak eta hauetako batzuek ardura garrantzitsuak zituztenak (irakasle-

ak, bikarioa edo sendagilea); kalea (Errenteria) eta baserriaren (Lezo) arteko diferentzian hizkuntza marka bereizlea bihurtzen hasia zen (aurrerapena eta atzerapenaren arteko borroka, alegia); espainolezko hezkuntzak geroz eta garrantzia handiagoa zuen, belaunaldi berriek espainolaren ezagutza zuten aurreko belaunaldiek ez bezala... Estatuak euskara itozteko bidean emandako urratsak gauzatzen hasiak ziren eta ondorioak hurrengo aroan nabarituko ziren.

Esandakoak esanda ere ez dugu uste izan behar Lezo erdalduntzen ari zenik. Aro honen amaieran oraindik Lezon euskara zen nagusi eta euskara ez zekiten etorkinak ezinbestean euskalduntzen ziren. Euskararen osasuna oraindik oso ona zen, bada, garai honetan, diglosia historikoa alde batera utzita.



“Lezoko Euzko Batzokia” antzerki taldea Loiolan. Beheko lerroan, ezkerretik eskumara, lehena ezezaguna, ondoren Polentzi Gezala, Maddi Arriaga, Miren Gezala, Koldobike Gezala eta Elixabete Gezala. Erdiko lerroan, Rikardo Salaberria, ezezaguna, Rikardoren emazte Maritxu, ezezaguna, Inaxio Olasagasti, Maria Olasagasti, ezezaguna, Luke Gezala, eta azkena ezezaguna. Goiko lerroan, lehena ezezaguna, ondoren Bixente Cordero, Juanito Berasarte, Martin Alberdi, ezezaguna, eta Fermin Pikabea.

### 3.3.- 1937-1975

*“Pero para un vasco que aún merezca tal nombre, el problema de la supervivencia o desaparición de la única lengua nacional vasca debe ser un problema vital pues es un problema de cuyo desenlace depende el que nuestra lengua tenga o no sentido: la independencia que es el instrumento necesario para la edificación de nuestra nación; y ésta sólo puede ser euskaldun y ha de ser vasca.”*

ETAren formazio liburuxka oraindik euskararik ez zekiten kideei zuzendua (Iturria: Euskadi y la libertad. Tafalla, Txalaparta Argitaletxea, 1. liburukia, 108. or.)

*Visto su escrito de fecha 27 del actual, por el que solicita autorización para retransmitir en lengua eúskara los programas señalados en el informe que al mismo escrito acompaña, esta Delegación provincial, que en modo alguno pretende coartar la utilización del vascuence como medio de expresión -tal como parece haber interpretado esa Dirección, a juzgar por los términos del mencionado informe- sino que trata de regular, de acuerdo con las instrucciones recibidas de la Superioridad, las condiciones que deben reunir determinados espacios, ha resuelto acceder a lo solicitado, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:*

*1º.- El número y características de las emisiones en lengua vasca habrán de ser, precisamente, los señalados en la solicitud de referencia.*

*2º.- Del contenido de los programas, de su supervisión y vigilancia, se hace a Vd. especialmente responsable, en su calidad de director de la emisora.*

*3º.- En ningún caso podrán ser difundidos anuncios en lengua vasca, toda vez que la publicidad no puede ser considerada*

*como integrante de los programas religiosos cuya competencia exclusiva corresponde a la autoridad eclesiástica.*

*4º.- Por las mismas razones, y habida cuenta de que los llamados discos solicitados constituyen una modalidad publicitaria, sin conexión alguna con la tarea de apostolado religioso, queda terminantemente prohibida la difusión de discos acompañados de dedicatorias en lengua eúskara.*

*Todo lo cual me complace en comunicarle, significándole que la transgresión de cualquiera de las normas anteriores supondría la automática anulación de la autorización concedida.*

Radio Popular irratia 1964ko urriaren 30ean Informazio eta Turismo  
ministeritzaren ordezkariak bidalitako idatzia.

(Iturria: Torrealdai (1998))

### 3.3.1.- EUSKAL HERRIAREN HISTORIA. 1937-1975

Gerra amaitu zenean argi eta garbi zegoen nor izan zen galtzaile eta nor irabazle. Horretan ahalegindu zen frankismoa gerra ondorengo urteetan. Horretarako bi izan ziren jorrotutako bideak: disidentziaren kontrako etengabeko zapalkuntza eta proiektu frankista gizar-tean txertatzeko ekimena.

Euskaldunok bi bideon ondorioak era berezian nozitu behar izan genituen, euskaldunak izanik askatasuna amesten genuelako eta borrokan Francoren kontra oldartu ginelako. Beraz, gerra ondoko urteak, batez ere lehen bi hamarkadak, zapalkuntza, gosea eta izuaren urteak izan ziren. Agintari berrien kontrako ekimen oro tortura, espetxea edo beste edozein zigorren bidez ordaintzen zen, eta ugari izan ziren hori bizi izan zuten abertzale euskaldunak, beste hainbatekin batera.

Gerra ondoko urteak krisi ekonomikoa eta gosearen urteak izan ziren. Frankismoak ate guziak itxi zituen eta autarkiaren bideari ekin

zion. Bigarren Mundu Gerra aukera ona izan zen ekonomi krisia gainditzeko Europari aterik zabaldu gabe. Gerrako urte haietan industria izugarri bizkortu zen, eta Euskal Herriko industria izan zen gehien nabarmendu zena estatu osoan. Frankismoarekin bat egin zuen Euskal Herriko oligarkia industrial hark Europako gerrak sortzen zituen beharrak asetzeko azpiegitarik onena zuen. Diktadorearekin bat eginda egoteak eskaintzen zion abantailarekin eta langile mugimendua frankismoaren menpekoa zela profitatuz, Hego Euskal Herrian industrializazioaren garai berria zabaldu zen. Lan ugari eta ordain kaskarraren truke Europaren eskaera asetu eta poltsikoak bete zituzten. Industrializazio aro oso indartsua bizi izan zuen Euskal Herriak Francoren garaian. Bi garai izan ziren, lehena gerraondoko urteetan eta bigarrena 60. hamarkadako urteetan.

Hazkunde zoro eta neurrigabeak Hego Euskal Herriaren soziologian, ekonomian, kulturen, ingurugiroan eragin bortitza izan zuen. Diruaren truke edozer egin zitekeen; ez ziren zeharkako ondorioak kontuan hartzen; honela, ez zen ingurugiroa batere zaindu, ez eta langile eta industriaren zaharberritzea ere, eta gutxiago, noski, industrializazioak Euskal Herriko gizartean edo kulturen izan zezakeen eragina. Honela, bada, petrolioaren krisiak garaia bukaeran euskal industria, azpiegitura ekonomikoa eta langileen formazioa zenbait hamarkadako atzerapenarekin harrapatu zituen<sup>52</sup>.

Bien bitartean, frankismoaren lehen zartadaren ondoren langile mugimendua esnatzen hasi zen, laster etorri ziren langileen lehen eskakizunak, baita grebak ere (1947an Bilbon). Poliki-poliki hurrengo hamarkadetan horren indartsua izango zen langile mugimendua gorpuzteko bidean jarria zegoen.

Industrializazioak, ordea, ez zuen hori bakarrik ekarri. Geroz eta indartsuagoa zen industriak langileak behar zituenez, berriro ere, Euskal Herriaren historian hirugarrenez, Espainiako eskualde behartsuenetako nekazariek Euskal Herrirako bidea hartu zuten. Aurreko

---

<sup>52</sup> Ikus zer dionen honi buruz J.M. Lorenzo Espinosak (1996) *Historia de Euskal Herria. El nacimiento de una nación. III. Liburukia. Tafalla, Txalaparta. 243-7. or.*



migrazioen helmugak Bizkaia (XIX eta XX. mendeetan) eta Gipuzkoa (XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan) izan ziren. Hirugarren honetan, berriz, etorkinek Nafarroa eta Arabara ere jo zuten. Industriaren arorik oparoenean (1960-75. urteen artean) Hego Euskal Herriko populazioa % 44 hazi zen. Estatutik etorritako esku-langileekin populazioa % 27,5 hazi zen<sup>53</sup>.

Euskal mapa soziologikoak aldaketa handiak bizi izan zituen urte haietan. Jada baserriak galdua zuen ekonomiaren motorra izatearen ardura, gizartea kalean eta industrien inguruan ari zen gorpuzten, langile mugimendua Hego Euskal Herri osora hedatu zen...

Mundu mailan gerraren amaierak, bi “blokeen” sorrera eta nazioarteko erakundeak (NBE, EE, OTAN)... ekarri zituen. Agertoki berri honetan Frankismoak nekez jarrai zezakeen ordurarteko autarkiarekin. Estatu Espainolak nazioartean galdutako lekua irabazten hasi beharra zuen, eta batez ere modernotu beharra. Ahalegin horretan Frankismoak amerikarren babesa bilatu zuen eta horretarako zenbait aldaketa egiten hasi zen, atzerriarekiko harremanei zegokienez batez ere: turismoari ateak zabalduz eta hiritarren joan-etorriak erraztuz; amerikarrekin hitzarmenak sinatuz edo bertan egoten utziz (amerikarren Bardeetako tiro-zelaia, esaterako, garai honetan sortu zen).

Euskal Herrian, bien bitartean, “aliatuek” Franco boteretik noiz kenduko ezer egin gabe itxarotea erabaki zuen EAJ-PNVk. Gerra bizi izan gabeko belaunaldiak iritsi ziren ordea, abertzaletasunaren plazara eta hauekin Euskal Herriaren alde borrokatzeko ikuspegi berriak.

EAJ-PNV-ren inguruko abertzaletasun klasikoari pasibitatea leporatuz, zerbait egiten hasi beharra aldarrikatu zuten gazte hauek eta hortxe sortu zen EKIN (1952), geroago Euskadi Ta Askatasuna (1958) bihurtuko zena. Mundu mailako joera marxista eta askatzaileen eraginez Euskal Herri askatu, euskaldun eta sozialistaren aldeko borrokari ekin zion mugimendu honek. Denboraren poderioz ETA bihur-

---

<sup>53</sup> Ikus zer dionen honi buruz J.M. Lorenzo Espinosak (1996) Historia de Euskal Herria. El nacimiento de una nación. III. Liburukia. Tafalla, Txalaparta. 246. or.

tu zen garai hartako ezkerreko mugimendu abertzalea egituratu, antolatu eta borrokaren bidean jarri zuena bere kideen aktibismo sozial, kultural nahiz armatuaren bidez.

Kultura, gizarte eta politika mailako borroketara belaunaldi berri hau heltzeak benetako astindua eragin zuen, Euskal Herrian batez ere. Ez ziren borroka moldeak bakarrik berritu, ikuspegi politikoak ere berritu ziren eta, geroz eta indartsuagoa zen langile borrokan txertaturik, borroka soziala abertzaleari lotu zitzaion. Beraz, euskal kultura eta langile mugimenduak ordura arte inoiz izan gabeko indarra hartu zuten. Era guzietako ekimen eta mugimenduak sortzen hasi ziren.

Garai honen azken hamar urteak (1965-1975) izan ziren, zalan-zarik gabe, bizienak. Ezkerreko proiektu independentistak indar handia hartu zuen. Horren bidez joera sozial (sexu jokaeran, hezkuntzan, bizimodua ulertzeko eran...) eta politikoetan (identitate nazionala, euskararen nazio izaera, independentziaren aldeko proiektua, indar zapaltzaileei aurre egin beharra, autoorganizazioa, elizaren uztarpetik askatzea euskal kultura...) aldaketa handiak gertatu ziren. Estatu espainolak, bestalde, errepresioa gogortu zuen ezagunak diren ondorioekin (Txabiren heriotza, Burgosko prozesua, atxiloketak, jazarpena...)

### 3.3.2.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA. 1937-1975

Ez da batere erraza hitz gutxitan laburtzea aro honetan Euskal Herriak bizi izandakoa. Euskal Herriak garai berean bizi izan zituen Frankismoaren zapalkuntza, industrializazio bortitza eta mendebaldeko gizartearen berritzea. Prozesu horren ondorioak euskararen historia sozialean bete-betean eragin zuten.

#### **Euskararen kontrako jazarpena**

Frankismoaren garaipean Euskal Herria, eta batez ere honen alde borrokan ibilitakoak, garaiturik utzi zituen. Frankismoaren lehen

urteak “arerioaren” kontrako jazarpenarenak izan ziren eta Euskal Herrian batez ere euskara edo euskaldun kutsua zuen orenen kontra saiatu ziren ahalegin betean (eta zer esanik ez aktibismo politikoaren kontra).

Euskararen erabilpen publikoaz gain, pribatua ere eragotzi nahi izan zuten. Ezagunak dira gure artean euskaraz hitz egiteagatik isunak eta bestelako zigorrak jaso izan zituztenen kasuak<sup>54</sup>. Beraz, gerraren ondorengo bi hamarkadetan (1936-1956) aktibismo aberztzalea eta euskaltzalea lozorroan sartu ziren. Bien bitartean frankismoa ahalik eta erarik eraginkorrenean saiatu zen euskara desagertarazten.

Estatuaren euskararen kontrako joera ez da berria, frankismoak ez zuen ezer asmatu, ordura arteko ideologia azken muturreraino eramaten saiatu zen, “besterik ez”. “Nazio bat = hizkuntza bat” ideiarekin herritarrak “zatitzen”, “bereizten” zituen diferentzia orenen kontrako borrokan murgildu zen gerra irabazi zuen mugimendu politiko hura eta horretan bat egin zuen gerraurrean asmo berarekin ibili ziren mugimendu politikoekin, ezkerreko nahiz eskubiko.

Honela zioen Gipuzkoako gobernadoreak “Hablad castellano” izeneko bando batean:

*“Preocupación de toda autoridad debe ser el eliminar causas que tiendan a desunir a los gobernados” eta bide batez gaztelaniaz hitz egiteko agindu (1937-IV-16)*<sup>55</sup>

Horrek, noski, berehalako ondorioak izan zituen euskaldunen artean, eta euskara erabiltzea ekintza klandestino izatera iritsi zen, hiri guneetan batez ere. Euskalduntasuna klandestino bihurtzarekin batera, gerraurreko urtetan sortutako kultur eta politika egitura guzia erbestera edo klandestinitatera pasa zen. Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, *Argia*, *Zeruko Argia*, eta beste hamaika erakunde eta argitalpen lozo-

<sup>54</sup> Ikus bestela J.M. Torrealdai (1998)

<sup>55</sup> Iturria: Intxausti, J. (1990), *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza 150-1. or.

rroan sartu ziren, euskal kulturaren agertokia hutsik zegoen.

### **Euskaingintza erbestean**

Hauetako askok lehenik iparraldean eta Mundu Gerra hastean Ameriketara bilatu zuten babeslekua. Bertan hasi ziren biltzen Euskal Herria utzita ihesi joandako euskaltzaleak, eta bertan hasi ziren euskarazko lehen argitalpenak sortzen eta zabaltzen, Jokin Zaitetik bultzaturiko *Euzko-Gogoia*, esaterako. Gerraurrean loraturiko belaunaldi hartatik gutxi izan ziren Euskal Herrian bertan urte ilun haietan euskararen inguruko lanari loturik jarraitu zutenak, horien artean Jon Etxaide.

### **Belaunaldi berriak euskara, kultura eta politikaren agertokian**

Urteak aurrera joan ahala, ordea, belaunaldi berriak etorri ziren, gerra haurtzaroan bizi izandako belaunaldiak, eta hauek, aurreko belaunaldiekin bat eginik, hogeituro urtetako isilaldiari amaiera emateko gogoz euskararen aldeko gizarte ekimen ugari jarri zuten abian.

Frankismoaren lehen urteetako zorabio zapaltzailea baretzen hasia zegoen eta Espainia atzerrian lagun bila zebilen; beraz, ez zitzaion komeni euskararen kontrako ordura arteko politika zorrotzegi jarraitzerik. Zirrikitu horretatik, bada, hasi zen indartzen euskararen gizarte ekimena. Aro honetan lehen ikastolen sorrera (Donostia 1954, Bilbo 1957), euskarazko irratiak (Segura 1956, Tolosa, Loiola, Arrasate edo Arrate 1959), prentsa idatzia (*Zeruko Argia* 1963, *Anaitasuna* 1967), argitalpenak (Etxaideren *Joanak Joan* (1955), Kuliska Sorta (1949), bertolaritza (txapelketak, Basarri eta Uztapideren berrikuntzak), kanta berria (Mixel Labeguerie 1961, *Ez Dok Amairu* (1965), L. Iriondo, X. Lete, Oskarbi...) eta euskal kulturarekin loturiko hamaika ekimen sortu zen.

Euskararen aldeko borrokara bildu zen multzorik jantzienak, kultur ekoizpenari ekin zionak, ez zuen euskaraz prestatzeko aukera handirik izan. Autodidaktak edo seminarioetan ereindako hazitik sorturikoak izan ziren euskal kulturaren protagonista. Aipagarria da garai honetan seminarioek izan zuten garrantzia. Bertan bildu ziren, elizaren dotrina sozialaren babesean geroago borroka politiko, sozial

edo kulturean protagonista izango zirenak.

ETAren sorrerak (1958) eta bilakaerak garai honetan, eta ondorengoetan ere bai, berebiziko eragina izan zuen. Euskal Herriak bizi zuen zapalkuntzaren kontrako indarrak bilduz, nazio kontzientziari indar berria eman zion eta proiektu politiko horretan euskarak berebiziko garrantzia zuen. Euskal komunitatearen definizioa ez zitzaion arrazari lotuko handik aurrera, euskara izango zen Euskal Herria batzen zuen oinarria eta hor bertan jaiotakoek nahiz kanpotik etorritakoek zuten lekua. Hor abertzaletasun politikoaren joera markatuko zuen aldaketa eragin zuen ETAk. Hiltzorian zegoen hizkuntzari emandako babes ideologikoak markatu zituen belaunaldi gazte haiek eta ondorengoak. Euskaraz ez zekiten erakundeko kideek bi urte zituzten euskara ikasteko eta honela “euskaldun berri” ugari zuen bere kideen artean. Bestalde, militanteen formazio liburuxka batean honela mintzo zen ETA oraindik euskaraz ez zekite-  
nentzat:

*“Pero para un vasco que aún merezca tal nombre, el problema de la supervivencia o desaparición de la única lengua nacional vasca debe ser un problema vital pues es un problema de cuyo desenlace depende el que nuestra lengua tenga o no sentido: la independencia que es el instrumento necesario para la edificación de nuestra nación; y ésta sólo puede ser euskaldun y ha de ser vasca.”*<sup>56</sup>

ETAren eraginpean euskararen aldeko borrokari loturiko gazteek bat egin zuten hizkuntzaren aldeko nahiz bestelako borroketan zebiltzan gainerakoekin. Herriz herri zabaldu zen izurria bezala, begira egotetik ekitera pasa ziren gazte abertzaleak, euskal kulturaren aldeko ekimenak, ekimen politikoekin batera, txoko guzietara hedatuz.

## **Ikastolaren sorrera, herri ekimenaren aroa**

<sup>56</sup> Iturria: *Euskadi y la libertad*. Tafalla, Txalaparta Argitaletxea, 1. liburukia, 108. or.

Kultur ekimen guziak garrantzitsuak baldin badira ere guk hemen ikastolak aipatuko ditugu batez ere. Izan ere, ikastolaren inguruan sortutako mugimendua Hego Euskal Herriko txoko gehienetara iritsi zen, tokian tokiko herritarrak jarriz lanean. Ikastolaren sorrerak ilusio berriak piztu eta bere inguruko kultur dinamika indartu zuen poli-ki-poliki. Leku askotan bera izanik euskaltzaleak biltzen zituen gunek bakarra, haur eta gazteak hezitzeaz gain eskola orduz kanpoko iharduerak, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, kultur asteak, hitzaldiak... bildu zituen inguruan.

Bide honetan, noski, ez zen eragozpenik falta izan frankismoaren aldetik. 1956an Elbira Zipitriak Donostian hasitako akademia moduko haiek urte gutxiren buruan gorpuzten eta ikastetxe itxura hartzen hasi ziren. Homologazio arazoak hasieran zeharkako trikimailuez gaindituz, urrats sendoak eman ziren euskarazko irakaskuntza hedatzeko.

Ikastolarena, ordea, urrats garrantzitsua izan arren, ez zen bakarra izan. Herri ekimenaren garaia zen eta Euskal Herri osoan barrena, herriak bultzaturik eta instituzioekiko ahalik eta lotura ttikienarekin, kirol, dantza, antzerki, hezkuntza elkarteak sortu ziren. Oso garrantzitsua da herri ekimenaren pizkunde honen garrantzia eta indarra ulertzea ikastolak nahiz gainerako elkarteek izan zuten arrakasta ulertu nahi baldin bada.

Indarra hartzen ari den uhin honek bete-beteko indarra hartu zuen frankismo garaian sortutako belaunaldi berriak euskararen agertokira igotzean. Euskararen alde negar baino zerbait gehiago egin beharraz jabeturik, belaunaldi honek euskara eta euskal mundua ikusteko era goitik-behera berritu zuen. Ekimen politiko, kultural eta sozialaren aldeko postura garbia eginez (geroago ETArengatik inguruan bildutakoek honi ekimen armatua erantsi zioten). Euskal Herriko egoera gori-gori jartzen ari zen.

## **Inmigrazioa**

Industrializazioak ekarritako etorkinak, aldiz, ugari izango dira, batzuk gerra ondoko urteetan, besteak, berriz, 60. hamarkadako hobekuntzarekin; Hego Euskal Herriak bereganatu ezin zuen giza multzoa

hartu behar izan zuen altzoan. Etorkinen belaunaldi hau, behar gorriak erakarrita, kultura eta ideologia mailan frankismoak emandako garaile ustearekin haziak, normaltasunez herritartzea ezinezkoa izan zitzaion herri honi.

## Hedabideak

Euskara hedabideetara heltzen hasi zen garai berean (irradi eta egunkarietara), berriz, Espainiak jauzi berri bat eman zuen alor honetan eta izugarri hedatu ziren erdarazko hedabideak eta, batez ere, telebista (1956). Telebista gizartratzeak izan zuen eragina ulertzea funtsezkoa zaigu, euskararen bilakaera soziolinguistikoa ulertu nahi baldin badugu. Lehendik hezkuntzan eta gizartean erdara inposatzeko eskura zituzten tresna guztiak jarri zituzten, telebistarekin, berriz, etxetako sukalde eta egongelatarara iristea lortu zuten; familia euskaldun askotan “euskararik ez zekien senidea sartu zen”. Ordurarteko bideekin lortu ez zuena lortu zuen estatuak telebistarekin: erdara euskaldunen eremu pribatuan sartzea. Beraz, hedabideekin kulturak espainolak inoiz izan gabeko itzala eta eragina bereganatu zuen gizarte osoan eta baita euskaldunen artean ere.

Euskara, berriro ere, oso atzean gelditu zen. Telebistak gizakia ilargia zapaltzen erakusten zigun bitartean “Basarri”k irradian idi-probez edo patataren gaitzaz hitz egiten zigun.

Hedabideetan hasitako bideak, argitalpenetan edo hezkuntzan hasitakoak bezala, ez zuen arazorik falta izan eta, alor hau Manuel Fragaren eskuetan zegoelarik (“Ministerio de Información y Turismo” izenekoaren buru zela), geroz eta indartsuago ziren euskarazko irratia debekatu zituen 1964ko hedabideetako legearen bitartez. Herri Irratia izan zen kaltetuena. Hasieran irradi honi erabat debekatu zioten euskara erabiltzea eta geroago, astean euskarazko programa bat eta bi elizkizun eskaintzea besterik ez zioten onartu.

## Euskararen batasuna

Ez genuke aro honen aipamen laburra amaitu behar Euskaltzaindiak euskararen batasuna bideratzeko emandako urratsak aipatu gabe. Izan

ere, euskararen batasun beharra euskaltzale eta euskalarien aspaldiko aldarrikapena baldin bazen ere, ordura arte huts egin zuten egindako ahaleginek. Aro honetan, ordea, Euskaltzaindiaren inguruan belaunaldi berria bildu zen, gerraurreko euskaltzain belaunaldiaren ondoan euskararen batasun prozesuari ekiteko erabaki sendoa hartua zuena. 1968ko urriaren 3-4-5ean Arantzazun egindako batzarrean jarri ziren oinarriak eta ondorengo urteetan garatzeko urrats berriak eman ziren (Aditz baturako proposamena, 1973).

Euskararen batasunerako hartutako bideak ez zuen euskalari eta euskaltzale guzien babesa jaso. Batasunaren aldeko eta kontrako arteko tenkak berriro ere agerian jarri zuen etorkizunari begira zegoen belaunaldi gaztea eta atzera begira zeudenen arteko aldea. Politika eta kulturaren bezalaxe euskararen normalkuntzan iritzi ezberdinak agerian zeuden.

Beraz, aro hau amaitu zenerako Hego Euskal Herrian batez ere, euskal kulturak ordura arte inoiz izan gabeko azpiegitura eta indarra zituen gizarte mailan; hamaika proiektu abian jarriak eta horiek aurrera eramateko borondate finkoa zuen euskaltzale multzo gaztea.

### 3.3.3.- LEZOREN HISTORIA. 1937-1975

1936ko Santakrutz bezperan sartu ziren reketek Lezon eta hauekin batera hasi zen frankismoaren aldia herrian. Melintton Garmendiak ederki asko gogoratzen du egun hura, bai eta nola joan ziren ere haur guziak herriko zenbait heldurekin batera Gaintxurizketa bidera reketeei ongi-etorria ematera. Arestian aipatu dugu hori.

Herrian karlismoak tradizio luzea zuen eta, gehienek abertzaletasunaren alde egin bazuten ere, baziren integrismoan jarraitu eta Francoren altxamenduari ongi-etorria egin ziotenak ere. Horiek izan ziren, hain zuzen, Gaintxurizketa bidera joandakoak. Giza talde honek frankismoaren alde egin zuen aginteak iraun zuen bitartean, besteak beste Eusebio Garmendia bikarioak eta honen anaia Luisek.

Frankistak Lezon sartu eta lehen lana Tiburcio Ascasibar alkate



jartzea izan zen; gero herriko abertzale ezagunen bila hasi ziren. Gezalatarrek Donostia aldera ihes egin zuten, Patrizio Urkizuk Ipar Euskal Herrira, Miren Gezalaren anaia Luis, berriz, atxilotu egin zuten, SOV-ELAko idazkaria baitzen hura Lezon, baita Anastasio Zapirain *Argiako* berriemalea ere. Hauekin batera militante abertzaleak zirenak, Fernando eta Joxe Intxarraundieta, Xenon Salaberria... ere bai. Gezala eta beste hainbat preso instrukzioa egiten ibiltzen zituzten Lezoko kaleetan barrena eta beraiek izan ziren Jaizkibelgo errepidea egin zutenak. Juanito Berasarteri heriotz zigorra ezarri zioten eta hiru urte egin zituen espetxean barkamena jaso eta kalera irten arte; Gezalatarrak Euskal Herritik kanpo desterratuak izan ziren... Ondoren ere, Franco Donostiara etortzen zenean hainbat herritarrek udaletxeko kalabozoetan ematen zuten bisitak irauten



Lezoko dantzari gazteak. Ezkerraren Polentzi Gezala eta eskuinean M. Puente

zuena.

Frankistak sartu aurretik eta ondoren ere izan ziren tira-birak Lezon: 1937ko uztailaren 18an Sarasola baserriko etxekoandrea eta bere bi semeak hil eta ondoren baionetaz pasa zituzten reketeeek (Melintton Garmendiaren arabera hildako haur hauetako batek gerrikoan egurrez egindako ikurrina bat zuen eta baioneta haren gainetik sartu zioten alderik alde gorputza zeharkatuz); frankisten hegazkinek Donibane kalean botatako lehergailu batek herriko Felix Arriaga kale-garbitzailea eta honen iloba hil eta beste bi herritar larri zauritu zituen; Martin Alberdi gazte abertzalearen kontrako atentatua izan zen; emakume abertzaleak ilea moztearekin mehatxatu zituzten... Hamaika gora-behera izan zen Lezon eta hemen ezin denak jaso. Argi dago ordea, Lezon frankisten etorrerak ondorio mingarriak izan zituela herri osoarentzat eta abertzale eta euskaltzaleek ordaindu zutela preziorik garestiena.

Gerra ondoko urteak gogorrak izan ziren lezoarrentzat, zapalkuntza eta pobrezia nonnahi, soldata kaskarrak, lan gogorrak... Hego Euskal Herri osoan bezalaxe nozitu ziren ondorioak. Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, Francok "Provincias Traidoras" izendatu zituen.

Dena den, Hego Euskal Herri osoan bezala, Mundu Gerrak ekonomiaren indartzea ekarri zuen eta, Lezon bertan nahiz Erreterian, empresa ugari zabaldu zen. Erreteria Gipuzkoako industri gune nagusietako bat bihurtu zen eta honen ondoan Lezo. Beranduago bada ere, Lezok mende hasieran teila eta sutauts fabrika besterik ez baldin bazituen, aro hau amaitzen denerako (1975) entrepesen erroldan 71 ageri ziren. Lezoarrek, lehenago esan dugun bezala, entrepresa horietan egiten zuten lan, bai gizon eta bai emakumeek. Geroz eta hedatuago zegoen industrializazioak zuzeneko eragina izan zuen lezoarren bizimoduan.

Gerra bitartean Lezok nahikoa ongi eutsi zion produkzio nekazaritzan oinarritutako ekonomia molde zaharrari (nekazaritza, abeltzaintza, sagardogintza...). Gerrarekin batera, aldiz, baserriaren ahultzea hasi zen. Garai bateko garrantzia ekonomiko eta soziala galtzen hasi zen: sagardogintzak izugarri atzendu, herriko giroa kaletartu...

60.eko hamarkadak joera hau sendotu baino ez zuen egin.

Aldaketa bortitza izan zen Lezoko bizimoduarentzat. Lanbideak, bizimoldeak, soziologia aldatzen hasi ziren. Ordurarteko eredu sozio-kulturala indarrik gabe gelditu zen, eta berria ari zen sortzen.

Errenteriaren ondoan egoteak eragin handia izan zuen. Geroz eta indartsuagoak ziren ezkerreko eta langileen mugimenduetan parte hartzen hasi ziren lezoarrak, ETA-ren “Frente Obreroan”, besteak beste. Greba eta borroka gogorren garaiak izan ziren, batez ere azkenekoak. Joera eta belaunaldi berriekin, bada, lezoarrak ordurarteko izaera elizkoia eta kontserbadorea galtzen hasi ziren eta erreferentzia berriak txertatu ziren lezoarren eguneroko bizitzan. Urrats honek belaunaldirik zaharrena eta gazteenaren artean horma handi bat erai-ki zuen.

Oparatasunarekin batera lezoarren bizi maila igo zen eta mugikortasuna handitu. Donostia edo Irunekin geroz eta lotura estuagoak ziren, herriaz gain hemendik kanpoko errealitatea ere bizi zuten lezoarrek eta historian lehen aldiz, ziurrenik, lezoar zenbaitek herritik kanpora egiten zuen lan eta bizitza soziala, eta herrian, berriz, lo besterik ez. Beatles-ak eta rockarekin automobilak, Coca-Cola eta Torremolinos etorri ziren sagardotegia eta bertsoen lekua betetzera.



Dantzariak Lezoko plazan Frankismo garaian. Ohar balkoiko “piperpotoarekin”




Dantzariak Lezoko plazan Frankismo garaian. Ohar zintzilik dauden “piperpotoekin”

## Populazioa

1940an Lezok 2.207 biztanle zituen udal zentsuaren arabera, hauen artean Euskal Herritik kanpo jaiotakoak %4 ziren eta batzaz beste hamar urte zeramatzaten herrian bizitzen. Ondorengo hamarkadetan hazkuntza aurrera egingo du eta Euskal Herritik kanpo sortu eta Lezora etorritakoak gehiago izango dira. 1950: 2.447 biztanle, % 7,2 Euskal Herritik kanpo sortuak, hauen artean % 3,33k hamar urte baino gutxiago zeramaten bizitzen herrian. 1960: 3.296 biztanle, % 14 Euskal Herritik kanpo sortuak, eta gehienek, % 12, hamar urte baino gutxiago zeramaten bizitzen herrian. 1970: 4.057 biztanle, %21 Euskal Herritik kanpo sortuak. (Iturria: udal agiritegiko erroldak)

Historiaren aurreko aroetan ez bezala, honetan lehenago etorritako-



Frankistak Lezon sartu eta urte betera gertaera hura ospatzeko egindako estapanaren bi aldeak

ei berriak gehitu zitzaizkien. 1950etik aurrera etorkinen mugimendua izugarri indartu zen. Etorkin hauek gazteak izaki, bertan ezkondu eta bertan sortu zuten familia.

Lezon 1940 eta 1970 urte bitartean ia-ia populazioa bikoiztu egin zen. Igoerarik bortitza, ordea, 1960 eta 1970 urte bitartean gertatu zen (hurrenez hurren 84,9 eta 76,1 biztanle gehiago urteko hamarkada bakoitzean). XX. mendean (1985eko datuetan oinarrituz) Gipuzkoako populazioa %3,66 hazi zen, Lezokoa, berriz, % 4,77.

Beraz, aro honetan Lezok historia osoan inoiz ezagutu gabeko aldaketak bizi izan zituen eta funtsezko aldaketak eragiteko oinarriak jarri ziren.



Ezkerretik eskumara Polentzi  
Gezala eta Inaxio Intxaurreaundieta  
Lezoko plazan

### 3.3.4.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA LEZON. 1937-1975

#### Jazarpena

Gerra ondoko urteak latzak izan ziren maila guzietan. Eguneroko bizimodua asko kaskartu zen, ihesi joanak, desterratuak, zigortuak, mehatxuak eta beldurra ziren nagusi. Egoera horretan euskara eta euskal kulturaren agerpenak ere nozitu zuen berea.

Aro honen hasieratik izugarrizko etena gertatu zen Lezon. Aurreko aroan euskara eta euskal kulturaren alde aritutako pertsonak zigortu (desterratu, espetxeratu...) eta egiturak desegin zituen (batzokian falangearen egoitza jarri zuten) frankismoak. Euskararen kontrako eraso inoiz baino gogorrago gertatu zenean herrian ez zegoen honi aurre egiteko ezer herritarren kontzientzia baizik.

Gerra ondoko urteetan herritarrek euskaraz mintzatzen jarraitu

zuten. Ez dirudi lezoarren joera askorik aldatu zenik, horretan leku-guziak bat datoz. Hala eta guziz ere beldurra zen nagusi. Beldurra zitzaion euskaldun edo euskaltzale agertzeari. Lehen urte haietan euskal kulturarekin zerikusia zuen edozer lozorroan gelditu zen.

Boñi Urkizuk adierazi digunez Francoren kontrako grina nagusi zen herritarren artean, beldurra ere neurri berekoa zen, ordea, eta euskara edo Euskal Herriaren aldeko aldarrikapen oro klandestinoak zen. Egoera ulertzeko aski dugu begiratzea dantzariak bizi zuten egoera. Soineko zuria eta txapela gorria zeramaten, horrekin batera ezin, ordea, gerriko berderik jantzi, konbinazio arriskutsuegia antza! Boñi Urkizuk, hori dela eta gerriko berdea gorritz tindatu behar izan zuen. Horrezaz gain, ospakizun nagusietan balkoietan bandera espainolaren koloreak jarri behar izaten ziren.

Egoera horrek eragiten zuen izuagatik herrian frankismoaren lehen urteetan dena geldirik egon zen. Egiten ziren ekintza apurrak, ezkutu egiten ziren: bilerak, propaganda banaketak, ikurrina jartzeak...

Salatariak ere ez ziren falta izan eta horren ondorioz, esaterako, Juanito Berasarte, abertzale ezaguna herrian, gerra kontseilu batek heriotz zigorrera kondenatu zuen. Espetxean hiru urte egin ondoren askatu zuten.

Zapalketa horrek frankismoak iraun bitartean indarrean jarraitu zuen, eta hasieran gerra aurreko euskaltzale eta abertzaleak jazartu zituzten ondoren, berriz, gazteak eta hauen ekimenak, ikastolak... izan ziren.

Dena den, frankismoak iraun zuen bitartean zapalkuntza ez zen beti neurri berekoa izan. Euskal Herri mailan gertatu bezalaxe, Lezon ere hiru aro bereiz daitezke. Lehenak gerraren ondorengo bi hamarkadak (1936-1960) biltzen ditu, zapalkuntza gogorra eta euskararen aldeko agerpen oso mugatuak. Bigarrena 1960-1968 bitartekoa da eta azkena, berriz, transizioa bitartekoa (1968-1975).

### **Aldaketa ekonomiko eta soziala**

Frankismoaren garaipenak abertzaleak lozorroan sartzera behartu zituen, 60ko hamarkadan gertaturiko Espainiaren modernotzeak,

aldiz, elementu kultural berriak ekarri zituen euskaldunen bizitzara. Euskal kulturgingintza ia-ia izozturik zegoela irratia, egunkari eta aldizkariak berritzen hasi ziren, ingelesez egindako musika euskal gazteen artean zabaltzen hasi zen, eta telebista sortu zen. Aro berria zetorren, modernotasunaren ilusioz jantzia eta guda ezagutu ez zuen belaunaldia bete-betean harrapatu zuen. Modernotasunak ez zuen euskararik ezagutzen, eta beraz, euskara zaharkin bat zen.



Manuela Toledo

Aldaketa honetan borroka sozialak indarra hartzen ari

ziren eta ezkerreko joerak gerok eta hedatuago zeuden euskal gazteen artean. Lezon bertan nabaria zen zahar eta gazteen arteko tenka, batez ere ezkerreko joera zuten gazte eta EAJ-PNV-ren inguruko ikuspegia zuten zaharren artean. Izan ere, abertzaletasun klasikoak ezkerreko joerak espainolizatzen jotzen zituen.

Ezkerreko joera zutenen artean ere ez ziren gora-beherak falta izan. Euskal Herriaz zuten ikuspegiaren arabera nabarmenak ziren diferentziak. Agustina Pontestak zuzen-zuzenetik ezagutu zuen egoera hau eta horren adibidetzat jartzen digu Imanol abeslariari gertatutakoa: Liga Comunista Revolucionariako jarraitzailea zenez eta honek marko politikotarako espainia hartzen zuenez, espainolista zela leporatuz, harrika bidali zuten Lezotik kantaldi batean.

Beraz, epe oso laburrean errotiko aldaketa gertatu zen euskaldunen inguruan. Euskara eta euskal kulturak euskaldunen bizitzan historikoki izan zuten nagusitasun eta zentralitatea galtzeko bidean ziren.

## Eliza

Sarrera historikoan aipatu dugu euskal eliza ofizialaren jarrera boterearen aldekoa izan zela eta herri nahiz seminarioetako apaiz eta apaizgaiak izan zirela joera hori hautsi zuten bakarrak. Lezon ere horixe gertatu zen eta bete-betean gainera. Hemen ere elizaren ikuspegi ofizialaren jarraitzaile amorratuak eta honen kontrakoak izan genituen.

### Apaizak

Aurreko aroan Eusebio Garmendia bikarioa eta honen anaia Luis aipatu ditugu. Aro honetan ere hauek jarraitu zuten Lezoko parrokiaren zuzendaritzan (Eusebio Garmendiak 1958 arte). Garmendia anaien jarrera zer nolakoa zen ezagutzeko aski dugu esatea frankisten alde egin zutela herriaren aurrean. Besteak beste, herriko kalegarbitzailea eta honen iloba hil zituen bonba jaurti zutenak zuritzen saiatu ziren.

Dena den, orain bezala orduan ere argi zegoen zein zen beraien jarrera; herritarrak jabetzen ziren. Esaterako, Begoña Esnaolak bere lagun min bati gertatutakoaz kontatu diguna adibide interesgarritzat har daiteke. Arantzazura gogo-jardunak egitera joateko dirurik ez zuela-eta, Eusebio Garmendia bikarioarekin hitz egin ondoren honek txarteltxo bat eman zion Donostian diru-laguntza eskaera egin zezan, txartelean, neskaren datuen artean “nacionalista” idatzi zion. Garai hartan badakigu zer esan nahi zuen horrek...

Garmendia anaien jarrera hizkuntza mailan bitxia zen. Izan ere, etxeko senide (Ordiziakoak sortzez), gainerako apaiz eta herriko “jauntxoekin” erdaraz aritzen ziren eta herri xehearekin, berriz, euskaraz. Jarrera gaiztoa hauxe, herritarren gutiestea baitzekarren ezinbestean. Lezoko errealitatearen adibide argia, ordea. Garmendia anaiak izan ziren hizkuntz diglosia euskaldunen artera eramaten saiatuenetakoak Lezon.

Beste muturrean, berriz, Inazio Esnal (Don Inazio izenez ezaguna) zegoen. Lezora 1946an etorria, elizaren lanetan buru-belarri murgil-



du zen eta bere lanak eragin handia izan zuen bai elizan eta baita herriko bizitza kultural eta sozialean ere. Ezaguna da Inazio Esnalek Lezon euskal kulturaren alde egindako lana, bai elizan, bai bestelako eremuetan. Inazio Esnal euskarak bizi zuen egoeraz jabetzen zen, eta herriaren grina eta joera zein ziren ere ikusten zuen. Bera ere euskalduntasun gose zen, euskaldun izan nahi zuelako beste ei ere hori eskaini nahi zien. Aurrean arerioa izateak, berriz, are indartsuago egiten zuen haren borondatea. Honela bada, Inazio Esnal elizako koroa, musika eskolak, antzerkia, ikastola, Allerru elkarte... bultzatzen topatuko dugu Lezon egin zituen urteetan. Pello Garbizuk “euskararen aldeko benetako aktibista” zela esanez definitzen du. Inazio Esnalek 1974an utzi zuen Lezo, ibilbide luzea eta eragin sako-  
nekoa egin ondoren.

Don Doroteo Esnaolarena ere, ibilbide luzea eta eragin handikoa izan Lezon. Bere ekimenik ezagunena Guraso Elkarte sortu eta honen hezkuntz proiektua aurrera ateratzea izan zen.

Don Ramon Azkonobietaren lana, maila apalagoan baldin bazen ere, oso aintzat hartzekoa da. Boñi Urkizuk dioenez, ahaleginak egiten zituen euskaldunak euskarazko dotrinara joan zitezen. Kontuan izan behar dugu garai hartan bazirela seme-alabak erdarazko dotrinara joatea nahi zuten gurasoak, euskalduntasunaz lotsaturik edo seme-alaben geroaz kezkatu-  
rik.. Bestalde, bere esku zituen parroki-

## LEZO

(543)

**LEZO'tik. — Ipuya. —** Josetxo artzaitxoan zan, baiñan tamalez oso gezurtia, egun batez beste artzayaren bizkar parregin bear zuala gogoratu zitzayon; ta asi da oyu ta oyu bere biriketako Indar guziarekin, esanaz: Artzayak, etorri aguro, etorri aguro!! Otso galstoa eldu da ta nere artaldia jatera.

Beste artzayak, ori entzutean ara di-joaz beren makil, altxur, sizkora ta tresna guziarekin otso galstoa litzera. Baiñan Josetxo asi zan algaraz, «Ja, ja, ja!», besteen bizkar gain par egin duelako. Orrela egun bat, bi... ta irugarrenean, or asaldu zalo egitan otso maltzurra. Asi oyu ta oyu; baiñan beste artzayak etzioten jaramonik egin gezurra zalakoan. Ta Josetxo gezurtia gelditu zan artalderik gabe, gezurra esateagatik.

Nere lagun maltoak: ez dezagula beñere gezurrikan esan.

**AZKUE ta GARBIZU, PEDRO MARIA, 10 urte**

*Umeen deian Lezoko zenbait haurren idazkiak biltzen dira*

ko gazte taldeak, eta hauek lan garrantzitsua egin zuten herriko kultur bizitzan.

Herrian ez baldin bazegoen ere Antonio Pildain, Kanarietako gotzain eta herriko semeak ere izan zuen eraginik, batez ere oso integrista izan arren euskaltzalea zelako; eta hori herritarrek bazekiten.

Mateo Alberdik bere sinadura eman zuen ikastolaren sorrera elizaren babesean egin zedin eta Inazio Esnalen hitzetan, “oso zintzo jokatu zuen ikastolarekin hori eginaz”.

Geroago, Jose Mari Muñoa eta Jose Luis Aperribai izan ziren apaiz Lezon. Azken bi hauek, orduko joera jarraituz, euskaltzaletasuna eta abertzaletasunaren alde egin zuten eta hori nabaria zen herritarren artean. Beraz, denborarekin eta apaiz belaunaldi berriaren ekarpenaz Garmendiatarren “eskola” gainditzea lortu zen Lezoko apaizen artean.

#### Euskara liturgian

Frankismoaren garaipenak aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Elizako sermoiak, ordura arte euskara hutsean emanak, erdaraz egiten hasi zen Don Eusebio. Boñi Urkizuk gogoratzen duenez, garai hartan Gipuzkoa osoan kasu bakarra izango zen seguruenik. Erreterian, esaterako, sermoiak euskaraz egiten ziren.

Etorkinen multzoa geroz eta handiagoa izateak izan zuen eraginik Lezoko bizitza liturgikoan, ordura bitartean mezak latinez izan ziren eta sermoiak euskaraz. Hurrengo pausoa sermoiak erdaraz egiten hastea izan zen eta azkenekoa, berriz, meza batzuk euskaraz eta besteak erdaraz ematea. Erabaki honetan etorkinek eragin zuten, eta Batikanoak hartutako erabakia euren mesederako izan zedin eskatu zuten.

1962an Batikanoko II. Kontzilioak mezetan latina baztertu eta tokian-tokiko hizkuntzak erabiltzen hastea erabaki zuenetik, erabaki honen oinarri izango zen “Pacem in Terris” “entziklika” zabaldu zuen, herri bakoitzak bere hizkuntza eta kulturarako duen eskubidea onartuz. Honela bada, mezen ordutegia bikoiztu egin zen. Azpimarratzekoa da zein ordutegi jarri zen meza bakoitzarentzat. Euskarazko lehen mezak goizeko 6,00etan, 7,30etan, 10,00etan

ziren, erdarazkoa, berriz, 8,30etan. Pello Garbizuren ustez euskarazko mezen ordutegi berria ez zen euskaldunen mesederako gertatu.

Don Eusebioren frankismoak, ordea, ez zuen muga argirik. Inazio Esnalek gogoratzen duenez elizako kantuetan, esatera-ko, erdarazkoak sartu ezin zitue-nez, herriaren joera ezagututa, eta euskarazkoak ez sartzearren, latinezkoen alde egin omen zuen. Konfesioa hartzerakoan, berriz, euskara erabiltzen zuen.

Dena den, garrantzitsua gertatu zen Lezok urterik ilunenetan ere euskarazko dotrinari eutsi izana. Bi aukera zeuden; gurasoen nahiaren arabera, haurrak euskarazko ala erdarazko dotrinara joan zitezkeen. Abertzaleek euren seme-alabak euskarazko dotrinara bidaltzen zituzten, beste zenbaitek, berriz, erdarazkora.

Zenbait familiak, frankismo garaian euskarak bizi zuen jazarpena ikusita, seme-alabak erdaldun hezi nahi izan zituzten. Dena den, gutxi batzuk izan ziren Lezon gurasoen hautuz erdarazko dotrinara joandako euskaldunak, hauen artean asko baserriko seme-alabak. Don Ramon Azkonobieta apaizak lan garrantzitsua egin zuen euskaldunak euskarazko taldeetan sar zitezen, eta gehienetan ez zuen etsitzen lortu arte.

Aukera bikoitz horrek aro honen amaieraraino bederen iraun zuen. Euskarazko hezkuntzarik ezean, euskarazko dotrinan bilatu zuten gurasoek seme-alabak euskaldun hezitzeko bidea. Nahikoa murrizta zen dotrinako aukera, izan ere, buruz ikasten zuten kristau ikasbidea. Horretarako, ordea, euskaraz idatzitako dotrina zerabilten eta hori bada zerbait.

(548)

LEZO'tik. — Nere lagun malteak: Beti alperkeriaz uzten nuen eskribitu gabe, ta esan diot nere buruari: Gaurko ezta pasako.

Lezo'n jarri digute ikastola berri bat Familiaren Gurasoen Izenekua, ta oso kontentu nabil. Ikastola ontan oso andre ona daukagu, asko erakusten diguna. Gaur etorri zaigu ikustera ta Igan-detan joateh gara telebiziara nere aita ta amarekin. Ta oyeekin bukatzen dut.

\* \* \*

Bein batean mutil gazte bat Juan zan Sacristira Erretorre Jaunarengana txar-telären billa, eta galdetu zion:

—Kredoa ba aldakizu?

—Bai, jauna, bai; asiera eman beza boorrek, ta nik segiko diot atzetik.

OLAIZOLA MANUEL

*Umeen deian* Lezoko zenbait haurren idazkiak biltzen dira

### Elizaren lanak kulturari

Zalantzarik gabe, kultura mailan izan zuen eraginik handiena elizak. Apaiz eta eliztar zenbaiten jarrera pertsonalak bultzatuta izan bazen ere, frankismoaren urterik ilunenetan elizaren inguruan bildu zen euskarazko kultur ekimen gehiena Lezon. Elizarekin zuzenean loturiko kultur ekimenean Inazio Esnal izan zen bultzatzaile nagusia. Elizaren baitan antzerkia, kantua, solfeo, luistarrak... euskarazko kulturgintzan jarri zituen.

Antzerkiari dagokionez, gerraurrean euskarazko zenbait lan antzeztu baldin bazuten ere aro honen hasieran erdarazkoak ziren nagusi. Inazio Esnalek taldearen ardura hartu zuenetik, berriz, euskarazko lanak baino ez zituzten antzeztu. Aipatzekoa da antzezpenera jende ugari biltzen zela, euskaraz zirelako batez ere. Inazio Esnalek berak herrian euskarazko kulturaren gose handia zegoela dio, eta antzerkiak aire berria ekarri ziola garai ilun hari.

Geroago ikusiko dugun bezala, Patxi Larreak, beranduago herriko dantza eta antzerkiaren sustatzaile izanak, elizaren babesean eman zituen antzerkigintzako lehen urratsak.

Antzerkiaz gain, euskarazko zinema ere eskaintzen zuten elizan. Gipuzkoan bazegoen filma zaharrak euskarara itzultzeko lan-taldea eta haien lanak eskaintzen zituzten. Inazio Esnalek ongi gogoratzen du zer nolako poza ematen zion jendeari filmetan euskara entzute hutsak, jendea animatu egiten omen zuen. Manoli Larrea, Lezon gerra ondoko ikastolako lehen andereñoa izan zena, lan-talde horretan zebilen.

Inazio Esnalek antzerki eta zinemarekin batera, ordea, kantagintzari ere ekin zion. Herriko neska talde batekin hasi zen eguberritan kalez-kale kantari, erdarazkoren bat edo beste tartekatuz. Geroago koroa sortu zuen. Hipolito Gezala herriko organista hil zenean bere esku gelditu zen ardura hori eta, beraz, taldea berrantolatzeari ekin zion. Koroaren kantutegi osoa euskarazkoa zen. Patri Urkizuk Inazio Esnalekin kantuak zuen garrantzia azpimarratzen du, baita berarekin ikasitako kantu mordoak ere.

Inork pentsa dezake kantua-  
ren garrantzia hutsala edo aza-  
lekoa dela; errealtatea, ordea,  
oso da bestelakoa. Kantuak eus-  
kal kulturaren eta euskaldunta-  
sunaren sostenguan izan duen  
garrantzia oso handia izan da,  
baita Lezon ere. Aro honi buruz  
Inazio Esnal, Patri Urkizu, Pello  
Garbizu edo Patxi  
Intxaurrendietak aipatzen duten  
hori bera aipatzen dute gerra  
aurreko garaiez bai Miren  
Gezalak eta bai Joxe Migel  
Trekuk. Beraz, euskal kulturaren  
garairik gogorrenetan, kantua  
funtsezkoa izan da Lezon. Ez  
gara, noski, elizako kantuez soilik ari.

Atal hau amaitu aurretik, luistarrek egindako lanaren garrantzia ere  
ez dugu ahortzi behar, izan ere, elizaren inguruko gazte talde honek  
zuzeneko parte hartzea izan zuen Lezoko kultur bizitzan, garai ilun  
haietan batez ere. Don Ramon Azkonobieta zuten arduradun eta lan  
handia egin zuten jaietan edo bestelako ospakizunetan euskal giroa  
sustatzen.

Garai berriekin joera berriak etorri ziren eta elizak gazteak bildu  
eta antolatzeko orduan izan zuen garrantzia ttikitu egin zen poliki-  
poliki. Frankismoaren lehen hamarkadetan kultura eta filosofia mai-  
lan herriko gazteek aukera bakarra baldin bazuten ere, gero eta  
gehiago ziren joera berriak eta, ondorioz, gazteen hautuak ugaritu  
egin ziren. Jada elizaz gain mugimendu politiko, kultural eta sozia-  
letan parte hartzen zuten gazteek. Bestalde, geroz eta indartsuagoa  
bihurtzen ari ziren ezkerreko joerek eliza eta kristau fedea arbuia-  
tzeak gazte ugari urrundu zuen elizaren eraginpetik.

(549)

LEZO'tik. — UMEEN-DEIA'rako.

Ikastola bat badaukagu, Kristau-ikas-  
bidea, eta irakurtzen, idazten eta Kon-  
tuak erakuzten diguna Euskeraz. Le-  
nago neska ta mutil Euskaldun guztiak  
Dotriña erderaz ikasten zuten. Baiñan  
gu ikastola euskaldunera joaten gera,  
eta ederki ikasten degu dana Euske-  
raz batez ere Kristau-ikasbidea. Guk ez  
degu komulgatu nai Dotriña ikasi ga-  
be. Aurten ere bai omen dira Altagu-  
rea eta nere Jesukristo Jaun ez dakl-  
tenak; ori lotsagarria da zazpi urtekin.

Gu kontentu gaudе andereño arekin.  
Batzuetan galztakerian gabiltzanlan  
erritan edo kastigu pizka bat ematen  
digu; baño ori guk merezi degulako.

SALABERRIA, JESUS M.\* ta  
GOYA JOAQUIN, 6 urte ditugu

*Umeen deian* Lezoko zenbait haurren  
idazkiak biltzen dira

Elizaren eragina herriko gainerako eremuetan

Ez genuke elizari buruzko atala amaitu behar apaizek herriko bizitzan izandako parte hartzea azpimarratu gabe. Gureari dagokionez, Inazio Esnal eta Don Doroteorena aipatu behar dira.

Don Doroteok Guraso Elkartearen sortu zuen eta herriko familia ugari bildu zuen hezkuntz eta gizarte proiektu sendo baten inguruan. Hezkuntzaren atalean sakonago jorratuko dugun arren, esan dezagun orain proiektu honek eragin sakona izan zuela ia biluzik zegoen Lezoko gizarte bizitzan.

Honen ondoan, ordea, Inazio Esnal aipatu behar dugu. Berak esku-hartze zuzena izan zuen ikastolaren sorreran (sortzaile, bultzatzaile, babesle, irakasle... izan zen) eta baita Allerru elkartearen sorreran ere (Kasu honetan bultzatzaile izan ez bazen ere bai laguntzaile eta sustatzaile). Bi gizon hauen lanak Lezoko historiaren aro bat markatu du, batez ere Inazio Esnalarenak.

### Seminarioa

Elizaz hitz egitean ez ditugu kontuan izan behar herriko elizan lan egiten zutenak soilik. Frankismo garaian elizak gazte ugari erakartzen zuen. Batzuetan bokazioak deiturik, bestetan formazio sendo baten bila, ugari ziren seminarioko bidea hartzen zuten gazteak. Are gehiago Lezokoa bezain herri elizkoi batean. Seminarioa ezagutu duten guziek onartzen dute eragin erdalduntzailea zuela. Elizaren barne funtzionamendua erdarazkoa zen eta erdaraz eraikitzen ziren bertako harremanak, baita lezoarren artekoak ere.

Boñi Urkizuk, horrekin batera, seminarioaren inguruan sortu zen giro euskaltzalea azpimarratzen du; giroa erabat erdalduna izan arren, euskaltzale taldeak sortu ziren eta euskal kulturgintza aurrera ateratzeko lanetan ibili ziren. Berari seminarioan sortu zitzaion euskaltzaletasunaren arra eta hamaika ekimen eta argitalpenen sorreran parte hartu zuen bertan egon zen bitartean, besteak beste *Boga-boga* kantur liburuaren argitalpenean edo *Jakin* aldizkariaren sorreran.

## Kultura

Frankismoaren garaipenak euskal kulturaren adierazpenak ia erabat itzali zituen, baita Lezon bertan ere. Beldurra nagusi zen garai hartan, frankismoaren lehen hamar urteetan batez ere, Lezon inor gutxi ausartzen zen kultur lanari heltzera.

Inaxio Artesoro “Zikirua”, Martin Kerejeta eta Anttonio Pikabea izan ziren izoztaldi hura apurtzen lehenak. Herriko gazteak bildu eta gerraurreko

ohiturari jarraituz dantzan irakatsi zieten. Gutxi ziren eta hutsetik hasi behar izan zuten. Zortziren bat haur bilduz, han eta hemen ikasitakoa irakatsiz hiru-lau urtez bizirik iraun zuen taldeak. Saioak eskoletan egiten zituzten eta bertan herriko musikarien laguntza izaten zuten, horien artean Polentzi Gezala txistulari ezagunarena.

Lehen urrats hauen garrantzia nekez ulertuko dugu geroago etorriko zena kontuan izan gabe. Patxi Larreak, urte askotan antzerki eta dantza taldearen arduradun izanak, aitortzen duenez, nekez egingo zuen berak dantza eta antzerkian hasitako bidea frankismo garaiko lehen bidegile hauen lanik gabe. Euskaltzaletasuna etxekoa baldin bazuen ere, gerraurrean militante abertzaleak izandako horiengandik jaso zuen abertzaletasuna eta euskal kultura bultzatu beharraren kezka. Hor dago koska: lehen urte haietan emandako urratsek, apalak izan arren, bi belaunaldien arteko lotura egiteko balio izan zuten.

Inazio Esnalek oso ongi deskribatzen du Lezo nola topatu zuen 1946an etorri zenean: “*kultura mailan oso behartsu topatu nuen, ez zegoen ezer egiterik, jendea beldurpean bizi zen, mehatxua airean zegoen. Kultura mailan hilda zegoen, eta oso gutxik egiten zituzten goi ikasketak. Francoren garaian jaiotako belaunaldi berria hasi zen egoera gainditzen.*”

(551)

LEZO'tik. — Berriro eskolan asi gera, eta bai gogorra dela ikasi bearra au.

Udara guztian jostatzen pasatu izan ere aurtengo bakaziotan oso ederki ibilli gera. Beln Igeri egitera Juan, eta bestetan mendira: eta kalkan ere bai.

Lezo'n muelle berria egitera dlyozate eta eglten dutenean barko sundiak sartuko dira gure errlan. Aurtengo Lezo'ko festak nunbait oztuak izandu dira. Donosti'ko dantzari onak ere izan ditugu; beren artlan Lezo'ko mutil bat ere bazan. Eta urrunguan arte. Agur.

TREKU JOSE LUIS, 11 urte

*Umeen deian* Lezoko zenbait haurren idazkiak biltzen dira

## **Antzerkia eta Dantza**

Lezoko dantza eta antzerkiak euskaraz funtzionatu zuten bai gerra ondoko urte ilunetan, bai ondorengoetan. Horrelaxe gogoratzen du Boñi Urkizuk eta horixe azpimarratzen du Patxi Larreak.

Pikabea eta Artesoro dantza taldearekin lehen urratsa eman ondoren bigarrena Patxi Larrearen ardurapean egin zen. Ez zuen, ordea, dantza taldea bakarrik sortu, baita antzerki taldea ere. Sorrera honetan bi gauza dira bereziki aipatu beharrekoak: bata, Patxi Larreak buru egin baldin bazuen ere jende ugari egin zuela berarekin lan, eta ekimen kolektibo horrek eutsi ziela bi proiektuei; eta bestea, euskara eta euskal kultura sustatu nahia zirela ahalegin horren helburuak.

Antzerki taldearekin hasi zen lehenik, 15 urte besterik ez zituela. Elizan antzezten zituztenak ez zituen batere gogoko, erdaraz zirelako eta neska eta mutilak bereiziz egiten zirelako, besteak beste. Honela bada, elizan bertan eta elizaren babespean bestelako antzezlanak antolatzeari ekin zion. Aipatu beharrekoa da Patxi Juventudes Obreras Cristianas-eko (JOC aurrerantzean) kidea zela garai hartan.

Gerraurrean hasitako tradizioaren eraginez Lezon antzerkirako zaletasun handia zegoen, bai ikusteko eta bai antzeztuz parte hartzeko. Adin guzietako jendeak hartzen zuen parte, gazteek nahiz lehendik esperientzia zuten helduek. Euskaraz funtzionatzen zuen antzerki taldeak eta euskarazko antzezlanak baino ez zituen eskaintzen.

Antzezlanetan denetariko gaiak aipatzen zituzten, gerrurreko lanak, ohitura koadro, euskaldun baserritar arlotearen gora-behera barregarriak... Beraiek, ordea, euskaldunaren arlote irudi harekin amaitu egin nahi zuten; bestelako elementuak eskaini eta literatura klasikotik itzulitako antzezlanak zein garaikideak ere antzeztu zituzten. Larreak berak dioenez, argi ikusten zuten arlotekeria ez zela orduko Euskal Herriaren irudia eta elementu berriak sartu behar zirela. Jendeak, ordea, barre egitekoak zituen gustokoen.



Garai zailak ziren euskaldunontzat. Antzerki lanari ekin zionetik polizia ezagutu behar izan zuen Larreak, bera baitzen taldearen arduradun. Sasoi hartan arazo ugari zegoen antzezteko, poliziak jarraipen estua egiten baitzuen. Elizaren babesean aritzea polizia uxatzeko lagungarri zen hein batean. Herritik kanpora ateratzen hasi zirenean izan ziren arazoak, baimenak eskuratu eta autore eskubideak ordaindu beharra, besteak beste. Batzuetan antzezteak ematen zien dirua baino gehiago ordaindu behar izaten zuten autore eskubideengatik, eta lana egin ondoren dirua galdu ezin zuten, dirua handik edo hemendik ateratzen saiatu behar izan zuten. Gehiegizko zergak ordaindu beharra euskarazko antzerkia itozteko beste ahalegin bat baino ez zen.

Arrakasta handia izan zuen antzerki taldeak herrian bertan eta baita herritik kanpo ere. Batera eta bestera ibili ziren euren lanak eskaintzen. Patxi Larrearen hitzetan Lezo antzerkiaren orduko mugimenduan aintzindari izan zen, beste herrien aurretik joan zen eta



Miren Gezala aurrez-aurre (ezkerraldean bere ahizpa Elixabete). Frankismo garaiko lehen ikastoletako bat inauguratzen Donostian. Ikastola hau etxebizitza partikular batean zegoen

beste herrietan euskarazko antzerkiaren mugimendua pizteko balio izan zuen.

Geroxeago etorri zen dantza taldearen sorrera (1955). Dantzak, antzerkiak bezala, tradizio handia zuen Lezon eta laster lortu zuen dantzari mordoa biltzea inguruan, bai eta dantza ikuskizun sonatu eta kualifikazio handikoak antolatzea ere. Ehun lagunetik gorako taldea zen, tartean adin guzietako dantzariak, musikariak, abesbatza, argiztapen arduradunak... Herriz herri ibili ziren Lezoko dantzariak euren ikuskizuna eskaintzen. Dantza taldearen lana arrakastatsua izan zen eta orduko prentsa da horren lekuko.

Arrakasta, ordea, ez zen ikuskizunaren goi-mailagatik bakarrik izan. Frankismoak euskaltasunaren aldarrikapen oro debekatzen baldin bazuen ere dantza bera, euskal dantza elementu kultural gehiagorekin jantziz, txistulariak, abesbatza... euskaltasunaren aldarrikapen bihurtu zen. Patxi Larreak hori sentitzen zuen eta Inazio Esnalek horixe azpimarratzen du, mugimendu horrek izan zuen indarra jendearen sentimendu ezkutuenak azaleratzeko. Horren adibide dugu Miren Gezalak erakutsita, zapi zuri, gorri eta berdeekin egindako dantza. Oso arriskutsua zen garai hartan kolore horiek elkarrekin erabiltzea eta dantzaren une batean Lezoko dantzariak kolore horiek zituzten zapiak erakutsiz dantzak jarraitzeak jendearen animoa bizi-bizi jartzen zuen. Hemen ere berriro ageri zaigu gerraurreko eta ondorengo belaunaldien arteko lotura.

Antzerkiak bezala, dantzak ere jende ugari bildu zuen. Kasu honetan aipagarria da, ordea, haur eta gazteak izan zirela protagonista, eta euskaraz eta euskal kulturarekiko maitasunez egindako lana izanik, eragin biderkatzailea izan zuela belaunaldi berri haiengan. Allerruren sorrerarekin dantza taldea hemen txertatu zen, gainerako sailen artean beste bat osatuz.

## **Allerru**

Allerru elkarte 1965ean sortu zen. Sortzaileen artean egon zen Gotzon Urretabizkaia eta Allerru sortzeko ideia lagun arteko “despedida” baten ondoren sortu zela gogoratzen du. Herrian zegoen

hutsuneaz jabeturik, Lezon giroa piztuko zuen elkarte bat sortu beharra ikusi zuten berak eta Gurutz Salaberriak. Ideia hau, ordea, ez zen hutsetik sortua, luistarren taldean eta JOC-en ibilitako jendeak osatu zuen; lehenago mendizale talde bat ere osatu zuten eta elizarekin lotu gabeko taldea sortu nahiak bultzatu zituen urrats hori ematera.

Allerruren sorrera, ordea, ez zen uharte bat izan; garai berean Euskal Herrian barrena antzeko elkarte gehiago ere sortzen ari zen eta euskal kulturaren motore bihurtzen ari ziren. Errenterian Ereintza elkarte, esaterako. Garai hartan kultur hutsunearen arazoari ezin zitzaion erantzun politikorik eman, debekaturik baitzegoen; beraz, kultur-kirol-aisialdi elkarteak sortu zituzten, S.C.R.D izenekoak (Sociedad Cultural Recreativa y Deportiva).

Inazio Esnalek Allerru-*ren* sorreran askatasun gune bat ikusi zuen. Sistemaren kontra ezer egitea zaila baldin bazen ere, Allerru eta antzeko elkarteak euskara eta herriaren alde lan egiteko bidea eskaintzen zuten; askatasun apur bat izateko guneak ziren orduko basamortu frankistan.

Allerruk bere baitan hamaika ekimen bildu zuen, herriko kultur bizitza ia osoa. Sail ugari izan zuen kirola eta kulturaren, baita liburu-



Patxi Larrea eta Iñaki Tolosa *Sempere'n gertatua* antzesten zuten bitartean

tegia edo helduentzako euskalduntze eskolak ere.

Eraginen artean oso kontuan izan behar dugu, Allerru herrian erabat txertatu gabeko etorkin ugari herritartzeko lagungarri izan zela; horixe azpimarratzen du Inazio Esnalek.

Ekimen horien inguruan, berriz, joera oso desberdineko jendea bildu zen, besteak beste Jose Diago, orduko alkatea, edo Joxeba Urkizu, militante abertzale ezaguna. Joxeba Urkizuren arabera Allerruren talde sortzailean batzuek argi zuten, ez denek, herriarentzat euskal identitatea eta giroa suspertzeko tresna behar zuela izan elkarteak. Denak ez zetozen bat iritzi honekin. Elkarteak, berriz, indarra berehala hartu zuen, sailen inguruan lan handia egiten zen, emaitzak bistan zeuden eta urte haietan Lezoko herrian Allerru zen kultur bizitzaren muina.

Joxeba Urkizuk gogoratzen du nola izan zen sorrera. Berari bazkideak bilatzeko lana egokitu zitzaion eta batera eta bestera ibili zen bazkide bila. Berak aitortzen duenez herrian harrera ona izan zuen Allerruren sorrerak; ilusio handiak piztu zituen eta bazkide ugari lortu; 500 bazkideetik gora izatera iritsi zen.

Elkartearen barne funtzionamendua ez zen euskara hutsezkoa, besteak beste, zuzendaritzan ere denak ez zirelako euskaldunak. Dena den, Allerruk euskara eta euskal kultura bultzatzeko lana egin zuen herrian.

Ixkulin elkartearen sorrera beranduago etorri zen (1975). Elkarte honek ez zuen Allerruk zuen ikuspegi sozial bera, askoz ere pribatuagoa zen eta gastronomikoa izatea zen bere ezaugarri nagusia. Hain desberdina izateak ez zuen esan nahi bi elkarten artean harreman txarra zegoenik, aitzitik, behar zenean elkar lagundu ere egiten zuten. Dena den, guri dagokigunez, ezin dugu Ixkulinen lana Allerrurenarekin parekatu inondik inora, lehena herriari begirako zerbitzua emateko eta herria astintzeko asmoz sortu baitzen, bigarrena, berriz, funtsean bere bazkide kopuru mugatuarentzat elkartu eta otorduak egiteko leku bat izateko.

## **Euskal kanta berria**

Euskal kanta berriaren arorik oparoena 68aren ondoren etorri baldin bazen ere, ordu-rako hasia zegoen. Allerruren inguruan zebilen gazte jendeak, mugimendu abertzale eta ezkerrekoetan zebilenak, bultzatu zituen. Ikastola, gau-eskolak eta Allerru inguruko kide gazteenen bultzadaz kultur talde bat osatu zuten. Kultur asteak, hitzaldiak kantaldiak eta jaialdiak antolatu zituzten. Elizan bertan egin ohi ziren kantaldiak. Guk, Etxamendi eta Larralde, Joxean Artze, Oskarbi, Imanol, Xabier Lete... Lezon izan ziren. Eta, Euskal Herri osoan bezala, Lezon ere eragin

gogorra izan zuen euskal kanta berriak gazterian. Euskaldunen kontzientziak piztu, abertzaletasuna eta kezka sozialak erein, euskaltzaletzeko tresna eraginkorra izan zen.

Kanta berriaren inguruko gertaerak ugari ba-dira ere, adibide modura esan dezagun ETak Ca-rrero Blanco hil zuen egun berean Lezon Xabier Leteren emanaldia zela San Juan Bataia-tzailearen elizan; guardiazibilak ate joka ibili ziren. Garai hura bizi izan zuten guziek aitortzen dute euskal kanta berriaren fenomeno oso gogorra izan zela, batez ere gazteenentzat.



Goitik hasita, ezkerretik eskumara:  
M.P. Intxauspe, Iñaki Tolosa, Miren Berasarte,  
Jokin Goia, Maite Sarasola eta Patxi Larrea.

Euskal Kanta berriaren uhinean Oskarbi taldea sortu zen eta bertan zenbait lezoarrek hartu zuen parte, haien artean Jose Luis Treku, Agustina Pontesta eta Pello Garbizu.

## **Prentsa**

Hedabideetan 60.eko hamarkada hasi arte euskarazko argitalpenak edo emankizunak ia hutsaren hurrena izan ziren, eta zeuden apurrak, bestalde, erlijio gaiekin loturikoak ziren. Hamarkadaren hasierarekin batera argitaratu ziren erdarazko prentsan euskaraz idatzitako lehen berriak, bai eta euskarazko lehen irrati emankizunak ere. El *Diario Vascok* Ordiziako feriko prezioak euskaraz 1962an eman zituen lehen aldiz, *Diario de Navarrak* euskarazko orrialde bat hasi zuen 1966an eta urte berean Basarri *La Voz de Españan* idazten hasi zen egunero.

Erdal kulturak, ordea, beste urrats bat eman zuen bere azpiegitura osoa berritu eta telebista gizarteratuz. Hau fenomeno orokorra izan arren, Lezoko historiaren barruan aipatu beharrekoa da; izan ere, telebistak poliki-poliki Lezoko familia euskaldunen sukaldeetara ino heldzea lortu baitzuen.

Bien bitartean lezoarrak euskarazko hedabideetan idazten hasi ziren, Argian batez ere. Joxe Manuel Toledo, Joseba Urkizu, Pello Garbizu edo Ramon Zapirain izan ziren, besteak beste, gerraurrean etendako bideari ekin zioten gazteak. Maiz topatuko ditugu lezoarren idazkiak *Argiako* orduko aleetan. Aro honetako lezoarren idazkiek, orohar, ez dute gerraurreko ildo jarraitzen. Jada gaia ez da Gurutze Santuaren erromeria edo Urtia eta Berendiaren arteko ezkontza. Herria edo hizkuntzarekin loturiko gaiak jorratzen dira, urrats berriak emanez aurrera egin, egoera aldatzeko gogoia somatzen da.

Kultura mailan aipatu beharrekoa da Ipar Euskal Herriak orduko euskaldunentzat izan zuen erakarmena; baita lezoarrentzat ere, noski. Euskal kulturaren agerpen tradizionalak batetik (maskaradak, pastoralak...) eta bertan bizi ziren errefuxiatuek bestetik (gerra garaitik zeuden zaharrak, nahiz ETaren sorrerarekin joandakoak), bertara

eramaten zituzten Hego Euskal Herriko gazteak. Bidaia exotikoaren zirraraz jantzia, bertan egindako egonaldi eta joan etorriko bidaiak askatasun gune bihurtzen ziren. Autobusean edo bestela egindako bidaia hauetan ere, garrantzia handia izan zuen euskal kantagintzak, zaharrak nahiz berriak. Kantari egiten ziren joan-etorriak eta autobusak eskaintzen zuen babesarekin kalean nolana adierazi ezin ziren sentimenduak adieraz zitezkeen, kantu bidez normalean.

Bestalde, ETA 1958an sortua zen eta Euskal Herriaren aldeko aktibismoarako deialdia egina zion euskal gazteriarri. Ekintza bidez saiatze horretan “Frente Kulturala” sortu zuen ETAk eta horren inguruan ibili ziren herrian zenbait gazte. Horien artean Joxeba Urkizu. Berak dioskunez, oraindik ETArek egituraren sarturik ez baldin bazegoen ere, erakundearen erreferentziak beretzat hartuz, Allerruren sorreran lehenik eta Ikastolarenean ondoren, aritu zen. Hori zen bere ardura.

### **Abertzaletasunaren aire berriak**

Gerra ezagutu ez zuen belaunaldiarekin batera plazaratutako erreferentzia politiko eta kultural berriek Lezon ere izan zuten eraginik. Lezon, Euskal Herri osoan bezala, belaunaldi eta joera politikoaren arteko tira-birarik falta izan ez bazen ere, herria prest zegoen honelako gertaera baten aurrean, Inaxio Artolak horrela ikusi zuen. Ezker abertzalearen sorrera “naturala” izan zen Lezon, Melintton Garmendiaren arabera, eta ondorio zuzenak izan zituen urte haietan bizi izandako prozesu politiko eta kulturalarekin. Lehen aipatu bezala, Allerru eta Ikastolaren sorreran, adibidez.

### **Hezkuntza**

Aztergai dugun aroan hezkuntzaz hitz egitea ez da batere erraza. Eskola “Nacional”ak, Guraso Elkartearen proiektua, Ikastola... Aro bizia izan zen eta Lezoren geroko hezkuntz bilakaera baldintzatu zuen.

Eskola Nacionalak eta Uruneko auzo eskola

Eskola “Nacional”aren hizkuntza bakarra, esan beharrik ere ez

dago, espainola zen. Espainolez irakatsi eta espainola inposatu. Lezon proiektu honek bi gune zituen, herrian zegoen Pildain eskola eta Gaintxurizketako Urunen zegoena. Batera kaleko umeak biltzen ziren batipat; bestera, berriz, inguruko baserrietakoak.

Aro desberdinak izan baldin baziren ere, frankismoaren lehen urteetan eskolara joan behar izan zutenek euskaraz aritzeagatik “krixtoen zartakoak jaso zituzten belaunaldia” osatu zuten, Juan Luis Olaizolaren arabera. Dena den, eskolan zigorrak jaso arren ez dirudi horrek eskolatik kanpo ikasleen jarrera aldatu zuenik, haurrek euskaraz egiten baitzuten herriko bizitza osoa.

Irakasleak, noski, erdaraz baino ez ziren aritzen ikasleekin. Hauen artean izan zen euskaldunik. Uruneko eskolan, esaterako, izan zen gerraondoan desterratutako irakasle bat, Boñi Urkizuk eza-gutu zuena, eta berak ez du gogoratzen harekin inoiz euskaraz hitz egin izana biak euskaldunak izan arren. Uruneko eskolako ikasle izan zen Karlos Etxezurietak, berriz, ongi gogoratzen du eskolak erdara hutsean izan arren ikasleen arteko harremana, eskola barnean nahiz kanpoan, euskarazkoa zela. Uruneko eskola honetan euskara Gabon koplak abesten edo Don Ramon Azkonobietaren dotrina orduetan entzuten zen. Berrero ere, kantua eta erlijioa agertzen zaizkigu unerik ilunenetan euskararen gordailu.

Adinagatik Uruneko eskola utzi eta herriko eskolara etorri zirenean, Karlos Etxezurietak berak gogoratzen du nola jotzen zieten adarra “casero” deituz kaletarrek bere lagunei. Aurreko belaunaldia eza-gutzen hasitako gutieste ahalegin horrek, ordea, Etxezurietaren ustez, baserriko seme-alaben taldetasuna trinkotu eta identitate propioa sendotzeko balio izan zuen. Eta horrela eutsi zioten euskalduntasunari.

Eskola “Nacional”ak erdara hedatzeko eta indartzeko gunea izanik, eta bertako irakasleak horretan saiatu arren, eskolakoaz gain herri mailan ez zuten eraginik. Bestela esanda, ez zuten euskararen kontrako aktibismoarik egin. Ikastolak lehen urratsak eman zituenean, berriz, hezkuntz ikuskatzaileen aurrean salatu zuten baimendu gabe zegoelako. Helburua, bistan da, ikastola ixtea zuten.



Don Federico Huertas izan zen hainbat urtez eskolaren buru eta goizero-goizero jartzen zuen mastan Espainiako ikurrina. Berak egin ezin zuenean honen semeak, Manuel Huertas, gaur egun A ereduko irakasle eta PSOEko kide denak, egiten zuen. Proiektu hau gaizki ikusia zegoen herrian, frankismoarekin eta euskaldunon kontrako errepresioarekin loturik ikusten baitzen, kalitate txarrekoa izateaz gain.

#### Guraso elkarteak

Lezoko hezkuntza ofizialaren egoera kaskarrak herritar asko kezkatu zuen. Haien artean Doroteo Esnaola, herriko apaiza, zegoen. Bera izan zen Guraso Elkarteak edo Padres de Familia izeneko hezkuntz proiektua sortu eta bultzatu zuena Julian Berasarterekin batera.

Hezkuntz eskaintza ofizialaren kaskartasunari aurre egin nahian eta herriko gizarte bizitza sustatzeko asmoz sortu zen, bada, proiektu hau. Hasieran Julian Berasarteren lokaletan kokatu bazen ere, berehala ikusi zuten egoitza handiago baten beharra. Asko ziren seme-alabak bertan matrikulatu nahi zituzten gurasoak. Ekimen sozialez bultzaturik ehun familiarik gora bildu ziren eta haur eta gazteentzako hezkuntza emateaz gain eskolorduz kanpoko iharduerak eta gurasoentzako ekimenak ere antolatu zituen Guraso Elkarteak.

Bere xedea, herriko gazteei 3 eta 14 urte bitarteko ikas prozesu osoa herrian eskaintzea zen eta ondoren ikasketak jarraitu ahal izateko aukera onak ematea. Izan ere, ordura arte lezoar arruntek ez zuten oinarrizko ikasketak egin ondoren ikasten jarraitzeko aukerarik izan. Guraso elkarteak arazo honi irtenbidea eman nahi zion.

Bertan ikasle izandako zenbait gero bertako irakasle ere izan ziren, eta herriko seme-alabak ere ibili zen eskolak ematen, besteak beste Patri Urkizu, Juani Urkizu, Luis Santos... Patri Urkizu, esaterako, 17 urterekin hasi zen euskara eskolak ematen bertan. Haez gain irakasle gehiago ere izan zen eta orotara 11 irakasleko talde finkoa izatera iritsi ziren Juan Luis Olaizolaren arabera.

Gurasoek, aldiz, hilero, diru-laguntza eman behar izaten zuten ordainetan. Juan Luis Olaizolaren esanetan, ordaindu beharrekoa gutxi izateak jendea erakarri egiten zuen eta proiektua denon eskura

jartzen.

Guri dagokigunez, proiektu honetan bi gauza dira azpimarratze-koak. Batetik, guraso euskaldun ugari bildu izana, batez ere hezkuntz proiektu frankistatik aldentzeko. Eta bestetik, hezkuntza proiektu osoa erdarazkoa izatea. Bi datu hauek funtsezkoak dira Guraso Elkartearen lana ulertu eta dagokion lekuan kokatzeko. Lekuko guziek bat egiten dute Guraso Elkartek herriko bizitzan berebiziko eragina izan zuela eta eskola “Nacional”en kontrako kolpe gogorra izan zela esaterakoan. Horrek, ordea, ez zuen balio herriko hezkuntz sistema euskalduntzeko, “ezta urrik eman ere”. Bestalde, Ikastolaren sorreran bi proiektuen artean izandako tira-birak eta batez ere Guraso Elkartek, Don Doroteo buru zela, ikastolaren sorrera eta garapenari jarritako eragozpenak ez dira ahanzi behar. Hori, dena den, aurrerago jorratuko dugu.

#### Ikastola

Guraso Elkartearen sorrera Lezoko bizitza sozialean garrantzitsua izan baldin bazen ere, garai hartan Lezon hezkuntza eta gizarte mailan emandako pausorik garrantzitsuena ikastolaren sorrera izan zen. Ikastolaren sorrerak bi une izan zituen.

Lehen aroan, 1960-1967 bitartean, Manuela Larrea izan zen irakasle eta hurrekin egiten zuen lan, haurtzaindegi baten antzekoa zen. Bertan dotrina eta kantuak irakasten ziren batez ere eta Inazio Esnalen babesa izan zuen pauso hau emateko. Eskola hau garai batean Agustina Lizarazuren eskola egondako lokal berean zegoen, kale Nagusiko 10ean.

Euskararen kontrako zapalketa bide guzietatik egiten zen eta orduko agintariek baimenik ez zuen ikastetxe oro ixten zuten. Lezon bertan ere izan ziren halako arazoak eta behin baino gehiagotan jo zuten ikastolako atea hezkuntz ikuskatzaileek Eskola “Nacional”eko irakasleen salaketei erantzunez. Eskola legeztatzea eskatzen zioten Manuelari; honek, ordea, ez zuen horretarako behar zen titulaziorik. Egoera horri erantzuteko Inazio Esnalek irakasle titulazioa atera eta ikastolaren titular jarri zuen bere burua.

Ikastola horri laguntzeko eta legalizazioa lortzeko, ordea, herritar gehiago ere bildu zen. Inazio Esnalek ordurako Pasaian eta Errenterian ikastola sortzen ari ziren taldeekin harreman estua izan zuen. Bera izan zen, bada, Lezon ikastola sortzeko urratsa ematen lehena eta horretarako Joxe Migel Treku eta Joseba Esnaolarekin hitz egin zuen; ondoren berehala gehitu zitzaizkien Mikel Salaberria, Joxeba Urkizu, Iñaki Zuloaga, Joakin Urkizu eta gerraurrean EABko militanteak izandako Manuela Korta eta Luke Gezala.

Hasieran helburua Manuela Larreak zuzentzen zuen ikastolari laguntza eta babesa ematea zen. Laster ikusi zuten euskarak behar zuen proiektuak orduan zutenak baino osoagoa izan behar zuela eta garai hartan herri gehiagotan sortzen ari ziren ikastolen bideari ekitea erabaki zuten. Ofizialtasuna eta ikasketa prozesu osoa eskaintzea zuten helburu. Ez dago esan beharrik, ikastolaren inguruan bildutako lan-talde honen asmoa euskarazko irakaskuntza bultzatzea zela; funtsean denek zuten, ordea, sentimendu abertzalea zirika barruan. Bereizketa hori ulertzea oso garrantzitsua da; izan ere, garai hartan botereak ikastoletan abertzaletasuna sustatzeko ahalegin zehatzik nabarmenegiak ikusi izan balitu are errazagoa izango zuen hauen normalkuntza eragozte eta bultzatzaileak espetxeratzea. Bereizketa hori Mikel Salaberriak, ikastolaren sortzaile eta batzordekide izanak indar bereziz azpimarratzen du.

Honela bada, proiektu sendoago baten asmotan 1968an Lezo-Handiako ikastola zabaldu zen. Modulo prefabrikatuz egina Acha zerrategiarena zen herriko berdegune batean zabaldu zuten. Udalaren baimen idatzirik ez baldin bazuten ere, orduan alkate zen Rafael Izulainek, ikastolako kideek asmoaren berri eman ondoren, baimenik emango ez bazien ere ukatu ere ez ziela ukatuko adierazi zien. Bitxia baldin badirudi ere, hori zen garai hartan nolabait baimena emateko modua. Beraz, lur-jabeak kontra ezer egingo ez zuela jakinik eta udalaren ahozko adierazpen horrekin eraiki eta zabaldu zuten Ikastola.

Eraikuntza lanetan eta matrikulazioan, besteak beste, Joxeba Urkizuk parte hartu zuen eta berak esandakoaren arabera, ez zuten

aparteko arazorik izan ez dirua biltzen, ez haurren matrikulak lortzen. Ehun familiatik gora izan ziren lehenengo urrats hartan ikastolarekin bat egin zutenak eta ikastolako ordezkariak ate joka joan aurretik askok erabakia zuten seme-alabak bertan matrikulatzea.

Ikastola, bada, herritarrek sortu eta herritarrek atera zuten aurrera. Talde mailan funtzionatzen zuten eta egin beharreko lanak guraso eta laguntzaileen artean banatzen zituzten.

Hainbat lanen artean egin beharreko bat eskola zabaltzeko baimenak eskuratzea izan zen. Euskararen kontrako jazarpena gogorra zen eta baimenak eskuratzea, berriz, zaila. Beraz, administrazioaren aurrean elizaren babesean eskatu zituzten baimenak eta Don Mateo Alberdi herriko apaizak bere sinadura eman behar izan zuen. Elizaren babesik gabe nekez lortuko zen Lezon eta Euskal Herrian garai hartan ikastolarik zabaltzea.

Lezoko ikastola sortu berriak hasiera-hasieratik eskualdean sortzen ari edo sortu berriak ziren gainerako ikastolekin harremana zuen eta elkarren artean esperientziak trukatzeko zituzten; Gero Gipuzkoako ikastolen federazioaren sorrera etorri zen (1969).

Lehen arazoetako bat irakaslearen titulazioa izan zen. Herrian titulazio hori zuenik ez eta Lekaroztik ekarri behar izan zuten andereño titulatu (M. Karmen Goñi). Inazio Esnal bera ere irakasle izan zen ikastolaren lehen urte haietan. Dena den, bat edo birekin ez zen arazoa konpontzen, irakasle gehiago behar zen.

Irakasle formatu egokirik nekez topa zitekeenez Lezon nahiz beste inon, herriko gazteen artean bilatu zituzten. Agustina Pontestak irakasleen kaptazio eta formazio prozesua zuzen-zuzenean bizi izan zuen.

Ikastolarako irakasleen kaptazioa eta formazio ikastaroak guziz ezkutuan egiten ziren; beldurra zen nagusi, mesfidantza giroa nonahi. Edozein bilera edo formazio ikastaro, normalean, elizaren lokaletan egiten zen, debekaturik baitzegoen baimenik gabeko bilek egitea, eta elizaren babesean egiteak segurtasun handiagoa ematen baitzuen. Formazio ikastaro hauek Ikastolen federazioak antolatzen zituen eta lezoarrak ere hortxe murgildurik ibili ziren herrialde-

ko gainerako ikastolekin batera. Irakasleak, ordea, urtero berritu behar izaten ziren, irakasle euskaldun izatearena ez baitzen etorkizun argiko lanbidea garai hartan. Joxeba Urkizuk gogoratzen duenez, Lezon irakasleak aurkitzea ez zen arazo izaten, herrian bai baitzen horretarako prest eta gogoz zegoen gazterik.

Bien bitartean, Manuela Larrea ikastolako lehen irakaslearekin arazo ugari izan zuten, besteak beste, proiektuaren ezaugarriak zegokienean. Ikastolako zuzendaritza batzordeak argi zuen proiektuak osoa eta kalitatezkoa izan behar zuela, pedagogikoki ongi oinarritua, eta Manuela Larrea ez zegoela horretarako prestatua. Manuelak, aldiz, ez zuen horrela ikusten eta aurreko aroan bezala berak izan nahi zuen proiektua gidatuko zuena.

Urteak aurrera zihoazen eta geroz eta gehiago ziren hezi beharreko haurrak; urtez urte ikasle gehiago gehitzen zitzaizkion ikastolari. Laster ikusi zuten proiektua sendotzeko ikastetxe handiago eta egokiago baten beharra; behar horri erantzunez sortu zen handik zenbait urtetara Pasaia-Lezo Lizeoa. Hori gauzatu bitartean, ordea, ikastolako haurrek Lezo-Handiako ikastolan, San Juan Bataiatzailearen dotrinako geletan, Bikarioenean edo jabego partikularreko lokaletan eman zituzten eskolak.

Esan beharrekoa da ikastolaren lehen urteetako aktak eta gainerako



Prensan agerturiko argazkietako bat. Ezkerraldean Iñake Treku, eskumaldean Mikel Cordero antzerkia egiten

dokumentu ia denak “galdurik” daudela gaur egun. Zuzendaritzako kide batek etxe aldatetarekin batera “galdu” omen zituen. Beraz, ezin eskuratu orduan egindakoaren edo izandako arazoen berri zehatzik.

Lezoko ikastolak gainerako guzietan bezala garaiko tentsio politiko eta kulturalak bizi izan zituen bere gain, besteak beste, zuzendari-tzaren joera politikoa edo H grafiaren inguruko erabakiak zirela eta. Liskarrak liskar, ikastolaren sorrerak bere inguruan bildutako jende multzo zabal horren beharra izan zuen aurrera egiteko; oso ikuspegi politiko desberdineko herritarrak bildu arren euskarazko hezkuntz proiektua egitearen ilusioak batu zituen eta horrek beste hainbat herritar ere erakarri zuen.

Ikastola eta honen inguruko mugimendua

Ikastolaren sorrera euskarazko hezkuntz proiektu bat indarrean jartzea baino zerbait gehiago izan zen. Gizarte mailan eragin sakona izan zuen eta ikasleekin batera guraso eta irakasleak bildu zituen, denen artean euskararen aldeko mugimendu sozial zabala osatzeko.

Haurrek euskarazko hezkuntza jasotzen zuten leku berean, guraso eta herritarrek euskara eskolak jasotzen zituzten; Lezo ere izan zen orduan Euskal Herri osora zabaldutako gau-eskolen gune. Horrekin batera ikastolako kideak herriko bizitza sozial eta kultural-lean, nonahi, nabaritzen ziren eta bide propioa urratu zuten.

Joxe Manuel Odriozolak (1998), garai hartan gau-eskoletako koordinatzaile zenak, ederki dioen bezala, ikastola eta honen inguruko mugimendu sozialean euskaldungoaren masa kritikoa gorpuzten hasi zen. Ikastolak euskal identitatea suspertzen aintzindari bilakatu ziren garai hartan eta haren itzalean hamaika kultur dinamika piztu zen, baita Lezon ere.

Honetan eragin handia izan zuten militante politikoek, batez ere ETA eta ezker abertzalearen inguruan zebiltzanek, orduko euskaldun askori garai harekin bat egiten zuen kontzientzia linguistikoa, herri nortasuna eta proiektu bat eskaini baitzizkien.

Ikastolak, halaber, irakasle ugari prestatu zuen, irakaskuntza lana egiteaz gain euskararen aldeko militante izateko. Ez dago ulertzerik

garai hartako irakasleen lana eta jarrera militantziaren ikuspegia aintzat hartu gabe. Eskola ordutako lanetik harago zihoan ardura zen irakasle izatearena, garai hartako ikastola eta euskararen egoerak beharrian handiak eta baliabide murrizak baitzituen.

Ikastolaren inguruan ibilitako herritarrak ondoren Euskal Herrian sortutako mugimendu politiko desberdinetan ikusiko ditugu. Gau-eskolaren inguruko taldetik Euskadiko Ezkerrako taldea sortu zen, Lezoko Independienteak hautagai taldean (1979) ere baziren ikastolako gurasoak, eta baita Herri Batasuna, EMK nashiz ETAn bertan ere. Ikastolaren sorrerak Lezon edo Euskal Herrian maila guzietan izan zuen eragina aztertzea mereziko luke.

#### Guraso elkartearekin arazoak

Ikastolaren proiektua sortu eta arrakasta handiz hedatu eta indartu baldin bazen ere, Guraso Elkartearekin eta batipat Don Doroteo Esnaolarekin tirabira ugari izan zuen. Lekuko bakoitzak orduko liskar eta tirabirez ikuspegi berezia du eta gaur egun oraindik bizi-bizirik daude orduko zauriak.

Ikastola sortzeko lehen urratsak eman zirenetik saiatu zen Guraso Elkarteko zenbait kide, Doroteo Esnaola batez ere, eragozpenak jartzen. Ikastolaren eraikuntza oztopatu nahian erabilitako aitzakietako bat eraikuntza udalaren baimenik gabe egin izana zen (idatziz jarritako baimenik gabe, alegia). Hasiera txarra izan zen bada, eta hasierako harreman txar horrek ondorengo urteak baldintzatu zituen. Herrian proiektu bat eta bestearen aldekoen artean enfrontamendua nabaria zen. Urteek aurrera egin arren Ikastola eta Guraso Elkartearen arteko harremanak ez ziren hobetu.

Kontuan izan behar dugu ikastola sortu zen garaian Lezon ez zegoela euskarazko irakaskuntza bultzatzeko beste proiekturik. Guraso Elkarteko zenbait kide ere, ordea, euskarazko irakaskuntzaren beharraz jabetzen ziren. Bestalde, egoera oso berezia zen, ez baitzegoen ikastolaren etorkizunari buruzko ziurtasunik, ezin jakin ez bizirik irautea lortuko ote zuten, ez horko ikasleek agiri ofiziala jasoko ote zuten... Herrian izan zen mamu horiekin baliatuz Ikastolan izena

emandako familien erabakia bertan behera uzten saiatu zenik ere.

Enfrentamendu horren muinean egon zitekeenari buruzko hipotesi ugari dago eta datu objektiborik gabe gu ez gara horietan murgilduko; argi dakusagu, ordea, euskararen historia soziala egiterakoan ikastolaren sorrera gertaera historikoa eta funtsezko urratsa izan zela eta Guraso Elkarteak Don Doroteo buru zuela, ez zuela horretan lagundu, alderantziz baizik.

Lezotik kanpo eskolatuak

Orain arte oinarrizko heziketak Lezon zuen egoeraz hitz egin dugu; lezoar guziek ez zuten, ordea, Lezon ikasten. Erreterria edo Donostiako ikastetxe pribatuetara joaten zirenak ere baziren.

Horrezaz gain, ikasketa ertainak edo lanbide heziketakoak nahiz unibertsitatekoak erdaraz egin behar izaten ziren. Alegia, ikasketetan aurrera egin nahi zuten guziek erdaraz egin behar izaten zuten, ez baitzegoen beste aukerarik. Datu hau gehiago jorratuko ez badugu ere, izugarrizko garrantzia du euskararen historia sozialean, besteak beste, euskaldun eskolatuaren artean erdaraz egiteko ohitura sortu baitzuen. Eta horrek, noski, erdararen erakar-indarra bizitu zuen.

Aro honetan hasi ziren lezoar gutxi batzuk, geroz eta gehiago, ordea, goi ikasketak egiten. Ordura arte inor gutxik jaso zuen halako formaziorik Lezon; ia denek eskolatik lantegirako bidea zuzen-zuzenean egiten zuten.

Bestelako alfabetatze bideak

Frankismoa agintera iritsi eta ikastola sortu bitartean hogeitau urte joan ziren. Urte ilunak izan arren ez al zen euskarazko heziketan urratsik izan? Hezkuntza formalaren ikuspegia gaintuz, urte ilun horietan ere badakusagu zenbait urrats oso kontuan izan beharrekoak. (Hezkuntza formala legeek arauturiko eta titulazio ofizialak eskuratzeko eskainitako formazioa da, ez-formala, berriz, titulaziorik eman ez arren hezitzeko helburua duen formazioa)

Lehena, zalantzarik gabe, dotrina zen. Euskarazko dotrinak euskaraz irakurtzera behartzen zituen ikasleak eta hori, besterik ezean, oinarrizko alfabetakuntza lortzeko bidea izan zitekeen. Horri buruz



lehenago ere hitz egin dugu ordea.

Aro ilun honetako argi izpi bakarretakoa Umeen-deia izeneko aldizkarian topatuko dugu. Aita Felipe Murietak 1959an sortutako aldizkari xumea zen Umeen-deia. Aldizkari horrek “Gu batxiller euskaldunok” izeneko atala bazuen eta bertan euskaldun gazteen idazlanak argitaratzen zituen. Atal honetan hainbat lezoarren idazlanak argitaratu ziren; Garbizu eta Azkue’tar Pedro Mari (sic.), M. Pilar Garmendia eta M. Teresa Korta, Manuel Mari Olaizola, Jesus M. Salaberria, Joaquin Go-



Tomas Garbizu. Garbizu anaiak euskara eta euskal kulturaren aldeko langile nekaezinak izan ziren

ya, M. Begoña Salabe-rria, Jose Luis Treku, Xabier Zuloaga, Joxe Mari Treku, Rosa Mari Treku, Ramon Zapirain, Iñaki Zuloaga eta Xabin Zuloagaren idazlanak. Idazlan laburrak dira, 8 eta 11 urte zituztenean idatziak.

Nork bultzatu zitu-en, ordea, idaztera, nork erakutsi zien? Zailtzarik gabe dotrinak izango zuen eraginik, eta besteak beste etxeetan egindako trasmisio eta heziketa lanak ere bai. Joxe Migel Trekuk du berak lagundu zi-tuela idazten eta idazlanak txukuntzen. Heziketa formaletik oso urrun egon arren, honelako ahaleginek berebiziko

garrantzia izango dute Lezoren geroko bilakaeran.

Ez genuke atal hau amaitu behar elizaren beste aipamen bat egin gabe. Izan ere, Inazio Esnalek euskarazko kantagintza bultzatzeko hartutako erabakiak koroa sortzera eraman zuen eta hortxe, euskarazko kantuak irakurriz, batek baino gehiagok euskaraz irakurtzen ohitu eta euskara maila hobetzeko aukera izan zuen. Horixe azpimarratzen du Pello Garbizuk, Inazio Esnalekin koroan tiple lanetan ibili baitzen. Bere ustez, garai hartan bertan diferentzia nabarmena zegoen heziketa hori jasotzen zutenen eta jasotzen ez zutenen artean.

#### Helduen Euskalduntze Alfabetatzea

Lezoren historian helduen euskalduntzea batez ere era naturalean egiten zen, aro honetan, berriz, etorkinen oldeak ezinezko bihurtu zuen prozesu hori berez gertatzea. Geroz eta gehiago ziren, ordea, euskara ikasi nahian zebiltzanak edo euskaraz alfabetatu nahi zutenak. Ikastolaren ekimenez sortu zen Gau-Eskola. Lehenik gurasoak euskalduntzen hasi ziren familia euskalduntzeko asmoz, berehala ikusi zuten, ordea, gazteagoak zirenak ere alfabetatzen hasi behar zutela. Honela bada, baliapide murriztekin eta oinarritzko materiale didaktikoekin jarri zen abian Lezoko gau eskola. Kopuru zehatzik ematera inor ausartzen ez baldin bada ere, jende asko biltzen zuela diote guziek, hirurogei lagun inguru bai. Ikastolan, elizan edo Allerruren lokaletan ematen zituzten eskolak. Ikas-mailak, berriz, bost izaten ziren: batetik alfabetatzea eta bestetik euskalduntzeko lau maila edo urrats.

Gau-eskolen fenomeno honek indar handia hartu zuen garai hartan Euskal Herri osoan. Herritarrak ziren irakasle, bertan alfabetatutakoak batez ere, ikas prozesuan aurreratu ondoren irakasle izatera pasatzen zirenak. Aro honen azken urteetan Pello Garbizu izan zen gau-eskolako arduradun.

Helduentzako euskara eskolez gain, ikastolaren inguruan kultur dinamika zabala sortu zen. Lehenago aipatu dugu, ikastolaren babesean jaialdi, kultur aste eta antzekoak antolatzen zirela; lan horietan ikastola eta gau-eskolako ikasle-irakasle eta laguntzaileak ibili ziren.

## Gizartea

Frankismoaren lehen urte haietan Lezoko gizarte bizitza ez zen askorik aldatu. Herriak betiko ohiturei eutsi zien, euskaraz aritzeari, besteak beste. Dena den, lehen aldaketaren aztarnak nabaritzen hasi ziren. Herriko zenbait familia eta gizarte ingurutan, batez ere gerra ondoren hazitakoen artean, geroz eta erdara gehiago entzuten zen. Esate baterako, Donibane kalea eta Kale Nagusiaren artean alderatuz gero.

Herritarrak jabetzen ziren diferentziarik bazela Lezoko kale batetik bestera. Pedro Barrios sendagileak, esaterako, “Calle Sabiniano” deitzen zion kale Nagusiari, eta lekukoek onartzen dute euskara gehiago entzuten zela bertan Donibane kalean baino, behar bada, kale honetan etorkin gehiago bizi zelako. Hala iruditzen zaio Boñi Urkizuri. Etorkin hauek izendatzeko “berdejales” izengoitia erabiltzen zuten zenbait lezoarrek, hauen elikadura ohiturei erreferentzia eginez.

Dena den, frankismo garaian ere etorkin hauek herrian bertan naturalki euskalduntzen jarraitu zuten. Egoera 60ko hamarkadan aldatu zen. Etorkinak askoz gehiago ziren, eta lehen erdaldunek kalean euskara ikasten zuten, handik aurrera, aldiz, euskaldunek kalean bertan ikasten zuten erdara eskolara joan beharrik izan gabe.

Herri giroan eta harreman sarean berebiziko eragina izan zuen aldaketa gertatu zen, Lezoren historian lehen aldiz, euskara ez zen beste hizkuntza bat herritarren arteko harremanetarako hizkuntza bihurtzen hasi baitzen. Honek ez du esan nahi euskaldunek euskaraz egiteari utzi ziotenik, euskara harreman markatueterako (“bereziatarako”) bakarrik erabiltzen zela baizik, eta erdara, berriz, gainerako guzietarako.

Herriko egoera soziolinguistikoan gertatutako aldaketa ezaugarri gaiztoak izatera iritsi zen. Euskara erabiltzea edo euskaldun peto agertzea iseka egiteko arrazoia izan zen. Besteak beste, baserriko seme-alabei “caseros” deitzen zieten kalekoek, euskaldun nahiz erdaldunek. Adarra jotzeko eta diferentziak markatzeko bideetako bat erdararen ezagutza izan zen. Kaletarrek bazekiten eta baserrita-

rrek, berriz, ez. Euskaldun askok bat egin zuen joera honekin eta gaur egun oraindik orain, beste maila batean bada ere, bizirik dagoen joera da.

Espainia “modernotzen” ari zen garai berean euskarak prestigio galtze izugarria bizi izan zuen, eta lan horretan ari zirenak jada ez ziren eskolako irakasleak edo estatuaren funtzionarioak, herritar xumeak baizik.

Honek ez du esan nahi herritarrek euskaraz hitz egiteari utzi ziotenik, euskaldunak lasai aritzen ziren euskaraz etxean edo kalean. Euskaldunek, ordea, euskara erdararen menpekotasuna onartu zuten. Euskaraz ez zekitenen aurrean erdaraz mintzatu beharrak gizarte bizitzako eremu gehienetan erdara sartu zuen, baita familian bertan ere kasu askotan.

Lehen urte haietan herritarrak bezalaxe komertzioa bera ere guziz euskalduna zen eta salerosketa euskara hutsean egiten zen. Lezon Zubitxoko Palaciosena izan zen dendari erdalduna izan zuen lehen denda. Merkataritzako hizkuntz egoera ere, denboraren poderioz, arras aldatu zen.

Mertxe Larreak eta Pillare Mitxelenak euren gaztaroan lagun artean edo anai-arrebekin erdaraz aritzen zirela gogoratzen dute, herritar zaharrago eta gazteagoekin euskaraz egiten baldin bazuten ere. Joera honi jarraitzen lehenak neska gazteak izan ziren. Pillare Mitxelenak ustez joera hau beldurrak eragindakoa zen batez ere. Beldurrak eragina izan ala ez, kontua da, Lezoko historian lehen aldiz euskaldunen artean erdara erabiltzen hasi zela. Alegia, ordura arte euskaldunen arteko harremana euskarazkoa izan baldin bazen ere, une horretatik aurrera erdarak geroz eta leku gehiago hartu zuen. Hizkuntz ohiturak erdaraz eraikitzen hasi ziren euskaldunen artean.

Jauzi hau eman zuena frankismo garaian jaiotako belaunaldia izan zen eta hauen artean batez ere emakumeak (fenomeno hau eza-guna da euskal soziolinguistikari: ikus BAT aldizkariaren 15. alea, eta Lezon gertatutakoaz iritzi bera azaldu digu Joxe Migel Trekuk).


Horrekin batera garai berean herrian giroa aldatu egin zen, bizitza sozial handiagoa somatzen zen. Kultura eta gizarte mailan sustatzaile

berriak sortu ziren, luistarrak, Allerru, JOC, antzerki taldea, jaialdiak... Herri giro biziagoa, lana eta oparotasuna nabarmenak ziren.

### **Dinamika politikoa**

Lekuko guziek bat egiten dute esatean gerra aurreko urteetan SOV-ELAk indar handia zuela; eta EAJ-PNVk baino indar gehiago zuela dioenik ere bada. Indar kontuak alde batera utzita, ordea, frankismoaren garai hartan ELAko kideek propaganda lanetan jarraitu zuten, batez ere *Landeia* aldizkariaren banaketan. Aberri Egunetan ikurrinak zabaltzea herriko kaleetan, ikurrinak jartzea kanpandorreetan, panfletoak botatzea... Joxe Migel Treku, esaterako, ELA eta EAJ-PNV-ren propaganda banatzen harrapatu zuten. Atxilotu eta, geroago ETAk hil zuen Manzanas polizia torturatzaile ezagunak egin zion galdeketa, ondoren espetxean sartu zuten.

Beraz, abertzaleen aldarrikapenek bizirik jarraitu zuten herrian eta gazteekin batera etorritako joera eta keinu politikoei erantzuteko



Jaunartzea egin duten haurrak Apaiz jantzita Ramon Azkonobieta

prest zegoen herria. Antzerkia, dantza, ikastolak, Allerru... nahiz politika mailako Euskal Herriko joerak berehala bereganatu zituen Lezok, lehendik ere abertzalea baitzen eta aski baitzuen bultzada ttiki bat. Gertaera honek, ordea, aspalditik nabarmena zen gazte eta helduen arteko zatiketa politikoa azaleratu zuen.

1963an frankismoa “25 años de Paz” ospatzen ari zen eta orduan egin zituen ETAk lehen ekintza zuzenak. Urte hartan Gernikan egin zen Aberri Eguna eta Lezotik autobus bat atera zen, baita Bergaran egin zen hartara ere (1964). Geroxeago ETAk berak deitu zuen Aberri Eguna Irun-Hendaian (1966). Garai horretan hasi zen zehazten ezker abertzalea eta eskuin abertzalearen arteko bereizketa, abertzale guzien aurrean. EAJ-PNVk ezer egin gabe diktaduraren amaiera itxarotea agintzen zuen bitartean, gazteek eta, funtsean, ETAk Euskal Herriaren defentsa ekintza bidez egitea aldarrikatu zuten. ETaren sorrerak kontzientzia mailan susperraldi garrantzitsua eragin zuen. Joxeba Urkizuk, dena den, garai hartan Lezon bi joera hauetako jarraitzaileen artean harreman ona zegoela azpimarratzen du.

Agustina Pontestak dioenez ETA erakundearen sorrerak eragin handia izan zuen Lezon. Muga ondoko herri guzietan bezala Lezoko etxeetan ere gorde zituzten muga pasatzeko zain zeuden gazte iheslariak. Bolada honen hasierak Lezoko Kultur berpizkundearekin bat egin zuen. Susperraldiaren garairik emankorrena 1968-75 urte bitartean izan zen Ikastola eta Allerru indar betean ari baitziren lanean eta hauen inguruan kultur eta politika mailako urrats berriak ematen ari baitziren.

ETaren inguruan sortutako dinamika politikoa oso garrantzitsua gertatu zen Lezoren bilakera kultural, sozial eta politikoan. Allerru eta Ikastolaren sorreran, ETaren “fronte kulturalaren” ildo jarraituz, Joxeba Urkizuk bi mugimendu hauetan buru belarri aritzeko ardura pertsonala hartu zuen. Horrekin batera propaganda eta kontzientziaketa politikorako tresnak indarrean jarri ziren. Ardura hau hartu zutenek garesti ordaindu zuten, ordea; Joxeba Urkizu, besteak beste, hirutan sartu zuten espetxean bere militantziagatik. Errepresiorik gogorrena, ordea, 68tik aurrera etorri zen, ETak militarki estatuaren

kontra egitea erabaki eta Manzanas polizia hil zuenetik aurrera, eta herrian ere izan ziren ihesi joandakoak, atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak. Atxilotuei jartzen zitzaizkien zigor ekonomikoak ordaintzeko, berriz, herriarren artean diru bilketa egin zen.

Ezin da pentsatu, ordea, sasoi hartako mugimendu sozio-kultural eta politikoa ezker abertzaleari zor zaionik, ikuspegi eta joera oso desberdineko jendeak parte hartu baitzuen. Ezker abertzaleak, ordea, apustuak finkatu eta bultzatzaile lana egin zuen, aurpegia emanez. Hortik etorri ziren atxiloketak eta espetxeratzeak.

Aro honetako garairik bizienetako bat Burgoseko prozesua izan zen. Honek ere eragin sakona izan zuen. Gertaera politikoen abiadura handitu egin zen, Lezon bertan argi gelditu zen zein aldetan zegoen bakoi-tza, non ezkerre eta non eskuina, ETA erakundearen inguruan, berriz, jende gehiago biltzen hasi zen. Halaxe gogoratzen du Joxeba Urkizuk.

Txiki eta Otaegi, Frap-eko hiru kiderekin batera fusilatzeke emandako aginduak ere benetako zurrunbiloa eragin zuen euskal gizartean. Lezon bertan herritar multzo batek gaua Gure Txoko tabernan eman zuen telebistak zer esango zain.

Dena den, frankismo garaian nekez lor zitekeen ordezkartza politikorik erakundeetan. Udalean parte hartzeko zegoen aukera bakarra, orduko antolamendu politikoaren araber, “Tercio Sindical” delakoa



Dantzariak Lezoko plazan Frankismo garaian.  
Ohar zintzilik dauden “piperpotoekin”



Dantzariak Lezoko plazan Frankismo garaian.  
Ohar zintzilik dauden “piperpotoekin”

zen eta bertan ordezkariak zuten Gurasoen Elkarte edo Allerruren bitartez sartzen zituzten abertzaleek euren kideak udalean. Izan ere, aukera gutxi eta premia handiak zituen maila guzietan orduko Lezok.

Francoren garaia amaitzerako Lezo, inguruko herriak bezalaxe, politikoki garaiko joeren barruan zegoen eta bertan baziren joera gehien jarraitzaileak; eztabaidak ere biziak ziren.

## Demografia

Garai historikoaren sarrera egitean eman ditugu Lezoren datu demografikoak; egin dezagun orain hauen irakurketa kualitatiboa. Gerra ondoko urteetan egoera ez zen askorik aldatu; etorkinak geroz eta gehiago baldin baziren ere, herriaren bizimoduak euskalduna izaten jarraitzen zuen eta etorkinak berez euskalduntzen ziren. Demografia hazkunderik handiena 1960-1975. urte bitartean gertatu zen. Izan ere, garai horretan industrialdu zen gehien eskualdea, Lezo batez ere, eta esku-langile premia zegoenez enpresek Extremadura edo Andaluziara bidaltzen zituzten beren ordezkariak, langileak kontratatzerara.

Inaxio Artolak ongi gogoratzen ditu garai haiek, baita etorkinen artean bi joera zeudela ere: jarrera apalean etorri zirenak eta gerraren irabazle sentimenduarekin etorritakoak. Boterea alde izatearen sentimendua zutenak, alegia. Inazio Esnalek bat egiten du ikuspegi honekin, bi jarrera omen zeuden eta batzuek euskara entzun ere ezin omen zuten egin.

Sarrera historikoan ikusi dugun bezala aro honetan, urtez urte, geroz eta gehiago ziren Euskal Herritik kanpo sortu eta Lezora bizitzera etorriak. 1940an % 4 ziren 1970ean, berriz, % 21. Euskararen ezagutzaz aro honetan datu askorik ez baldin badugu ere, pentsa dezakegu 1940an % 96 euskalduna zela eta 1970ean berriz, erdia inguru. Azken datu hau ez da oso fidagarria: 1970 urteaz bi datu topatu ditugu, bata *Enciclopedia General Ilustrada del País Vascok* dakarrena Lezori buruz ari delarik; honela dio: “En la actualidad (1970) el número de vascófonos asciende a 2.500 personas, representando el 50 por 100 de su población agrupada y a la totalidad de



la diseminada” 548. or. Karlos Etxezurietak, berriz, Lezo herriraren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoan hauxe dio: “1970. urtean populazioaren 2/3 euskaraz mintzatzen zen, hau da, populazio osoaren %61,6.” 139. or. Ez dakigu zein den datu horien jatorria, bi kasuetan, ziurrenik, zentsuaren gaineko datu gurutzaketaz eskuratu ziren.

Etorkinen artean, ordea, asko Euskal Herrian bertan sortuak ziren. Lezoko populazioak igoera handia bizi izan zuen. Igoera honek, noski, ez zuen askorik lagundu hiztun komunitatearen trinkotasunean. Lezok 1940 eta 1970. urtea bitartean ia-ia populazioa bikoiztu egin zuen. Igoerarik bortitzena, ordea, 1960 eta 1970 urte bitartean gertatu zen (hurrenez hurren 84,9 eta 76,1 biztanle gehiago urteko hamarkada bakoitzean). XX. mendean (1985eko datuetan oinarrituz) Gipuzkoako populazioa %3,66 hazi zen, Lezokoa, berriz, % 4,77.

Prozesu honekin batera ezkon-bikote mistoak sortzen hasi ziren. Aro honen bigarren erditik aurrera, geroz eta ohikoagoa izango da euskaldunen artean ezkontide erdaldunarekin osatzea familia. Euskararen menpekotasun araua indar betean zegoen garaian gertatzeak, bikotean bertan nahiz seme-alabekin edo ezkontide euskaldunaren senideekin erdaraz hitz egiteko ohitura indartu zuen. Erdarak familiaren muine-raino sartzea lortu zuen.

## Udala

### Udal arduradunak

Udal mailan, frankismoak udal ordezkariak hautatzeko indarrean jarri zuen sistemak alkate eta udal ordezkariak herritarrek hautatzea eragotzi zuen. Honela bada, alkateak zuzenean hautatzen zituen botereak. Aldaketa honen ondorioz Lezon alkate erdaldunak jarri zituzten, egoera hori guziz berria eta arrotza zitzaion euskara hutsean bizitzen ohitutako herri hari. Gehienak euskaldunak izan baziren ere (Tiburtxio Askasibar, Eusebio Erzibengoa “Olio Santua”, Patxiku Salaberria “Patxiku Talo”, Regino Salaberria, Rafael Izulain...), ez denak (Luis Aranjuelo eta Jose Diago).

Lekukoek gogoratzen dute alkate euskaldunekin harremana euskarazkoa izaten zela. Pillare Mitxelenaren arabera, Francoren garai-

ko lehen alkatea izan zen Tiburtxo Askasibarrekin euskaraz aritzen ziren. Horrezaz gain udal idazkariak ere estatuak izendatzen zituen. Alkatearekin batera herrian gehien agintzen zuena idazkaria zen. beraz, berebiziko garrantzia zuen udal ihardueran. Inazio Esnalek gogoan du herrian izandako idazkari asturiar bat, erdalduna eta erdalzale amorratua zena. Honelako egoera batek asko mugatu zuen herritar eta administrazioaren arteko harremana; erdara menderatzen ez zuten herritarrentzat batez ere, baserritarren artean arazo hori oso nabarmena zen. Beldurra zen nagusi.

#### Udalaren zerbitzuak

Udal langileen artean udaltzaina eta serenoa izango ziren ezagunenetakoak. Frankismoaren lehen bi hamarkadetan gutxienez, Lezok udaltzain bakarra izan zuen eta hura erdalduna (“Aguazil ttikiya” ezizenez, Lizarrakoa sortzez); serenoa, aldiz (Joxe Izeta) euskalduna. Ondoren etorritako udaltzain eta kale garbitzaileak gehien bat erdaldunak izan ziren. Izan ere, “euskaldunek ez zituzten lan horiek egin nahi” Joxe Migel Trekuren arabera.

Boterea, guardiazibilak, sendagile, albaitari eta armadak.

Francoren aurreko garaian herrian ziren erdaldun asko estatuaren langileak ziren; karabinero, guardia zibil, trenbideko langile, irakasle...

Aro honetan estatuak ordezkari erdaldunak bidaltzen jarraituko du eta aipatu berri dugun udal idazkariak gain, eskola “Nacional”etako irakasleak, guardia zibilak, poliziak... ere erdaldunak ziren. Guardiazibilak Donibane kaleko 24. ean zuen koartela.

#### Osasun zerbitzua

Aro honen hasieran Pedro Barrios zen oraindik herriko sendagilea. Berari buruz lehenago esandakoa ez dugu errepikatuko. Berak postua utzi ondoren Roman Unanue etorri zen, euskalduna eta aberztzalea Joxe Migel Trekuren arabera. Geroago, berriz, Benancio Munita tolosarra, erdalduna, euskararekiko jarrera ona izan arren, Mikel Salaberriaren arabera. Hauen ondorengoak, aldiz, Fernando Gala eta Don Eusebio izan ziren, erdaldunak.

Gogora dezagun berriro ere, orduko lantegi handietan bazirela

sendagileak, besteak beste papeleran Albisu errenteriarra, euskalduna bera, eta, beraz, herritar guziak ez zirela herriko medikuengana joaten. Bestalde, beste batzuk nahiago zuten ez joan erdararik ezagutzen ez zekitelako. Horixe izan zen, esaterako Joxe Migel Trekuren aitaren kasua.

### **Albaiteroa**

Lezok gerraurretik albaitari bakarra zuen, Migel Salaberria, euskalduna eta izen handikoa. Honen ondoren, ordea, Amancio Paniego etorri zen Santandertik. Mikel Salaberriak dioskunez, dirua besterik ez zitzaion axola azken honi. Baserritarrek ordainduz nahi zuten albaiteroa ekar zezaketen arren, herriko titularra zenari zegokion administrazioaren kontrola eta agiri ofizialak bideratzea; indar handia zuen, bada. Karlos Etxezurietak gogoratzen du beldurraren tratua zegoela, inor gutxi ausartzen zela albaitariari aurre egiten eta gutxiago erdara menperatzen ez zuena.

### **Soldadutza**

Ikusi dugu, gerraurrean udalak soldadutzara joan behar zuten gazteentzat erdaraz alfabetatzeko ikastaroak antolatzen zituela, beraz, Lezon bazegoen erdararen ezagutzarekin arazo larri bat. Francoren garaian euskararen kontrako jarrera instituzionalizatua izateak are gaitzagoa egin zuen armadan egin beharreko egonaldia.

Armada izan zen frankismoaren lehen urteetan Lezoko gazteek erdara ikasteko izan zuten biderik ziurrena. Badira Lezon soldadutzara joan eta erdaldun peto eginda etorriak, han sufrituagatik seme-alabei euskaraz hitz bat egin gabeak... kasuistika zabala izanik soldadutzaren eragin erdalduntzailea agerikoa da, horixe baita, bere helburuetako bat. Horretan bat egiten dute lekuko gehienek.

### **Familia bidezko trasmisioa**

Gerra aurreko belaunaldiek familia bidez jaso zuten kontzientzia euskaltzalea, frankismoan, berriz, joera hau indartu egin zen. Publikoki euskararen aldeko aldarrikapenik ezin eginak, familia eta

lagunartea bihurtu zituen euskaltzaletzeko gune nagusia herrian. Garai honetan hazitako guziek aitortzen dute senideen eraginez euskaltzaletu eta abertzaletu zirela. Ezkutuan gordetako sentimendua izan arren, eta askok, beldurraren beldurrez, inoiz agertu ez bazuten ere, bistan da ezkutuko trasmisioak funtzionatu zuela; bestela ezinezkoa da ulertzea 60ko hamarkadan hasita belaunaldi gazteek eman zituzten urratsak kultura eta politika mailan.

Agustina Pontestak, esaterako, gogoan du nola kontatzen zioten umetan “ama Euskadi mendian lotua dago eta askatzera joan behar dugu”, edo zeinen zorrozki betearazten zuten etxean “euskaldunok euskaraz” leloa. Azken hau galdekatu ditugun lekuko guziek aipatu digute; etxean trasmisio ideologikorik egin ala ez, euskaraz hitz egin zezaten agintzen zietela. Izan ere, belaunaldi gazteenak erdarara jotzen hasiak ziren.

Euskarak bizi izandako zapalketaren berri ere eman zieten, horixe bera diote Agustina Pontesta, Begoña Esnaola edo Boñi Urkizuk. Azken honek gogoan du baserrian bizi zuten senide batek nola esaten zuen “nik ez diet nire seme-alabei ezer utziko, euskara bai ordea”. Honelako adibide ugari entzun daiteke garai hura bizi izan zuten lezoarren artean; hizkuntza eta aberriari buruzko trasmisioa familia askotan egin zen eta horrek ondorio zehatzak izan zituen herriaren izaera eta bilakaeran.

Trasmisio honen arduradunak, lehenago esan dugun bezala emakumeak izan ziren hein handi batean, gerraurrean EABko kide izandako emakumeak, eta hauen seme-alabak, berriz, euskara eta Euskal Herriaren aldeko mugimendu sozio-politikoaren bultzatzaile. Lege hau ia-ia matematikoa da. Aro honetan Lezoko bizitza sozial edo kulturallean euskara eta Euskal Herriaren alde aritutako guziek izan zuten gerraurrean senideren bat mugimendu euskaltzale edo abertzalean, eta kasu askotan kide hori EABko emakume bat izan zen, ama gehienetan.

### **Familiak eta pertsonaia ospetsuak**

Gerra aurrean herriko familiarik dirudunenak nagusiki euskaraz

aritzen ziren, gizarte mailan gertaturiko aldaketak erdararen erabile-ra bultzatzen hasi ziren. Aldaketak oso handiak edo berehalakoak izan ez baziren ere, joera berriaren aztarnak agerian zeuden. Dena den, lehen hamarkada horietan ere euskara zen nagusi herritarren artean bai eta familiarik eraginkorrenen artean ere.

Lander Zurutuzaren arabera, Lezoko jendea garai hartan oso pragmatikoa zen: euskaldunarekin euskaraz eta erdaldunarekin erdaraz. Mikel Salaberriak antzeko zerbait egiten zutela dio. Beraz, aro honetan, erdararekiko menpekotasun araua indarrean jarri zen. Hau da, ezezagunei edo erdaldunei erdaraz egitea arau bihurtu zelarik, honekin euskararen erabilpen eremua murrizten hasi zen. Ordurarte administrazioan baino gertatu ez zena Lezoko gizarte bizitzaren eremu gehienetara hedatu zen.

### **Balantze soziolinguistikoa**

Aurreko aroaren balantzea egiterakoan esan dugu euskararen bultza-eta erakar-indarra handia baldin bazen ere, nagusigo hori ahultzen ari ziren eragileak plazaratzen ari zirela. Horren adibidetarako jarri genituen hezkuntza edo osasun zerbitzua. Honen ondoan, berriz, geroz eta indartsuagoa zen mugimendu abertzalea jarri genuen.




Aro honetan jada aldaketa erabatekoa izan zen. Frankismoaren etorrerak euskararen aldeko ahalegin hori desegin zuen eta erdararen aldeko nahiz euskararen kontrako estrategia osoa jarri zuen indarrean. Euskararen kontrako jazarpenak, hezkuntza bidezko presioak... euskararen erabilera klandestino bihurtu zuten. Lezon bertan urterik ilunenetan ere herria euskaraz mintzatu arren, ereinda zegoen atzerakadaren hazia. Belaunaldi berriek erdara ezagutzea ziurtaturik eta euskara atzerapenarekin lotzen zuen sentimendua jorratuz, belaunaldi berri hori ez zen euskaldun hutsa, ez zuen euskaldun hutsa izan nahi eta askoz erosoago sentitzen ziren erdaraz mintzatuz.

Espainiak, diplomaziaren beharrak jarraituz, atzerriari atek zabaldu zizkionean, erreferentzia kulturalak aberastu egin ziren eta euskaldunek euskara zeinen atzean zegoen ikusi zuten; modernitatearen erdaraz mintzo zen.

Beraz, sortzen ari zen gizarte industrial berri hartan euskarak ez zuten lekurik, familia eta lagunartea besterik. Espainiaren garapen kulturala, berriz, euskarak jarraitu ezin zuten abiaduran zihoan. Telebistaren gizartratzeak eta gazteriari zuzenduriko kultur merkatuaren sorrerak are nabarmenago egin zuten ezintasun hori. Belaunaldi berriak jada ez ziren euskal kulturaren bitartez gizarteratzen erdal kulturaren bitartez baizik.

Aurreko aroa bezala, hau ere Euskal Herriaren kontrako eraso batekin hasi zen. Foruen galerak eta frankismoak, biek, euskal identitatearentzat funtsezkoak ziren botere politiko eta kulturala ukatu zizkieten herri honi eta hortik, aurreko aroan bezala honetan ere, "pizkundea" eragin zuen. Pizkundea maila sozial, kultural eta politikoan aldaketaren zurrunbiloan murgildurik zegoen euskal gizartea ernarazi zuen. Herri ekimenaren bul-tzadaz kultura, politika edo hizkuntzaren aldeko mugimendua abian jarri

153

Sr. Alcalde-Presidente del Ilustre Ayuntamiento de la Universidad de Lezo

Los que suscriben, Miguel Belaverfía, D.N.I. 15.041.670, casario Marti-kons, Ignacio Zuloaga, D.N.I. 15.041.560, calle S. Juan 24, Ignacio Lizarras, D.N.I. 15.041.094, José Cruz Banaola, Mayor 29, D.N.I. 15.056.327, mayores de edad, vecinos de Lezo y en representación de un grupo numeroso de familias, tienen el honor de dirigirse a S.S., para exponerle:

Que teniendo necesidad de encontrar un nuevo local para un ikastola, que venía funcionando desde el año 1960 con el conocimiento de la Inspectora de 1ª enseñanza de Guip., por falta de las condiciones necesarias, debido entre otras cosas al aumento de la plantilla escolar y habiendo convenido con el actual Inspector-Jefe de enseñanza primaria de Guip., D. José Sáenzola, en 1966, buscar una solución, solicitamos de la Empresa Local Manuel de Acha y Cia. la cesión de una baja coupada por la misma y no ocupando oportuno conocimiento, nos ofreció una parcela de la finca de su propiedad, llamada LEZO-ARNDI.

Que aceptamos la propuesta en las condiciones que quedarán fijadas en un documento escrito y firmado por ambas partes, que en lo sustancial dice textualmente: "la Sociedad Manuel de Acha y Cia., S.A., haciéndose cargo de tales dificultades y ante la urgente necesidad que tienen de trasladarse a otro lugar accede bajo las siguientes condiciones: 1ª.-Esta autorización se otorga por el plazo de tres (3) años, a prorroga...."

"Solicitud motivada para la instalación provisional de un edificio-es-cuela prefabricado y totalmente desmontable"

Que se nos concedió por parte de la Autoridad municipal permiso de pa-labras. Y así se abrió el muro que da a la plaza de Juan XXIII, lindada con el terreno en cuestión, mientras hacíamos las gestiones necesarias para llevar a cabo la obra.

Que teniendo ya firmado un préstamo por parte de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, queremos asegurar nuestra situación, por lo que

SOLICITAMOS de ese Ilustre Ayuntamiento, que Vd. promida, la concesión por escrito de la licencia municipal para la instalación en precasto de nuestra "Escuela, con materiales aligerados, de usulita y madera, todo ello desmontable, en dicho terreno de LEZO-ARNDI.

En gracia que esperamos conseguir de S.S., cuya vida Dios guarde muchos años.

Lezo, a 10 de Octubre de 1967

*Miguel Belaverfía*  
*Ignacio Zuloaga*

Lezo-Handiako ikastola zabaltzeko Lezo Udalarri egindako baimen eskaera.

zen. Egoerak berak mugatzen zuen “pizkundearen” eragina eta euskara eta euskal kulturaren aldeko urrats garrantzitsuak ematera iritsi baldin bazen ere, ez zuen euskararen aldeko bultza- eta erakar-indarrak aktibatzea lortu.

Beraz, Frankismoak iraun zuen urteetan Lezoko hizkuntz egoera irauli zen, jada herrian inor gutxi gizarteratzen zen euskararen bidez, euskara inoiz baino egoera diglosikoagoan zegoen eta euskaldungoak bereganaturik zuen euskararen menpekotasun araua. Hori berrogei urtetan eta ia belaunaldi bakar batean lortu zen.

### 3.4.- 1976-1993

*“¿Para qué es propio el vascuence? El vascuence es una respetabilísima lengua de la España no romanizada. Casi un fósil viviente del tronco de los oscuros orígenes indoeuropeos. El vascuence nos parece muy apropiado para un mitin de Herri Batasuna, para una pintada a favor de la amnistía, para “Presoak kalera”, para un editorial de Egin, para anunciar una partida de frontón en Anoeta o un concurso de bersolaris.*

*El vascuence nos suena todo lo más lírico que podamos imaginar para un zortziko a Maitetxu, aún no traducido por Plácido Domingo. Pero hay funciones del alma y del espíritu que no podemos imaginar que puedan realizarse en vascuence. Por ejemplo, y mucho menos, el Ars Amandi (...). Probablemente el “Kamasutra”, pienso yo, ha sido traducido al vascuence como un remedio contra la lujuria. Es un Kamasutra para ser leído en Cuaresma (...).*

*Decididamente, en vascuence se puede hacer una campaña por la amnistía, unos altos hornos, una ampliación de capital o la botadura de un bulcarrier, pero nunca el amor. El vascuence tiene una estructura ideológica que lo suyo es decir en esa lengua lo de “presoak kalera” pero no para hacer con ella descripciones de la entrepierna de Butragueño. Y es que no hay que darle más vueltas a lo que*

*ya codificó Carlos V, aquel prudente rey del siglo XIV: “A Dios hay que hablarle en latín, y a las mujeres en francés”. El amor en euskera no lo hace ni Carlos Garaikoetxea.”*

Antonio Burgosek Luis del Olmoren irrati saioko  
“La Chispa” atalean 1986ko abenduan.

*“El euskera es una lengua que sirve para andar por casa y sólo entre ese 30% que es euskaldún”*

Fernando Buesa. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta  
Hezkuntza Sailburu (1993)

*“Aquí (Euskadi) hasta que todos no hablemos castellano no habrá verdadera paz.”*

Entzule batek Zarauzko Udal Batzar berezian HBko zinegotzia euskaraz mintzo zelarik honen hitzak etenaz oihuka esandakoa. Udal Batzar Berezia ETAk Zarauzko PP-ko J.I. Iruretagoiena zinegotzia hil ondorengoa zen.

### 3.4.1.- EUSKAL HERRIAREN HISTORIA. 1975-1993

Francoren heriotzarekin aro berria ireki zen Euskal Herriaren historian. Sistema politikoaren aldaketa ekarri zuen Espainian eta, ondorioz, Hego Euskal Herrian. Sistema politiko horren muina 1978ko konstituzioak biltzen zuen. Berriro ere, aurreko aro historikoetan bezala, une historiko honetan Espainiak Euskal Herriaren burujabetasunari uko egin zion erabat, eta halaber, Espainiak Hego Euskal Herriaren gainean zuen boterea azpimarratu zuen.

Konstituzio honen aurrean Euskal Herriak ezezko borobila eman arren (%63k abstentzioa edo ezezkoa bozkatu zuen, %23, berriz,

<sup>57</sup> Gogora alderdi abertzaleek abstentzio aktiboaren aldeko deia egin zutela.



aldekoa<sup>57</sup>) beronengandik sortu ziren Gernikako Estatutua eta Nafarroako foru “hobetua”. Autonomia maila mugatua ezartzen zioten bakoitzaren menpeko lurralde eremuari. Beraz, konstituzioak Euskal Herriaren lurraldetasuna ukatu eta zatiturik bizitzera behartu zuen.

Burujabetzaren ukazioak eta egoera berriaren aurrean izan beharreko jokabideak agerian utzi zituzten Francoren aurreko erresistentzia garaietatik zeuden diferentziak, eta berriak eragin. Funtsean, agerian gelditu zen alderdi eta sindikatu gehienek, EAJ eta ELA barne, bat egin zutela transizioarekin eta konstituzioak Hego Euskal Herriari inposaturiko egoera berriarekin, eta ezker abertzaleak, berriz, ez.

Lurralde zatiketaren onarpena edo Madrilekiko menpekotasunaren aurrean izan ziren jarrera desberdinek markatu zuten Euskal Herriaren historia, jarrera eta joera horiek eguneroko bizitza baldintzatu zuten hein handi batean.

Burujabetzaren ukazioak, bestalde, Francoren garaian bezalaxe trantsizioan, ezker abertzalearen kontrako jarrera izango du aurrez aurre. Hasierako uneetan ezker abertzalearen baitan hartu beharreko bidez jarrera kontrajarriak sortu ziren arren (HB-EE-LAIA, ETA (M), ETA (PM)...) berehala agerian gelditu zen zein ziren 1978ko konstituzioak inposatzen zuen marko juridikoarekin bat egiten zutenak eta ez zutenak. Ez 1977ko amnistiak, ez eta ondorengo prozesu osoak ere, ez zuten lortu arazoaren muinari erantzun egokia ematea: Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko zuen eskubidea onartzea.

Haustura honek, besteak beste, errepresioaren indartzea ekarri zuen. Indar polizialen basakeria eta etengabeko zapalkuntza nahiz talde paramilitarren dinamika geroz eta garrantzitsuagoari (BVE, GANE, GAL...) zen plana edo Ajuria-eneako ituna gehitu behar zaizkio. Lemoizen aurkako borrokak, berriz, argi eta garbi erakutsi zuen egoera berriak ez zuela herritarren beharra asetzen. Geroago etorri ziren EAJ-PNV-ren haustura, EA-ren sorrera, Aljergo elkarrizketen porrota... Autonomismoaren bidez Espainiak haragi bizian zegoen

<sup>58</sup> Autonomismoarekin Hego Euskal Herria bitan zatitu nahi zuten (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba bate-tik eta Nafarroa bestetik) eta “Normalizazio” politikoaren bidez “Euskal Herria”ren kontzeptu politiko-a desargertarazi.

zauria itxi nahi zuen kostala ala kostala eta horretarako bi zutabe jarri zituen: errepresio politikoa eta autonomismoa<sup>58</sup>.

Aro honen hasieran Euskal Herri osoa, eta Hego Euskal Herria batez ere, mundu mailako ekonomi krisiak bete-betean harrapatu zuen. Europa osoan baino eragin bortitzagoa izan zuen zaharkiturik eta egoera berrira egokitzeko gaitasunik gabe zegoen euskal ekonomian. Ekonomi sektore guztiak astindu zituen, lantegiak itxi, langabezia, lehiarakogaitasun urria... Hego Euskal Herriko industria eta ekonomi sektore handien erabateko ahultzea ekarri zuen: burdingintza, arrantza, nekazaritza, untxiolak... Entrepresa txiki eta handiak egun batetik bestera itxi ziren, Hego Euskal Herriak Europako langabezia tasarik altuenak nozitu zituen eta krisialdi politikoa eta sozial larrian murgildu zen.

Langabezia euskal gizartean gertaera ezezaguna zen; oparotasunetik krisi ekonomikorik latzenerako jauzia, beraz, izugarria izan zen. Krisialdi honek Hego Euskal Herri osoan eragin zuen bai eta gizarte eta adin maila guzietan ere. Langile mugimenduaren indarra krisiarekin batera ahulduz joan zen. Entrepresa handien itxiera eta birmoldaketa basatiek langileen erantzun sendoa jaso bazuten ere, lantegi txikien itxierak ez zuen oihartzun handirik izan eta hauekin batera ito zen sindikatuen eragin indarra.

Hondamendi ekonomikoari krisi soziala erantsi zitzaion. Aurreko hamarkadetak hazkunde zoro eta neurrigabeak Hego Euskal Herria arazo sozial oro pizteko oso eremu egoki bihurtu zuten. Langabeziak eta ekonomiaren gainbeherak honi loturik datorren arazo katea oso azaleratu zuen. Bazterketa soziala, degradazio urbanoa, drogomenpekotasuna, delinkuentzia... Aurreko hamarkadetan ekonomikoki sasoi izandako gizarteak krisi ekonomiko eta sozial bortitzari aurre egin behar izan zion. Arazo hauek eta beste hamaika konpontzeko, ordea, beharrezkoak diren eskumenak Madrilen esku zeuden eta oso zen laburra Euskal Herriak bere burua kudeatzeko zuen aukera.

### 3.4.2.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA. 1975-92

## Legedia eta euskara aro berrian

Francoren heriotzak aldaketa politiko eta sozialen prozesua abiarazi zuen. 1978ko konstituzioak ezarri zituen ondorengo funtzionamendu politikoaren oinarriak. Hizkuntzari dagokionez konstituzioak honela ezartzen du 3. artikuluan: *"gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute berau, eta erabili ere erabiltzeko eskubidea dute"*. Beraz konstituzioak gaztelania jakiteko obligazioa ezartzen du eta gaztelania nonnahi eta noiznahi erabiltzeko eskubidea onartzen die hiritarrei. Beraz, 1978ko konstituzioak gaztelera ikastera behartzen gaitu eta, halaber, gaztelera erabiltzeko eskubidea babesten du, ez, aldiz, euskararena.

Artikulu berean aurrerago joanez tokian tokiko hizkuntzen eskubidea zer nolakoa izango den ezartzen du: *"Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan, berauen Estatutuei dagokien eran"*.

Beraz, gaztelaniaren nagusitasuna ezartzen du gainerakoek aurretik. Hego Euskal Herria bitan zatitu zuen konstituzio honek: Euskadiko Autonomi Erkidegoa eta Nafarroa. Gernikako Estatutuak (1979) honela dio 6. artikuluan: *"Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea"*. Nafarroako foru-hobekuntzan (1982), berriz, 9. artikuluan: *"Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan"*.

Legediaren garapena eginez, Euskadiko Autonomi Erkidegoan (EAE) Euskararen legea 1982an egin zen; Nafarroan, berriz, 1986an. EAEko euskararen Legea Auzitegi Konstituzionalera eraman zuen Felipe Gonzalezen gobernuak. Auzitegi honek 6.2, 8.3 eta 12.1 artikulua konstituzioaren aurkakotzat jo zituen. Alegia, bertako administrazioei edo herritarrei euskara hutsean funtzionatzeko eskubidea onartzen zieten artikulua indarrrik gabe gelditu ziren Auzitegi Konstituzionalaren erabakiaren ondorioz.

Legedi bakoitzak berezko ezaugarriak ditu eta arras desberdinak

dira batean zein bestean euskarari onartzen zaizkion eskubideak, eta honen babeserako jartzen diren oinarriak. Legezko diferentziak adierazgarriak izan arren, bi legedi hauek gobernu autonomoak herritarren aurrean dituen betebeharez ari dira, eta ezartzen duten betebeharrak bakoitza konstituzioak markatzen duen hori bera da, alegia, denek gaztelania jakin behar dutela. Ez da ezer aipatzen euskararen kontra egindako jazarpen historikoaz ez eta horren ondorioz euskarak bizi izan duen atzerakadaz, gutxiago euskarak galdutako gizarte nagusigoa berreskuratu behar duenik eta horretarako eman beharreko urratsez.

Konstituzionalki ezarritako elebitasunak, azken batean, historikoki euskarak bizi izandako jazarpen eta atzerakada ofizialki ezartzen ditu, euskaldun guztiak gaztelania jakitera behartuz.

EAEn Euskararen legea garatuz administrazioa euskalduntzeko legea eta egitasmoak ezarri ziren, besteak beste, irakaskuntza eta administrazioari zuzenduak (funtzionarioen euskalduntze plana izan zen orotan ezagunena).

Honen ondorioz sortu zen Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea (HABE), eta administrazioaren euskaltegi sarea (udal euskaltegiak eta HABEren barnetegiak).

### **Hezkuntza eta hizkuntz ereduak**

Euskarak bizi zuen legezko egoera berrian, hizkuntza normalkuntza bidean sartzeko urratsen artean, hezkuntzan emandakoak izan ziren nabarmenenak.

EAEn irakasle goa euskalduntzeko plangintzarekin batera (Irale plana), ikastetxeetarako A, B eta D ereduak ezarri ziren. Eredu bakoitzak hizkuntza ofizialak neurri desberdinean lantzen ditu eta helburua, hizkuntz gaitasun desberdinetatik abiatuz (eta ondorioz hezkuntz eredu desberdinetatik), oinarritzko ikasketak amaitzerako euskaraz eta erdaraz hizkuntz gaitasun parekoa izatea zen. Praktikan ordea, A eta B ereduak euskara ikasi nahi ez zutenen gotorleku bihurtu ziren. Aro hau amaitzen denerako oraindik asko ziren A eredu eskaintzen zuten ikastetxeak, eta asko, halaber, oinarritzko ikasketak euskararik jakin gabe amaitzen zituzten ikasleak.

Nafarroan A, B, D eta G ereduak ezarri ziren. Lehen hirurak EAEkoen antzeko ezaugarriekin eta azkena, berriz, gaztelera hutsean, euskara ikasgai modura ere onartzen ez zuelarik. Nafarroako legedia euskararentzat EAEkoa baino askoz murriztaileagoa izanik, euskarazko irakaskuntzari oztopo ugari ezartzen zizkion eta legez galerazten zuen euskarazko hezkuntza publikoa zonalde “ez-euskaldunean”.

Dena den, gizartearen eskaerak administrazioaren eskaintza gainditu zuen, eta nabarmen gainditu ere, kasu askotan. Urtez urte erdara irakas hizkuntza zuten ereduaren eskaera gutxitzen ari zen eta handitu, berriz, euskarazkoena. Gizartearen joera hau euskararen herri erakundeek eragina izan zen, eta urtez urte eredu euskaldunen aldeko kanpaina eta ekimenek nabarmen agertu zuten zein zen gizartearen borondatea.

Esan beharra dago, aro hau ereduaren emaitzak aztertu gabe amaitu zela. Alegia, hezkuntz ereduaren politika EAEn hamar urtez eta Nafarroan sei urtez indarrean egon arren, ez zela ikerketa bakar bat ere egin, ofizialki agindua edo diru publikoz lagundua, lorturiko emaitzak baloratzeko.

Unibertsitate aurreko ikasketetan, lanbide heziketan eta unibertsitatean bertan (unibertsitate publiko (UPV-EHU, UPNA, UNED) nahiz pribatuetan (Deusto, Universidad de Navarra...), diferentzia nabarmenak egon arren, euskararen egoera kaskarra zen, oinarrizko hezkuntzarekin alderatuz. Iparraldean, berriz, ez zegoen berezko unibertsitate distritorik eta ikasleek atzerrira (Paris, Bordele edo Pabe) joan behar izaten zuten ikasketak burutzera.

Azpimarratzekoa da, UPV-EHUK ez zuela eman euskararen ofizialtasunak eskatzen zuen pareko pausorik, euskararen normalkuntzan oso indar atzerakoia izan zen. Nafarroakoan, berriz, ez zen ia ezertxo ere egin, ezta Unibertsitate pribatuetan ere. Aroaren amaierarako oso argi zegoen unibertsitateetan euskarak zuen egoerarekin ez zegoela aurrera jotzerik.

Ipar Euskal Herrian, hizkuntzaren egoera eta hizkuntz kontzientzia askoz apalago egon izan dira historia osoan. Ez da zaila adieraztea, ordea, zer nolakoa zen hango egoera aro honetan: euskarak ez zuen

inolako legezko onarpenik, eta beraz, euskaldunek ez zuten inolako eskubiderik. Euskararen aldeko ekimenik garrantzitsuena hezkuntzaren ingurukoa zen eta honetan, hegoaldean bezala, ikastolak ziren aitzindari.

Ezin dugu aro hau amaitu unibertsitatearen hizkuntz egoeraz gogoetarik egin gabe. Unibertsitateak izan dira Europan herriak erai-itzeko tresna nagusiak. Unibertsitateetan formatzen zituen herri bakoitzak bere sendagileak, pentsalariak, arkitektoak, teknikariak... Euskal Herriari, ordea, historikoki eskubide hau ukatu izan zaio. Atzerriko unibertsitate baten menpe egon izan gara: Salamanca, Pabe, Bordele... eta horrek eragotzi izan du bertako seme-alabak bertako beharrei erantzuteko bertan trebatzea eta bertan eskaintzea beren gaitasuna. Hori izan zen, besteak beste, Francok herri honi eta bere hizkuntzari jarri zion zigorrik handienetako bat. 1977an Araba, Gipuzkoa eta Bizkai biltzen zituen unibertsitate distritua sortu zen, Euskal Herri osoa biltzen duenik ez zen inoiz izan. Udako Euskal Unibertsitatearen<sup>59</sup> lanak eutsi zion asmo horri.

### **Hizkuntza eta administrazioa**

Hezkuntzarekin batera administrazio autonomoko gainerako funtzionariak euskalduntzeko plangintza ere indarrean jarri zen. Plangintza honen garapena makala izan zen eta arazo ugari izan zuen ezarritako helburuak betetzeko.

### **Demografia, ezagutza, erabilpena**

Aztergai dugun aroan euskarak errealitate oso desberdinak bizi behar izan zituen. Euskal Herria hiru zatitan banatua (Ipar Euskal Herria, Nafarroa eta EAE) bizi zen eta euskarak beste hainbeste legedi zituen. Iparraldean euskarak ez zuen legezko inolako babesik, Nafarroan, berriz, hiru gune bereizten ziren (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna), bakoitzean euskaldunon hizkuntz eskubideak desberdinak ziren. EAEn, berriz, euskara hizkuntza ofiziala zenez gero,

---

<sup>59</sup> UEU 1973an sortu zen Donibane Lohizunen

administrazioaren aurrean herritarrak zituen hizkuntz eskubideak legez arautuak ziren. Eskubide horiek praktikara eramateko, ordea, eragozpen izugarriak zeuden plangintza faltagatik edo indar espainolisten erasoagatik.

Euskararen ezagutza eta erabilpena legeak jarritako mugen barruan zeudenez gero, legediak zuzeneko eragina izan zuen euskararen garapenean. Ipar Euskal Herrian legez onarturik ez egoteak hizkuntz eskubide guztiak ukatzen zizkien euskarari eta euskaldunei; beraz, euskararen ezagutza eta erabilpenak atzera egin zuten. Ez dugu ordea, aro honetako daturik.

Nafarroan euskararen legeak muga argia jartzen zion euskararen garapenari. Lehen datuak 1986koak dira. 1986 eta 1991 bitartean euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak oso maila apalean egin zuen gora, (% 0,2 (1.070) eta % 0,8 (4.098) hurrenez hurren), legeak jarritako muga horien eraginez.

EAE n gertatu zen ezagutza mailako hobekuntzarik nabariena. 1981 eta 1991. urteen artean euskaldunak biztanleriaren % 21,5etik %26,3ra pasa ziren (448.156tik 543.617ra), ia-euskaldunak %14,5etik %19,8ra (300.885etik 410.536ra) eta euskararik ez zekitenak, berriz, %64tik %53,9ra.

Datu hauek kontu handiz hartzekoak dira eta ez da gure helburua hemen azterketa osoa egitea. Datu hauek balio izan behar digute aro honetan ikusteko zer nolakoa izan zen egoera. Lezori dagokionez, EAEko datuak aintzat hartu behar baditugu ere, EAE n bertan gora-behera handiak zeuden geografikoki eta sozialki. Hobekuntza ezagutza mailakoa izan zen, giza talde gazteenen bultzadaz gertatua. Bienbitartean, helduek eta helduen munduari loturiko esparruek erdararen esku egoten jarraitu zuten. (Ikus BAT 3-4 eta 13-4 aleak)

Erabilpenari dagokionez 1993an emaitzak honako hauek ziren: Hego Euskal Herrian %11,90 (Araba % 2,90, Bizkaia % 9,01, Gipuzkoa % 25,09, Nafarroa % 5,73), Ipar Euskal Herrian % 4,92. Euskal Herrian orotara, beraz, euskaren kale erabilpena %11,61ekoa zen. 1989ko datuekin alderatuz Hego Euskal Herrian erabilpena % 17,53 hazi zen (1989-1993) eta, noski, haur eta gazteekin loturik

zegoen. Ez dugu Ipar Euskal Herriko datu osaturik aro honetan. Ipar Euskal Herrian, ordea, 1997ko neurketaren arabera 1989-1997 artean %27,7 jaitsi zen euskaren erabilera 10.000 biztanletik gorako hirietan (Baiona, Hendaia eta Donibane-Lohizune) (Ikus BAT 3-4 eta 13-14 aleak eta Euskaldunon Egunkaria (1998-07-5)).

Beraz, euskararen ezagutza eta erabilerak hobera egin zuten zenbait gizarte esparrutan; egoera, ordea, benetako normalkuntzak eskatzen zuenetik oso urrun zegoen. Euskararen normalkuntza bideratuko zuen aldaketa ez zuten ekarri ez 1978ko konstituzioak, ez eta honetatik eratorritako Nafarroako Foru Hobekuntzak edo Gernikako Estatutuak ere.

### **Gizarte mugimendua**

Aurreko aroan herri ekimenek gizarte bizitzaren maila orotan izan zuten garrantzia aipatu dugu. Joera hau indartu egin zen aro honetan eta ugaritu, berriz, euskararen alde ari ziren talde eta erakundeak. Hemen banan bana aipatzen hasiko ez bagara ere Ikastolekin batera AEKk (1981) eta EHEk (1979) protagonismo berezia izan zuten. Ikastolek euskarazko irakaskuntza eredu propioa Euskal Herri osora hedatzea lortu zuten, AEKk beste hainbeste egin zuen Helduen Euskalduntze Alfabetatzean. EHEk, berriz, euskaltzalegoa piztu eta euskararen normalkuntzan urrats berriak emateko ekimenak bideratu zituen (euskarazko telebistaren aldekoa edo administrazioaren euskalduntzea). Horiez gain, bazen euskararen beharrianak (tokian tokikoak) edo eremu bakoitzarenak jorratuko zituzten beste hamaika erakunde ere.

Indar hori guziaz nabarmen agertu zen “Bai Euskarari” (1978), “Bateginik” (1988), Korrika eta Ikastolen aldeko jaialdietan, esaterako.

Dena den, aro honetan herri ekimenen indartzearekin batera azpimarragarriena euskararen aldeko herri ekimenak edo gizartearen eskaerak eta botere politikoaren arteko dibortzioa izan zen. Euskarazko hezkuntz ereduaren aldeko gizarte eskaerak, helduen euskalduntze-alfabetatzeak, administrazioaren euskalduntzeak eta beste hamaikak



ez zuten behar besteko arretarik jaso administrazioaren aldetik.

### **Hedabideak eta euskarazko kultur ekoizpena**

Euskarazko komunikabideek eta euskarazko kultur ekoizpenak aro honetan urrats garrantzitsuak eman zituzten. Telebistaren sorrera, euskarazko irratien hedapena, herri aldizkariak, kultur aldizkariak, liburugintza, musika... indar berriz gizarteratu ziren. Aldaketa kualitatiboa izan zen, alegia, urrats honek euskaldun kopuruaren igoera nabarmenik eragin ez arren, euskaldunoi euskaraz bizitzeko aukerak ugaldtu zituzten. Aro honek aldaketa nabarmena eragin zuen euskararentzat eremu honetan; ez zuen, ordea, bere erdararekiko menpekotasuna ezabatu.

Zoritxarrez, ekimen hauek guziak administrazioak emandako laguntzetara loturik zeuden eta ez ekoizpena berpizteko plangintza bati loturik; unean-uneko oreka politikoaren baitan baizik. Honela bada, euskarazko kultur ekoizpenak uneoro euskarari zuzenduriko diru laguntzen murrizketa eta banaketa bidezko zentsura bizi izan zituen.

### **Euskararen kontrako erasoak**

Euskararen kontrako erasoak ez ziren frankismoarekin hasi, ez eta honekin amaitu ere. Aro honetan ugari izan ziren, euskararen gaia tresna politiko moduan erabiliz, normalkuntza bidean emandako urrats oro oztopatzen ahalegindu zirenak eta sarritan euskara gatazka politikoaren muin-muinean jarri zuten. Har dezagun adibidetarako Fernando Buesa PSE-PSOeko kide eta 1986tik 1994ra EAEko gobernuan (EAJ-PNV-rekin batera osatua) Gobernuko lehendakariorde eta hezkuntza sailburu izanak esana: *“El euskera es una lengua que sirve para andar por casa y sólo entre ese 30 % que es euskaldún”*.

Hau bezalakoak, ordea, hamaika izan dira. Batzuetan hitzez adierazita, besteetan, ekintza bidez, berebiziko ahalegina egin zuen zuzendaritza Euskal Herritik kanpo zuen alderdi, sindikatu eta gizar-te erakunde zenbaitek, normalkuntza bidean emandako urrats oro eraso politiko moduan jatzeko.

Alderdi abertzaleek, aldiz, ez zuten jakin izan eraso honi era bateratuan erantzuten, ez eta euskal hiritar orozen hizkuntz eskubi-deak gatazka politikotik ateratzen ere. Sarritan Gasteizko gobernua, eta bertan nagusi zen EAJ-PNV izan zen erasoan arduradun. Gogora, bestela, zer-nolako jarrera izan zuen AEK-rekin, Euskaldunon Egunkariarekin, UEUrekin, ikastolen mugimendurekin...

### **Hizkuntzaren ideologia**

Aro honetan inoiz baino era maltzur eta makurragoan eraiki zen hizkuntzaren ideologia. Eraso horren sostengu nagusia eraikitako ideologia horretan zegoen, ernamuina, berriz, konstituzionalki ezarritako elebitasunean.

Lege bidez elebitasuna ezartzearekin batera erdararen lehentasuna ezarri zen. Hori kontuan izanda, erraza da ikustea euskara bigarren mailan utzi zela, edo bestela esanda, euskararen erabilera babesten zuen bidea oso estua zela (administrazioaren zenbait eremutan soilik). Alegia, zein aukera zegoen Hego Euskal Herrian, Nafarroan nahiz EAEn, gizartearen euskalduntzeari ekiteko? Nola lortu euskararen atzerakada historikoa gainditzea horren tresna ahulekin? Historian zehar euskara desagertarazteko ahaleginik handienak egin dituen estatu espainolaren esku zegoen egoera berriaren ardura.

Honela bada, eraiki zen hizkuntza ideologia horretan, terminoen adiera hain zen malgua, ezen irakurketa guztiz kontrajarriak egin ahal izan zirela diskurtso bera erabiliz. Funtsean, ordea, 1978ko konstituzioak ezarri zuen ideologia nagusitu zen, zalantza kasuetan, gainera, Madrilgo Auzitegi Konstituzionalari zegokion ebazteko ardura.

Funtsean, ideologia honek ez zituen hizkuntza bakoitzaren, eta batez ere euskararen, hizkuntz eskubide historikoak onartzen. Euskarak bizi izandako jazarpen bortitzaren bidez lorturiko egoerari onarpen legala eman zitzaion. Ez zegoen inolako borondaterik injustizia historiko hori konpontzeko.

Bestalde, ez ziren hizkuntz eskubide kolektiboak onartzen, indi-

bidualak baizik. Ikerketa osoan zehar behin eta berriro aipatu dugun printzipio liberala nagusitu zen une honetan ere. Estatuak herritarren arteko diferentzia guziak bere neurrira berdindu zituen eta honela, putzada bakar batez, euskaldunon herri izaera ukatu zuen eta ondorioz herri garen neurrian ditugun eskubideak, hizkuntzarena, besteak beste.

Dena den, eskubide kolektiboak ezabatu eta indibidualak ezartzeak ez du esan nahi euskaldunen hizkuntz eskubide indibidualak onartzen zirenik, eta gutxiago hauek indarrean jarri ahal izateko baliabideak bideratuko zirenik. Euskaldunon hizkuntz eskubide indibidualak administrazioaren aurrean bakarrik onartzen ziren eta administrazioak berak ezarritako plangintzaren arabera gauzatu. Eta inola ere ez administrazioaren eremu osoan. Beraz, euskaldunonak eskubidearena baino kaiola baten itxura handiagoa zuen. Administrazioetik at euskaldunak ez zuen euskaraz egiteko eskubiderik, ez zerbitzu publikoetan, ez bere eguneroko harremanetan eta ez zen eskubide hori indarrean jarri ahal izateko baliapiderik bideratu.

Euskaldun guziak erdara jakitera beharturik zeuden, beraz, eta aldez, euskararik ez zekitenek ez zuten jakin beharrik ere, kasu askotan ez eta ikasteko aukerarik ere (A eta G ereduko ikasleak). Praktikan, beraz, elebitasuna euskaldunei inposatu egin zitzairen. Erdal elebakartasuna, berriz, legez babestua zen.

### 3.4.3.- LEZOREN HISTORIA. 1975-1993

Lezoko historiak erakusten digu Euskal Herriko historiarekin bat bizi izan den herria dela.

#### **1978ko Konstituzio espainolari ez**

Frankismoaren amaierak eta transizioaren hasierak hemen ere Hego Euskal Herri osoan bizi izandako tentsio berak eragin zituen. 1978ko konstituzioaren bozketan kontrako bozka nagusitu zen (absentzia eta ezezkoak % 79,16, baiezkoak % 19,1. -Euskal Herri mai-

lan ezezkoak eta abstentzioak % 63-) alderdi abertzaleen deiari erantzunez. Agerian gelditu zen, halaber, garai berri hark ez zuela lortuko une historikoak eskatzen zuen moduko konponbiderik.

Lezon, Euskal Herri osoan bezalaxe, aro berriak konponbideak ez, arazoak ekartzen zituela erakusten zuten hamaika gertaera izan zen. 1978 konstituzioa ukatu (% 79,16), Gernikako estatutuaren aurreko abertzaleen arteko zatiketa (Abstentzioa %55, aldekoak %92,2, kontrakoak %3,62), Fanekas, Mitxelena eta, Jaione errefuxiatuak, 1977ko amnistiaren eragin mugatua (Juanito Trecet, Juama Fernandez, Fernando Isasti... espetxera 1977an), ezker abertzaleko kide eta erakundeen arteko zatiketa (EMK, Independienteak, Herri Batasuna, Euskadiko Ezkerra), indar paramilitarren lana (udalari lehergailua jarri, Karlos Saldise tiroz hil), etengabeko polizi errepresioa...

### **Ekonomia krisian**

Honela bada, aro honen hasieratik Lezo bete-betea sarturik zegoen garai historikoaren gora-behera politikoetan. Politikoetaz gain, ordea, ekonomikoetan ere beste hainbeste gertatu zen. Ekonomi krisiak, 1975ean Francoren heriotzaren aurretik joera nabaritzen hasi baldin bazen ere, transizioaren ondorengo urteetan, eta batez ere 80ko hamarkadan, bete-betea harrapatu zuen Lezo. Ekonomi iharduera nagusia industrialak izanik, eskualdeko lantoki handien gainean egituraturik zegoen: Papelera, Orbegozo, Luzuriaga, Niessen.... Lantoki hauen krisiak eta gehienek desagerpenak Lezon langabezia (batez ere gazte eta emakumeena), eskualde osoan bezala, Europako mailarik altuenetara helarazi zuen eta krisi sozial sakona eragin.

Eskualde honetan heroina eta droga ilegalen inguruan bizi izandako maniobra politiko-polizialak agerian jarri zuen zenbaterainokoa zen krisia eta zer-nola bizi izan zuen bertako gazteriak. Lanik gabe, eta guztiz zapaltzailea zen sistema sozial eta politiko baten menpean, Francoren heriotzaren ondorengo prozesuak herri honen askatasun nahia itota, etorkizun iluna ageri zitzaion euskal gazteria-

ri. Orduko polizi indarren bultzadaz eta alderdi politikoaren isiltasunaz, heroina eta beste zenbait droga ilegal euskal gazteriaren esku- eskura jarri ziren, hauen borrokarako grina apaldu nahian.

Heroinaren gizarteratzea euskal gazteria errotik suntsitzeko aha- legina izan zen eta eskualde honek bere baitan bizi izan zuen pro- zesu hori. Asko eta asko izan ziren drogomenpekotasunean murgil- dutako gazteak, hilak, betirako gaisotuak... Gaztea eta honen ingu- rua astindu zituen drogomenpekotasuna krisi sozial sakonago baten agerpena besterik ez zen. Lezo heroinaren banaketa gunee bihurtu zen 80. eko hamarkadan. Eskualdeko nahiz inguruko herrietako gaz- teek Lezon zituzten hornitzaileak eta hauen indarra eta mehatxua geroz eta nabariagoak ziren. Lezo herriaren izena estatu osoan eza- guna egin zuen borroka heroina trafikatzailerak herritik uxatzea lortu zuen, ez, ordea, alde aurretik astinaldi sozio-politikoaren eragin gabe.

Krisialdi ekonomiko eta sozial honen ondorioetako bat emigra- zioa etetea izan zen. Hain bortitza izandako prozesu horri ekonomi krisiak eman zion amaiera. Jada, Euskal Herria ez zen estatuko ingu- ru txiroenetako langileen helmuga.

### **Udal hauteskundeak eta alkatetzak**

Hauteskundeetan Lezok abertzale izaten jarraitu zuen aurreko aro- etan bezala. Udal hauteskundeetan nahiz orokorretan, alderdi aber- tzaleak izan ziren nagusi. Udal hauteskundeetan, esaterako, alderdi abertzaleak izan ziren gobernuan (1979: Independienteak-EMK-EE, 1983: EAJ-PNV, 1987: HB, 1991-3: EA-EAJ (PSOerekin batera)).

Udal gobernuaren antolaketak, halaber, bere baitan bizi izan zituen Franco hil ondorengo prozesu politikoak euskal politikagin- tzan eragindako tenkak eta gora-beherak. Aro berrian botere politi- koak eta alderdiek eskuratu zuten protagonismoak, herri erakunde eta elkarteena mugatu nahi izan zuen. Herriko elkarteek mende hasieratik herriko bizitza soziokulturalean izandako protagonismoa zapuztu nahia edo ezker abertzalea baztertzea izan zen aro honetan transizioarekin bat egin zuten alderdien asmoa.

Politika eta kulturaren arteko gatazka izan zen aro honetan herri-

ko bizitza soziala astindu zuen gaia, arestian aipatutakoez gain. Gogoan izan behar genuke, ordea, Lezoren prozesu historikoa behatzen baldin badugu, herriko elkarteak eta ezker abertzalea izan direla euskara eta euskal kulturaren aldeko ahaleginean aitzindari garairik ilunenetan.

Beraz, agerian dago aro historiko honetan ere, Lezoren berreuskalduntzeak eskatzen duen neurriko indar batasunik ez zegoela herri mailan. Konstituzio bidez ezarritako ideologia linguistiko eta politikoak edo, hobe esan, honekiko atxikimenduak, eragozten zuen.

### **Herria bizirik**

Frankismoaren garaian herri ekimenaren garrantzia azpimarratu dugu eta aro honetan azpimarratzen jarraitu behar dugu. Egoera politiko, sozial eta ekonomikoan aldaketak gertatu baldin baziren ere, herri ekimena Lezoko bizitza kultural, sozial eta politikoan protagonista izan zen. Eliza edo Allerru elkartearen parte hartzea ttikitzen baldin bazihoan ere, hauen ondoan eragile berriak sortu ziren: Amnistiaren Aldeko Batzordea, Txerrimuño, AEK, Herri Eskolako gurasoen elkartea, Askagintza, Elkarteen Koordinakundea... Zenbaitetan guziek batera borrokatu zuten; udalaren demokratizazioaren alde edo droga trafikokoaren aurka, esaterako. Herri ekimenaren lana kontuan izan gabe nekez uler daiteke aro honetako Lezoren bilakaera.

### 3.4.4.- EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA LEZON. 1975-1993

Lezo tradizioz herri euskaltzalea izan arren aurreko hamarkadetan bizi izandako atzerakada zenbaterainokoa zen ikusi dugu. Mende hasieran Lezoko bizitzan euskararen erabilpena ia erabatekoa baldin bazen aro hau amaitzen denerako, SIADECOn neurketaren arabera, % 37,6 ziren kalean euskaraz ari zirenak (1992), alegia, hamarretik lau besterik ez. Edo bestela esanda, hamarretik sei erdaraz ari ziren. Aldaketa, beraz nabarmena da.

Dena den, kontuan izan behar dugu, SIADECOK oso ongi azpi-

marratzen duen bezala, “datu honek adierazten digu, euskararen presentzia erdararena baino txikiagoa izan arren, bertako euskararen ezagupena 1986ko eroldaren arabera % 46,5ekoa zenez, hizkuntz leialtasun handiko herria dela Lezo; izan ere, herri gehienetan baino alde gutxiago baitago ezagupenaren eta erabileraren artean” (9. or). Hau da, Lezon euskaldunak euskaraz aritzen dira ahal duten guzietan. Oraindik oso urrun gaude, ordea, orain 50 urte genuen egoeratik, esate baterako.

Francoren garaiak aldaketa handiak eragin zituen eta ez Euskal Herriak, ez Lezok ez zuten tresnarik izan aldaketa horrek herriaren izaera euskalduna kaltetu ez zezan. Aro honetan euskararen kontrako erasoak bizirik jarraitu arren honen aldeko mugimenduak indar bizia hartu zuen, euskarari historikoki ukatu izan zitzaizkion eremuak eskuratzen hasi zen administrazioan, hezkuntzan, hedabideetan, kulturean... Beraz, aro hau hitz gutxitan laburtu behar bagenu, euskararen odoljariora eteten hasi zen garaia izan zela esango genuke. Horixe da behintzat aro honetan euskararen historia soziala aztertuz esan daitekeena. Ikus dezagun.



Ixkulineko bazkideak jaïeterako prestaturiko gurdiaren aurrean. Bilduriko dirua ikastola laguntzeko zen.

## Hezkuntza formala

Aro honetan Lezoko ikasleria oinarrizko heziketan Ikastola, Herri Eskola, Guraso Elkartea eta eskualdeko nahiz Donostiako ikastetxeen artean zegoen banaturik. Beraz, frankismoaren amaierak eta “Espainiako Transizio Demokratikoa”ren hasierak ez zuten aldaketa nabarmenik ekarri. Aldaketa poliki-poliki gertatu zen eta funtsean euskarazko irakaskuntza hedatzea ekarri zuen, herritarren ahaleginari esker.

### Ikastola

Sasoi hartan ikastolak geroz eta indar handiagoa hartzen ari ziren Euskal Herri osoan, eta batez ere Hego Euskal Herrian; izan ere, haiek ziren euskarazko irakaskuntza eskaintzen zuten bakarrak. Ikastolak bere beharizanei erantzuteko 1980-1 ikasturtean Pasaia-Lezo Lizeoa zabaldu zuen eta unibertsitatean sartu bitarteko ikasketa prozesu osoa euskaraz eskaintzen hasi zen. Urrats honek sekulako garrantzia izan zuen Lezoko euskararen historian, ordura arte ez baitzegoen ikasketa prozesu osoa euskaraz egiterik. Lizeoa sortu aurreko urteetan ikasketak ertainak (orduko BBB eta UBI) Orereta ikastolan edo Koldo Mitxelena institutuan egiten ziren. Azken honetan, ordea, proiektua ez zen euskara hutsezkoa.

### Herri Eskola sortu

Eskola “nacional”en izen txarrak bizirik jarraitu zuen aro honen lehen urteetan, eskola frankista izatearena poliki-poliki desagertzen baldin bazihoan ere; kalitate txarrekoa eta erdara hutsezkoa izateak herritar gehienak bestelako aukerak egitera behartzen zituen. Herriko hainbat guraso eta Guraso Elkarteko kide zenbait ez zeuden egoera honekin batere ados eta irakaskuntza publikoak euskarazko irakaskuntzaren aldeko jautzia eman behar zuelakoan zeuden.

Guraso Elkarteari, bestalde, azpiegitura aldetik nahiz ekonomiko-ki geroz eta zailagoa zizaion egoera berriari erantzutea. Honela bada, ikasketak euskaraz nahi zituzten ikasleen eskaerari erantzutearren, Ikastolarekin akordio batera heldu zen, euskaraz ikasi nahi zuten euren ikasleek ikastolan egin zituzten ikasketak.



Akordio honek ez zuen aurrera egin, ordea (hemen ere bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu eta datu objetiborik gabe gu ez gara sartuko), eta hurrengo pausoa herri eskolarekin batera euskarazko eskolak ematen hasia izan zen. Izan ere, garai horretan bazen hainbat guraso herri eskolarentzat euskarazko hezkuntz proiektua nahi zuena. Horren ondorioz Eskola publikoak eta Guraso Elkarteak bat egin zuten, Herri Eskola sortu zen (1980-1).

Juan Luis Olaizola garai hartan Guraso Elkarteko batzordekidea zen eta hark dioenez berak oso argi zuen “Lezoko herrian euskarazko hezkuntz proiektua behar beharrezkoa zela”. Horretan ahalegin-du ziren. Bat egitearen garai hartan Mertxe Larrea Herri Eskolako gurasoen batzordean zegoen. Jaurlaritzarekin izandako negoziaketetan horrelako fusioen aldeko jarrera somatu zuten; era berean, “gogoz saiaturaz gero lor zitekeela sinisturik” ekin zioten lanari, hala dio Mertxe Larreak berak, eta horren ondorioz sortu zen proiektua.



Ikastolako haur taldea. 1975-6 ikasturtea

Lezokoa izan zen EAEn urrats hori ematen lehenetarikoa.

Esan beharrekoa da adostasun handia izan zuela asmo honek guraso eta irakasleen artean; bestela nekez lortuko zen aurrera egitea. Lehen urteetan, ordea, zalantza eta beldur ugari izan zen, batez ere ez baitzen ziur Jaurlaritzak euskara hutsean funtzionatzeko bidean zen Herri Eskolarik onartuko zuenik.

1980-1 ikasturtean hasi zen D ereduko lehen taldea. Geroztik Lezoko Herri Eskolak euskarazko irakaskuntzaren aldeko postura argia egin zuen. 90-91 ikasturtean A eredia desagertu zen eta hortik aurrera Herri Eskolak B eta D ereduak baino ez zituen eskaini. Urrats honekin guraso guziak konforme ez baldin baziren ere, gehiengo nagusia bai. Ordurako A eredian zeuden ikasle apurrentzat, berriz, bestelako konponbidea bilatu zen eskola, Jaurlaritza eta Udalaren artean: ikasketak amaitu bitartean A eredian izena emanda zeuden ikasleak Pasai Donibaneko A ereduko taldeetan txertatuko zituzten. Joan etorria egunero taxian egiten zuten.

Irakasleriaren multzo handi batek euskaraz eskolak emateko trebatu egin behar izan zuen; beste multzo batek, berriz, euskaldundu. Adinagatik euskaldundu gabe gelditu zirenak, edo Jaurlaritzak noizean behin bidalitako irakasle erdaldunen bat ez beste, gainerako guziak euskaldundu ziren.

Beraz, aro honen hasieratik izan ez bazen ere, urte gutxiren buruan Lezoko haur eta gazte ia denek oinarrizko euskarazko hezkuntza jaso zuten. Datu hau azpimarratzekoa da historian lehen aldiz lortu baitu euskarak Lezon nahiz Euskal Herrian horrelakorik. Gertaera hau ezinezkoa zatekeen herriaren borondate finkoak horren alde egin izan ez balu. Ikastolaren sorreran nahiz Herri Eskolarenean, herritarren lana eta bultzada erabakiorrak izan ziren.

“Haurtxo” haur eskola

Hezkuntzaren alorrean aipagarria da “Haurtxo” haur eskolaren sorrera. Lezon ez zen berria gurasoak lanean ziren bitartean haurrak haurtzaindegi edo haur eskolan egotea. Agustina Lizarazuren eskolak

edo Manuela Larrearen ikastolak antzeko zerbitzua eskaini zuten; izan ere, asko ziren Lezon senar-emazteak etxetik kanpo, lantokian aritzen ziren familiak. “Haurtxo” haur eskolaren sortze helburuen artean zegoen haurrek hizkuntza ikastea. Honek garrantzi handia du, kontuan hartzen baldin badugu bertan haurrak matrikulatzen zituzten gurasoen artean erdaldun kopurua handia zela.

Ikastola, Herri Eskola edo Haurtzaindegiak Lezoko ikasle goaren zatirik handiena bildu arren, ez dugu ahantzi behar haur guziak ez zirela haurtzaindegira joaten, ez eta Herri Eskola edo ikastolara ere. Aro honetan Lezotik kanpo ikasten ibilitako ikasle gehienak Orereta Ikastolan eta Sagrado Corazón ikastetxean zeuden B eta D ereduetan. Ez dakigu, ordea, zenbat diren Donostiako ikastetxe pribatueta A ereduan ikastera joaten zirenak. Kalkuloak eginez agerikoa da ez zirela asko izango (datu horiek emateari uko egin zioten ikastetxeek). Etorkizunari begira, aldiz, hor arazo latza sortzen da, Lezon euskararik ez zekiten giza multzoak ari baitziren sortzen belaunaldi gazteenetan ere. Honek berarekin eragozpen ugari eragin zizkien ikasleei bai eta gizarte osoari ere herriaren euskalduntzea atzeratzen zuelako.

Herritik kanpoko heziketa

Ez dugu ahantzi behar, ordea, heziketa prozesua ez zela 14 urteekin amaitzen eta unibertsitate aurreko ikasketak ez zirela zegoen aukera bakarra. Aro honetan lanbide heziketako ikasketak nahiz unibertsitatekoak erdaraz egin zituzten lezoar gehienek.

Aro honen amaierarako euskarazko hezkuntzan funtsezko urratsak eman baldin baziren ere, gizartea euskalduntzeko hezkuntza aldetik egin beharreko ugari zegoen oraindik.

### **Hezkuntza ez-formala**

Esandakoa hezkuntza formalari buruzkoa da batez ere; ez dugu ahantzi behar hezkuntza ez-formalaren (alegia, derrigorturik edo titulu bat jasotzearen egiten ez den hezkuntza) garrantzia ere han-

dia zela aro honetan, eta gaur egun ere bai. Eskolatik kanpoko musika ikasketak, kirol prestaketa, eskulangintza... heziketa dira.

### Musika

Lezon musika eta katurako tradizioak historia luzea du. Aro honetan kultura mailan gehien garatutako alorretako bat musikarena izan zen.

Txistularien taldeko zenbait kideren ekimenez hasi ziren musika eskolak ematen herrian. Musika ikasteak geroz eta jende gehiago biltzen zuenez, eskola hauei kokapen berriak bilatu behar izan zitzaizkion eta, halaber, solfeoa edo txistua jotzen ikasteaz gain, bestelako musika tresnetara hedatu zuten eskaintza. Prozesuaren azken urratsa Tomas Garbizu Udal Musika Kontserbatorioa eta Musika Eskola sortzea izan zen. Hezkuntz proiektu honen oinarrian euskal musika tradizioari eustea zegoen.

Alor honetan, ordea, arazo latz bat izan zen euskarari zegokionean: musika irakasleen eta musika eskolen hizkuntz eredua. 1992ko neurketaren arabera ikaslegoaren %87,5 euskalduna zen eta irakaslegoan berriz, 18 irakasletatik 4 erdaldunak, 4 euskalduntzen eta beste lau alfabetatu gabeko euskaldun zaharrak (hauetatik hiru ikasten) ziren. Materiale didaktikoa, halaber, ia erabat erdarazkoa zen. Hizkuntzari dagokionez, bada, egoera nahikoa kaskarra izan da eremu honetan (eta ez Lezon bakarrik). Irakasleen lana eta irakasteko asmo zintzoa inolaz ere zalantzan jarri gabe, ikasleen artean gehiengo euskalduna zuen eremu horrek euskara aldetik askoz ere arreta handiagoa eskatzen zuen eta, zoritxarrez, ikastetxean euskarazko ikasketak egindako askok musika ikasketak erdara hutsean jaso behar izan zituzten. Kontserbatorioko egoera, gaur egun zorionez konponbidean jarria da.

Aro honen amaierarako Lezoko kontserbatorioko irakasleen artean baziren solfeoa irakasteko euskarazko metodoak lantzen ari zirenak. Ahalegin hau Lezokoekin batera Hego Euskal Herriko beste zenbait irakaslek egin zuten eta aitzindari zirela esan dezakegu.

### Kirola

Musika mailakoa baino okerragoa zen kirol ihardueraren egoera. Izan ere, kirolean, batez ere kirol begirale edo entrenatzaileen kasuan, aro osoan zehar erdara izan zen nagusi. Batzuetan trebatzaileak euskararik ez zekielako, besteetan taldean harreman guziak erdarazkoak zirelako, kirolaren bidez sorturiko harreman eta gizarte sareek erdara hutsean egin zuten lan aro osoan zehar.

Trebatzaileena borondatezko lana izanik, eta laguntzeko herritar kopurua eskasa izaten denez, ez da bidezkoa pertsona hauen borondate ona zalantzan jartzea. Euskararen sozializatorako, ordea, kirola bezain eremu garrantzitsu batean, euskara ia erabat bazterturik egoteak ondorio sakonak izan zituen. 1992ko datuen arabera, eskolorduz kanpoko kirol ihardueretan begiraleen erdiak gutxienez ez zekien euskararik, eta bestalde, euskaldunen artean ere erdara zen nagusi.

### Erljioa

Erljio heziketa ere eremu honetan sartu behar dugu. Aro honen hasieran euskarazko eta erdarazko taldeak zeuden katekesian nahiz sendotzan, Garmendia bikarioak hasitako ohiturari jarraituz. Lehen urte haietan baziren euskaldun gutxi batzuk erdarazko taldeetan, ikasketak erdaraz egiten zituzten ikasleak denak, nahiz eta hauek azkenean euskarazko taldeetan txertatu.

Herriko hezkuntza formala euskalduntzen zihoan heinean ordea, katekuminatuak edo sendotzako taldeek ez zuten bide hori hartu, alderantzizkoa baizik. Alegia, euskaldunak eta erdaldunak nahasi zituzten talde berean eta erdara bihurtu zen komunikazio hizkuntza nagusi. SIADECOK 1993an egindako ikerketan ageri denez talde elebidunak ziren gehienak, edo bestela esanda, nagusiki erdaraz bizi ziren taldeak, nahiz eta bertan euskara zekienik izan.

Atzerakada larria hauxe Lezoko euskararen historian. Garairik ilunenetan ere dotrina ikasteak eta elizaren heziketa ahaleginek euskaldunei euskaraz aritzeko lekua eskaini zieten eta egoera hobetzeko

bidean jarri zenean alor honetan atzera egin zen. Dotrinara geroz eta haur gutxiago joatea eta katekista eskasia izan omen ziren horrelako erabakiak hartzera bultzatu zituen arrazoia. Katekisten artetan 28tik 12k ez zekiten euskararik; gazteen artean, berriz, 147tik 73 ziren euskaldunak haiek emandako datuen arabera.

Musikan, erlijioan nahiz kirol munduan bizi zen egoerak, beraz, hutsune handiak zituen. Aro honetan Lezoko herriak hezkuntza formalaren bidez euskalduntzeko sekulako ahalegina egin zuen arren, eskolorduz kanpoko ihardueretan ez zuen jarraipenik izan. Datu hau oso aintzat hartzekoa da, herritarren bizitzan iharduera hauek zuten garrantzia ikusirik.

Alor hauetan ez bezala, dantza taldean, geroago “Murixka” izena hartu baitzuen, egoera oso bestelakoa zen. Dantzari eta trebatzaileen arteko harremana euskarazkoa izan zen bai aroaren hasieran, Patxi Larrearen arduradun zuela, bai eta amaieran ere, Lurdes Esnaolarekin.

#### Aisialdia

Aisialdian, berriz, Lezon talde bakarra genuen, Ekaitz. Elizaren ekimenez sortua (1976an), urte luzez aritu da haur eta nerabeen artean aisialdia antolatzen euskaraz. Hasieran gazte taldea zen eta geroago gaztetxoei zuzenduriko aisialdi talde izatera pasa zen.

Gazte talde izan zen garaian, Jose Luis Aperribaik gogoratzen duenez, tentsioak izan ziren euskara zekitenen eta ez zekitenen artean, garai hartako tentsio guzien agerpen naturala. Gazte talde izateari utzi eta aisialdiari ekin zionean, berriz, begirale guziak euskaldunak ziren eta euskarazko harremana eta aisialdia lantzeko borondate finkoz egin zuten. Irizpide horri eutsi zioten aro osoan zehar. Ekaitzek ikasturtean zehar larunbat arratsaldeetan biltzen zituen gaztetxoak bere aretoan eta horrezaz gain urtean zehar zenbait igandetan egun osoko irtenaldiak antolatzen zituzten eta uztailean hamaibost eguneko udalekua Antzinen.

Iraunkortasun handirik ez baldin bazuen ere, eta biltzen zuen haur kopurua handia ez baldin bazen ere (1992an 90 haurrek eman

zuten izena), oso garrantzitsua izan zen aisialdian euskara normaltzeko egin zuten lana.

Lezoko haurrentzako aisialdiari dagokionean, 1989.ean udala uztailean haurrek euskaraz jolasteko aukera izan zezaten, udala udaleku irekiak antolatzen hasi zen. Hizkuntza zen helburu eta jolasean ongi pasatzea bide. Iharduera hau ere, oso garrantzitsua izan zen. Dena den, hau ere Ekaitzena bezala, eskaintza aldetik mugatua. Aro hau amaitu zenerako nabaria zen urte osoan zabalik egongo zen ludoteka baten beharra, haurrak nahi zuen orotan euskaraz jolastu eta lagunarte euskaldunean ibiltzeko leku bat izan zezan.

Orain arte herriko aisialdi eskaintzaz soilik hitz egin dugu. Herritik kanpoko aisialdi ekintzetan ere parte hartzen zuten Lezoko haurrek, noski. Datu zehatzik ez baldin badago ere, Gipuzkoa mai-



Ezkerretik eskumara Joakin Oiartzabal, Jabi Arrieta, Joxe Juan Ugalde, Mikel Intxauspe, Xabier Sarasola.

lan, eta batez ere inguruko herrietakoa ikusita, pentsatzekoa da erdarazkoak izango zirela nagusi. Hipotesi hau oso eztabaidagarria da. Hori esanez azpimarratu nahi duguna gauza bakarra da, ordea: haurren munduan Lezon egingo ditugun ahaleginez gain behar beharrezkoa dela ingurukoa ere aldatzea benetan emaitzarik lortu nahi izanez gero. Aisialdi ekintzen artean sartzen dugu, noski, telebista ikustea. Hedabideez, ordea, aurrerago hitz egingo dugu.

#### Helduen Euskalduntze Alfabetatzea

Aurreko aroan hasi ziren lehen euskara eskolak eta urteek aurrera egin ahala indarra hartzen joan zen. Hasiara batean ikastolari lotua eta ikastolako gurasoei zuzendua izan arren, berehala zabaldu zuen eskaintza gainerako herritarrentzat, alfabetatu nahi zuten gazte euskaldunentzat batez ere. Euskal Herri osoan bezala, gau-eskola izanez hasi zenak euskaltegi izaten amaitu zuen.

Gau-eskola bakoitza bere gisara zebilen hasieran eta poliki-poliki hauen arteko koordinazioa estutzen joan zen. Aro honetako lehen urteetan Pello Garbizu izan zen gau-eskolaren arduradun eta harek egiten zituen koordinazio lanak Errenteriako gau-eskolarekin.

Gau eskolak biltzen zuen ikasle kopuruaz datu zehatzik ez baldin badugu ere, badakigu euskalduntze eta alfabetatze taldeak zituela sei taldetan banaturik: bi alfabetatze talde eta lau euskalduntzekoak. Orotara, Pello Garbizu eta Agustina Pontestaren arabera, hirurogeiren bat ikasle biltzen zituen.

Joxe Manuel Odriozola izan zen gau-eskolen koordinatzailea 1974-1980 urteen artean, eta bere aburuz Lezoko gau-eskolaren fenomenoaren beste herrietakoa bezalakoxea zen. Garai hartaz azpimarratu beharrekoa honen inguruan sortutako giroa da; euskara ikasteaz gain lagun arteak sortu eta hamaika kultur ekimen bideratu ziren: hitzaldiak eta kantaldiak batez ere. Hitzaldi horiek eskaintzen ibili ziren Gipuzkoa osoan barrena gaur egun euskal kulturari aski ezagunak diren pertsonak; Koldo Izagirre eta Luis Mari Bandrés, esaterako. Gau eskolaren inguruan ekimen horiek bideratzeko kultur talde bat sortu zen.

Aro honen ondoren euskaltegien arteko koordinazioa estutzen



joan zen eta AEK sortu zen 1981ean. Hasieran gau-eskolaren ereduari loturik izan baldin bazen ere, urteek aurrera egin ahala bere eskaintza zabaltzen joan zen. Eskolak gauzez bakarrik ematek arratsalde eta gauzez ematera pasa ziren eta azkenik egun osoan zehar ematera (1991).

Aro honetan ikasle kopurua ez zen askorik aldatu. Hirurogei inguru izan ziren urtez urte izena ematen zuten ikasleak; izan ere, Lezoko euskaltegiak, azpiegitura eta irakasleri arazo handiak izan zituen. Lokal desagokiak, esperientzia laburreko irakasleri, diru laguntza eskasak... Helduen Euskalduntze Alfabetatzean benetako aldaketa 1990-1. ikasturtean gertatu zen. Ikasturte horretan Lezoko AEKk eta Lezoko udalak hitzarmen bat sinatu zuten eta horren bitartez diru-laguntzak eta Donibane kaleko 12ean dagoen lokala utzi zitzaizkion AEKri Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzeak ahalik eta



Herri eskolan D ereduan hasitako lehen taldea.

egoerarik onenean jarrai zezan. Horren ondorioz ikasleria bi urtetan ia bikoiztu egin zen (aurreko urteetako 60 ikasletik 92ko iraileko 112 ikaslara). Aro honetan Lezon euskalduntzen edo alfabetatzen ari ziren ikasleen artean helduak izan ziren nagusi; garai berean Euskal Herri osoan ikaslegoa gaztetzen ari zen.

Hurrengo urratsa Udala eta AEKren artean familien euskalduntzeko plangintzari ekitea izan zen. Euskarazko eruedetan ari ziren ikasleen guraso ugari eman zuten izena programa honetan eta, Ikastolaren sorrerako filosofiari helduz, hainbat gurasok haurrak euskalduntzeko gurasoek euskaldundu behar zutela ulertu zuten. Filosofia hau, transmisio programa indarrean jarri aurretik zenbait urtez lozorroan egon baldin bazen ere, eragile garrantzitsua izan zen indarrean egon zen bitartean.

Euskara ikasten edo alfabetatzen ari ziren heldu guziek ez zuten Lezoko euskaltegia aukeratzen. Arrazoi desberdinak zirela medio euskaltegiak sortzen hasi zirenetik hainbat lezoarrek eskualdeko edo Donostiako euskaltegi eta barnetegietan ematen zuten izena (1986-7 ikasturtean 58 herrian, 77 herritik kanpo, orotara 135 ikasle). Dena den, Lezotik kanpo ikasteko joera proportzionalki gutxitzen joan zen. Oroitzene AEK Euskaltegia zabaldu zenetik erdiak bertan eman zuen izena (159 ikasletatik 85 Lezon matrikulatuak 1991an).

Ikasle kopurua handitu zen heinean helduen euskalduntze alfabetatzearen eskaintza zabaldu eta aberastu egin zen: ordutegi zabala, euskalduntze urrats guziak, alfabetatzea, guraso taldeak, EGA, gazte taldeak...

Gau-eskolen garaian bezala, eskola orduetan nahiz hauetatik kanpo, kultur iharduera ugari antolatu zen ikasleei begira, nahiz herriari begira eta herriko bizitza sozial eta kulturalean parte hartze aktiboa izan zuen AEKK. Euskara ikastea euskaltegi barneko lana ezezik gizartearen lana ere bazela azpimarratuz, ikasleak Lezoko bizi-moduan txertatu eta euskaldun giroa sortzea izan zuen bere lanaren oinarri.

Helduen euskalduntzearen bizitza, ordea, gaitza izan zen Lezon

eta Euskal Herri osoan. Hasieran gabezia pedagogiko eta materialak izan ziren, geroago administrazioarekiko harremanak hainbat gora-behera ekarri zuen.

Euskaltegiak Arauzpetzeko 29/1983 legeak, sail horretan lanean ari zirenen adostasunik gabe egina, AEK, Lezon nahiz Euskal Herri osoan, egoera oso txarrean aritzera behartu zuen. Eusko Jaurlaritza nahiz zenbait alderdiren aldetik AEKren kontra egindako kriminalizazio kanpainak ez zuen batere lagundu euskara ikasi nahian zebiltzanek euskara ikas zezaten.

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzeak geroz eta behar handiagoak zituen arren, administrazioak Lezon edo antzeko herrietan nahiz AEKn euskara ikasi nahi zuten guziak baztertzeko zituen. Jakin beza irakurleak Lezon AEK desagertuz gero aukera bakarra euskara herritik kanpora ikastea zela, legeak ez baitzuen 10.000 biztanletik beherako herrietan udal euskaltegirik onartzen, eta gainerako euskaltegiei diru laguntza oso eskasak bideratzen zizkien. AEKren borondate finkoari esker eta Lezoko Udalaren laguntzarekin, ordea, Lezon Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari (HEA) eutsi zitzaion aro honetan eta baita ondorengo urteetan ere.

## **Eliza**

Hezkuntzaren atalean dotrinaz hitz egin badugu ere, aro honetan Lezoko erlijio bizitzaz gauza gehiago esan daiteke. Funtsean aro hau aurreko aroaren azken urteetako joeraren jarraipena da, ordutegi desberdinetan euskarazko eta erdarazko elizkizunak eskaintzen ziren, bakoitzari zegozkion hitzaldi eta kantuekin. Banan-banako aitortzak irauin zuen bitartean, berriz, aitorlearen esku egon zen hizkuntza hautatzea. Idatzizko agirietan ere euskara eta erdara erabili ziren, biak maila berean. Parrokiko gazte taldeek egindako ikerketa baten arabera 1982an 644 pertsona joaten ziren astero euskarazko elizkizunetara eta 257, berriz, erdarazkoetara. Hiru urte beranduago, 1985ean, euskarazkoetara berrehun lagun gutxiago joaten ziren (427) eta erdarazkoetara hogeitamar gutxiago (227). Datu hauetan argi ikusten da elizak euskaldunen artean geroz eta eragin txikiagoa

zuela garai hartan.

Lezoko gizartean eta Euskal Herrikoan gertaturiko aldaketen ondorioz eliza katolikoak aurreko aroetan izan zuen garrantzia eta eragina galdu zituen. Aro honen hasieran oraindik ere dotrina eta sendotzako taldeek hainbat gazte bildu arren geroz eta gutxiago ziren eta ez zioten herriari bere garaian luistarrek edo JOC-eko gazteek egiten zioten ekarpenik egiten.

Ekaitz eta Aske aldizkaria izan ziren aro honetan, eta batez ere Jose Luis Aperribai apaizaren bultzadaz, Lezoko herriari egindako bi eskaintza nagusiak erlijiozkoaz gain. Aske aldizkariak Jose Luis Aperribai apaizaren laguntza izan baldin bazuen ere, ez zen elizaren menpeko aldizkaria izan. Aske aldizkaria 1988.ean desagertu zen eta Ekaitz, berriz, egundo bizirik da. Zorionez, elizaren eragina gutxitzeak ez zuen herriko gizarte eta kultur bizitzaren apaltzerik ekarri, aberastasuna baizik.

## **Elkarteak**

Aurreko aroan hasi zen gizarte ekimena indarra hartzen eta horren eraginez sortu ziren Guraso Elkartea, Ikastola, Allerru eta Ixkulin (1975), besteak beste. Aro honetan joera horri eutsiko zitzaion eta elkarte batzuk desagertu edo ahultzen hasi baziren ere berriak sortu ziren. Lezoko elkarte eta taldeek aro honetan ekarpen garrantzitsua egin zioten Lezoko gizarte eta kultur bizitzari.

Lezoko elkarten artean: alderdi eta mugimendu politikoak izan genituen (EA, EAJ-PNV, EE, EMK, EUE, HB eta ezker abertzalea, PSE-PSOE), mugimendu sozialak (Guraso Elkartea, Ikastola, Haurtzaindegia, Lezotarrak dendari elkarte, Antxillastegi baserritar kooperatiba, Altamira eta Pisbeko auzo elkarteak, Askagintza, Egin egunkariaren aldeko batzordea, Euskaldunon egunkariaren aldekoa, Elkarten Koordinakundea, Karitas, Odol-Emaileen Elkartea) erlijiosoak (Lezoko parroikia), gazte taldeak (Txerrimuño, Intsumitu Taldea, Jarrai, Gazte Asanblada, Gazte Herri, Altamirako Gazteak), Kirol elkarteak (Allerruren futbol, mendi, eskubalo, ehiza, txirrindularitza sailak, Ixkulinen traine-rua, herri kirolen taldea, Rugby Taldea), kultur elkarteak (Allerru, Tiñelu,

Ixkulin, Dantza taldea, Zine Kluba), musikaren ingurukoak (Txistulari taldea, Elizako Abesbatza, Txinparta Abesbatza, Urantzu dultzaina joleak), errepresioaren aurkakoak (Amnistiaren Aldeko Batzordea, Preso, Errefuxiatu eta Deportatu Senideak), ekologiaren aldekoak (Komite Antinuklearra, Eguzki, Ekologi Taldea, Leitzarango Autobidearen Aurkako), euskaltzaleak (AEK, EHE, Euskara Taldea, Korrika Batzordeak), feministak, sindikatuak, internazionalistak...

Aberatsa oso, beraz, aro honetako Lezoko gizarte bizitza. Hauetariko bakoitza banan-bana aztertzeak luze joko luke eta gure helburutik urrunduko gintuzke. Bestalde, ez dago gai honi buruzko datu askorik, bertan ibilitakoek diotena besterik. Gure ustez argitasunaren izenean egokiena Lezoko eremu honi buruz SIADECOk dioena laburbiltzea izango da; eta horrezaz gain gure kupeleko zenbait iritzi gehituko dizkiogu.

#### Kultur Elkartek eta gizarte erakundeak

Lezon elkarteek garrantzia handia zuten, eta dute, eremu aberatsa zelako, herriko gizarte bizitzan parte hartzen zutelako eta herritarren aisialdian, batez ere haurrenean, protagonista zirelako. Ikus dezagun zein zen egoera:

Hizkuntzaren ezagutza begiraturaz, herriko elkarteetan herriko batz bestekoa baino altuagoa zen euskararen ezagutza bai zuzendaritzan (% 68,7), bai bazkideen artean (% 67). Zuzendaritzan, bestalde, euskaraz alfabetatuak erdiak inguru ziren. Gazte jendeak osaturiko elkarteetan, berriz, noski, ia denak.

Gazteak biltzen zituzten elkarteak ziren euskaldunenak maila guzietan (bazkideen artean nahiz antolatzen zituzten ekintzetan), zenbat eta gazte gutxiago elkarteetan orduan eta euskaldun gutxiago. Elkarteetan barne bizitzan ahozko harremanetan euskara nagusi zuten elkarteak erdia inguru ziren. Bazkideen euskara ezagutza, ahozko harremanak eta erabilpen idatzia kontuan hartuz, berriz, euskara nagusi zen elkarteak 8 ziren, euskararen presentzia zabala zuten elkarteak 9 eta erdara nagusi zen elkarteak 11.

Antolatzen zituzten ekimenetan euskarak eta euskal kulturak leku

zabala zuten. Gazte elkarteek antolaturiko iharduera ia denak euskarazkoak ziren. Gainerako elkarteek antolatzen zituzten ekimenen artean, berriz, parez pare zebiltzan euskarazkoak eta erdarazkoak, euskarazkoak, hala ere, gehixeago ziren.

Elkarte hauek zituzten monitoreen artean gazte taldeetan denak euskaldunak ziren; helduen elkarteek zituztenen artean, aldiz, erdia inguru erdaldunak ziren. Monitore erdaldunak kirol ihardueretan zeuden. Nabaria zen, beraz, 1992ko datuen arabera, Lezoko kultur eskaintzan ageriko hutsunea zegoela monitoreen hizkuntz soslaiari zegokionez.

Hau guzia ikusirik gure aburuz azpimarratzekoa da aro honetan Lezoko elkarteen aldetik Lezoko kultur bizitza euskalduntzeko egin zen ahalegina. Elkarteen barne bizitzan, erdarazko harremanek bizi-rik jarraitu baldin bazuen ere (gogora SIADECOn ikerketaren arabera euskaldunen artean erdaraz aritzeko arrazoi nagusia ohitura dela), herriari begirako eskaintzan euskara eta euskal kulturari leku nagusia emateko ahalegin handia egin zen.

Bestalde, sortu ziren elkarte gehienek bertako izaera, ekonomia, kultura, natura, hizkuntza eta gizarte bizitza hobetzea izan zuten helburu. Guzien artean PSE-PSOE zen Euskal Herritik kanpoko iriz-pideei erantzunez sortu eta aritu zen bakarra.

### **Alderdi Politikoak**

Elkarte guziak oro har hartuta jorratu baldin baditugu ere, lehenago irakaskuntza edo aisialdiaren ingurukoak jorratu ditugun bezala, oraingoan alderdi politikoak hartuko ditugu hizpide. Alderdi politikoek alor honetan garrantzi handia izan zuten, udalgintza alderdien bidez bideratzen baitzen. Ikus ditzagun aro honetan Lezon izandako alderdiak, hauen ezaugarri politikoak eta alor honetan izandako iharduera:

EA: 1987ko hauteskundeetan plazaratua, ordezkaritza euskalduna izan zuen. Bat egin zuen euskararen normalkuntzaren bidean Lezoko udalak emandako urratsekin eta bide horri eutsi zion alkatetzan egon zen bi urteetan (91-92).

EAJ-PNV: Lezon tradizio luzeko alderdia dugu, gerraurrean eta frankismo garaian euskaren aldeko militanteak eman zituenak. Transizio garaian herriko mugimendu euskaltzalean zuen lekua hutsik utzi zuen eta udalgintzan jarri zituen bere indar guztiak. Udaltzaleak izan zituen agintaldi guzietan eta denak euskaldunak izan ziren. Azpimarratzekoa zen gainerako alderdi abertzaleetan euskaraz alfabetaturiko hautagaiak plazaratzen ari ziren bitartean alderdi honek alfabetatu gabekoak jarri zituela eta herritar, zinegotzi nahiz udal langileekin erdaraz aritzeko joera nabaria zutela. Horrek Lezoko bizitza politikoa euskalduntzen ez zuen mesede handirik egin. Bere ihardueran, EE-renean bezala, azpimarratzekoa da Lezoko AEK-ri diru-laguntzak ukatu izan zizkiola alkatetzan zegoen garaian eta PSOeko zinegotzietan sarbidea eman zuela udalaren gobernuan, euskararik ez jakin arren. Horrek eragozpenak jarri zituzten udal administrazioko euskararen normalkuntza plangintzari.

EE: Gau-eskola eta Ikastolaren inguruko kultur mugimendutik sortua Transizio garaian. Ordezkaritza izan zuen Lezoko udalean 87a bitartean; ondoren, EUE izenez, ordezkaritza izaten jarraitu zuen. Pello Garbizu alderdi horretako kide eta zinegotzi izanak dioenez, EE-k bat egiten zuen garai hartan gizartean sentitzen zen euskararen normalkuntza gogoarekin. Bere udal ordezkaritza euskaldunak izan ziren eta euskara erabili zuten normalean. Azpimarratu beharrezkoa da alderdi honek EAJ-PNVrekin batera, euskararen aldeko jarrera izan arren, besteak beste AEK-ri 1985 eta 1986an diru-laguntzak ukatzearen alde egin zuela nahiz eta Lezon beste euskaltegirik ez izan. Halaber, euskararik ez zekiten PSOeko bi zinegotzietan sarbidea eman zuten udalaren gobernuan, udalaren euskalduntzeari eragozpen gehiago jarritz.

EMK: 1979ko udal hauteskundeetarako eman zuten izena eta zinegotzi bat eskuratu zuten. EE eta Independenteeekin bat eginik Patri Urkizuren alkatetzaren alde bozkatu zuen eta agintaldi horretan euskararen alde emandako urratsak babestu zituen. Zinegotzia eta hautagai gehienak euskaldunak ziren.

HB: 1979an sortua, 1983ko udal hauteskundeetan aurkeztu zuen

lehen aldiz bere hautagai zerrenda. Bere ordezkari guziak euskaldunak izan dira beti eta alfabetaturiko hautagaiak geroz eta gehiago izan ziren. Udal agintean egondako urteetan burutu ziren Lezon euskararen normalkuntzaren aldeko gertaera nagusiak.

Independienteak: 1979ko udal hauteskunderi begira sortutako hautagai zerrenda izan zen. Hautagai euskaldunak izan zituen eta euskara eta euskal kulturaren aldeko lanean ezagunak zirenak. Arestian esan bezala, orduko egoeran udala eta herria euskalduntzeko lehen urratsak eman zituen.

PSOE: 1979az geroztik zituen hautagaiak Lezon. Zerrendetan beti hautagai erdaldunak jarri zituen. Urteak aurrera joan ahala, alderdi honek ez zuen hautagai euskaldunik plazaratu, ez eta lehengoak euskaldundu ere; udal administrazio bizitza euskalduntzeko oztopo nagusietako bat izan zen, batez ere agintean egindako urteetan beren eskura zeuden batzorde eta sailek erdaraz funtzionatu beharra zutelako.

Laburbilduz, aro honetan alderdiek Lezoko euskararen normalkuntzan izan zuten eragin nagusia instituzionala izan zen. Ez zuten udaletik kanpoko euskararen normalkuntzan aparteko ardurarik izan. Tamalgarria da, ordea, herrian alderdi abertzaleak nagusi izanik aro honetan ez adostu izana normalkuntzarako plan bat alderdi eta gizarte erakundeekin, eta horren ordez, agintaldi bakoitzean buru zegoena plangintzarik gabe aritu izana.

## **Udala**

Lezo historikoki herri abertzale eta euskaltzalea izateak Lezoko udalaren lana markatu zuen aro honetan. 1979an izan ziren lehen hauteskunde demokratikoak udal batzarra aukeratzeko eta aro honetan izandako alkate guziak alderdi abertzaleetako ordezkari eta euskaldun alfabetatuak izan ziren. Poliki-poliki indartu ziren udalak euskalduntzearen alde burututako ekimenak. Alkatetza bakoitzak, noski, bere gisara burutu zuen lan hori eta, zoritxarrez, azpimarratzekoa da aro honetan ez zela Lezoko udala eta herria euskalduntzeko plangintzarik egin. Beraz, plangintzarik ezean urrats garrantzitsuak eman



diren arren, beti une bakoitzeko egoeraren arabera izan ziren.

Udal mailan aro honetan emandako urrats garrantzitsuenetako bat langilegoa euskalduntzea izan zen. Helburua udal langileek beren lana eta herritarrekin zuten harremana euskaraz burutzea izanik, Lezoko udalean gaitasun hori eskuratzeko zenbait urrats eman ziren, langileak euskalduntzeko bideak jartzea besteak beste. Dena den, aroaren amaierarako Lezoko udalean langileen arteko euskararen erabilpenari zegokionez hutsune handiak zeuden. Gehiengoa euskalduna izan arren, euskaldunen arteko ahozko harremanean erdara sarritan erabiltzen zen eta idatzizko lanean, berriz, gehienetan. (Ikus SIADECOn ikerketa).

1979: Patri Urkizu izan zen aro honetan demokratikoki hautatutako lehen alkatea eta berak eman zituen euskara udal bizitzan normaltzeko lehen urratsak. Lehen egunetik plenoak euskaraz egiten hasi ziren, eta ulertzen ez zuenari besteren batek itzultzen zion “eta aurrera”, halaxe dio Patri Urkizuk berak. Horretan idazkariarekin



AEKko ikasle taldea

arazoak zirenez, aktak eta gainerakoak euskaratzeko eta behar bezala jartzeko itzultzaile bat kontratatu zuen udalak. Euskal Herri osoan aro honetan udal lanetarako hartutako lehen itzultzailea Lezoko udalarena izan zen. Eta geroztik euskarari ordura arte izan ez zuen edo ukatu zitzaion lekua emateko urratsak hasi ziren: akta guztiak euskaratzea, jaietako programak elebitan, UEU-ra joateko laguntzak, ikastolarentzat ere bai, lanpostu berrietan euskara balioestea... “Gure neurri apalean ahal genuena egin genuen” honelaxe laburbiltzen du Patri Urkizuk urte haietan egindako lana. Bere iritziz “oso bide naturala izan zen, ez genuen arazorik izan. Aurrekontuetan ere euskarari egin genion lekua, eta honetan adostasuna zen gure artean, alderdi guztien artean” (EAJ-PNV, EE, EMK, Independienteak).

Administrazioaren euskalduntzean hasitako bidean ez zen sakondu hurrengo legegintzaldian (1983-87). Hartutako erabaki horiei etsi zitzairen baina besterik ez zen egin. Agintaldi honetan, herriko elkarte eta erakundeekin izan ziren liskarrek ez zuten batere lagundu, eta euskarari dagokionez, besteak beste, AEK-ri udalarekin hitzarturiko laguntza ez emateak agerian utzi zuen orduan agintean zeuden alderdien borondatea (PNV, PSOE, EE) herriko mugimendu euskaltzalearekiko. Gogoan izan beharko genuke garai hartan herrian ez zegoela beste euskaltegirik eta legearen arabera euskara ikasi nahi zuten lezoarrek Errenteriako Udal Euskaltegia zutela gertueneko aukera.

Agintean zeuden alderdietako ordezkarien jarrera ez zen ordezkari abertzaleengandik espero zitekeena izan; udal batzarretan, langileekin nahiz herritar askorekin erdaraz mintzatzen zen Arantza Zeberio EAJ-PNVko alkatea, eta PSOEko bi zinegotziek, berriz, ez zekiten euskaraz. Bi zinegotzi hauen kasuan, beraz, beren ardurako batzordeetan nahiz langileekin zituzten harremanetan edo barne funtzionamenduko agiri guzietan, erdara ezinbestekoa bihurtu zen.

87-91 agintaldian udal talde berriak (HB), Mikel Arrizabalaga buru zela, Udalaren euskalduntzeari beste bultzada bat ematea erabaki zuen. Euskara Zinegotzi izan zen Iñaki Zipitriak dioskunez “talde hura euskaraz lan egiteko prestatu zegoen eta taldeko funtzionamendu

osoa euskarazkoa zen". Honela, agintaldi honetan Lezoko udalak zenbait erabaki garrantzitsu hartu zuen. Besteak beste, Euskara Batzordea sortu zuen eta honekin batera Euskararen Udal Araudia eta Euskara Zerbitzua. Horrezaz gain, langilegoaren euskalduntze plangintzari ekin zion udal funtzionamendua euskalduntzeko, AEKrekin hitzarmenak sinatu zituen (bata orokorra eta bestea familien euskalduntzeko), euskararen erabilera sustatzeko udaleku irekiak antolatu eta gainerako administrazioekin euskarazko harremana burutzeko urratsak eman zituen. Horrezaz gain, agintaldi honetan udalaren barne funtzionamenduan euskararen erabilera hedatzen hasi zen. Berriro ere, aro honetan PSOEko zinegotziak erdaldunak izateak eragozten zuen hauek parte hartzen zuten organoetan euskara hutsez funtzionatzea.

Agintaldi honekin amaitzen da aztergai dugun epea, eta Lezok euskararen egoerari buruzko datu handirik gabe jarraitzen zuen. Azken gobernu taldeak berariaz erabaki zuen azterketa atzeratzea, honen ondorioei aurre egingo zien euskara zerbitzua prest izan arte. Azterketa hori hurrengo agintaldian burutu zen eta berorren emaitzekin amaitzen da gure ikerketa.

## **Euskalgintza**

Aro honetan Lezon zeuden erakunde euskaltzaleak AEK, EHE eta Euskara Taldea ziren.

AEKk ibilbide luze eta sakona egin zuen Lezon, 1981ean sortu baitzen, eta helduak euskaldundu eta alfabetatzeaz gain, hamaika kultur ekitaldi antolatzen zuen, bai eta hainbat kanpaina ere herritarren kontzientziaketarako (Matrikulazio kanpainak, Korrikak, Argia Egunak,...).

Herriko kultur bizitzan eragile garrantzitsua izan zen. Elkarteen koordinakundean, Jai, Kultura eta Euskara Udal batzordeetan, Euskaldunon Egunkariaren aldeko batzordean... Lezoko AEK aro honetan herriko bizitzan euskara eta euskal kulturarekin loturiko gune zabal guzietako partaide eta hein batean dinamizatzaile izan zen.

Azpimarratzekoa da aro honetan EHE eta ondoren Euskara Taldea sortu baldin baziren ere gutxi iraun zutela eta AEK izan zela euskal-

gintzaren ordezkari iraunkor bakarra.

1987an sortu zen EHEren taldea. Urte bete inguru iraun zuen eta bitarte horretan euskararen aldeko kanpainez gain, besteak beste administrazioa euskalduntzeko kanpaina, kultur astea eta zenbait ekitaldi antolatu zuen. Ekintzarik sonatuena PSOEko zinegotziak euskararik ez jakiteak udalaren euskalduntzeari zekarzkieon kalteak salatzeari izan zen. Salaketak oihartzuna izan zuen, baita hedabideetan ere, batez ere, zinegotzi horiek beren kontrako erasotzat hartu zutelako euskara ikas zezaten eskatzea. Gaur egun, hamabi urte berandua da, egoera berean jarraitzen du auziak eta zinegotzi horiek ez dute euskararik ikasi.

Euskara Taldea 1991. urtean sortu zen eta urtebete eskas iraun zuen, ez zuen eragin handirik izan eta bere kideak euskararen aldeko kanpainetan laguntzen aritu ziren batipat.

### **Ezagutza eta erabilpena**

Euskararen ezagutza eta erabilpenaz lehen ikerketa SIADECOK 1993an aurkeztu zuena da. Horren aurretik eroldako datuak eta erabilpenaren neurketa gutxi batzuk besterik ez dugu esku artean. Dena den, 1981 eta 1993 bitarteko datuak kontuan hartuz (horren aurreko datu zehatzik ez baitago), Lezon euskararen galera eten eta berriro ere indartze bidean dagoela adierazten diguten datu zehatzak ditugu. 1981-93 urteen artean Lezon errolda bidez lorturiko datuen arabera, lezoarren artean bere burua euskalduntzat zutenak geroz eta gehiago ziren (1981: % 43,2 eta 1993an % 54,5). Geroz eta gutxiago ziren, berriz, ia-euskalduntzat jotzen zutenak bere burua (% 21,8tik % 20,7ra) eta erdaldunak (% 34,9tik % 24,8ra). Beraz, Lezon euskararen ezagutza hedatzen ari zen.

Erroldaren datuak kontu handiz hartu behar badira ere, bistakoa da euskara geroz eta hedatuago dagoen herri baten ezaugarriak zirela Lezok: alfabetatuak geroz eta gehiago, euskalduntzen ari zen multzo ia-euskalduna eta geroz eta gutxiago ziren erdaldunak. Beraz, SIADECOK datu hauen aurrean “Lezoko udalerrian hizkuntz komunitatea artikulatzen hasteko zenbait elementu ematen” ari zirela zioen.

Alegia, poliki bazen ere, Lezon euskara komunikazio hizkuntza nagusia zen egoerara itzultzeko bidea egiten hasi ginela.

Dena den, euskara jakitea ez zen aski, erabili ere erabili beharra zegoen. SIADECOK 1992an egindako kale neurketaren arabera euskaraz ari zirenak % 37,6 ziren. 1986ko eroldaren arabera euskararen ezagupena % 46,5ekoa zen, beraz, Lezoko euskaldunak fideltasun handikoak zirela esango dugu, alegia, ahal zuten guzietan erabiltzen zutela euskara. Euskara erabiltzen zutenen artean haurrak eta edadeko jendea zegoen egoerarik onenean, erdia baino gehiago euskaraz ari zen, eta horrek batz besteko erabilpena gainditzen zuen; gazte eta helduen artean berriz, euskararen erabilpena batz bestekoa baino askoz apalagoa zen.

Datu hauetan ñabardura gehiago ere ikus daiteke, esaterako, haurrek euskara gehiago erabiltzen zutela astean zehar asteburuetan baino eta euskara gehien erabiltzen zuten gazteak euskaltegia, Txerrimuño eta Ekaitz inguruan zebiltzanak zirela. Euskararen erabilpena sozialki begiratzuz, nabarmena zen hobekuntza zein sektoretan gertatu zen; haurren artean. Gizarteko sektorerik erreferentzialenen artean, berriz, ez zen halakorik gertatu.

Erabilera datuak urtez urte hartuta 1990 (neurketa egin zen lehen urtea) eta 1993 bitartean ez zen aldaketa handirik somatzen: 1990 ean %35,2, 1992an % 32,7 eta 1993an %37,6. Izan ere, denbora tarte laburregia da joerak finkatzen ikusteko. Dena den, argi dago hiru neurketa hauetan batz beste hamarretik sei-zazpi erdaraz ari zirela.

Beraz, fideltasuna eta erabilera datuak kontuan izanik, euskararen ezagutza zen aro honetan euskara ez erabiltzeko oztopoetako bat. Ez da bakarra, ordea; izan ere, euskara ikasi zutenek ez baitzuten beti euskaraz hitz egiten, batzuetan ohituragatik, besteetan motibazio faltagatik edo euskaldunek erdaraz hitz egiten zietelako. Ez gara honetan sartuko oraingoan; hemen, ordea, bada, sakon aztertu beharreko gai bat. Ezin da esan, besterik gabe euskararen gaitz nagusiak euskaldunek ez erabili izanari zor zaizkionik, ez eta euskara jakitea aski denik, batez ere jatorriz euskaldunak ez direnen artean, euskara erabiltzeko.

Jatorriz euskaldun eta alfabetatu gehienak 25 urtetik beherakoak ziren, adin horretatik gorakoak gutxi ziren ahalegin hori egin zutenak. Jatorrizko erdaldunak zirenen artean, berriz, 20 urtetik beherakoak ziren euskara ongi ikasi zutenak. Adin horretatik gora gutxi ziren euskara ongi ikasi zutenak. 40 eta 60 urte bitarteko multzoan batere ahaleginik egin ez zutenak zeuden. Euskara ongi ikasi zuten horien artean Gipuzkoan jaiotakoak ziren nagusi.

Etxean erabiltzen zen hizkuntza, berriz, gaztelera zen lezoarren erdia baino gehiagorentzat. Horrek esan nahi du euskaldun familia zenbaitetan ere erdara zela komunikazio hizkuntza bakarra; euskaraz ez zekien senide bat egoteak edo kaleko ohitura etxera eramateak eragiten zuen hori. Euskara bakarrik erabiltzen zutenak, berriz, herena ziren.

1986 eta 1991ko datuen arabera, berriz, lezoarren erdiak zuen ama hizkuntza euskara eta beste erdiak erdara.

Beraz, Lezoko gizarte bizitzan hutsune handiak zeuden aro honetan bai ezagutzan baita erabilpenean ere. Datu hauek, ordea, beste batzuen ondoan jarrita aztertu behar dira:

\* Inkesta egin zenean, Lezoko biztanleen bi heren pasatxok ez zekien euskaraz edo erdara euskara baino hobeto menderatzen zuen.

\* Lezoko familietan euskara erabiltzen zutenak % 20 eta 30 bitartean zeuden.

\* Euskara maizen familian eta erosketetan edo irakaslearekin erabiltzen zen; lankideekin edo aisialdian, berriz, gutxien. Hau euskaldunen arteko joera nagusia izan arren, jatorrizko euskaldunak zirenen kasuan bakarrik zen erabat egia. Jatorriz erdaldun izan eta euskaldundu zirenek ezin zuten familian erabili eta hortik kanpora aukera gutxi izaten zuten euskara erabiltzeko, seme-alabekin ez baldin bazen.

\* Euskaldunek erdaraz aritzeko zuten arrazoi nagusia ohitura zen. Alegia, euskaldunen arteko harremanean erdaraz egiteko ohitura ezarrita baldin bazegoen, ohitura horri eus-

ten zitzaion. Kontuan izan dezagun, halaber, aski zela erdaldun bat aurrean izatea euskaldunak automatikoki erdarara pasatzeko. Egoera honetan oso erraza zen erdaraz aritzeko ohitura finkatzea.

\* Lezoarren artean hiru laurdenetik gora ziren euskaraz liburu bat irakurri ez zutenak, erdaraz irakurri ez zutenak berriz, erdia baino gutxiago. Euskal prentsa, berriz, oso gutxik irakurtzen zuten. Diska eta kasetekin aldiz, lezoarrek euskarazkoak erosteko joera handiagoa zuten erdarazkoak erosteko baino.

\* Erdaldunen artean euskararik ez jakitearen hutsunea esparru guzietan nabarmen % 38,1-ek sentitzen zuten, lagun artean edo lanean sentitzen zutenak gutxiago ziren (%19,1 eta %9,3). % 19,6k, aldiz, ez zuen inolako hutsunerik sentitzen.

\* Gehienek uste zuten euskaldun izateko aski zela euskaldun sentitzea, ez zegoela euskaraz jakin beharrik.

\* Euskara galtzen ari ziren euskaldunak geroz eta gutxiago ziren, eta gazteen artean ia ez zen halakorik topatzen. Hala eta guztiz ere, zaila zen Lezon erdararik jakin gabe bizitzea. Erdararik jakin ez edo trakets moldatzen zirenak haur eta adinekoen artean zeuden soilik.

\* Familia bidezko transmisioa eta ezagutza ziren euskarari eusteko indar nagusia. Bi gurasoetako batek euskararik ez baldin bazekien (ez zekiena ama zenean batez ere) euskara transmititzeko aukerak asko murrizten ziren.

Beraz, ezagutza eta erabilera datuek adierazten digutena baino askoz korapilotsuagoa zen egoera eta une horretan euskara erabilteza eragozten zuten faktoreak ziren indartsuenak. Erdara nagusi zen eremu guzietan eta euskarari eutsi ziotenek horretarako borondate finkoa zutelako izan zen.

Euskararen presentzia gizarte zerbitzuetan.

Lezoko denda, taberna, eta gainerako zerbitzuetan lan egiten zuten artean euskararen ezagutza herriaren bataz bestekotik hurbil zegoen (% 55,9). Dena den, eta langileen artean alfabetatuak heren bat inguru izan arren, euskarak presentzia urria zuen ahozko nahiz idatzizko komunikazioetan. Euskara bezero jakinekin eta ageriko elementu sinbolikoekin bakarrik erabiltzen zen. Gaitasuna eta erabilpenaren artean zegoen aldea izugarria zen.

#### Lan munduan

Lezoko lan munduan euskararen ezagupena herriaren bataz bestekoa baino askoz beherago zegoen (% 31,5 bost langiletik gorako entresatan). Bertan lan egiten zuten langile gehienak ez ziren lezoarrak eta lankide nahiz hornitzaileekin erabiltzeko aukera zegoenean ere ez zen erabiltzen kasu gehienetan. Egoera oso kaskarra zen, halaber, idatzizko komunikazioetan eta lan hitzarmenetan, gutxi ziren euskara ikasteko aukera eskaintzen zutenak.

#### Komunikabideak

Herriko kroniketan *Egin* eta *El Diario Vasco* ziren Lezoko kronika zuten egunkariak eta hauen artean *El Diario Vasco*-k berrien % 15ean erabiltzen zuen euskara, Eginek, berriz, berrien bi herenetan.

#### Aldizkariak

*Lezo* aldizkaria: 1988an sortu zenetik euskara nahiz erdaraz sorturiko artikulua argitaratzen zituen. Urteen poderioz, ordea, aldizkariak izandako bilakaera euskararen aldekoa izan zen, eta geroz eta gehiago izan ziren euskaraz argitaraturiko artikulua erdarazkoen aldean. Joera honek agerian jartzen du zein zen garai horretan Lezoko idazleen joera, artikulua hizkuntza hautatzea idazle bakoitzaren esku baitzegoen.

*Aske* Aldizkaria (1985-1988): aldizkari hau herriko gazte talde batek eta Joxe Luis Aperribai apaizak osaturiko batzorde batek argitaratu zuen eta euskara hutsezkoak izan ziren ale guztiak.

*Laezon* udal aldizkaria: artikuluen erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz argitaratu ziren iraun zuen bitartean.

*Zartako*, Txerrimuñoren urtekaria. Urtean ale bakarra kaleratzen



zuen fanzine formatoko aldizkaria. Herriko gazteen ekarpenez osatua zen eta euskaraz idatziak ziren gehien bat.

Bestelako udal argitalpenak: *lezoarrak itsasoan* edo *Trapujale* komikia euskara hutsean argitaratu ziren.

#### Festa eta jaietan

Euskarak presentzia oso altua zuen Lezoko festa eta jaietan. Arreta handiz euskara edo euskal kulturarekin loturiko iharduerak antolatzen ziren eta euskaraz burutzen ziren gehienak. Honi loturiko egitarau eta argitalpenek ere euskarari ematen zioten lehentasuna.

#### Liburutegia:

Aro honetan Liburutegia udaletxean eta Andreonen egon zen. Kokapen aldaketarekin euskara eta Euskal Herriari buruzko argitalpenei leku garrantzitsua egin zien. Erabiltzaileen artean, 1992an 14 urtetik beherakoak ziren nagusi, euskaraz hitz egin edo irakurtzeko gai zirenak. Irakurle hauek euskaraz irakurtzeko ohitura handia zuten, ziurrenik ikasketen eraginez. Helduek, berriz, gutxi erabiltzen zuten liburutegia.

Azpmarratu beharrekoa da liburuzain guziak euskaldunak izan zirela Lezoko udal liburutegian aldi honetan.

#### Osasun zerbitzua

Garai honetan Lezoko osasun zerbitzuak erdara hutsean funtzionatu zuen. Lezoko anbulategian sendagileek, emagin edo praktikanteek ez zekiten euskaraz, eta hauen ordezkoez ere ez gehienetan. Bestalde, harrerako langilea bera ere erdalduna izan zen ia garai osoan. Beraz, Lezoko osasun zerbitzu publikoan ez zegoen euskara erabiltzerik.

Egoera honek hainbat herritar osasun zerbitzu pribatuetara joatea zekarren. Izan ere, erdaraz jakin ez edo trakets moldatzen zirenek nahia-go zuten beren burua horrelako estuasunetan ez sartu. Lezoko udalak arazo hau dela eta salaketa bat baino gehiago jaso zuen aldi honetan.

#### Albaitaritza zerbitzua

Aurreko hamarkadetan ez bezala, honetan herriko baserritarrekin

lan egingo duten albaitari guziak euskaldunak izan ziren. Horrek, noski, asko hobetu zuen egoera eta ordurarteko hizkuntz arazoek eragindako “beldurrezko tratua” gainditzeko bidea jarri zuen.

### **Aroaren balantze soziolinguistikoa**

Ezertan hasi aurretik garrantzitsua da aldi honen garrantzia historikoa azpimarratzea. Lezo eta Euskal Herri osoak frankismoak zapalketaren bitartez ezarritakoa atzean uzteko zuen borondatea nagusi zen; hori egin ahal izateko tresna egokiak behar ziren, ordea.

Euskararen historia sozialari dagokionez aro honek ekarri ziona ideia nagusitan laburbildu behar bagenu, lau ideia nagusi azpimarratuko genituzke:

\* Lezoko gizarte bizitzan frankismoak euskararen egoera soziolinguistikoari eragindako atzerakada, lege (1978ko konstituzioa eta Gernikako Estatutua) ezarrita gelditu zen. Egoera aldatzeko tresnak (legeak ezarri eta betearazteko esku-mena) ez zeuden Lezoko herriaren eskuetan, ez eta Euskal Herriko inongo erakunderen eskuetan ere.

\* Frankismo garaian hedaturiko euskararen menpekotasun araua inoiz baino gehiago indartu zuen konstituzionalki ezarritako elebitasunak. Honela, lezoarrek frankismo garaian nahiz ondoren, erdarara jo beharra zuten ezinbestean erdara erabiltzen zen kasu guzi-guzietan (kasu gehienetan, beraz).

\* Hezkuntzan egindako ahaleginen ondorioz, gazteenen artean euskararen ezagutza eta erabilpena indartu baldin baziren ere, gizartean garrantzitsuenak eta eraginkorrenak diren adinetan (gaztaroa eta heldutasuna) erdara erabiltzeko joerak nagusi izaten jarraitu zuen aldaketa handirik gabe.

\* Gizarte eremu garrantzitsuenetan (lan mundua, zerbitzuak, hedabideak...) erdara izan zen nagusi eta ez zen lortu egoera hau aldatzeko urratsik ematea.

Beraz, garai honetan ez zen lortu frankismoak Lezon eragindako

“iraultza iraultzea”; alegia, ez zen lortu “justizia historikoa” egitea eta horren ordez, frankismoak lortutakoa legez eta egitez sendotu zen.

Dena den, Lezok eskura izan zituen tresnak zeinen urriak ziren kontuan izanda, euskararen atzerakada eragiten zuen inertzia gainditzeko urrats interesgarriak eman ziren.

Hezkuntza formala eta ez-formala erabat euskaldunduz, administrazioa euskalduntzeko plangintzak eginez; kultur bizitzan euskara eta euskal kulturaren sustapena ahalegin osoz bultzatuz; herritarren borondatea (euskaldun zein ez) normalkuntzaren aldeko bilakatuz...; ahalegin honetan aroaren amaieran oraindik hutsune nabarmenak egon arren (eskolorduz kanpoko iharduerak, osasun zerbitzua, herritarren hizkuntz ohiturak...) emandako urratsen sendotasunak argi adierazten du zein izango den urrats berrien norabidea.

Gazi eta gozoaren arteko balantza honetan orokortasunari heldu nahi izan diogu ondorio nagusiak ateratzeko orduan. Esandakoa, ordea, murriztegia da historia soziala egitean aztergai dugun aldiaren ezaugarri nagusia identifikatzeko.

Aro honetan euskararen normalkuntzan lorturiko emaitza nagusiek ezagutza handitu zuten eta, askoz maila apalagoan, erabilpena. 1940an Lezo ia %100 euskalduna zela kontuan izanik eta erabilpena ere ia neurri berekoa, bistan da Lezoko historian euskarak bizi izan duen atzerakada izugarria izan dela eta oso epe laburrean gertatu zela atzerakada hori.

Herritarren artean euskararen normalkuntzaren aldeko nahia nagusi zen arren, herritar horien berorien eguneroko bizitzan erdarak funtsezko lekua zuen (gogora euskaraz zekitenen artean bi heren hobeto moldatzen zirela erdaraz euskaraz baino) eta egoera hori aldatzeko ezer gutxi egiten zuten. Alegia, euskarari funtzio mitikoa aitortzen zitzaion (gure arbasoen hizkuntza izatearena, gorde beharrekoa, jazarpen historikoa bizi izandakoa...); erdarari, aldiz, fun-

---

<sup>60</sup> Ikus zer dioten honi buruz Nekane Jausoro eta Iñaki Martínez de Lakua: (1995)

“Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak”. *BAT* aldizkaria 27. alea. Edo “Etorbizuna aurreikusten: Euskal Autonomi Elkarteak gaztetxoaren egoera sociolinguistikoa”. *Hizkuntz Politikarako Sailordetza* (1995), Euskara atzo eta gaur. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzak (CD-ROM).

tzionala (erdara da bizitzako esparrurik garrantzitsuenetan erabili behar den hizkuntza “badaezpada”, erdara erabiliaz ez da konfliktorik eragiten, denek ulertzen dute...) <sup>60</sup>.

Beraz, garai honetan gizarte esparru esanguratsuenek erdaldun izaten jarraitzen zuten. Adierazgarria da historikoki horren abertzale eta euskaltzale izandako herri batean, egoera zer-nolakoa zen ikusita, euskara biziberritzeko plangintzarik ez egon izana aro osoan. Alegia, herri osoak adosturiko plangintza, herriko gizarte sail guziak eta administrazioa zein indar politikoak bilduko zituen plangintza. Hutsune honetan nabarmena zen alderdi abertzaleen epelkeriak izan zuen eragina. Izan ere, euskararen alde Lezon eman ziren urrats nagusietako askotan ez baitzuten parte hartu edo egin izan zutenean oztopoak jartzeko izan baitzen sarritan (AEK-ri laguntzak ukatzea edo euskaraz ez zekiten zinegotziak udal gobernuan sartzea).

Herritarrek osaturiko elkarte eta erakundeak izan ziren kasurik gehienetan lehen urratsa eman zutenak (hezkuntzan, kulturaren, administrazioan) eta hauen atzetik joan ziren alderdi politikoak.

Herri elkarteen lanari esker hainbat gauza lortu baldin bada ere (A ereduaren desagerpena Herri Eskolan, euskara hutsezko hezkuntz eskaintza Ikastola eta Herri Eskolan, euskarazko komunikabideak, Helduen Euskalduntze Alfabetatzeak sendo irautea...), nabarmena izan zen mugimendu euskaltzalearen ahulezia.

EHE-k urte bete iraun zuen eta beste hainbeste Euskara Taldeak. Talde ttiki eta eragin murriztekoak izan ziren. Ahulezi hau Lezon bezala Euskal Herri osoan nabaritu zen eta, euskaraz edo euskararen alde lan egin zuten erakunde eta elkarteak izan arren, ez zen lortu hauen guzieren artean herria euskalduntzeko urrats sendoak ematea. Elkarte eta erakunde bakoitza bere lanari lotu zitzaion eta urrats orokorrak edo nagusiak eman gabe gelditu ziren.

Dena den, aldi honen gaitz guziak ezin zaizkio herriko egoerari leporatu. Aro honen ezaugarri nagusietako bat herritarren mugikortasuna izan zen. Aurreko garaian hasi baldin bazen ere, honetan erabat finkatu zen eguna herritik kanpo egiteko joera. Lezoar gehienak lanera edo ikastera hartu zuten bide hori. Aisialdian ere kanpora joa-

teko joera erabat errotu zen. Beraz, herritik kanpo bizitzen hasi ziren lezoarrak.

Gertaera hau oso berria zen Euskal Herriko historian eta, beraz, Lezokoan. Izan ere, lezoarren helmuga nagusiak industria eta zerbitzu gehien biltzen zituzten inguruak izan ziren (Irun, Donostia) eta horietan erdara zen nagusi. Aro honetan, bada, “lezoar petoaren” irudia desagertzeko zorian zegoela esan dezakegu, herritarrek Lezorekin zuten lotura aldatu egin zela eta hein handi batean ahuldu ere, ahuldu egin zela onartu behar dugu. Horrek, beraz, asko zaildu zuen euskararen normalkuntza, batez ere, urrats horiek ez baldin baziren inguruko herri eta eremu sozialetan ematen.

Amaitu aurretik, ordea, esan dezagun garai honen amaierarako euskararen galera prozesua etenda zegoela eta abiapuntu egokian zegoela Lezo euskararen normalkuntza eta Lezoren berreuskalduntzeari ekiteko.



## 4.SINTESIA ETA ONDORIO NAGUSIAK

### BALANTZE OROKORRA ETA ONDORIO NAGUSIAK:

Astindu ederra eman diogu Lezoko historiari ikerketa honetan barna. Aroz aro eta atalez atal informazio ugari eta izaera oso desberdinekoak bildu eta josi ditugu eta orain, esandako guziaren argitan, balantze orokorra egiten ahaleginduko gara. Balantzea, ikerketan bezala, atalez atal egingo dugu. Amaieran, berriz, ondorio nagusiak finkatuko ditugu.

### Ezagutza eta erabilpena

Lezoko herriari buruz esan daitekeen gauzarik ziurrena euskalduna izan dela da. Alegia, euskara izan dela Lezoko herritarrek elkarren artean komunikatzeko erabili izan duten hizkuntza. Lezo euskaldun peto-petoa izan zen, gutxienez Frankismo garaia hasi arte. Herriko giza talde natural guziak euskaraz bizi ziren eta euskarazko harremana zuten gainerakoekin. Bestalde, euskararik ez zekiten etorkinak euskaldundu egiten ziren ezinbestean.

Aurrekoa bezain ziurra da Lezoko herritar guziak ez zirela elebarrak. Alegia, herriko bizitza, eguneroko harremanak, euskara hutsean burutu arren lezoar zenbaitek historian barna egindako ibilbideak hamaika herrirekin harremanetan jarri ditu (erromatarrengandik hasita, zilegi bada). Itsas merkataritza, bale arrantza, edo Espainiako armadaren bitartez, gordea edo administrazioarekin harreman handia izan dute eta, beraz, Lezon beti izan da euskaraz gain beste hizkuntzarik ezagutzen zuenik. Beti izan da ukipena inguruko edo urrunagoko herriekin eta, beraz, hauen hizkuntza eta kulturarekin. (1807an Domingo Maria Errazukoak, garai hartan Lezoko Udaleko idazkari zenak esandakoek azaltzen dute argien egoera hori.)

Hizkuntz ezagupenean, pentsatzekoa da, gora-behera handiak izango zirela eta, esaterako, Lezoko itsas-merkataritza puri-purian zegoen garaian (XVI. mendean) gehiago izango zirela euskaraz gain beste hizkuntzaren bat zekitenak, ondorengo mendeetan baino, lezoarrek itsas-merkataritzaren gainbeherarekin nekazaritzara jo behar izan zutenean baino (Nafarroan Erromako inperioa erori ondorengo mendeetan gertatu zenaren antzekoa).



Ezagupen aldetik benetako aldaketa, ordea, estatu liberalaren sorrerarekin eta, zehatzago esanda, Foruen galerarekin hasi zen. 1876an Foruak indarrik gabe gelditu zirenetik, Madrilen helburua euskaldunek erdara ikasi eta erdaraz bizitzea izan zen (gauza bera egin zuten frantsesek Ipar Euskal Herrian 1789ko iraultzaren ondoren) eta horretarako eskura zituzten baliabide guziak erabili zituzten. Aurreko mendeetan itsas merkataritzarekin gertatu zen bezala, XX. mendean geroz eta beharrezkoagoa gertatu zitzaien lezoarrei eguneroko bizitzan erdara jakin eta erabiltzea. Francoren agintaldiak, behar hori ezinbesteko bihurtu zuen, batez ere kalean bizi ziren lezoarren-tzat. Batetik, euskaraz mintzatzea arriskutsua zelako eta, bestetik, herrian geroz eta gehiago zirelako euskaraz tutik ez zekiten etorkinak.

Beraz, 1940an Lezon bizileku iraunkorra zutenen ia %100 euskalduna baldin bazen ere, garaia amaitzen denerako (1993) % 54,5 zen. Horren urte gutxitan gertaturiko aldaketa horrek, ondorio sakinak izan zituen Lezoko gizarte bizitzan, hizkuntzen arteko ukipen egoerari dagokionez batez ere, eta zehatzago esanda, hizkuntza bakoitzaren indarrari dagokionez. Alegia, garai hau amaitu zenerako Lezon guziz posible zen euskaraz jakin gabe bizitzea, eta are gehiago, ikasi beharrik ez sentitzea. Hori, berrogeitamar urte lehenago ezinezkoa zen.

Erabilpenari buruz antzeko gauza esan daiteke. Lezoko euskararen historian ezagutza eta erabilpena loturik joan dira, euskaraz zekienak euskaraz egiten zuen. Euskara alboratzeko ahalegin historikoek, ordea, arau hori indarrik gabe utzi zuten. Frankismoak euskarari ezarritako debekuak, erdararen ezagutza hedatu eta erabilpena derrigortzeak euskaraz zekien hamaika lezoar erdaraz aritzera behartu zuen eta euskararen gizarte presentzia ahuldu egin zen. Alegia, euskara gutxiago erabiltzen zen eta erabilpen eremu gutxiagotan. Esaterako, frankismo garaian sortu eta hazitako kaleko lezoar askok erdaraz egiten zuen lagun artean (senide, haur eta zakurrekin, berriz, euskaraz), eta beste asko ez ziren euskara menderatzera iritsi.

Dena den, azpimarratzekoa da, erasorik gordinenen garaian ere Lezoko euskaldunek tinko eutsi izana euskarari. Aro amaierako

datuek adierazten duten bezala, Lezon euskaraz zekienak fideltasun handiz eusten dio euskarari eta euskaraz aritzeko ahalegina egiten du aukera duen guzietan.

## Demografia

Demografiarena da ziurrenik arretarik handiena eskatzen digun alorretako bat. Mackeyren bultza-indarren zerrendan demografiaren indarra, populazioaren mugikortasuna eta populazioaren sakabana-keta aipatzen dira.

Hiru arretagune horiek kontuan hartuz Lezori buruz hau esan daiteke:

Biztanle kopuruari dagokionez, Lezo beti herri ttikia izan da inguruko aldean; ttikitasun horri eutsi dio historikoki. Populazioa, ordea, mendez-mende handituz joan da etengabe. Populazioaren hazkundera naturala eta erregularra izan da mende honen bigarren erdialdera bitarte. Izan ere, industri iraultzak eragindako inmigrazioak, eta hobekuntza ekonomikoaren ondoriozko jaiotze tasaren igoerak, Lezoko populazioa bikoiztea ekarri zuten urte gutxian (1940 eta 1970 artean) eta honekin batera, Lezoko historian lehenengo aldiz, (sorrera garaiak alde batera utzita), etorkinen populazioa %21ekoa izatera iritsi zen. Ordura arteko etorkin populazioak ez zuen Lezon bizileku finkorik izan; 1960 ondoren etorritakoak, berriz, bai.

Beraz, demografikoki Lezok garapen orekatua izan zuen bere historian eta azken berrogei urtetan, berriz, hazkunde izugarria gertatu zen. Hazkunde honen protagonista nagusietako bat inmigrazioa izateak egoera soziolinguistikoa iraultzeko oinarri ezin hobea jarri zuen.

Lezok bere historian kanpoko herrieekin harreman ugari izan du, mugikortasun handikoak izan ziren itsas merkataritzaren edo bale arrantzaren garaiak. Zenbait lezoar batera eta bestera zebiltzan mundaian barrena. Hauetako zenbaitek harreman estua izan zuen Madrilgo gortearekin, besteak beste. Mugikortasun hori aberasgarri gertatu zitzaion Lezoko herriari, esperientzia eta ezagutza berritzailez jantzi baitzituzten orduko lezoarrak. Euskal Herria eta euskararen

kontrako presioa handitu ahala, ordea, bide hau indarrrik gabe gelditu zen. Euskara lotsagarri bihurtu zen eta euskaldunek kanpotik zetoren oro bere kulturen integrazteko joera hartu zuten, euskalduntasuna bera hiltzeraino uzteraino gazteleraren mesedetan.

1960ko hamarkadarekin hasitako industri iraultzak eta batez ere petrolioaren krisiak 1975etik aurrera ekarritako makalaldi ekonomikoak lezoarren mugikortasuna handitu zuten, baina batez ere inguruko eskualdeetara eramanez. Geroz eta gehiago ziren bizitza Lezotik kanpo egiten duten lezoarrak, herria lotarako baino erabiltzen ez zutenak. Beraz, mugikortasun hau lanbidearekin lotua zen eta jakin badakigu lan munduan euskarak zer nolako egoera bizi duen azken hamarkadetan. Alta, aro honetako mugikortasunak lezoarren ingurua erdalduntzea eragin zuen.

Hona hemen mugikortasunaren bi adibide kontrajarri soziolinguistika mailako ondorioei dagokionean.

Populazioaren sakabanaketaz hitz egitean sakon sakonean kalea eta baserriaren arteko bereizketa egin behar dugu. Lezoko populazioa bi eremu horien inguruan bildu izan da historikoki. Nahiz eta funtsean Lezoko herritar guztiak nola edo hala baserri bizitza eta ekonomiarekin loturik egon, bereizketa honek indar berezia hartu zuen mende honen hasieran.

Bi dira bereizketa hori indartzeko arrazoi nagusiak gureari dagokionez. Batetik, gizartearen garapena ezinbestean hezkuntzari loturik joateak (erदारaren ikasketarekin, besteak beste) eskolaren garrantzia handitu zuen. Eskola hasiera batean kalean egoteak, edo baserri lanak lantegikoak baino dedikazio handiagoa eskatzeak hein handi batean baserriko seme-alaben, batez ere, urrutieneko baserrietan bizi zirenentzako, eskolatzeko eragozpen larria izan zen. Beraz, baserri-gunea, eskolatzeko maila baxuagoarekin eta historikoki izan duen izaera autarkikoarekin aldatuta historikoen aurrean erresistentzia gune bihurtu zen. Honela bada, baserriguneak bizitu zuen erdalduntzearen eraginik ttikiena, eta bertako populazioak, bestalde, horren gainean eraiki zuen identitate propioa, kaleko girotik bereizten zuena, identitate ezaugarri propioen gainean eraikia, hein handi batean,

euskararen gainean eraikia. Prozesu hau, noski, mende honetan gertatu zen, Francoren agintaldiarekin indartua batez ere.

Baserrigunea baldin badago kaleak ere izan behar du. Alegia, Lezoko populazioa bi kultur gunen horietan bereizi zen. Baserriak identitate propioa eraikitzen duen bezala eraiki zuen kaleak. Identitate horren ezaugarri nagusia ez zen izan industriaren lan egitea, ez eta kale giroan bizitzea ere, hori ere bai, noski. Kalearen ezaugarri nagusia, baserriaren aldean, aldaketen uhinean egotea izan zen. Gizarteak bizi zituen aldaketa horiek zuzen-zuzenean eta lehen unetik bizitzea. Hizkuntzari dagokionez, aldaketa horiek esanguratsu bihurtu ziren Frankismoarekin batera. Frankismoa bitartean Lezoko herriak aldaketa politiko eta kulturaleri nahikoa ongi egin zien aurre, hau da, identitate euskalduna galdu gabe. Frankismoak berarekin ekarri zuen zapalkuntzak, gutxiesteak, eta geroago modernotzeak nahiz ekonomi hobekuntzak Lezoko kale bizitzan elementu berriak jarri zituen (denek erdara ezagutzen zuten; euskarazko kultur produktuak bazterrekoak ziren; erdarazkoak berriz, berri-berriak, indartsuak, erreferentzialak; euskara baserriarekin identifikatzen zen hizkuntza zen Lezon; joera kultural eta politiko berriak erdaran oinarritzen ziren...). Hau da, erdararen aurrean kaleko gizartea baserrikoa baino iragazkorragoa izan zen.

Beraz, demografian, populazioaren mugikortasunean eta sakabanaketan, frankismoaren hasierak inflexio puntua markatu zuen: beste hizkuntza batean mintzo zen populazioaren garrantzia kuantitatibo eta kualitatiboa handitu egin zen; herriaren erreferentzialtasuna (euskarazkoa) eguneroko bizitzan geroz eta ahulagoa zen mugikortasunaren eraginez, eta horren ordez, erdarazko esparruaren erreferentzialtasuna indartu zen (lan munduan edo ikasketetan); hizkuntza dela zio populazioa bi gunetan sakabanaturik egoteak, bien arteko diferentzia kulturalak eraikitzea ekarriko du.

## **Ekonomia**

Lezoko ekonomiaren historiak seguruenik Gipuzkoako kostaldeko ekonomiaren garapena bete-betean adierazten du. Artzantza eta

nekazaritzatik itsas merkataritzarako urratsa berezkoa zen kaia zuen herri batentzat, are gehiago, Pasaia badiaren bezalako babesgune bat izanik. Europa mailako merkataritzaren hasierak edo balearen arrantzak lezoar ugari, aitzurrak eta tolaak utzi eta, itsasora edo untzi-gintzarekin loturiko ihardueretara eraman zuen.

Lezok itsas merkataritza eta balearen arrantzan urte oparoak bizi izan zituen eta horrek lezoar ugari jarri zuen atzerriko lur eta itsasoetako bidean. Madrilgo gortera edo Venezuelako uretara joandako lezoarrek euskaraz gain gaztelera ikasi behar izan zuten gutxienez. Beraz, ekonomia aspaldidanik izan da Lezoko bizitzan hizkuntz ezagutzan eragile.

XIX. mende bukaeran hasitako industrializazioak eta ondorengo urratsek, halaber, lezoarrak bestelako hizkuntz errealitateekin harremanetan jarri zituzten; oraingoan, ordea, herritik ia mugitu gabe eta menpekotasun egoera larrian. Lehenik Erreterian eta ondoren Lezon ezarritako industriak kanpoko arduradun eta teknikoak izan zituen (XIX eta XX. mendeko udal erroldetan Alemania edo Frantziatik etorritako injinariak bat baino gehiago dira); geroago, berriz, industria indartzearekin batera, teknikoez gain eskulangileak behar izan ziren. Frankismoan gertaturiko ekonomi hazkundeak Espainiako eremurik behartsuenetako eskulangile ugari erakarri zuen bai Lezora eta bai Euskal Herri osora. Prozesu ekonomiko honen ondorioak tragikoak gertatu ziren euskararentzat. Batetik, populazioaren egoera soziolinguistikoa irauli zuelako (frankismoaren jazarpenak lagundurik) eta, bestetik, euskarari arrotza zaion eremu berri bat finkatu zuelako: Industria eta zerbitzuak. Alegia, gizarte berriaren jainkoetako bat (zientziarekin batera) industria zen eta industria horrek ez zuen euskararik ulertzen.

Lanbide tradizionalan euskaraz mintzo ziren, industria berri honetako langilea, berriz, erdaraz: erdaldunak nagusiak, erdaldunak teknikariak, erdaldunak bertako produktu eta makinaren izenak, erdalduna produkzio prozesu osoa. Eta euskaldunak erdarazko mundu horretan murgildu behar zuten.

Ekonomiaren alorrean bukaerarako utzi dugu gaskoinen eragina. Jakin badakigu Lezo-Pasaia-Donostiak gaskoin etorkinak hartu zituela

eta hauek garrantzia handia izan zutela bertako ekonomian (artisansa eta merkataritza) eta administrazioan. Datu zehatz askorik ez baldin badugu ere, merkatal harreman agiriak gaskoinez ere egin izan ziren. Beraz, bertako biztanleek, batez ere merkataritzan zihar-dutenek, gaskoina ikasi behar izango zuten. Ez dirudi, ordea, honek populazio osoarengan eragiten zuenik, multzo ttiki batengan baino. Eta bestalde, horrek ez du esan nahi gaskoinek euskararik erabiltzen ez zutenik.

Beraz, Lezoko ekonomiaren historian, hizkuntzari dagokionez, inflexio puntua frankismo garaian gertatu zen. Ekonomia mailako aldaketaren eraginak Lezoko egoera soziolinguistikoan izugarritzko ondorioak izan zituen.

## Hedabideak

Hedabideena fenomeno berria dugu gizartean. Ahozko tradizioa izan da historikoki herri batek bizi dituen gora-beherak, gertaerak, ezagutzak transmititzeko bidea. Inprentarekin ahozkoari poliki-poliki lekua hartu zion idatzizkoa zabaltzen hasi baldin bazen ere, Lezoko herri bizitzan ezin esan idatzizkoak aparteko eraginik izan zuenik gutxiengo batengan ezik. Lezo nekazal giroko herri ttikia izanik, beraz, idatzizkoaren hedapena oso berandu gertatu zela pentsa dezakegu. Salbuespen bakarra, inola ere, besamotz hark saltzen zituen bertso paperak izango ziren.

Egunkariak izango dira zalantzarik gabe hedapen honetan aintzindari. Eskaintzen duten informazio motagatik eta estiloagatik, herri xehearentzat eskuragarrienak berauek dira zalantzarik gabe. XIX. mende bukaerarekin euskarazko aldizkariak hedatzen hasi baldin baziren ere, ezin esan dezakegu, 1919an *Argia* sortu bitartean, denen eskura zegoen euskarazko komunikabiderik zegoenik. *Argiak* Lezon izan zuen indarra aipagarria da; beste maila batean bada ere, gauza bera esan dezakegu Arantzazuko egutegiaz edo *El Día* egunkariaren ostiraletako euskarazko orriaz. *Argiak* poliki-poliki Lezon hartu zuen indarra frankismoak eten zuen, eta honekin euskarazko hedabideen ernamuina.

Beraz, hedabideez eta hauen eraginaz hitz egiteko Francoren garaira jo behar dugu. Bigarren Mundu Gerraren amaierarekin hedabideen indartzea etorri zen: Tokian tokiko irratiak, munduaren mutur desberdinetako informazioa herritar xumeenen esku jarritz, hauekin batera egunkari eta aldizkariak, geroago telebista... Alegia, hedabideen iraultza gertatu zenean euskarak ez zuen egoera berriak eskatzen zuenaren pare egoteko ez eskubiderik, ez baliabide ekonomikorik. Erdara zen eremu horren jabe bakarra. Euskarak poliki-poliki eman zituen urratsak baino azkarragoak izan ziren erdararenak eta Frankismoak iraun bitartean, eta ondoren ere bai, nagusi izan zen erdara eta erdal kultura lezoarrok (eta euskaldun guziok) kontsumitu genituen hedabideetan.

Kulturaren plaza berrian euskarak ez zuen leku handirik izan eta, beraz, euskal kulturak ez zuen agerpiderik. Honek, besterik gabe, euskal kulturaren existentzia bera ukatzea ekarri zuen, hedabideetan agertzen ez dena ez baita existitzen; eta bidenabar, euskaldunek erdal kultura edan zuten dzanga-dzanga erdarazko hedabideen iturritik.

Bere laburrean bada ere, aroaren amaierarako Lezon izandako komunikazio esperientziek euskararekiko atxikimendu sendoa adierazten zuten. Dena den, hori hutsaren hurrena baino ez zen garai berean lezoarrek eskura zituzten erdarazko hedabide guzien aldean (hamaika irrati, egunkari, aldizkari, telebista... une berean eta punta-puntako informazioa eskainiz).

## Hezkuntza

Lezoko hezkuntzaren historiaz hitz egitean alor desberdinak bereizi behar ditugu. Batetik aro historikoak, bestetik hezkuntza publiko eta pribatua, eta azkenik hezkuntza formala eta ez-formala.

Aro historikoei dagokionez, badirudi uholde liberala etorri aurretik oinarrizko heziketa euskaraz ematen zela Lezon. Horixe da behintzat, Isasti eta Domingo Maria Errazukoak esaten digutena. Beste informaziorik ezean, ezin sakon dezakegu honetan. Garrantzitsua da, ordea, egia izanda ere, heziketa horren eragina neurtzea; izan ere, pentsatzekoa da

gutxiengoa izango zela heziketa formala euskaraz jasotzen zuena (ondorengo aroetan ditugun datuak kontuan izanik).

Ziurra da, ordea, heziketa informala euskaraz jasotzen zutela guziek. Ondorengo aroetan, batez ere liberalismoa bere egitasmo sozial eta kulturala gauzatzen hasi zenetik, gauzak arras aldatu zuela. Garai honetan oraindik hezkuntza formalak Lezoko herritarrengan eragin handirik izan ez bazuen ere, erdara inposatzea zuen helburu. Gureganaino heldu diren ahozko lekukotasunen argitan badirudi inposaketa hori eraginkorragoa egiteko eratzunaren zigorra bera ere erabili izan zela. Ezin jakin, bestalde, Lezoko eskola publikoa karlisten euskarazko hezkuntz programan sartu zen ala ez. Ikastola sortu bitartean inposaketa horrek, era leunago eta eraginkorragoz bazen ere, indarrean jarraitu zuen; eta ikastola sortu ondoren ere bai, gehiengoa erdarazko ikastetxeetara baizihoan Herri Eskolan D eta B ereduak nagusitu arte.

Lezoko ikasle populazioa XX. mendean ikastetxe desberdinetan banaturik zegoen. Batzuk herrian gelditu ziren eta besteek Errenteriarra jo zuten nagusiki. Herritik kanpo joandakoek erdara hutsean ikasi zuten; herrian gelditutakoek, berriz, erdarazko proiektuen artean hautatu behar izan zuten ( Eskola “Nacionalak” ala Guraso Elkartearena). Dena den, herrian izan ziren euskarazko hezkuntz ekimen interesgarriak, eta poliki-poliki ikastolaren sorrerarako bidea markatu zutenak: Agustina Lizarazu edo Manuela Larrearen haurtzaindegiak, Miren Gezalaren eskola haur eta helduentzat edo 1968an sortutako ikastola.

Hor zegoen, garai honen amaierarako Lezon izan zen hezkuntz egoeraren ernamuina, alegia, urrats horiek ahalbideratu zuten herritarrek une historiko desberdinetan euskarazko hezkuntzaren aldeko postura finkoa egitea. Une historiko bat 1968a izan zen, ikastolaren sorrera, eta bestea 1980a, Herri Eskolan D ereduko lehen taldea hasi zenean eta Pasaia Lizeoak lehen ikastaldeak hartu zituenean.

Orain arte, ordea, hezkuntza formalaz aritu gara eta ez dugu ahan-tzi behar hezkuntza ez-formalaren garrantzia. Izan ere, eremu honek mendebaldeko gizarteetan geroz eta garrantzi handiagoa baldin badu



ere, euskararentzat bereziki garrantzitsua izan baita unerik gogorrene-tan. Eskolan euskaraz ikasterik ez zegoen bitartean, Lezon euskaraz dotrina, euskal dantzak, musika, antzerkia, kantua... ikasteko aukera izan zen. Hezkuntza ez-formal horrek, besteak beste, hainbat herritar alfabetatu eta euskaltzaletzeko balio izan zuen. Gabeziarik handiena-ren garaietan lagungarri garrantzitsua izan zen.

Aroaren amaierarako hezkuntza ez-formalak funtzio berriak bere-ganatu zituen. Hedatu egin zen eta euskarazko hezkuntza ofizialaren orde-zko izateari utzi zion. Hedapen honetan, ordea, euskara galtzai-le gertatu zen, sortu ziren eremu berri askotan (kirola, aisialdia, musika...) erdara izan baitzen nagusi, bai herrian bertako eskaintzan, bai herritik kanpokoan.

### **Administrazioa**

Administrazioaz hitz egitean Udala, Foru Aldundia eta botere zentrala bereizi behar ditugu.

Euskarak ez zuen lekurik izan administrazio hauen idatzizko fun-zionamenduan euskararen historia sozial osoan. Azken aroan, ger-tueneko erakundeak euskara administrazioan normalkuntza bidean sartzeko funtsezko urratsak ematen hasi arren (Udala, Foru Aldundia eta Gasteizko Gobernua), hauetan bertan erdarak nagusi izaten jarraitu zuen. Botere zentralarekin loturiko erakundeek, berriz, urra-tsik ttikiena ere oraindik emateke zuten. Beraz, administrazioaren historia osoan euskara egoera diglosikoa egon dela ikusten dugu.

Oro har, hori esaterik baldin badago ere, zenbait gauza zehaztu beharrekoak dira, udal administrazioari dagozkionak batipat. Lezoko udal administrazioak idatziz erdaraz funtzionatu arren, bertako alka-te, zinegotzi eta idazkariak euskaldunak izan ziren frankismoa etorri bitartean, eta euren arteko harremana nahiz herritarrekikoa euska-razkoa zen. Hala diote, behintzat, garai hura ezagutu zutenek. Izan ere, zinegotzien artean baziren erdaraz ez zekitenak edo trakets mol-datzen zirenak. Bandoak ere, Errepublika garaian behintzat, elebitan jotzen ziren. Horren aurrekoen berririk ez dugu. Pentsatzekoa da, ordea, euskaraz joko zirela.

Frankismoarekin ezagutu zituen Lezok lehen alkate eta idazkari erdaldunak. Eta aldaketa horrek erdararen lehentasuna eta garrantzia azpimarratzeko balio izan zuen. Izan ere, Lezoren historian, ziurrenik, lehen aldia zen, herritarrek euskaldunak ez ziren agintariak zituzten, eta, beraz, hauekin komunikatzeko ezinbestean erdara jakin behararekin topo egin zutela (herri xeheaz ari gara).

Zorionez, frankismoaren amaierarekin batera hasitako aroan Lezok izan zituen alkate guziak euskaldunak izan ziren, alfabetatuak gehienak. Hautagai eta hautetsien artean, halaber, euskaldunak izan ziren nagusi. Beraz, egoera lehengora itzultzen hasia zen.

Foru Aldundiaz informazio askorik ez baldin badugu ere, abertzaletasunaren indartzearekin herritarrei euskaraz zuzendu zitzaient; euskaraz kaleraturiko iragarkiak horren lekuko. Horrekin batera Lezoko kale izendegiari egindako zuzenketek adierazten digute abertzaletasunaren indartzeak izan zuela eraginik erakunde horretan eta, ondorioz, Lezon. Dena den, dugun informazioa urriegia da ezer zehatzik esateko; adibidez, 2. Karlistaldian Aldundiek eraturiko euskarazko hezkuntz proiektuan Lezok parte hartu zuen.

Azken aldian Gasteizko Jaurlaritza eta Legebiltzarraren sorrerarekin gertatu ziren, hizkuntzari dagokionean aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo nagusiak. Funtsean, aldaketa hauek administrazioaren kanpo agerpenak elebitan izatea eta funtzionarien euskalduntzea ekarri zuten. Euskararen normalkuntza abian jarria izan arren, ordea, aroaren amaieran oraindik oso urrun zegoen helburu hori lortzea.

Botere zentralaren esku zegoen guziak ez zuen euskararekiko inolako begirunerik izan. Botere exekutibo, legegile, epaile eta militarrek historia osoan zehar eta batez ere 2. Karlistalditik aurrera ahalik eta gehien egin zuten Lezon erdara inposatzeko. Bere ordezkariak ez zekiten euskaraz (udal idazkari, karabinero, guardia zibil, trenbideko langile, irakasle, alkate...) eta erdara eta erdal kultura inposatzeko ahaleginak egin zituzten. Beraien presentzia soila inposaketa horren adibide zen.

## **Transmisioa**

Familia izan da euskara eta euskaltzaletasuna gordetzeko tresnarik

indartsuena. Galdekatutako lekuko gehienek adierazi dute etxean euskaltzaletu zirela, gurasoetako batek edo gertuko senideren batek transmisio ideologikoa burutu zuela eurekin. Fenomeno bera belaunaldi desberdinetan topatu dugu, gerraurrekoen belaunaldian, hauen seme-alabenean eta ondorengoetan.

Hizkuntzaren garrantzia eta hizkuntzak bizi izandako jazarpen historikoaren ezagutza ahoz aho transmititu eta gorde izan zen belaunaldi guzietan eta garrantzi berezia izan zuen aldirik ilunenean edo unerik erabakiorrenetan.

Lezon euskaltzaletasuna, herrigintza edo mugimendu politiko abertzale desberdinekin loturiko pertsona ia guziek transmisio hori etxean bertan jaso zuten eta hauetariko askok, gainera, EABkoa izandako militante batengandik.

Lezon 1932an sorturiko EABko taldeak emakume ugari bildu zuen garai hartan egiten ziren moduko lanen inguruan: otorduak prestatu, jostun lanak, behartsuentzako laguntza sareak... Politika kontuekin, itxuraz, zuzeneko loturarik ez duten ekintza hauek hainbat emakumeren kontzientzia sendotzeko balio izan zuten eta, Francoren etorrerarekin emakume hauek isilpean euren seme-alaba, iloba edo anai-arrebei euskaltzaletasun eta abertzaletasunaren sentimendua transmititu zieten. Transmisio hori jasotakoak izan ziren ondorengo hamarkadetan herriko bizitzaren protagonista.

## **Ideologia**

Lezok bere historian Euskal Herrian, Espainian eta Europan izandako joera politiko-ideologikoak ezagutu zituen. Liberalismoak Eugenio Otzoarengan eragin nabaria izan zuen, apologismoak Isastirengan, karlismoak hainbat herritarrengan, abertzaletasunak beste hainbatengan, baita ezkerreko joerek ere, (edozein zela ere). Joera guzietako lezoarrak topatu ditugu historian. Dena den, bi gauza dira azpimarratu beharrekoak.

Lezo funtsean herri kontserbadorea izan da historian, lehenik karlismoa eta ondoren EAJ-PNVren ideologia izan ziren nagusi. Aldi berean, Lezon liberalak eta errepublikanoak egon arren, denak euskaraz

mintzatzen ziren. Hizkuntza ez zen bereizketa ideologikoak egiteko tresna.

Hirurogeiko hamarkadan gertaturiko susperraldi politiko eta kulturalak, berriz, ezkerreko joeren indartzea ekarri zuen. Kasu guzietan, ordea, euskararekiko atxikimendua oso estua zen (ideologikoki) herri-tarren artean. Lehenago egon ez zen bereizketa, ordea, orain bazegoen. Joera politikoak hizkuntzarekiko atxikimenduak adierazteko erabiltzen hasi zen. Honela, ezkerreko hainbat ideologiatan babestuz, internazionalismoaren aitzakiaz, hizkuntza bereizketa politikoak egiteko tresna bihurtu zuten. Bereizketa honen adibiderik argiena transizio garaian alderdi abertzale euskaldun eta nazionalista espainolen artekoa da. Izan ere, PSE-PSOE alderdiak, herriko joeraren kontra, hautagai erdaldun peto-petoak mantendu zituen agintaldi guzietan.

### **Alderdiak**

Ideologiari loturik alderdi politikoak ditugu. Alderdien kasuan, Udalaren funtzionamenduan duten arduragatik aipamen berezia behar dute.

Karlismoaz geroztik alderdi abertzaleak izan ziren Lezon nagusi. Gerraren aurretik EAJ-PNV izan zen erreferentziarik indartsuena, nahiz eta alkatetzarako Regino Gezala liberala aukeratu herriak behin eta berriro (33 urtez). Frankismo garaia-oren ondoren alderdi abertzaleen esku egon zen aldioro alkatetza. Alderdi hauek udaletik funtzionarioen euskalduntze planean aurrera egin arren, hizkuntz normalkuntza bidean hutsune larriak izan zituzten (EAJ-PNVko hautagaien hizkuntz soslai eta jarrera, EAJ-PNV eta EEk AEKren kontra hartutako erabakiak, edo PSE-PSOeko zinegotzi erdaldunei gobernu ardurak ematea).

Dena den, funtsean azpimarratu beharrekoa alderdiek Lezoko bizi-tzan, eta batez ere hizkuntza kontuetan, izan duten parte-hartze urria da. Gizarteak emandako urratsen atzetik joan izan dira gehienetan.

### **Elkarteak**

Lezoko bitzita asoziatiboa, eskuan ditugun datuen arabera, mende honetan hasi zen. Denantzako kooperatiba, Bixi-Bixi peña,

edo Gure-Borda eta Alaitasuna elkarteek hainbat herritar bildu zuten. Frankismo garaian hasi zen, ordea, aldirik oparoena. Jazarpen eta gabeziari aurre egin nahian, edo besterik gabe, herriko bizitzak hala eskatzen zuelako herrian hainbat talde sortu zen. Aldeguna, Allerru, mendizale taldeak, Ikastola, Guraso Elkartea... Franco hil ondoren elkarte gehiago sortu ziren, eta aroa amaitu zenerako gai eta lan oso desberdinak betetzeko elkarteak baziren herrian. Elkarte hauek herriko bizitzan protagonismo eta ardura handia zuten. Honekin batera, ordea, azpimarratzekoa da hauetako asko euskal kultura, euskara eta herriaren izaera sustatzeko borondate finkoz sortu zirela.

Dena den, herriko errealitate soziolinguistikoa aldatu zen heinean aldatu zen elkarteetako bazkideen hizkuntz soslaiia, hasiera batean euskaldunek soilik osatzen zituzten, geroago euskaraz ez zekitenak ere partaide ziren.

Fenomeno honek alderdi positibo eta negatiboak izan zituen herriko bilakaera soziolinguistikoan. Elkarteak euskaraz ez zekien hainbat etorkin herrian integratu eta herriko errealitatea sakonago ezagutzeko lagungarri izan ziren. Bestalde, kirolari dagokionez, euskararik ez zekiten prestatzaileak geroz eta gehiago izateak kirol mundua arront erdaldundu zuten. Edo bestela esanda, lan hori ez zuten euskaldunek bete nahi izan.

Elkarteek Lezoko bizitza sozialean izan duten indarra eta eraginak euskararen normalkuntzan hainbat urrats ematea ahalbidetu zuen.

## **Kultura**

Herriko kultur bizitzan, alegia, herrian bertan sortutako kulturaren, ezer azpimarratu behar baldin bada une eta garai historiko guzietan, bere euskaltasuna da. Lezoko herri kultura euskalduna izan zen. Dantzak direla, jaiak edo bertso saioak, kirola, kantua... ekimen xumeak izan arren euskal kulturaren ildo zahar eta berriari loturik egon ziren.

Kulturaz mintzatzean, ordea, hedabideez esandako gauza bera esan behar dugu; alegia, Lezon euskal kultura sustatu arren, herritarrek eskurago zituztela erdal kulturaren produktuak.

## **Antzerkia, dantza eta kantua**

Kulturaren alorren bat azpimarratu behar bagenu, antzerkia eta kantua azpimarratu beharko genituzke. Izan ere, bakoitzak bere alde-tik, une historiko desberdinetan funtsezko lana bete zuten.

Gerra aurreko antzerkiak, batzokian egindakoak, euskarazkoa izanik, hamaika herritar biltzen zuen eta bera zen, jaiez gain, herriko ekitaldi ludikorik garrantzitsuenetako bat. -Hura zen euskal kulturaren agerpenik landuenetako bat Lezon. Gerra ondoan, berriz, euskarak bizi zuen jazarpena gora-behera euskarazko antzerkia berriro abian jartzeak euskalduntasuna pizten edo mantentzen lagundu zuen. Bi une hauetan antzerkiak euskaldunak biltzeko balio izan zuen, talde sentimendua sendotzeko, kontzientzia indartzeko, eta iluntasunaren erdian argi izpi bat ikustarazteko.

Antzeko zerbait esan daiteke dantzari buruz. Irakasleen txostenetan ikusten dugu herriko gazteek nahiago zutela mende hasieran “makildantza” ikastera joan eskolara baino. Dantza ikasteagatik edo jolasteagatik egiten zuten eztabaidatzera sartu gabe, argi dago, euskal kulturaren deiak erdararenak baino oihartzun handiagoa zuela Lezon. Eusko Pizkundeak dantzari, agerpen folkloriko guzietan bezala, garrantzia berezia aitortu zion eta dantzatzea politikoki abertzaletasunari loturik egotera pasa zen gerra aurreko urteetan. Gerra ondorengoetan, berriz, antzerkia bezala, itxaropen argi-izpia zen.

Kantuaren garrantzia azpimarratzea ez da antzerkia edo dantzarena azpimarratzea bezain erraza. Izan ere, faktore oso desberdinak elkarren ondoan jarrita baino ezin baita ulertu. Lehen-lehenik garrantzitsua da une historiko desberdinak bereiztea. Hiru une bereizi behar ditugu gutxienez. Gerraurreko urteak, batez ere abertzaletasuna indartzen hasi zenetik aurrera, gerra ondorengo bi hamarkadak eta frankismoaren azken urteak (1960-1975).

Gerra aurreko urteetan abertzaletasunari loturiko kantutegia hasi zen zabaltzen. Abertzaletasuna ideologikoki gorpuzten zihoan heinean, bere ideologia eta mezuak zabaltzeko herri kulturaren ohiko bideaz baliatu zen kantutegiaz. Kantuak sortzeari ekin zioten orduko abertzale askok eta kantu horiek ahoz aho, liburuxketan edo paper

solteetan zabaltzen ziren herriz-herri. Joxe Migel Treku eta Miren Gezalak gogoan dute haur zirelarik nola abesten zituzten kantu haiek (“Laster ikusiko degu Euskadi Askatua” abesten zuten, besteak beste). Beraz, garai honetako kantagintzak eduki politiko argia zuen. Frankismoak halakorik onartzen ez zuenez gero, elizaren inguruan bildu zen euskarazko kantua, eta euskaraz kantatze soila, edozer kantatuta ere, bizigarri gertatzen zen. Horrekin batera azpimarratzekoa da kantu liburuak erabiltzeak bat baino gehiago alfabetatzen lagundu zuela. Frankismoaren azken urteetan, berriz, euskal kanta berriaren sorrerarekin, belaunaldirik gazteenak kantagintzan topatu zuen bere irrika sozial eta politikoen adierazpidea. Goiko elizan egindako kantaldietan edo Ipar Euskal Herrira egindako bidaietan kantua zen protagonista eta gune horietan jendeak bere burua frankismoaren uztarritik aske sentitzen zuen.

Beraz, kantua, antzerkia eta dantza askatasun gune izan ziren, bere laburrean, besterik ez zegoen garaian.

## **Eliza**

Hezkuntza ez-formalaz eta kantuaz ari ginela eliza aipatu dugu. Ez da erraza esaldi batean laburtzea elizak izan duen eragina, izan ere, alor ugaritan jardun du eta pertsona oso desberdinek hartu zuten bertan parte.

Apaizei dagokienean, lehen lehenik azpimarratu beharrekoa denak euskaldunak izan zirela da. Alegia, denak ziren euskaldun eta euskaraz aritzen ziren eliztarrekin. Hauen artean, zalantzarik gabe, Garmendia anaien jarrera nabarmendu zen, diferentziak markatzearen erdaraz hitz egiteko zuten joeragatik batez ere. Garmendia anaiek ideologikoki frankismoarekin bat egin arren, beren eliz ihardueran ez zuten euskara baztertu, orohar. Hauen ondoan, zalantzarik gabe, Inazio Esnal edo Joxe Luix Aperribai jarri behar ditugu (gainerakoak gutxietsi gabe), eliz lanetan euskara eta euskal kulturaren alde aritu zirelako batez ere.

Liturgia kontuetan elizak euskarazkoari eutsi zion une oro eta aldaketa soziolinguistikoarekin etorri ziren erdarazko elizkizunak, ez aurretik. Dotrinan, bestalde, beti izan zen euskaraz ikasteko aukera.

Dena den, Lezoko euskararen historia sozialean elizaren garrantzia haruntzago doa. Izan ere, Pildainekin hasita, Lezoko apaizek proiektzio eta aktibismo sozial adierazgarria izan zuten, beti ere euskara eta euskal kulturarekin lotuta. Eta Pildainen kasuan, politikarekin. Ikastolaren sorrera, Allerrurena edo Aske aldizkariarena, besteak beste, horren adibide dira.

Herriko elizaz gain, ez dugu ahanzi behar elizaren hierarkia erdalzalea zela oso eta erdara hutsean funtzionatzen zuela; beraz, herritik seminariora joandako gazteek erdaraz ihardun beharko zuten euren artean kasu askotan, beste batzuetan, berriz, euskaltzaletzeko balio izan zuen (Pildain eta Boñi Urkizuren kasuan).

## **Jazarpena**

Esandakoak esanda, bistan da Lezoko euskararen historia sozialean jazarpenak une historikoaren arabera forma oso desberdinak hartu dituela.

XIX. mendean eraztuna eskolan, botere zentralaren debekuak, frankismoaren exekuzio, espetxeratze eta debekuak, transizioaren amnesia historikoa... Orohar jazarpen honen alderik makurrena Euskal Herriaren subiranotasunik eza izan da. Garai berrietara egokitzeke premiarik handiena izan den guzietan, beharrezkoa zuen boterea ebatsi zaio herri honi, eta berari galdetu gabe ezarri egitura politiko, militar eta kulturalak, berezkoak sortzeko aukera ukatuz. Honela bada, jazarpena ukazioaren eta inposaketaren historia da. Euskal hezkuntza edo komunikazioaren ukazioa eta horren orde, erdarazkoaren inposaketa, administrazio euskaldunaren ukazioa eta erdarazko elebakartasun inposaketa...

## **Ondorio Nagusiak**

1.- Lezo historikoki herri euskaldun peto-petoa izan da, frankismoaren ondoren, ordea, atzerakada nabarmena bizi gertatu zen. Atzerakada hori, noski, ez zen ausaz gertatu, Estatu espainolak berariaz erabaki eta zehazturiko prozesu historiko gogor baten ondorio izan zen.



2.- Atzerakadarik gogorrena frankismo garaian gertatu zen. Urte gutxitan, herri bizitza euskaldun egiten zuten elementuak erdaldunduz, euskara nagusi izatetik gutxiago izatera pasa zen. Atzerakada hori eragin zuten faktoreak politikoak, errepresiboak, ekonomikoak, demografikoak, administratiboak, komunikatiboak... izan ziren.

3.- Frankismoak ordura arteko erasoek lortu ez zutena lortu zuen eta gerra aurrean geroz eta indartsuagoak ziren abertzaletasun eta euskaltzaletasunaren “iraultza” errotik moztu zituen. Euskarazko iraskaskutzan edo prentsan emandako urratsek bere horretan gelditu behar izan zuten.

4.- Lezok historikoki euskaltzaletasunari eutsi dio. Une historiko guzietan garaian-garaiko ekimenak jarri ditu abian eta horretan inguruko herrien pare egon da: euskarazko irakaskuntza, antzerkia, folklorea, komunikabideak, mugimendu abertzaleak... Euskarak bizi izandako eraso, ordea, gogorregia izan da eskura izan ditugun tresnekin erantzuteko. Herriaren euskaltzaletasunari eutsi arren, atzerakada nabarmena izan da.

5.- Atzerakada horretan 1978ko konstituzioak eta Gernikako Estatutuak ardura berezia izan zuten, jazarpen historiko baten ondorioz sortutako egoerari eusteko bideak jarri baitzituzten eta, aldiz, egoera lehengora itzultzeko aukerak murriztu. Konstituzionalki ezarritako elebitasunak, funtsean, euskaldunak erdara ikastera behartu zituen (ditu) eta euskaraz ez dakitenak, berriz, euskaraz jakin gabe bizitzeko baimenduz.

6.- Lezoko joera historikoak argi eta garbi adierazten du zein izan den herri honen gogo. Une historiko guzietan alde edo moldez euskara eta euskal kulturaren aldeko herri dinamika azaleratu da. Une horien guzien artean, ordea, lotura estua ikus daiteke. Ezer ez da hutsetik sortua. Batzuen lana ondorengoen ikasgai izan da eta mende hasierako abertzaleetatik hasi eta azken aroa bitartekoen artean lotura estua dago.



## 5. ETNOTESTOAK

Lan hau egiteko hamaika pertsonarekin hitz egin behar izan dugu. Den-denak lezoarrak ez baldin badira ere, gehienak bai, eta gure herriaren historian zuzeneko protagonista izan dira.

Interesgarri iritzi diogu lan honi egindako elkarrizketen artean zenbait pasarte gehitzeari. Galdekatuak asko baldin badira ere, horien artean garairik ilunenak edo urrunekoena zuzen-zuzenean ezagutu zituztenak hautatu ditugu. Ikerketa irakurri duenak ondo baino hobeto ezagutuko ditu hemen agertuko diren gizon-emakumeak:

Miren Gezala: herrian gazte eta helduentzako lehen ikastolaren sortzaile eta batzokiko dantza taldearen arduradun gerraurrean.

Joxe Migel Treku: euskaltzale eta abertzale ezaguna herrian. Gerra aurrean hasi zuen bideari jarraitu zion diktadura garaian. Horrek, besteak beste, espetxera eta ikastola sortzera eramane zuen.

Inaxio Artola: euskaltzale eta abertzalea. Gerra aurrean ELA-SOV-eko kide.

Melintton Garmendia: abertzale ezaguna herrian. Gerra aurreko une historikoen lekuko zuzena.

Inazio Esnal: Lezoko apaiz izana 1946 eta 1974 bitartean. Lezongin zituen urteetan euskararen aldeko lan eskerga eginga, bai elizan bertan eta baita herrian ere. Besteak beste, ikastolaren sortzaile eta bultzatzaile.

Elkarrizketak, noski, hemen agertzen dena baino askoz luzeagoak izan ziren. Guk, ordea, gure gaiari ahalik eta interesgarrien zaizkion pasarteak hautatu ditugu. Bildutako informazio guziaz ematen ez ezik garai hartako Lezori buruzko irudi ahalik eta osatuena egiten ahalegindu gara. Honela, ikastolaren sorreraz, antzerkiaraz, abertzaletasunaz, herri bizitzaz, frankisten inbasioaz... hitz egiten duten pasarteak dituzu hemen.

Pena handiz, bazterrean utzi behar izan ditugu beste hainbat grabaketa interesgarri, garai hartako Lezoko bizitzaren argazki leialak. Ziur gaude, ordea, hauek guzietan argia ikusiko dutela berandu baino lehen. Guk gure aldetik ahaleginak egingo ditugu hori horrela gerta dadin.

## 5.1.- MIREN GEZALA (1912)

### **Nola sortu zenuen eskola?**

Karrera bukatu nuen emezortzi urtetako, eztakit pixkorra nitzelako o tranpa intziatelako. Biñipin, emezortzi urte nittuela banakan titulua. Eta geo bakizu, orduan etzen euskarazko eskolik eta deuse, orduan estaduana dena, eta nik orduan pentzatu nuen oposiziyuak ittia estaduantzat, bestela beti interina ibiltzen zea. Hori preparatzen hasi nitzan lemizi biñon or presentatzeko estakit senbat urte biar zien ta ni urte oita iristen ez eta, bi o hiru urte falta zizaizkitten. Estakit ogei urtekin o hogeitabatekin itten zien oposiziyuak. Eta aizu, ni urte oyek ola eonian, besteik espada ere pixka bat praktikatu ta, ortako pixka bat prestatu ta jartzeko ta, esan nuen nik, “emen eskola bat jarriko dut, ta gaña oan aukerik onena” zergatik Republika denboran zen, ta Republika denboran eskoletatik gurutzia kendu in zittusten, ta jendia marmarrian, erri guzitan, aber!, Lezon bertan e bai. Jendia beti oso elizkoya izandu da emen ta. Eta nik esan nuen “bueno, eskola bat ingo dut, eskola partikularra o pribatuan izenian irikiko dut eta bide batez euskeraz emango dut”. Baimena lortu eta eskola iriki nuen eta umiak barra-barra. Azkenian eskolan ezin geyo sartu, “ezta ba posible”, ta geldittu zien kanpuan. Eskolak ematen asi eta denak euskaldunak, bazen bat erdalduna, komunista, baño arrek euskara ederki ikasi zun. Geo gabian e basien elduaguak irakurtzen eta ez zakittanak. Eskatu ziaten gabian, besteik ez pada re ordubete, eldu oyentzako emateko. Kosta zizaiten baño ederki ikasi zuten. Karabinerotako teniente bat ere etortzen zen haurrai galderak ittea. Eta ola gerra etorri bittarte.

### **Zure aurretik inor aritu al zen euskaraz eskolak ematen?**

Ne aurretik aittu zen bat, Auxtiña. Biño orrek ematen zuen oraziyuak eta ola, “Aita guria” ta. Geo kartel batzuek zittun, “a”, “e”, “i”, “o”, “u” ta “m” “ama” ta oyek. Biño bestegañekuan ez. Guardeiya bezelakua zen. Gañekuan etzen besteik izan.

### **Zu aritu zinen garaian euskarazko metodorik bai al zenuen?**

Ez, ez, ezer ez, nik itten nuna, erdarazko metodoak banittun, ta ua euskeraz jarri ta ola, nere modura ematen niyoten.

Ba al zenuen harremanik beste herrietako irakasleekin?

Gutxi ziren, gu aurrenetakuak izandu giñan, aurrenetakuak. Gutxi zien, Donostikuak bai, nei esan zittenak zer eskatu biar nuen, biño arrek e ttikiyak bakarrik zittuen, lurrian exeita aitzen zien ta, ttikiyak bakarrik zien. Nik al nuen moduan itten nuen eta Lezoko izkuntzakin, zeatik, egiya esan, nik oango batua ta oi denak... Netzako berriya beti.

### **Elbira Zipitria ezagutu al zenuen?**

Bai, euskarazko nere andereñua zen ta arrekin batea, ikasle ni bezela, Errenteiko Ayerbenak, eta Obispua Mugika, famatua izan zen, Obispua Mugika orren bi arrebak, Demetria eta Katalina. Elbira Zipitriak Calle Campanarion ematen zittun ola irakasliantzako ta eskolak. Guk euskaraz bagenakigun baña, ola eskolak emateko ta ez. (Emakume) bikaña! Ez dut olakoik ikusi! Izugarriya zen! “Asociación Vasca de Profesores y Profesionales de la enseñanza”. Or zeon buru Barriola, Ignacio Maria, medikua da, oandik bizi da Iñaki Maria Barriola. Egunero joaten giñan denboraldi bat pixkat oittutzeko.

### **Entzun izan al duzu inoiz Lezon eskolan eraztuna erabili zenik euskaldunak zigortzeko?**

Bai, oi bai, gue amak esaten zigun, Lezon oi bazela.

### **Batzokian zer egiten zenuten?**

Beitu, gauzak, nik beste eozin bezela, zeatik ni enaz sekulan izan du junta diretiban eta, seatik naiko lana nuen nik dantzakin ta zeakin. Eskolatik lautan atera eta denak zuzen-zuzen, umiak eta denak, batzokira. Eta or umiak itten zuten dantza nik bakar-bakarrik eakutzia da. Etortzen zen Errenteitik bat, Pontikakua, Elixabete eta Bidegaiñen bi aizpak, oyek tortzen zien nei dantzak eakustea. Nik bakarrik, ta ez oan bezela, magnetofoya jarri ta magnetofoya jotzen,

ez, ez, ni kantatzen ta dantzak eakusten! Leer ittenuen, eztarriya orduan dena ondatu nuen nik. Aberriyantzako eman dut nik eztarriya.

### **Eta antzerkia?**

Bai oixe! Inaxio Kojua, Olasagasti, bazen bat, “Biar arte ja-jai”, biyen arte bakarra itten genuen zea guztiya, elkarrizketa, bien arte, ni joan lemizi, eta exei-bankuak, an Alderdi-Eder balin balitzake bezela, ta bankuan exei ta, “etorko duk ba, ta, etorko duk ba, ta, betiko gizonoi”. Pausuak nabaittu ta beitu ta, ua etzela ikusi ta bankuan erdi-erdiyan exei, ez exeitzeko beste iñorre an, eta geo ya, andik geruo, pausuak sentittu ta, Inaxio zela ikustian, orduan, pixkat alleka batea in, ta tokiya utzi exeitzeko onduan, asten giñan biyek elkarrizketan, ze botzen genittu! Juanito Berasarte genuen apuntadore, gu biyek asten giñanian, geok bakotxak nai genua botzen genunian, paperian biatza ola jartzen zuen, an geldittu giñala, ta guei utzi izketan kontuak esaten, ta leer itten genuen. Jendiak parra itten zuen. Zenbat par egin genuen! Beste errita ere joaten giñen beti beak ez izatiagatik, eta geo, urrungo igandian ayek onea. Guei batian tokatu zitzaigun juatia zeara, Andoaiñea. Zerbatte olako zea zen, “Buruzagiyak”, “Caudillos”, ta an karabinerua, orduan censura zen ta, karabinerua juanta, zebatte igarri zuten da, zeai esan, gobernadoriai esan ola ta ola, ta multa gue itxea, gue itxea ez, batzokira. Beste batian “Egintzak on”, oi dotriñan egiten genuen, eta kontzegittu nun. Ta geo azkenian Amaberjiña azaltzen zizayon Elixabetei ta, bazen emen, baraderotan or, barko batian or, “Calderetas” ta beste bi, komunixta utzak zien, eta ayeke arratzaldia nunbatte pasa biar eta batzokira joan. Ikusi zutenian amaberjiña aingeruakin ta zeakin kantari... “¡Al cielo, de aquí al cielo!” Calderetas bullaka an jendian tartian. Erki pasatzengenun. Beste batian Oyartzunea joan giñan ta Oyartzunea eaman genuen *Miguel Strogoff, el correo del Zar*, euskaraz zeatua, eta Elixabete zen Miguel Strogoffen andregaya ta nik itten nuen Miguel Strogoffen amana. Eta azkenian itten ziguten Elixabetei ta biyei eskopetakin ill ta lurrea bota. Eta an gauden ta, eskopetan muturrak azaltzen zien eszenayuan barrendik kanpoa, bat

alleka batetik eta bestia bestetik. In biar genun ayek ta! botzen zutenian zea, eskua nonbattea eman, zebatte bagenuke bezela, ta lurea eroi, illda geldittu, ta antxe teloya jetxi bitarte arnasa ta al genun gutxina zeatzen, ez muittu ta ez ezerre ingabe. Biño, funtziyua in biño len joan zien, or bazien saardoteyak, Txikierdi ta, beste seoita, joan zien gue mutillak ta, nonbatte ondo jarriyak joantzien ta, ne allekan tzeonak ta! tira zun ta, arek neonei apuntatu ta, ta!, nabaittu nuen, ementxe. Lurea eroi ta jendiai atzia emanta zeatu nitzan, ta puliki-puliki eskua ola ata nuen teloya bajatu bitarte ta, oi! Odola! Ez nuen akatu ua orduan Jangoikuak nai etzulako! Donostira de joan giñan, an konkursua zen ta nik itten nuen Diputado baten emaztian papera, an ere oso ondo atera giñan. Oyartzunguak e joantzien “Eun dukat”ekin.

Antzerkiak asko deitzen zuen jendia batzokira. Igande arratzaldian ze in jakin ez eta.

### **Eta dantzarekin?**

Saninazio egunian Donostiyan itten zen ta gaña goatzenaz, gu Lezoko taldiakin, nik eztakit lau talde o bost o zer nittuen. Desfilatzen joaten zianian biñaka ttiki-ttikitatik, olaxen, gora aundi-yak bittarte, denak joaten zien txistulayak aurretik ziela ta. Eta ni goatzen naz, eztakit zenbat talde zien, Donostira joan, Atotxa kanpua dena betia poxpoliñez, eta dantza bat in biar zen, zinta dantza, ainbeste taldetatik Lezokuak bakarrak ondo atera zuten zinta dantza, beste denak konfundittu intzian. Ayen poza umiak! Lezoa etorri zienian, gurasuak zai eta... umian poza! Gerra etorri zen eta joan giñen Donostira lehen ateraldiyan, atia itxi itxekua, giltza artu ta guentzako bear genittun arropak artuta. Zeatik denbora gutxirako esaten tzuten izango zela ua. Donostiyan egun batzu in genittun ta bestiak ara, falangiak eta reketiak eta, Lezoa sartu zianian batek ola galdetu mentzun “¿La familia Gezala donde vive?”. Arrapatu izan baziguten! Donostitik jungiñan Plentzira, ara re aldeatzen asi zianian Bilbaora. Santurcen itxe utza bazen ta an gaudela denbora aurea ta aurea, bonbardeuak an bertan e bai. “Emendik noa jungo gea?”



### **Eta gerra ondoren Hego Euskal Herrira itzultzean desterratu egin zintuzten, ezta?**

Ba al dakizu zein gauzak nittun? (Desterratzeko) “Sentencia firme y que no se podía revocar”, ezin zela beste sententzi bat in zeatzeko, Panplonan in zuten sententziya nei deuse galdetu gabe eta Salamanca bialdu ziaten esanez “te castigamos a tantos años de destierro inhabilitada...” Ba al dakizu zer gauzak zien? “Que era socia de emakumes, que tenía una escuela separatista, que hacía propaganda separatista enseñando bailes vascos a los niños”, eta laugarrena beste txokei bat. Ta orregatik “sólo podía venir aquí solicitando el indulto”.

### **Beraz, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna familia bidez jaso zenituzten, ezta?**

Gue attak eakusten zizkigun, attak guei dena zeatu digu ta, klaro, ikusten genun bayetz, ola zela ta ortan segi genuen guk. Gurasotatik seme-alabeta zeatzen zen oi. Gue izenak, gue Luke jayo biñon, gue Luke jayotzeko zeon eta izenak euskeraz jartzeko baimena, gue attak jakindu zuen erregiak emango zuela baimena izen euskaldunak jartzeko juzgadian e. Luke jayo eta egun batzutan eondu zien batayatu gabe, zeatik len eun batetik bestea batayatzten zien, baimen oi etorri arte. Etorri zen baimena eta Luke da Lezon lenengo euskerazko izena duna juzgadian. Luke Estepane, Estefania Nieton besotakua, eta geo arren urren ni izandu nitzan, Miren Zaintzane Josebe, Maria Patrocinio kastillanoz, bestia Elixabete Inese, geo bestia Sorkunde Garbiñe Koldobike, geo bestia Polentzi eta bestia Sabin Iñaki. Denak euskaraz. Ta gerra denbuan, gu bueltatzeako denak kanbiatuak zeozten. Ez zen izen euskaldunik juzgadian.

## **5.2.- JOXE MIGEL TREKU (1920)**

### **Nola bizi zen abertzaletasuna gerraurrean?**

Orduko abertzaliak, Primo de Riveran garaiko abertzaliak, eyian itten zuten billera, beyan ipurdiyan, noski, ikurriña jarri paetian ta an.

Oandik bizi duk oi esantakua, Patxi Arriaga, oi oso pertzegittua izandu yun.

Orduan kanta asko ikasi genixkin guk, garai artan, Republika etorritakuan, kalia kantatzen genixkin, e, mutikoskorrak, amaika urte, amabi, amairu. Ni akolito nioken alare ta, “Laxter ikusiko degu Euzkadi Askatuta, eta belarrimotzak oinpian artuta, oinpian artuta, Euzkadi askatuta, Euzkadi askatuta”. Orduko kontuak ttuk oik. Kantatu asko, “gu españiarrak gerala, gu españiarrak gerala gezurra diyote, bi amaren semiak egin nai digute” oik denak kantatzen genixkin guk.

### **Gogoratzen al duzu euskara edo abertzaleen kontrako jazarpenik?**

Bueno, orduan (Frankismo garaian) es yuken iñor moitzen, miño lengo kontuakin bai, kartzelatuak eta bai, Lezon biarba es ainbeste, baño, battuken, bai, oi!, se esango dit nik iri, Xenon bat, Mikelen osaba, Martixkonekua, Akilinan gizona bat, bestia, Txularra bea re bai, sea, Patrxio, oi eskapo, bueno, iisi in ziken orrek zeara, bestealdian eondu yuken, iru o lau urte o eondu yuken, beste aldian, bai, bueno, bai, eta Fernando Intxaurrandieta re bai, Joxe Intxaurrandieta, Joxe Intxaurrandieta, oik aintzindariyak ttuken orduan, oyek komitian ttuken orduan, bai, ta linbisiko gudaritakuak gañea oik, Itxarkundian, Illari bea...

### **Nola zegoen hezkuntza gerraurrean?**

Miren Gezalak, republika eskeo, eskola ikastolan moura jarri ziken. Oan nola do Arrutin denda? Or. Austiña Lizarazuk e bai. Kanpokuak battuken orduan Lezon, orduan bai baizien emen fabrikak. Lezon fabrika batzuek battuken orduan eta kanpotikan, Errenteira geyo noski, Lezoa, de bai. Eta kanpotik etorritako oyen denan umiak euskeraz ikasitteken guk bezela, igual igual.

### **Zer gogoratzen duzu Agustina Lizarazurena?**

Oan Elortzak tallerra dakan ortan. Leno goyan menyun, miño ni bian asi niñun. Ta geo ziken gaña kartzela bat, gaxtakeyan ibiltzen

giñanian ara, biño bea eyun kapaz, Auxtiña bea, ta “zeai deittuko yot, Fernandoi!”, orduan Fernando aundiyogua gu baño, “Fernandoi deittukoyot!”. Ta orduan eakutzi ziguken arek denetik, noski, dotriña, baita kontatzen e, “bat, bi, hiru...”, gauza asko, kantzak e bai, euskerazkuak. Orrek artutzen tzizkin bein irubat urte ezkeo o ola, ta orrea, ta gurasuak e, goizetikan eta arratzaldetikan, goizian enak guatzen ze ordutatikan ta, klaro, gu an giñan bitartian ama ta lanak itteko ta libre ta geo etzekit zenbat sos patzen genittun illian, gutxi.

### **Eskolan zigortzen al zuten euskaraz aritzeagatik?**

Amak esanda zakit nik anillua nola jartzen ziyoten biatzian kastingatuta euskaraz itten tzuten bakotxian, ta geo besten batek itten bazun arei pasa biar. Oi dena amak, amai egiña kastigoz euskeraz ittiangatikan.

### **Eta zuei, galerazten al zizueten?**

Ez, esan bai biño, ezin tzitteken, ezta Francon denbuane, emen esaten zitteken galazi zutela, bai, ofizialmente galaziko zuten, iñoa ofizineta joanta bai, biño guk kalian eta, euskeraz segitzen genin.

Esaten zitteken, bai, erderaz in biar zela, baño, gue denboan, eskolan asi nitzanian, sei urtekin o, an denetik giñattuken, len esan diten bezela kanpokuak eta emenguak, emenguak geinak noski, kanpokuak battuken biño gutxi, baño elkarrekin euskeraz itten geniken. Atentziyua deitzen ziguteken baño alperrik.

Geo battuken, bai, maiso euskaldunak battuken geo, biño etzitteken euskeaz itten, oandik Republika denboan e etzitteken euskeaz itteko seik, bueno. Maixuak Mondraotarrak genixkin bi.

### **Nola izan zen ikastolaren sorrera?**

Gu izandu giñattuken lenbizikuak, nei esan ziaken Don Inaziok, “oan ikastolak jarri ber dia”, Joxe Esnaola ta, alegiñetan asi giñattuken gu. Ta orduan zioken Manoli Larrea, be moura ibiltzen yuken ua ta Sorotxo pelukeya don tokiyan, or ziken ikastola, ta or asi giñattuken arekin batea baño aldatu biarra ziokele aren jokaera egunian jartzeko.

Arek eamaten tzun be moura ta arek etzin errendittu nai, ta komeyak izandu genixkin. Geo kanpotik etorri ttuken guei esatea nola zeatu, Don Inazioe bai, an izaten yuken. Geo, ya, guk asiera eman ta geo Joxeba Urkizu ta Mikel Martixkonekua re bai ta. Geo Markesania edo Lezo-Haundin in geniken zea bat, ikastola bat, prefabrikatu oitakua. Ta orduan gaña, Joxeba ibili yun geina, ta ni geina, oandik baixkit lixtak, ibiltze niyun kobratzen ikastolako bazkidiai.

### **Argia aldizkariak zer gogoratzen duzu?**

Asieran ez yun saltzalleik, geo, saltzalle bat sortu yuken, Iñaxio “Zikirua”, goatzen nak gaña nola esaten zen “*Argia*, periodiko saltzalle berria!” esaten tziken kalian, ta kalian ibiltzen yuken saltzen, bai.

### **Asko salduko zuen beraz?**

Bai, asko, basarritako kontuak eta asko ekartzen zixkin, eta Lezokuak de bai. Geo battuken rebistak, Karmeldarrak eta, oike euskeraz ttuken. Arantzazuko egutegiyan aurretik bayuken bestia, *Argiak* o ateatzen zuna. Gue itxian beti eoten yuken, ola ttiki bat.

### **Eta inguruko herriak nolakoak ziren?**

Diferentzi aundiya yuken Lezotik Errenteira, ze esangoit nik iri, muralla bat bezela, Lezokin konparatuz ua, erdal-erriya ua orduane. Ango mutillak onea etortzen ttuken eta beste pertzona batzuek baliake bezela, ya euskeraz ettuken mintzatzen e, ta ne garayian e, euskeraz izango ttuken baño, gutxi. Lezon etorri ta denak euskeraz ta Errenteyan ez. Ta Antxon ze esanik ez. Antxo erri berriya baita, gue attak isautu ziken erriyoi itten eta lintzira zela leno. Sanjuanen euskeraz Lezon bezela, ez, emen bezela eyun itten, orduan isautu itten giñattuken nunguak giñan, Sanjuanguak eta Sanpedrokuak berdintxu itten ttek...

### **Nolakoa zen orduko Lezoko baserri aldea?**

Orduan baserritarrak zea aundiya zitteken, kofradiyak eta, izaten zizkitteken ben gauza, sanjuanguake, angu baserritar pixarrake onea etortzen ttuken, Lezokin. Orduan basarritan erriyan bertan aña jende

bizi yuken. Orduan, gue garayian, etzakit, bi milla exkax o ola isango ttuken biztanliak, ta basarritan erdiyak, basarriyak geinak bi bizitzetakuak baizien, ta jendia ugari, baserritarrak asko ttuken.

### **Zein sendagile ezagutu dituzu?**

Meikuak? Meikuak oañ arte isautu ttutenak, bueno, urte askuan sea, Don Pedro Barrios, kastillanua, eniyun eoten ni, miño oso, sea, estimatua yun, ala ta gustis e, juan itten yun ua basarritata oñes, takatakata, ta zaartuta re, itxeta deneta juaten yuken, zea, Don Pedro Barrios oi. Zean eondu yun apopilo, mutilsarra sela usteit, enin seguru esango, bai, Indionekuak jakingo ttek, baita Gezalanekuak e bai, oik orkuak ttuk denak eta, galdetu ezkeo, biño, detallioyek, ba, ua urte askuan, gue ama il zenian e, ua yuken meikua. Geo asi yuken, igual memori txarra dit nik... Unanue, abertzalia gaña oi, oan il berriya duk larogeitamasei urtekin o, ua isandu dit nik oain duten au arte, Nuñes o dalakuoi den arte, zen arte, oañ bestegañekuak zioztek, oañ emakume bat zio, eta bueno, igual duk, ua bat, euskalduna, meikuak, gañekuan bestia Gala o dalakuoi, oi kastillanua yun oide.

### **Eta sendagile erdaldunarekin jendeak ez al zuen arazorik izaten?**

Oixe! Oixe! Gue atta bat esin joango yun, etzin miñik isandu azkeneko urt... beñe meikoa... biño, intzaun kontu ba gue attan moukuak, area juan ta etzekittek!, gue attak kastillanoz etzakiken, ta gue amak esatentzioken makiña bat aldiz, zu beti kastillano tartian, or kastillano kudrillak baizian or pintura fabrikan, geinak Errenteyan bisitze ttun miño orrea tortzen ttuken ta, kastillano tartian ta ik kastillanoz ikasi ez? Kalian gañian beti, ta eskolatik piper in, beti eskola joan gabe, bueno, ta. Orduan, aleya, girua ezpaizen alakua, gue amak bazakiken bai zerbatte, baño, aren aldian zea.... nola esango nitek nik iri, ba, ilustratuaguoo, bai,...

### **Eta alguazilak?**

A! aguazilla bat izandu genin euskalduna, zea arte, uare detenittuta eman tzitteken karlista zelakoz, arrek *La Constancia* artzen ziken,

karlixtana. Bueno, bai, biño euskalduna, Goyerrikua yuken, etzekit nungua, mutiltzarra. Ua sean eoteyun, Manuelenea deitze geniyon tabernai, nola esango niked oaiñ, belardenda nola do oaiñ, or eoteyun apopilo, or taberna yun orduane, ta Manuelena deitzen genioken. Or eoten yun bastoyakin, miño erresetua?, gaurko aguazil guziyak miño geyo!, joe!, zakurra de baziken angua, bertako tabernakua, Mokre ziken izena, Mokre, arrekin ibiltzeyun, zakurrakin beti, bo, zakurrak segi ittesioken ta karo. Ikusten zigunian kamiyuan ola baloyakin o, baloya kendu ta, ta potoketan e, ua tortze zenian... aguazilla!, aguazilla! denak eskapo, erresetua, oi gauza, e? Ta aguazil bat bakarra yun, serenoik ez yun leno, geo nik ezautu niken serenua, linbiziko serenua zea isandu yuken, a, bai, barkatu, bayun, bai, jarri zitteken, etzakit Errepublikan denbuan o aurretik, nola, ua eyun zea, abertzalia, e, Felix Arriagan illoban, zea, Sebastian Sein, oi sereno, jarri suten, or ... gauero-gauero sereno, oi linbisiko serenua isautu nuna. Geo Izetana, sea, Joxe Izeta, arreke, barrendero ta zean i, zea, kanposantuan zuluak eta arrek itten xixkin, enterratu o, lurperatu ta dena, bai, ta lenuotikan e battuken geyore... bai. Momentuan oi guatzen nak, e, aurrekuak ezin esango dixkit oan, ya aurreatu nak eta. Eta bueno, oi, oi izandu yun serenua... ta aguasillak orduan ya asi yuken aguasilla bat orduan. Bat o bi, etzekit senbat jarri zittuzten, bat aguasil txikiya deitzen geniyona, sea, naparra, ee, Paolanekuakin eskondu yuken, bueno, bai, Larral, or Estella inguruko ortakua, etzekit... Euskeras ezta pentzatu re, ta geoztikan kastillanauak aguazil guziyak eta barrenderuak e kastillanauak ttuken orduan, orduan emengo, emenguak etzitteken nai, bestela lana bai baisen orduan, ta oi bajeza iruitzen zitzayoteken, gaur berriz, nola dien gausak e?.

### **Lezon izen ona zuten familiak euskaraz ala erdaraz aritzen ziren?**

Denak euskeraz, gaur beste aldea gertatzen duk, gaurko senar-emazte gaztiak, bai nobiyotan diela, ta bai geore, erderaz itten ttek beak, oi duk oi pekatua izugarriya. Orduan ez, orduan ez, ez, eyun olako giroik, nei esan tziaken batek kartzelan, lenuotik falangista

isandua miño geo komunixta, ba, igual duk, esan ziaken: “oye Treku, “¿cómo piensas tu?”, “¿cómo “pensar?””(nik), “¿En euskera o en castellano?” (berak), “¿cómo voy a pensar yo? en euskera”. “¡Jode, teneis toda la razón del mundo para ser independientes!” esan tzieken. Oi goguan tzakat oandik, oi esan tzieken, orrekin esan nai niked emen dena euskeraz, pentzatu re ez, ezta, ezta bikayua, be españolista gusiyan e, gukin, sekulan, ezta zeature, intentatu o nola esango yeu. Bueno neskak asi ttuken emen e lenbisi erdaraa jotzen, inportantziya emateatik, Errenteira joan ta, joño!, euskeraz de aitziorrek eta, e, dantzan o baltzian ta ibiltzia, koño ba... Neskak isandu ttuken aurrelayak, erdera zeatu zutenak, ta bueno, oi bajeza iruitzen, zea, bai, baserritarra, “kaxeros”, ta ni beti txikitatikan seoi, joo, berriz ze esango dit nik, erri maitasuna beti, ola.

### **Eta lantegi berriekin etorkinak etortzen asi zirenean zein aldaketa ezagutu zenuen?**

Bai, oi, orduan bai, orduan erdara ya geyo, noski.

### **Aldaketa azkarra izan al zen?**

Bueno, emen bertakua, bueno, seoser bai, noski, maño, oandikarenen es ainbestaño, baño bai, kutzatu, noski ba, geo ango, semealaba, bueno, ango etorkiñan semiak o alabakin ta asko, ba, bakik, eskondu ta abar ta. Ya, ya, asi yuken ya naasten ta ingurutakukin, kanpotik jende asko torri yun bai orduan, eske emen orduan lana, fabrika asko baisenta, denetan lana ta, jendia falta, ta etzioteken beitzen zer. Orduane, ni goatzenak Luzuriaga batetikan bialdu itten xixkitten jende billa zeara, Estremadura ta, Andaluzira ta, jende billa i, joo!, nik orduan e sentitzen nin oi dena, baño...

### **Aldaketa urte gutxitan gertatu zen...**

Noski, lenbisiko zean asi ttuken oik, itxiak, e, ljurkokuortan, noski, ala usteit. Oi dena saardiya yun leno, esan dit, es?, bueno, or, in xixkitten, Leturianak ttuken oik, bueno, ba or in zittustenian, jo, oik. Ta nola lana zeon, ta jendia, ba, joño, ba, ta geo gañekuak in

xixkitteken bastarrekuoik, oik nola oañe Tiñelu ta dalakuoik eta oik geo, andik laxter igual, bai. Enak guatzen, aurrekuak igual guatukonak, paño oik, naiz, zeoguk izan, berriyak izan oaindikan, igual noiz in zien enak guatzen, baño, bai, joe, ta geo, bai orduan jendia bisitzea, noski, lana. Naista Errenteyan isan, nais Leson isan, joño!, ta Orbegozo jarri sutenian e, bakik, bakik, ba jendia area, orduane Zumarragatik kanpoko jendia re bayun orduan ta emen andik etorritako kanpoko jendiak, eta denak, eta denak emen jarri ttuken da ya soka, soka, soka, ta. Estuk arritzekua ua alde batetik biño, ala ta gustiz e, katalanak bezela bagiñake ez giñattuken ola eongo, mail ontan, es baigea alakuak.

### 5.3.- INAXIO ARTOLA (1913)

#### **Gerraurrean zein giro zegoen Lezon? Bai al zegoen giro euskaltzalerik?**

Euskaltzale girua zan jatorrizkua, ez zan esan bearrikan au in biar da eta oi in biar da euskeran alde. Jatorrizkua zan, naitanaiez euskaraz itz in biar zelako. Erri danak zakiyen euskeraz eta gerraurretikan ba izango zen, ez dakit ba oain esateko, bost-sei famili erdaldunak, geyago ez, eta lenagotikane bazien, eta ayek danak euskaldundu egin ziran gue artian. Zeatikan erriyan euskera baizen, euskara bakarrik baizen itzegiten zana itxetik kanpoa ta itxian ze esanik ez, orduan ayek bearitzen ziran, mutillen tarteta joaten ziren eskolatik aterata, errekreoa zala, beste jolasak ziela... dana euskaraz, dana euskaraz bertako mutillak eta ayek denak euskaldundu intzien, gazte jendia eta gurasuak e bai asko.

Elizkizunak danak euskeraz, eta (...) irakasliak edo maisuak ziran danak erdaldunak, danak zein biño zein erdaldunagoak, eunetik eun, el cien por cien erdaldunak eta neskan irakasle batek, aidanian, Bikayo jaunai esan ziyon alegia, elizan zeozer erdaraz in biar zuela. Izan zian bi-iru laun eliza joaten zianak erdaldunak, geyo ez, bea bat eta geo ez dakit zein geyo. Eta bikayuak pulpitotik esan zuen, argi eta



garbi, erri guziyai esantziyon, alegia nola esan zioten elizan erdara itzeinbiartzala, ta arek erantzun ementziyon ori esantziyonai, “bueno, zuek erdaldunak eliza ekartzen saiatzen zeaten bezela, ni saiatuko naiz erdara elizan sartzen”. Ez baizen iñorre joaten elizara, kanpotik etortzen zana. Ua joaten zan irakaslia zalako bera.

### **Bikario zaharra ez zen ba oso euskaltzalea?**

Ez zen baña, babaizittun arrazoi filosofikuak arrek. Logikua esan zun arrek arrazoya, “erdaldunik eztuk emen iñorre etortzen ta nik emen zenei in ber tziot erderaz?”. Kuña ura sartu zuan irakasle arek ayek konsigna ekartzen baizuten ba, emengo jendia erdaldundu in ber zala, “hay que españolizar”, orduan politikaik etzan baño konsigna oi bazuten denak. Zeatik guk genuna re, ez dakit nungoa zan, eta beti alako kuñak sartze zitun. Españolak, españolak giñala. Ez zan diskusiyoik izaten, bakotxak bere tokiyan ta guk kontu guriai. Ta guk, jakiña, joaten giñan eskolara, denak euskeraz, “aizak, i!, eonai geldik! Bai! Ez!...”, maixua ixil-ixilik eoten zan. Ni asi nintzan ayuntamentuan, udaletxian zen eskola, oan Lezo-Haundin dagon ori zan orduan. Maisua Antunez, noizik eta behin reglakin jotze zun maya, tapa! “Silencio!” Ta nik burua altxa ta beida, baztar guzita beida ta, “koño! eztek ba moimentuik deuse”, ta geo andik bi o iru eunea berrize, zapla! ta “Silencio!”, ta “nonbatte azalduko duk ba” ta inor azaltzen ez. Itxian esan niyoten ola ta ola, “maisua Silencio deitzen du ta ezta iñor joaten”, “ta ik ze uste duk ba?”, ta “norbatte, mutillen bat dela Silencio izena daukana eta an deitzen diola ta...” “A, ja, ja” itxian an farrez danak eta “ez orrek esan nai dik ixilik eoteko” ta, “bueno, bueno, ondo do”. Ni orduan asiya eskolan, el año veinte, zazpi urtekin.

### **Antzerkiaz zer gogoratzen duzu?**

Batzokian izate zan eta elizan ere bai, eguarritan eta karnabaletan izaten zan antzerkiya eta geo botzen zuten zine xelebren bat, ta gu ume koskorak ta gu txoratzen joaten giñan ua ikustea. Geo batzokiyan bai, batzokiyan maiz izaten zan antzerkiya, eta euskeraz.

### **Republikanoak kanpokoak al ziren?**

Geinak bai, geinak bai, erriko semiak izango ziren batzuek, baño gutxi, gutxi republikano ola deklaratuak zianak.

### **Jendeak irakurtzen al zituen herriko idazleek idatzitakoak?**

Bai, bai, gue itxian artzen zan Argia, danak exeri ta batek “ara ze jarzen dun emen” ta, irakurtzen zan ta, inportantziya zuen orrek eta baitare Arantzazuko egutegiya, ta Arantzazukoa baño leen, gerraurrekua re bazen euskalduna, ua eztaikit zenek ateatzen zun. Ta arek e, be inportantzi aundiya zun. Kultura sartu itten zuten, orri batian zer sartuko da ba euskeran gañian? Ezer askoik ez, baño ua an zagon, ua an zagon. Eta geo bazan beste bat, “*Zeruko Argia*”, oi kaputxinuak atzeratzen zuten, Panplonan ateratzen zuten, ua re oso euskalduna zan. Asi ta buka, euskara utsa. Oitamaseiko gerra torri zanian oi delitua zan, ia euskeraz itzaitia re, kontuz! Ta itxian ta erriyan bai biño ortik kanpoa ez nabarmendu geyegi, zeatik giza txar batek aski zan esatia, bai au beti euskeraz aida ta... eskua igual botako ziyoten ta.

### **Eta zenbatek irakurtzen zuten *Argia*?**

Zenbat ez nizuke esango baña, Lezon naiko zabaldua zagon.

### **Eta etxean nola jaso zenuten euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna?**

Guk orduan, ne senidiak, arrebak, bat bintzat, batzokiyan da asko ibiltze zan da zeaikitten, antzerkiyak itten da abar, ta, oi zala meriyo ta, geo olako amorpropiyua datorrena barrendikan e bai. Kontu arrei, kontu euskaldun izateai, kontu barrendik bultzada orrei. Zeatik emen etorri zen zea, oitabiyan eman zuen diktadura Primo de Riverak, kolpia eman zuen eta arrek itxi zittun batzokiya eta danak, fuera! Zearo itxi zitun, eta euskerako idazkerak eta denak. Eta batian etorri zen, gue ama Ataungua zan, arren lenguso bat, tortze zan, maiz etortze zan, itzua zan, maiz etortze zan meikota Donostira ta. Primo de Riveran zea oitako batian, erriyan, orduan bai baizian “Fiestas oficiales”, “Dos

de Mayo”, Maiatzen bia ta, urriaren amabia ta (...) errian, udaletxian bandera, “bai, gaur jai erdiya da ta eztakizer ta bakizer ta, zer da ta Madriden eztakizer pasa zala noizpatte gerra denboan ta, ixtoriya, ta dos de mayo ta, bandera española. Guk itxian, zerbatte, ba!, bandera ori jarri o ez jarri ta ola despreziyua o zea in geniyon ta Ataundik etorritako ori, Karlixta izaki, Ataanguak ala izan biar zuten ba, ta ua arrunt ofendittua, guk kontra in ta arren disgustua! Guk ez genula ezer jakin nai bandera españolakin ta ixtoriyak in ta, arren disgustua!

### **Herrian abertzaleak nabarmen agertzen al ziren?**

Bai, bai, gu ala gattuk eta aurrea, erriyan aurrian lotzatu gabe. Ni bein gertatu nitzan, poliziana Antxoa fabrikako gora-berak ziala, zebatte esatea, deklaraziya ittea, ta junitzan da, lemiziko galdera: “Bueno, ¿Qué ha sido usted durante la República?” “Pues yo nada, un vasco”. “¿Y usted qué afiliación ha tenido?” “Yo la única afiliación que he tenido ha sido al ELA, a Solidaridad de Trabajadores Vascos”. Arrek zerbatte aittua zun ta, “Bueno, bueno, eso hay que dejar y hay que ser más españoles”. ELAk indarra dezentia zun.

### **Eta soldaduzkan?**

Gue anayak kontatzen zun gauz orren gañian, ba, etzakila erderaz, etzakila eztakizer, idazten etzakila, bazakila, ta mutilla Oyartzungo bat, eta eun batian asi da idazten itxea karta, ta euskeraz, ta tenientiak atzetikan ikusi du. Bizkarretik beiratu ta, “y, biño y ze ayaz emen?, eztakikela idazten ta, eztakikela”, klaro erdaraz bazakinik ezin tziyon esan zeatik euskeraz aizan, “ze jartzen aiyaz? Zer duk or jartzen aiyazen oi?” ta “Au? Itxea idazten ainazela euskeraz”. “Ik eztakikela deuse, ta ik beste iñok baño geyo dakik!” Zerbatte, jipoyen bat eman ta zea-tua izan biar zun, zigortua.

### **Zer gogoratzen duzu Agustina Lizarazuren eskolaz?**

Ni or asi nitzan ta joaten giñan, ba oan, nola esango nuke, joaten dia ba aurtzandegira o, eaman, bost, sei, lau urtekuak, denak orrea eaman, Auxtiñana eaman. Ta or geo, ejua ta kanta ta dena euskeraz.

Eta kantari eakutzi zigun bat elizako otoitzak eta abar, ta kantatu ez, biño eakutzi iten zitun. Dena ortako zan ua, ortako zan ua batik bat, relijiyoko zea eakusteko aurrei. Ni an asi nitzan aurreneko ta leno esan deana, orduan eliza e ematen zuten jayero-jayero dotriñako zea, eta dotriñak zian bi kategori o bi mallakuak, bat zan ttikiya, zazpi-zortzi-beatzi urte edo ola, geo, aundiyagoa pasa ber zen amar-amaika-amabi urte. Zortzi-beatzi urtekin, “ama! dotriña ttikiya dena ikasi dut!”, ta amak “Joño! Marka earra in duk!”. Eta orduan “literalmente” ikasi biar zan liburuxkak jartzen zuana, dena esan biar zan. Galdera itten zun eta, ta-ta-ta. Euskera utzian.

### **Gogoratzen al dituzu Arizti-Berriko jaialdia?**

Bai, bai, bueno, oi zean, Republikako denboan ta, bai, zeak, batzokiyak eraten zuen. Basarriko jendiai pixkat animatzeko ta, biltzeko danak alkarrengana ta, itzaldiya zala ta dantzan batzuek ziala ta, ola, festa bat bezala iten zan. Ni Jaxkibelgoa joaten nitzan, Letekoa. An sanjuandarrak iten zuten, an e itzaldiya ta dantza ta txistua ta, euskara giruan zala ta ola.

### **Udaletxean zinegotziek zein hizkuntzatan egiten zuten?**

Or naitanaiez in biar zen euskeraz zeatikan udaletxeko zinegotzi asko zian erdaraz ez zakitenak, naitanaiez ta nik uste geyena geyena euskara utzian egiten zala, zeatikan sekretayua de euskalduna zen. Gerra ondoren sekretayua ezin zan izan erriko semia, estadutik etortzen zana, ta geo ua izaten zan “un cacique”, alkatiak arrek esaten zuena in biar zuen.

## **5.4.- MELINTON GARMENDIA (1917)**

### **Gerraurrean zein giro zegoen Lezon?**

#### **Zer gogoratzen duzu?**

Pixkabat bat, pixkabat bai, bai. Ba ni goatzen naz, orduan emen tzan ba euskaldunak bezela, ba, peneubeko jendia, peneubeko partidua

ibiltzentzan gañekuak emen ba. Erderaz itten duten jendia geyena zan ezkerrekua, sozialista, o komunista o, o ceneteko jendia, cenetekua. Lezon etzan, esate bateako. Oañ, republikanua eta socialista jendia bastante bazan, bai. Zentrua emen, gue itxia, bizi gean ontan beroxio bertan tzeon, eta or biltzen zien oyek beak. Eta emen goatzen naz ni sanjuanetako jayetako bezperan ba lizarra jartzen da, Lesoko plazan erdi-erdiyan eta lizarra, lizarran muturrian jarri nai isaten zuten euskaldun jendiak, o peneubeko jendiak ikurriña eta sozialistak, berriz, esaten zuten, “ez, jarri ber da emen española goitik eta inkurriña jarriko da bero” eta ala in zuten. Sesiyan ibillita lesoko gastiak jaso suten lizar ori inkurriña goyan zuela eta bandera republikanua, garayartan zena, jarri zan beroxio, jarri zuten, esto, ardaxka batzuek beroxioago. Bañan etzien konforme, etorri zien mordoska bat, eta esan zuten sozialista o Republikano jendiorrek, “i, oi bera, emen Españiyan gauzek eta or española jarri ber dek goyan ta inkurriña bian”, ta zugaitza, o zeori, atea in zuten ipurditik eta berrize jarri plazan. Koperatibako orreaño jetxi zan eta an in zuten kanbiatu. Biñon emengo mutillak berrize kendu ziyoten eskutik eta jarri zuten inkurriña goyan eta gelditu zen beriartan, bai.

### **Republikanoak lezotarrak al ziren?**

Bai, bai, batzuk Errentetik etorriyak e bai, biño lezotarrak e bazian, Lezoko jendia re bazan, bai, bai.

### **Lezokoak zenbat ziren?**

Gutxinekoak ziren, euskaldun jendia geyo zen. Euskaldun jendia o, emengo, guk orduan esaten geniyon emengo gaztai mendigoizale jendia, geyo sen, ta aik in zuten beana, beak ekarri zuten lizarra eta beana in zuten ayek, orduan garai artan, bai, ala da ori.

### **Herriak nola bizi izan zuen gertaera hori?**

Ez, jendiak, edadeko jendiak eta ikusten zuen ondo iña Lesoko gaztiak ayengatikanen. Bai, gañekuan emen etzan sesiyoik eta sortzen, olako momentutan bai, berezi batzutan, o. Republikako egunian

ateatzen zien beak emendik zentrotikanen beren banderak o beren inkurriñakin, banderak zittuzten ayek. Ayei bandera esaten geniyon, inkurriña guria bakarra, eta in zittuzten bere manifeztaziyo eta gauzak biño etzan ola sesio andiyik izaten. Emen pixkat ibili zien geo treintaiseisko garayartan, orduan bai, orduan izaandu zien emengo ixkanbilla batzuek tartian bañan ez, neiko, neiko ixilikanen pasa zien gauzak, esan nai nuke neiko arregluan pasa ziela, eta badakigu orduan nola jarri zittuzten batzuek erretiratzeko garayian emendikanen, seatik Lesoko jayan inguruan o zen...

### **Santakruz egunean, ezta?**

Bezperan, bi eun lenuotik o, bezperan, bezperan bi eun lenuotik o or ibiliko zen, eta ikusi genittun nola jarri zittuzten emen kalderak gasolinakin ta tubo batzuek dinamitaz betiak eta lertzeko ta elizai ta jarri ber zizkatela ta ibili zien sesiyuan orduan momentuartan. Orduan bai, lezokuak gor in ziyoten, Illari ta be laun artiak eta gor in ziyoten eta geo, denak joan zien garayian lezoko jendiak in tzittun artu eta emen atzian kayan, Polentxarreneko basarri zar bat bazen ta arren inguruan, Xaguanekuak ibiltzen zuten baratza bat o zelaya. Artoselayak eta zittuzten or, eta artozelayan tartian sartu zittuzten, arto tartian sartu zian dinamitak eta latak gasolinakin eta denakin. Gu mutikoskorak giñala, jolasian gabiltzala batian sartu giñan ara urrungo egunian eta an ikusi genittuen denak eta esan genuen eta jaso in zittuzten denak andikanen, bai, geo nacionalak Santakruz egunian etorri zien ta ala pasa zen emengo ixtoriya.

### **Zu joan al zinen ongi etorria ematera Gaintzurizketara?**

Eman in ziguten, bai, mutikoskorak giñan gu, ta seitako mezara joan giñan, gu, seitako mezea joan giñan eta esan ziguten aldaretikarenen: “Bueno, oan denak emendik ateratzian joan ber degu Gantxusketa bidera eta ongietorriya eman ber zayote reketiai”, ta au ta ura ta abar aittu zien izketan, ala, artu ziguten denai, eta eman ziguten Gantxusketako birea, bai, emengo apeiza Don Luis Garmendia zenak, eta Inaxio Pikabea ta...

## Bikario zaharra ere bai?

Bikayua etzan emen, ez zen, ua lenuotikan aldeña zen, lenuotikan aldeña zen. Emen ibiltzen zan trimotor bat lenotik, eta etortzen zan Ayako arriko gañortan barrena onea pasten zan. Emen bonbak bota zittuen zentro republikanoko inguruan, espaloyan sartu zuen, nere osaba bat eta nere lengusu bat il zittuen arrek, geo or elizai re bai beste bat sartu ziyon paretian, bat, txikiña zen... “Bomba, aviación roja” jarri zuen gure bikayo jaunak eta ala eondu zen urtietan kendu zen arte. Zuluua etzan bate aundiya, biño ttikiya in zuen arriyian. Ala ba joan giñan Gantxusketa biriorta eta Txatxamendiko gañeaño joan giñan inor ikusi be, eta ara azaldu giñanian ejuka asi zian andik apeisak eta. Emengo beste Lesoko gizon batzuek asisien ejuka “viva Navarra” eta “viva los requetes y viva los valientes requetes de Navarra “ y tal. Eta etorri zian Juanmartiñeko gañortatik batzuek, denboraz etorri zian bera oañ gasolinera itten ai dianeko zokuorta torri zien. Arbolak bazeozten orduan, zugaitz arbolak zeozten orduan ba or aitzak, aitz aundi batzuek, ayen atzian jarri zien beak, reketiak eta guri,... “Ara guasen” jendiai esan ziguten, “bueno, qué, como veniais..., recibimientos y tal y cual” emengo jendiak itz ein zuen, apeizak eta. Emendik joan zien gizon batzuek itz ein zuten aikin, ayen manduakin. Etorri zen teniente coronel bat, eta kapitan bat eta abar, itz ein zuten eta “sí, pues ya se han largau, ya se han ido del pueblo, esta libre el pueblo, ya pueden ustedes bajar” esan ziyoten eta gui bitartian zeintziguten? Artu danai eta Gantxusketako gañeaño eaman, “en caso de que sea verdad vale, y si no ya veremos lo que pasa”. Gukin joan zen orduan, guk Indionia esaten yogu, Gure Bordako itxiorrei, eta orko seme bat joan zan zaldi baten gañian, Pontxio, etzeola ondo ta zaldi baten gañian, eta ofizialak, teniente koronelak, esan ziyon, “oye, ¿me dejas el caballo para que suba ahí arriba a Jaizkibel para decir a los otros que bajen y tal, al pueblo?” Ara joan zen ofiziala saldi gañian eta ua gukin Gantxusketa. Ara joan giñan, Gantxusketako gañian exeita jarri ziguten kamiyuan, ogiya eman ziguten zuriya, beste sardiña lata batzuek e bai, ta ua jan arte an eondu giñan. Bitartian etorri zien tropak Irun

aiekatikanen, kaballeiia ta oñez e bai krixton pilla eta gu bitartian an denak, zer gertatuko zan, seatik esaten zuten “i, gu emen prisioneruarak bezela gauzek oan, seoserre pasatzen balin bada or, patrullan bat o beste arrapatzen baute guei emango zigutek jipoya auek”. Eta ola izketan aittu giñen da abar an da andik bintzat bi-iru ordura esan ziguten jexteko errira. Onea etorri giñan ta dena plaza betia zeon reketez, dena betia zeon, krixton pilla torri zen reketia eta andik bi eunea o aldeintzuten seittuan atzea. Or aurea joan zien, kostea aldea sea Oriyo, o aurriorta, ortik Zumaira, Deba o bitartiorta, orrea joantzien emendikanen. Gizon zar batzuek bazittusten tartian, ta nei esan zian batek: “oye, chaval, toma el paraguas de recuerdo”, esan zien, “y reza mucho por mí que no he querido venir yo pero me han arrestado p’al frente, me han dicho al frente o si no que me zurraban, o sea, que el forro me lo limpiaban” esan zien. Ala, joan zien, ta geo emen lasaitu giñan, etorri sien ofizialak eta abar ta juxtu-juxtu nei esan zian ofizial batek, zea, teniente koronela zela uste dut, eztaikit, koronela ezta uste, usteut tenientia zela, teniente koronela, ta esan zien: “oye, chaval, le conoces tú a Don Tiburcio Sarasola Pagola” “si señor, le conozco”, “pues vete a su casa y dile que venga al Ayuntamiento”. Ua jarri zuten alkate bezela orduan, bai, ta ola pasa zen au, emengo kontua, emengua.

### **Gerraurrean zein giro zegoen batzokiaren inguruan?**

Jendia asko ibiltzen zan, jendia asko ibiltzen zan, bai jendia ibiltzen zan garayartan emen, kultura aldetik. Eta geo batzokiak itten zuen beti, launbatero itten zuen o igandian emen azpiyan, bodegontan, dena osua baizen, itxian bodega osua zuten. Ezenayo bat zakaten eta teatrua ittentzuten or ta jendia ibiltzen da, an ondo ibiltzentzan, ta go, gañeko eunetan ba astelenetan da gazteiya biltzentzuten ba ezpata dantzak eta eskudantzak eta iteko, eakusten ziyoten bai, girua, bai, giro ona zeon, giro lasaya ta ona zeon, lenotik, reboluziyuorren aurretik. Reboluziyuan aurretik Errentetik etortzen zien eta or Bordatxon sagardoteya bazen eta batian goatzen naz ni gu eskolan gaudela moimentua zala emen ta zer ote zan, ataa giñan eskolatikanen, denak,



kanpoa bialdu ziguten. Ataa giñan, eta guardia asaltokuan autobusa joan zen bettigora or, Gantxusketako biriortan goiko kaskoaño eta ikusi genittun nola saltatatu zian. Autobusa irikiya zen dena orduan, goya lonakin ibiltzen baizen, ta lonak eta jatxiyakin, irikiya. Saltatu ttuken ta tiroka ibili ttuken an, Bordatxon. Eta esan zitteken Txingurri ta etzakit ze dinamita ta Errenteikuak an zeoztela zeatuak, komunix-tak bilduak zeoztela eta ayen reuniyon bat nunbatte usaya artu, o denuntziyen bat sartuta torri zien ayek. Ta tiruak in zittuzten eta zabaldu zien, bai, eta an jun zien Amonteneko, uste dut Amonteneko basarriyan sartu ziela ganauan tartian mutil aitakon batzuek eskapo. Ta ola joan tzien bai, eta gu mutikoskorak giñen bezela ordun Bordaberriko Gregoriok eta oyek esan ziguten, esaten ziguten: “jo i, bala batek adaska bat jota txikitu ziken, krixton adaska txikitu ziken” ta au ta ua ta ola. Antxen, aittu, gutzako, guk, karo, umiak eta gauza aundiya bezela, ilusiyuoi o. Geo gerranta ibili giñan Daitako gañeaño joan ta ikusten nola tiokatzen zuten zeatik, Arkaletikanen onea. Zeatik joatentzan lokomotora bat, Irundik etortzen zen obeto esateko, etortzen zan onea bera ta geo emendik joaten zan bueltan orrea, eta tirokatu itten zittuen trintxerak. Eta nonbatte eta andik, Arkaletikanen, botzen zizkaten tiruak, zeai, trenai, miño railakin forratua zeon dena, blindatua. Beste bat izandu zen, kamioya re bai karri zuten. Lezoa karri zuten kamioya, Pisbeko trasporteako, Pisbek, konpañia Pisbe, bakizu, bakallo fabrika ori Sanjuanen, orrek kamioi kozkor bat zuen, ortxe bost-sei tonelaakua o. Sei tonelaakua izangozen bai. Ta in zuten ura re blindatu txapakin Trintxerpen, Ugaldetxoa joan ta tiroka pasa, balak pasa ziyola ta denak etorri zien seittuan Lezoa: “¡!, hay que forrar esto porque, mecabendio, lo clavan” esan zutela beak, bai, ola orko porrustadak.

### **Zein ziren herrian abertzaleen buru?**

Orduan Salaberriatarrak eta zian emen, Salaberria, Rikardo Salaberria ta, Fermin ta, emen udaletxian orduan alkate Gezalatarrak zien, republikano o ola zien. Gezala, Joxe Gezala zen, or alkate ala zeon, eta emen nationalistak oyek zien. Biño Bixi-Bixiko jendioita,

emen sartuak zeozten batzuek eta, Berasartetarrak eta, Berasarte, Juanito Berasarte ta, oyek, oyek zien emen.

### **Zein kultur giro bizi zen gerraondoan?**

Girua? etzan ezer eta ixilikanen jendia, ixi-ixilikanen dena jendia, etzan ezerretako jendeik emen, kulturalmente... etzan ezerre, ezta ezerre, etzan ezerreiten.

### **Eta politikan?**

Politika aldiane gutxi, bai, pixkat ibilli zien emene, emakumiai ta pixkat illia moztu ber..., ta eztakit ze in ber zela. Ta gizonak e detenituta asko, oi bai, eta Francok etorri ber zuen garayian onea Donostira, etortzen zan asko, ua urtero etortzen zan orrea, ministerio de la jornada o orrea, Donostira, eta garayartan itten zittuzten leno gerratian ibilitako mutillak., e, ezkerraldetik, mendigoizale ta olakuak, ittentzittuzten jaso denoyek. Ematen zittuzten kartzela, ematen zittuzten amabost bat eguno pasatzea, ua emen zeon bitartian denak kartzelan pasten zuten oyek, giruoi bai, giruoi bazeon.

### **Eta inorri ilea moztu al zioten?**

Emen enuen nabaittu, purgatu...

### **Mehatxua?**

Bai, oixe, purgatu itten zutela jendia, “emakume” jendia eta abar, biño ez, emen etzan olako, nik ez nun nabaittu ezerre olakoik... nik emene ez nuen nabaitu ezerre.

### **Elizak zein jarrera izan zuen?**

Eliza? ba, beakin, mobimentuakin, Francokin.

### **Eta jaiak?**

A!, jayak pai, Lezon beti izan duk, zea, jayak iteko pronto eon duk Lezoko erriya beti, beti. Zeatikanen, naiz Santrakruzak, eta naiz Paskuak eta naiz Sanjuanak, denak zelebratzen ituken emen, denak itten ttuken.

## Nola?

Fiestak, fiestak, musika ta, geo... gu esaten genioken mertxeruak esaten genioken etortzen zianian puestuakin goyortan, Paskutanda, kantidadia jartzen ziteken, e. Ez pentzatu zea iru ta lau ta bost etortzen ziela, e, kantidadia, goiko plaza dena betetzen yuken, e, mertxeruakin, dena, gue osaba difuntua yuken, e, barrenderoa. Nere osaba difuntua ua yuken, barrendero zeon garayartan eta arek iten zizkiken tolduak eta jartzeko ta egurrakin ta txabola bezela, ola, giyak, ezta?, geo tolduak botatzen zizkiten feriantiak beak eta to!, krixton pilla... Goiko plaza dena bi alleketatik betia eoten yuken zea-kin, mertxeruakin, guk mertxerua esaten genioken, feriantiak ttuk, feriantiak, gaur feriantia esatentzayok, ez? Feriantioekin eta orduan ibiltzen yuken feriantioi, ez gaur bezela, zea, tela ta fruta ta gauzobek, orduan ibiltzen ttuken basarri kontuko zeak, erraminta kontua ta olakua dena, sega ta, bai, asko.

## Hori gerra aurrean ala ondoren?

Gerraurretik, gerraurretik, bai, gerran galdu in duk asko, miño orduan asko etortzen ttuken orrea Paskotako garayian, asko, e, miño jendia re bai. Ta Gurutze Santuana re bai jendepilla erra etortzen uan Naparroaldetikan eta ortikan etortzeuan asko onea, kantidadia. Emen, goizeko seyak, seiterdiyak ezkeo asten yuken Errenteiko biriortatikan barra-barra onea jendia ta eun guziyan emen ibiltzeyun jendia bueltan, biño kantidadia, e, etortzeuan kanpotik, e. Geo gazte batzuk etortzen ttuken zeatikanen, esan nai nin gaztiak etorko ttuken asko, biño gazte batzuk etortzen ttuken, ben taldia etortzen yuken onea soñua juez Lesaka aldiortatikan ta tortzen yuken onea, Iparraldetik e bai. Biño Lesaka aldekuoyek etortzeko Jaizkibelen barrena igual etortzen ttuken oyek oñez danak, kristonpilla. Bai, girua ona isaten yuken emen, girua oso ona, esango dit dela. Fiestak iten ttuken, eskudantzak eta oyek, naiz zarrak eta naiz gaztiak eta solteruak eta ezkonduak eta gaztioguak eta denak iten zitteken orduan emen garayartan, Sanjuanetako garayan ta suan bueltan ta. Ez, ez, fiestak onak, Lezo izan duk beti fiestatako pronto don erriya, bueno, ortan izugarriya izandu duk.

### **Eta gerraondoan?**

Eroi inttuken ya jayak, gutxiyo.

### **Zertan?**

Galdu, galdu, galdu, jendiare gutxiyo, jendiare gutxiyo, biño, ez, girua gutxiyo, jaya, jayabezela Santrakrutzetan ta Paskutan ta zerbatte, oandike zerbatte itten yuken miño, geota gutxiyo junyuken ori. Bera junyuken dena, kendu, kendu in ziteken, kendu o galdu, galdu, galdu in yuken inguruartan, gerra inguruartan, andik bera, oan atzea pixkat pixtua zioz piño.

### **Nolakoa zen Lezoko bizimodua gerra ondoko urteetan?**

Fabrikako kontuan, fabrika ta, gerraurretik bezela, gerraurretikan yuken fabriketan lana in ta geo sagardoteyak ttuken. Orduan emen tabernaik ez yuken iya, taberna au bezela, au yuken taberna bat bezela. Gaiñekuan Koperatiban e bai taberna bezela, biño dendakin, bai, ta Indionian e bai, taberna bai, biño dendakin. Ta Indioniak ziken geo, Indionia esaten ziou, biño oan Aizpean den oi, ostatuoi, ezta? Orrek ziken geo frontoya atzian, ta jendia orrea biltzen yuken, ta or ibiltzen yuken asko frontoyan. Emen e bai, goyan e bai, goiko frontoyan e, jende asko, gazte asko ibiltzen yuken orduan, gerraurretik eta ondorian e bai, ondorian... Goatzen nak ni Illarik e bai. An frontoyan zabilhela, dieciochojulioko garayartan, frontoyan zabilhela, Xaguak esan ziken: “Mekauen, reketiak, i,” “Non?” ta “Goyenetxeaño etorri ituk”, “Goyenetxeaño torri diela?” ta “mekauen la letxe, batonbat jarriko nuke or arboletik zintzilik nik” ta muittu zela ta kanpantorretikan nola aittu zieken tiroka. Karabinero zar batzuek ttuken emen, ben, karabina esaten genioken, olako fusil aundi batzuekin, ta eskutik ateata or joanta ibilli ttuken tiroka ta atzean joan ituken, amaika o battuken reketiak. Biño orreaño etorrita atzea joan ttuken, or Saratxola o baduk, papele-rako atzian, Oarso, Papelera Oarsoko atziortan. Lezoko basarriya dela usteit, Lezoko, pertenezitzenyola, Txaraxola... Errenteiko muga ortziok. Oarsoko atziortan, miño ua uste dit emengua dela eta or il ziteken reketiayek orduan ama iru semekin.

## Hil?

Il in zizkiteken bai, bayonetaz pasa, guk kanposantuan ikusi genizkin, bayonetaz pasa zuten. Batek zea ziken, ebilla, garayartan ibiltzen ttuken exurrezkuak inkurriñakin ta igual, bestia lauburuakin, an sartu..tteken batei. Ama, seme bat esan zitteken zaukala, orduan iru librako ogiyak izaten ttuken, ogiya españolanai, olakuai, iru librakua, olakua, bi ojetan, esan, bi oja doblatuak, ez? Ta bestiak gazta osua zula ta, etxetik aldein zutenak, ezta?, biño an bitartian arrapatu ta garbittu, guk kanposantuan ikusi genizkiken aik, laubak, ama iru semekin. Ta esaten zitteken beste semia zuela orduan Samarkon artillero, ta andik aittu ziela...

## 5.5.- INAZIO ESNAL (1920)

### Noiz etorri zinen Lezora?

Lezora apaiz joan nintzen ogeitasei urte nituela, 1946an, eta Lezon oso erri euskalduna topatu nuen. Elizan egiten ziren gauza geienak euskaraz egiten ziren. Bazen mutil talde bat elizara joaten zena, neska taldea ere bai, eta ori dena euskaraz egiten zen. Bikarioa, euskalduna zen bera, baino frankista tankerakoa, eta orrek ez zuen askorik egiten euskararen alde. Esaterako, elizan latinez egiten zuen asko, berak bazekien Lezon ezin zela erdaraz kantatu, ez zitzaion askorik gustatzen euskaraz egitea, eta orduan latinezko kantak sartzen zituen.

Gero, askatasun geixeago zegoenean, jendea taldetan biltzen asi zenean, Lezon Manuela Larreak bazuen ume talde txiki bat dotrina euskaraz ikasteko, eta ortik ez dotrina bakarrik, euskara erakusteko aria ere artu zuen. Orrela asi zen. Eta orduan, eskolako maisuak, euskararen kontrakoak denak, oso kontrakoak, eta esaten zuten Manuelak ez zuela eskubiderik taldetxo ori bildu eta maistra papera betetzeko. Inspekzioan salaketa jarri zuten eta ixteko agindua etorri zitzaion Manuelari.

Oso larriturik nigana etorri zen eta nik ardura andia nuela ikusi nuen, nik ez banuen ezer egiten ori galdu egingo zela, eta nik euskaldun

bezela, apaiz bezela eta gizon bezala, izkuntzaren eskubidea denok dugulako, eskua eman nion eta lagundu egin nion. Maisuen aurrez-aurre jarri nintzen. Apaiza aurrean ikusi zutenean atzera egin zuten, baina beti orrekin ari ziren zipoka, inspekzioa etortzen zen eta inspektoreak esaten zidan “esto hay que legalizar...”. Nik orduan, seminarioko estudioekin eta rebalida bat eginda maisu tituloa atera nuen. Titulo orrekin maisuek ezin zuten ezer esan eta orrela libertade pixka bat geixeago izan genuen. Orduan ni aalegindu nitzan jendea biltzen euskara bultzatzeko eta jendea berotzen asi zen. Elkarre txiki bat sortu genuen, paperak eskuratu eta orrela sortu zen leendabiziko direktiba. Lanean asi ginen. Ikastolarentzat leku ohea bear zela, izan ere, leenengo ikastola au kale nagusiko lokal batean zegoen. Irunen bazen enpresa bat etxolak egiten zituena, Markesanean (Lezo-Handia) terrenoa lortu genuen eta orduan aiuntamentuan izan genituen gure kontrarioak, ori aurrera joatea nai ez zutenak. Ori biñipin aurrera joan zen eta an sortu zen leendabiziko ikastola. Bi gela eder, eta batian egoten zen Agustina (Pontesta) eta bestean Berako andereño bat. Aiek faltatzen zirenean neroni egoten nintzen. Neroni urte betez ere egondu nintzen. Orrelaxe asi ginen. Ori izan zen funtsean ikastolaren sorrera..

### **Zein giro bizi zen herri mailan?**

Erritar batzuk ikastolaren oso aldekoak ziren, umeak bidaltzen zituzten eta ori da seinalea. Gero kezkek sortu ziren. Emen urte batzuk egin eta gero zer? Orduan sortu zen Lizeoaren mugimendua. Sanjuanen egitea pentsatu zuten eta Lezokoak ara joango zirela, orrek gurasoak animatu zituen. Eragozpen geiago ere izan genuen, lege aldetik ez genuen arrazoirik ori egiteko eta orduan eliz barruti osoan elizak artu zuen ikastola bere menpean, orrek erraztasun geiago eman zigun orretan lan egiteko. Ez dakit orren aurretik edo ondoren guardiazipilak etortzen ziren, inspektoreek guardiazipilak bidaltzen zituzten. Garai artan, jakiña, guardiazipila errespetuko eta beldurrezko gauza izaten zen. Agustinak niri deitzen zidan eta aiekin itz egiten nuen, zenbat aur zebiltzan eta abar. Urtero batzarrak egiten ziren, ori indartzen joan zen, gauzak egoitzen eta orduan ni ona etorri nintzen, 1974an.

### **Zergatik erabaki zenuten ikastola sortzea une hartan?**

Ikastolen mugimendua asia zelako. Eta ni garai artan Errenteriko ikastolakoekin biltzen nintzen, Antxoko ikastolakoekin, eta aiek ikastola sortuko zutela esaten zuten. Guk orrela jokatu bear genuela ikusten genuen, ez Lezokoarekin bakarrik, beste ikastolekin batera baizik. Gero, Donostira ere etortzen ginen batzarretara eta gu mugimendu orretan sartu ginen.

### **Eta Allerruren sorreran parte hartu al zenuen?**

Bai, Allerrukoak lagunak nituen eta lagundu egin nituen. Gipuzkoan ez zegoen Francoren kontrako usaina zuen ezer egiterik. Bazegoen, ordea, kirol elkarteak sortzeko aukera eta ortik Euskadiren aldeko lana egin, ori disimulo bat bezela izan zen. Alde orreatik erriko gazteek ikusten zuten beste errietan Ereintza eta sortu zirela Errenterian eta beste errietan, orduan sortu zen Allerru. Askatasun pixka bat arnasteko leku bat sortu nai zen, garai artan dena oso lotuta eta galerazita baitzegoen.

### **Elizak kantagintza eta antzerkiaren inguruan zein lan egin zuen?**

Gogoratzen naiz nola neroni joan nintzen Diputaziora Jose Artetxe liburutegiko arduradunari euskarazko antzerki batzuk eskatzera eta berak eman zizkidan. Eta orrela asi ginen lanean. Jendea oso gustora etortzen zen, euskarazkoa izatea naikoa jendea biltzeko. Egarria, gosea sentitzen zen euskaraz zer bait egitean. Eta goseak dagoenak, jakina, jan egiten du. Ez genuen ezer berezirik egiten baina jendea izugarri gustora ateratzen zen euskara entzuteak ematen zion pozarrekin. Ez antzerkia bakarrik, baita zinea ere. Orduan euskarazko zinea oso gauza bitxia zen, Manoli Larreak egiten zuen umeentzako zinea. Oso gauza xinpleak ziren, izan ere, euskaraz entzuteak bakarrik, izugarrizko poza sortzen zuen eta jendea animatu egiten zen orrekin. Euskal nortasunaren esnatze izugarri izan zen orduan, dena lur jota zegoen, lotan, eta alako batean esnatze bat izan zen euskara kontuan.

### **Zuek horrekin jabetzen al zineten?**

Jakina, eta ni euskaldun bezela izugarri pozten nintzen, neronek ere egarri eta gose izugarria sentitzen nuen eta nabaritzen nuen zer egin bear nuen, “euskalduna naizelako” eta “izan nai dudalako”, “naizen ori izan nai dudalako”. Aurrean kontrarioak izateak indar geiago ematen zigun. Eskolako maisuen jarrerak ni poztu egiten ninduen. (...) Jendearentzat leio bat ireki zen, ordura arte denak itxita ematen zuen, “emen ez zegok ezer egiterik”, “au dena galdua zagok”... eta orduan ikusi zuen jendeak, “egia, ez da dena galdua”. Leioak ireki egin ziren, argitasun berriak sortu eta ortik asi zen jendearen bizkortze ori.

### **Eta kantuarekin?**

Ni kantuan neska talde batekin asi nintzen, eguberritan asi ginen, erderazko abestiak izaten ziren, baita euskarazkoak ere. Korua ongi prestatua zegoen eta basarri-basarri ibiltzen ziren. Poza ematen zuen, izugarrizko poztasuna sortu zuen. Zuek ez zarete konturatzen zenbateraino zegoen ila euskara orduan. Ez Lezon bakarrik, Euskal erri osoan. Koroa indartzen joan zen. Hipolito Gezala erriko organista il zenean, nik organorako zaletasuna banuen, or sartu eta koruko buru jarri nintzen. Ume talde bat ere etortzen zen solfeoa ikastera eta urte askotan solfeoa irakatsi nien Lezoko neska-mutil askori, dena euskaraz egiten genuen.

### **Elizako gazte mugimenduak zein hizkuntza erabiltzen zuen?**

Mutilen artean, Don Ramonen esku zegoenez, kantuan eta dena euskaraz egiten zen, gazteen mugimendu osoa euskalduna zen, oso-osorik. San Luisen festak, San Juan suak, euskal jokoa... dena euskaraz egiten zen.

### **Nolako herria topatu zenuen Lezon?**

Kultura aldetik oso beartsu, ez zegoen egiterik ere, beldurpean eta aal bezala aurrera ateratzen. Kultura aldetik ila, ikastera joaterik ere ez zegoen, batxilerra egiten edo unibertsitatean ari zirenak kontatuak ziren. Gazteenak asi ziren kultura eza orretatik ateratzen.



## 6. ETORKIZUNEKO IKERKETA BIDEAK

Esku artean duzun lan honek izan ditzakeen hutsunez gain, ikerketa hau egiteak etorkizunean sakondu beharreko gaiak zein diren ikusten lagunduko duelakoan gaude. Izan ere, hain izan da aberatsa euskararen historia soziala Lezon, bada hemen egin duguna baino sakonago jorratu beharreko hamaika gai. Hauei buruzko informazioa, bestalde, kasu gehienetan ez dago idatziz jarria eta ahozko iturrietara jo beharra dago, protagonistekin zuzenean hitz egin... Denbora, ordea, kontra dugu. Memoriaren hutsune geroz eta handiagoek eta heriotzak gure herriaren historiaren garai oso bat ezaba dezakete denbora gutxian, eta ahal izanez gero hori ekidin beharko genuke. Hona hemen jorratzea biziki interesgarria izan daitekeen zenbait gai:

- \* Gerraurreko antzerkia Lezon eta Lezoko Euzko Batzokiko antzerkiaren historia.
- \* Gerraurreko eta Frankismo garaiko EAJ-PNVko kideen ekarpena euskararen historia sozialari.
- \* Hezkuntzaren historia Lezon (XVII. mendetik hasi eta Lezon egon izan diren hezkuntz proiektu desberdinen historia, bai eta lezoarrek, Lezotik kanpora bada ere, jaso izan duten heziketa).
- \* Emigrazio eta Inmigrazioaren historia, demografia eta bila-kaera ekonomikoa XX. mendean Lezon.
- \* Antonio Pildain eta bere jarrera politikoa. Batez ere euskara eta Euskal Herriari dagokionez.
- \* Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen historia Lezon (Miren Gezalarengandik hasita Oroitzene AEK Euskaltegia bitartean).
- \* Hezkuntza ez-formalaren historia (kirola, erlijioa, aisialdia musikarekin loturiko ihardueren historia).
- \* Lezoko Elkarteen historia XX. mendean. Egon diren elkarteak eta hauek egindako ekarpena Lezoko gizarte bizitzari eta euskararen historia sozialari.

- \* Allerru elkartearen sorrera eta bilakaera.
- \* Lezoko udalaren hizkuntz politika XX. mendean. Zer nola jokatu izan duten udalak eta udal agintariek hizkuntzari dagokionez.
- \* Lezoko alderdi politikoaren hizkuntz politika XX. mendean. Zein izan den alderdien eta hauen ordezkarien jokabidea hizkuntzari dagokionez.
- \* Euskarazko kantua gerraurrean eta frankismo garaian.
- \* EAB eta bere kideen ekarpena Lezoko abertzaletasun eta euskararen historia sozialari.
- \* Dantzaren historia Lezon.
- \* Frankismoaren aurreko kultur dinamika Lezon.
- \* Lezoko euskarazko idazleak, batez ere gerraurrean eta frankismo garaian prentsan idatzi zutenak.
- \* Karlismoa eta liberalismoa Lezon.
- \* Elizaren eragina euskaren historia sozialean XX. mendean (Elizaren babesean nahiz gizarte mailan izandakoa).
- \* Ezker abertzalearen sorrera eta eragina Lezoko euskararen historia sozialean.
- \* Lezoko populazioaren mugikortasunaren historia. (Itsas merkataritzaren garaietatik hasi eta gaur egun arte).



## BIBLIOGRAFIA

**Agirre Sorondo, A. (1989)**

“Evolución demográfica de Lezo”.

*Lezo* aldizkariaren 3. alea. 11-13. or.

**Agirretxe, Esnaola. (1994)**

*Euskara Lezon*. Lezoko Udala.

**Altadill, J. (1918)**

Geografía del País Vasco-Navarro.

**Añibarro.**

*Catálogo de los pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra.*

Ikus erreferentzia zehatza: Gran Enciclopedia de la Literatura Vasca, Auñamendi (1960) 1. Liburukia, 44-60 or.

**Aurkenerena, J. (1992)**

“*Balearen arrantza, Lope Martinez Isasti eta Joanes Lezoko*”.

*Lezo* aldizkariaren 13. alean. 11-22. or

**Chil Estevez, A. (1989)**

“Pildain, un vasco de cuerpo entero. Lezo, patria y cuna.”.

*Lezo* aldizkariaren 3. alean. 5-8 orrialdeak.

*Lezo* herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa. **Argitaragabea.**

**Dembowski, C. (1840)**

“*Dos años en España y Portugal durante la guerra civil. 1838-1840*”

Espasa Calpe, S.A.

**Fishman, J. (1971)**

*Sociolinguistics: A brief introduction*. Rowley: Newbury House.

**Fishman, J. (1988)**

“Language Spread and Language Policy for Endangered Languages” in Howenberg, Peter H. (ed.) (1988): *Language Spread and Language Policy*. Georgetown University Press. Washinton D.C. edo *JAKIN* 48: “Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika”.

**Gabarain Aranguren, M. Teresa (1994)**

*Lehen liberalismoa Oiartzun haranean*. Oiartzungo Udala.

**Intxausti, J. (1990)**

*Euskara, Euskaldunon Hizkuntza*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.

**Jausoro, N., Martínez de Luna, I., Davila, A. (1995)**

“Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak”.

*BAT* aldizkaria 27. alea.

**Jausoro, N., Martínez de Luna, I. (1995)**

“Etorkizuna aurreikusten: Euskal Autonomi Elkarteko gaztetxoan egoera soziolinguistikoa”. Hizkuntz Politikarako Sailordetza (1995), *Euskara atzo eta gaur*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza (CD-ROM)

**Jimenez de Aberasturi (1996)**

*Historia de Renteria*. Errenteria. Errenteriako udala.

**Jimeno Jurio (1997)**

*Navarra, historia del euskera*. Tafalla. Txalaparta arg.

**Lorenzo Espinosa, J.M. (1996)**

*Historia de Euskal Herria*. El nacimiento de una nación.

III. Liburukia. Tafalla, Txalaparta.

**Leandro Silvan (1970)**

*Lezo*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.

**Mackey, W.F. (1976)**

*Bilinguisme et contact des langues*. Klincksiek.

**Martínez de Isasti, L. (1625)**

*Compendio Historial de la Provincia de Guipuzcoa*, in *Cosas Memorables de Guipúzcoa*. *Gran Enciclopedia Vasca*.

**Odriozola, J.M. (1998)**

*Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbao. Euskaltzaindia-BBK Fundazioa.

**Reizabal, González-Amezúa, González (1987)**

*Pasajes, un Puerto una Historia*. Junta del Puerto de Pasajes. MOPU.

**Rodriguez, F (1996)**

*Ikastolak eta euskal eskolak.* Hernani, Egin biblioteka.

**Rodriguez, J.A. (1991)**

*Guipuzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.*

Gipuzkoako Kutxa.

**Sanchez Carrión, J.M. “Txepetx” (1990)**

*Un futuro para nuestro pasado.*

**Torrealdai (1998)**

*El libro negro del euskera.* Donostia, Ttarttalo.

**Urkizu, P., Intxaurrendieta, P. (1991)**

*Garbizu Anaiak,* Lezoko Udala.

**Urkizu, P. (1975)**

*Euskal teatroaren historia.*

**Velasco, N. (1879)**

*Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya.* Barcelona.

**Victor Hugo (1843)**

*Los Pirineos.* Pasaia Lizeoak argitaraturiko (1997) *Victor Hugoren Jaizkibel* iturritzat hartuta.

**Zenbait egile (1993)**

*Euskadi y la libertad.* Tafalla, Txalaparta Argitaletxea. 5. liburukia. 170. or.

**Zenbait egile (1994)**

*Lezoko gida, natura eta giza lorratza.* **Lezoko Udala**

**Zurutuza, L. (1998)**

“Lezoandiko Jaunaren hilketa”. *Lezo aldizkaria*, 18.alea. 13-17 or.

**Zurutuza, L. (1991)**

“Salteador de caminos en Gaintxurizketa”. *Lezo aldizkaria*, 6. alea. 30. or.

**Zurutuza, L. (1985).**

“Frantsesak, briganteak eta Placido de Urrestarazuren mozkorraldia”.

Aske 1. alea,. 7. or.





# IZENDEGIA

## - A -

ABERASTURI, JIMENEZ DE: 84  
 AEK: 192-193-198-208-209-210-211-  
 212-215-217-218-219-228-282  
 AGIRRE SORONDO, A.: 53-55  
 AGRAMONTENE: 56  
 ALBERDI, MARTIN: 125-138  
 ALBERDI, MATEO: 146  
 ALBRET, JOANA: 42  
 ALCAYAGA, JUAN: 48-49-58  
 ALCAYAGA, MIGUEL: 48-49-58  
 ALFONSO I.: 47-61  
 ALFONSOXIII: 77  
 ALLERRU: 88-145-150-154-156-170-172-  
 173-174-212-245-283  
 ALZUA, MICAELA: 60  
 AMANCIO PANIEGO: 178  
 ANAITASUNA: 110-115  
 ANTONIO MADARIAGA, JOSE: 112  
 ARISTI-BERRI: 88  
 ANTUNEZ, SIMEON: 90-92-93-94-97-98-  
 100-103-109-120  
 ANTXXO GARTZES: 47  
 AÑIBARRO: 63  
 APAICIARZA: 49-58  
 APERRIBAI, J.L.: 146-206-247  
 ARANA GOIRI, SABINO: 72

ARANBURU, MARTIN JOSE: 60  
 ARANBURU, RAMON: 60  
 ARANJUELO, LUIS: 177  
 ARGIA: 116-117-238-260-266  
 ARIZABALO, JUAN ANTONIO: 47-63  
 ARPIDE, RAFAELA: 60-97  
 ARRIAGA, FELIX: 138-262  
 ARRIAGA, MADDI: 125  
 ARRIAGA, PATXI: 89-258  
 ARRIETA, JABI: 207-  
 ARRIZABALAGA, MIKEL: 218-  
 ARTESORO, INAXIO "ZIKIRUA": 116-150-  
 152-260  
 ARTOLA, INAXIO: 86-88-89-93-102-105-  
 110-112-113-116-120-122-159-176-  
 252-264  
 ARTZE, JOXEAN: 157  
 ASASA: 89  
 ASKASIBAR, T.: 136-177  
 ASKE ALDIZKARIA: 64-101-112-212-224  
 AURKENERENA, J.: 66  
 AZCUE ICUZA, ANTONIO: 113  
 AZKONOBIA, R.: 145-147-149-160

## - B -

BANDRÉS, LUIS MARI: 208  
 BARANDIARAN, J.M.: 81-107

BARRIOLA, I.M.: 254  
 BARRIOS, P.: 98-109-112-113-171-178  
 BASARRI: 132  
 BEAIN, MARIA EUSTAQUIA: 97  
 BERASARTE, J.: 125-137-142-255-274  
 BERASARTE, JULIAN: 161  
 BERASARTE, MIREN: 157  
 BERASATEGI, ANTONIO: 60-97-102  
 BIXI-BIXI: 111-244  
 BIZCAIARENA: 49-58  
 BLAS DE ALZA Y USCARRES: 63  
 BROSTE BERRONDO, A.: 102  
 BUESA, FERNANDO: 184  
 BVE: 185

### - C -

CADENA Y ELETA, JOSE: 82-  
 CARLOS V.: 48-52-66-67-183  
 CARRIL Y LETAMENDIA, FERNANDO: 112  
 CHIL ESTEVEZ, A.: 108  
 CORDERO, BIXENTE: 125  
 CORDERO, MIKEL: 165  
 COROMINES, JOAN: 32

### - D -

DARIETA: 48-49-58  
 DEMBOWSKI, CARLOS: 46  
 DIAGO, JOSE: 155-177  
 DOMINGO DE LEZO: 49  
 DON DOROTEO: 149-162-167  
 DON EUSEBIO: 146-178  
 DON INAZIO: 259-560  
 DON LUIS GARMENDIA: 90-270  
 DON MATEO ALBERDI: 164

DON PEDRO BARRIOS: 261  
 DON TIBURCIO SARASOLA PAGOLA: 272

### - E -

EA: 185-197-212-214  
 EAB: 87-162-180-243-283  
 EAE: 187-188-189-190-191-193-194  
 EAJ-PNV: 72-78-82-86-87-108-118-129-  
 143-172-173-174-184-185-193-197-  
 212-214-218-243-282  
 ECHARRI, CASIMIRA: 97  
 EGUREN, J.M.: 81  
 EE: 129-185-212-215-218-243  
 EGIN: 81-183-212-224  
 EHE: 78-192-219-228-  
 EL DIARIO VASCO: 224  
 EMK: 167-196-197-215-218  
 ERRAZU, DOMINGO M<sup>a</sup>.: 57-59-232-239  
 ERZIBENGOA, EUSEBIO: 177  
 ESNAL, INAZIO: 144-145-148-149-150-  
 151-154-155-162-164-169-176-247-  
 252-277  
 ESNAOLA, BEGOÑA: 144-180  
 ESNAOLA, DOROTEO: 145-161-167  
 ESNAOLA, JOSEBA: 162  
 ESNAOLA, JOXE: 259  
 ESNAOLA, LURDES: 206  
 ETA (M): 88-129-133-134-139-157-158-  
 159-166-167-173-174-184-185  
 ETXAIDE, JON: 132  
 ETXAMENDI ETA LARRALDE: 157  
 ETXEBERRI, JOANNES: 42  
 ETXEZURIETA, K.: 67-160-176-179  
 EUE: 212

**- F -**

FISHMAN, J.: 21-22  
FRAGA, MANUEL: 135

**- G -**

GABARAIN ARANGUREN, M. TERESA: 61  
GAINZA, FRANCISCO: 49  
GAL: 185  
GANE: 185  
GARAIKOETXEA, CARLOS: 183  
GARBIZU ANAIK: 108-116-118  
GARBIZU, PELLO: 145-146-148-157-158-169-170-208-215  
GARBIZU, TOMAS: 101-112-204  
GARIBAY: 65  
GARMENDIA, EUSEBIO: 89-94-98-100-102-103-118-136-144  
GARMENDIA, LUIS: 100-118-136-144  
GARMENDIA, M<sup>a</sup> PILAR: 169  
GARMENDIA, MELINTON: 86-89-92-136-138-159-252-268  
GEZALA, ELIXABETE: 105-125-153-254  
GEZALA, F.: 86-102-107-108-114  
GEZALA, HIPOLITO: 148-280  
GEZALA, JOSE: 97-98-273  
GEZALA, KOLDOBIKE: 105-125-257  
GEZALA, LUIS: 86-137  
GEZALA, LUKE : 105-125-163-257  
GEZALA, MIREN: 85-86-88-89-96-97-100-102-104-105-107-114-120-122-123-124-125-137-149-153-154-240-247-252-253-258-282  
GEZALA, POLENTZI: 105-125-137-141-151-257

GEZALA, REGINO: 89-98-114-115-243  
GEZALA, XEXILIO: 86-107  
GOIA, JOKIN: 169  
GONZALEZ, FELIPE: 187  
GOÑI, M<sup>a</sup> KARMEN: 164  
GURASO ELKARTEA: 175-199-200-212-240-245  
GURE BORDA: 110-115-121-245  
GURUCETA, JOAQUIN: 64

**- H -**

HABE: 188  
HAURTXO HAUR ESKOLA: 202  
HB: 185-197-212-215-218  
HERRI ESKOLA: 198-199-200-203-228-240  
HUERTAS, FEDERICO: 160  
HUERTAS, MANUEL: 160  
HUGO, VICTOR: 30-55

**- I -**

IGARZABAL, VICTORIANA: 97  
INTXAURRANDIETA, FERNANDO: 137-258  
INTXAURRANDIETA, INAXIO: 141  
INTXAURRANDIETA, JOXE: 137-258  
INTXAURRANDIETA, PATXI: 103-148  
INTXAUSPE, MIKEL: 207  
INTXAUSTI, JOSEBA: 38-39-40-116-131  
IRIONDO, LOURDES: 132  
IRURETAGOiena, J.I.: 184  
ISASA, AKILINA: 107  
ISASTI, LOPE: 65-106-109  
ISASTI, ONOFRE: 48-52-67  
ITURAIN, MIGUEL DE: 49  
IZAGIRRE, KOLDO: 208

IZETA, FELIX: 114

IZETA, JOXE: 178-262

IZULAIN, RAFAEL: 163-177

## - J -

JAUSORO, N.: 227

JIMENO JURIO, J.M.: 33-34-41-56-58-63-80

JOC: 152-154-172-211

## - K -

KARDABERAZ: 42

KEREJETA, MARTIN: 150

KOJUA, I.: 255

KOLDO MITXELENA INSTITUTUAN: 200

KORTA, MANUELA: 163

KORTA, M<sup>a</sup> TERESA: 169

## - L -

*LA CONSTANCIA*: 117- 261

LABEGUERIE, MIXEL: 132

LAGUN-ONAK: 111

LAIA: 185

*LANDEIA*: 173

LARREA, MANOLI: 145-254

LARREA, MANUELA: 162-163-164-165-  
202-240-277-279

LARREA, P.: 148-151-152-153-154-206

LARREA, MERTXE: 172-201

LAZON, GUILLERMO: 45-48-55-58

LEGORBURU, FERNANDO: 121

LEIZAOLA, J. M.: 87

LEKUONA, MANUEL: 75-81-107-118-119

LEKUONA, MARTIN: 118-119

LEKUONA, PILAR: 116-118

LETE, XABIER: 132-157

LEZOKO EUZKO BATZOKIA: 119-125

LIZARAZU, AGUSTINA: 94-95-96-120-162-  
202-240-258-267

LIZARAZU, FRANCISCO: 97

LOFO CHICOTE, JESUSA: 97

LOIDI, JUAN ANTONIO: 60

LOPEZ OLIVER, DOLORES: 97

LORENZO ESPINOSA, J.M.: 128

LUZURIAGA: 196

## - M -

MACKAY, W.F. : 16-17-18-19-234

MANCIA DE REMENTARI: 49-58-

MARIA BARRIOLA, IÑAKI: 254

MARTINDEGUI: 49-58

MARTINEZ DE ISASTI, L.: 65-66

MARTINEZ ISASTI, LOPE: 48-52-59-65-66

MARTINEZ, VISITACIÓN: 97

MECOLALDE, CAMILO: 118

MENDIA, PEDRO JOSEPH DE: 64

MENÉNDEZ PIDAL: 32

MICHELCORENA: 49-58

MITXELENA, PILLARE: 172-177

MUÑOA, J.M.: 146

MURU, GUILLERMO: 61

MURUDIARETA: 49-58

## - N -

NAFARCHE: 49-59

NEBRIJA: 42

NIESSEN: 196

**- O -**

OCHOA, EUGENIO: 49-60-243  
 ODRIOZOLA, JOXE MANUEL: 20-166-208  
 OIARTZABAL, JOAKIN: 207  
 OIHENART: 42  
 OLAIZOLA, JUAN LUIS: 159-161-201  
 OLAIZOLA, MANUEL MARI: 169  
 OLASAGASTI, INAXIO: 125  
 OLASAGASTI, MARIA: 125  
 OLMO, LUIS DEL: 183  
 ORBEGOZO: 45-196-264  
 ORMAETXEA, NIKOLAS "ORIXE": 103  
 OTEGUI, FIDEL: 97-114  
 OYANILLETA: 49-59

**- P -**

PAMIÉS, FILOMENA: 97  
 PAPELERA (ESPAÑOLA): 91-94-196  
 PIKABEA, ANTONIO: 150-152  
 PIKABEA, FERMIN: 125  
 PIKABEA, INAXIO: 90-270  
 PIKABEA, NIKOMEDES ETA LUIS: 92-100  
 PILDAIN, ANTONIO: 90-100-106-107-108-  
 145-248-282  
 PONTSTA, AGUSTINA: 143-157-164-174-  
 179-180-208-278  
 PRESENTACIÓN BARANDIARAN, JOSEBA: 55  
 PRIMO DE RIVERA: 72-89-98-106-115-  
 122-257-266  
 PSE-PSOE: 74-160-193-197-212-214-  
 215-216-218-219-243  
 PUENTE, M.: 137

**- R -**

RECALDE, VENANCIO: 113  
 RODRIGUEZ J.A.: 86  
 RODRIGUEZ, F.: 81  
 ROMANONES KONTEA: 77

**- S -**

SALABERRIA, M.: 113-162-163-178-179-180  
 SALABERRIA, BEGOÑA: 169  
 SALABERRIA, ELIAS: 86-100-104-107-108  
 SALABERRIA, JESUS M.: 169  
 SALABERRIA, MARITXU: 125  
 SALABERRIA, PATXIKU: 177  
 SALABERRIA, REGINO: 177  
 SALABERRIA, RIKARDO: 125-273  
 SALABERRIA, XENON: 137  
 SALDISE, KARLOS: 196  
 SANCHEZ CARRIÓN J.M. "TXEPETX": 21  
 SANTOS, LUIS: 161  
 SARASOLA, JUAN JOX "LEXO": 121  
 SARASOLA, MAITE: 157  
 SARASOLA, XABIER: 207  
 SARASTI: 49-59  
 SEIN, SEBASTIAN: 114-262  
 SILVAN, LEANDRO: 58-59  
 SOV/ELA: 72-86-87-137-172-173-184-  
 252-267

**- T -**

TOLEDO, JOXE MANUEL: 158  
 TOLEDO, MANUELA: 143  
 TOLOSA, IÑAKI: 155-157  
 TORREALDAI, J.M.: 37-69-83-123-127-131  
 TOVAR, ANTONIO: 32

TRABUDUA: 87  
 TREKU, IÑAKE: 165  
 TREKU, J.L.: 157-169  
 TREKU, JOXE MARI: 169  
 TREKU, JOXE MIGEL: 86-88-89-93-102-105-  
 111-112-114-116-120-122-123-149-162-  
 164-172-173-178-247-255-257  
 TREKU, ROSA MARI: 169  
 TREZET: 56  
 TXIKI ETA OTAEGI: 175

**- U -**

UEU: 193-217  
 UGALDE, JOXE JUAN: 207  
 UGARTE, GERMAN DE: 49  
 UNANUE, R.: 178  
 UNED: 189  
 UPNA: 189  
 UPV-EHU: 189  
 URCELAY:87  
 URKIZU, BOÑI: 142-145-146-150-151-  
 160-180-248  
 URKIZU, JOAKIN: 162  
 URKIZU, JOSEBA: 156-158-162-163-164-  
 174-175-260  
 URKIZU, JUANI: 161  
 URKIZU, PATRIZIO: 86-103-116-137-148-  
 161-215-217  
 URRETABIZKAIA, GOTZON: 154  
 UZTAPIDE: 132

**-V -**

VALLEJO, FELIX: 97  
 VELASCO, N.: 44-55-79

VILLAVICIOSA, ESTEBAN: 61  
 VILLAVICIOSA, FORTUNATO DE: 47  
 VILLET, LAMBERTO: 61  
 VIZCAYA, PEDRO DE: 47

**- Y -**

YARZA: 49-58  
 YEROBI, JUAN NUÑEZ DE: 49  
 YRIARTE, SIMON DE: 63

**- Z -**

ZABALETA, JUAN JOXE: 121  
 ZAMORA, JAIMES DE: 49  
 ZAPIRAIN, ANASTASIO: 108-109-116-117-  
 118-120-137  
 ZAPIRAIN, ENKARNAXION: 104-109-119  
 ZAPIRAIN, MARIA: 90-93-94-95-97-101  
 ZAPIRAIN, RAMON: 158-169  
 ZEBERIO, ARANTZA: 218  
 ZIPITRIA, ELBIRA: 96-118-134-254  
 ZIPITRIAK, IÑAKI: 218  
 ZULOAGA, IÑAKI: 105-162-169  
 ZULOAGA, XABIER: 169-  
 ZULOAGA, XABIN: 105-169  
 ZURUTUZA, LANDER: 45-49-54-61-62-63-  
 64-68-84-180